

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXVIII (2. aldia)  
(1983)-1  
28  
BILBO

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
**EUSKALTZAINDIA**  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ISSN. **Euskera** 0210-1564  
ISBN. 85479  
Dep. Leg.: BI-1287-83  
A. G. Elkar, S. Coop.  
Autonomía, 71 - Bilbao-12

**A. SEBASTIAN MENDIBURUREN II.  
MENDEURRENA**



## SEBASTIAN MENDIBURUREN II. MENDEURRENA

*Oiartzun, 1982-VII-17*

*Iñaki Irigoien, herriko Alkate jauna*

Euskaltzain ospetsu,  
Aita Mendibururen Bigarren Mendeurrenaren antolatzaile,  
Oiartzuar eta gainerako emen bildu zeraten guztioi,  
nere ongi-etorri eta biotzeko agurrik beroena.

Eta ongi-etorri eta agur auekin batera baita ere nere eta Oiartzungo erri osoaren izenean gure eskerrik beroena zuen Uztaileko lanerako erri au aukeratu duzuelako. Eskerrik asko berriz ere eta gure euskara eta gure erriarentzat zuen gaurko eta betiko lanak probetxugarri izan ditezela. Zuen jardunaldi onek bereziki gure Oiartzungo erri au suspertu dezala. Ain ondaturik eta gutxiagoturik arkitzen dugun euskara au landutzeko eta mintzatzeko bultzazile bizkor gerta dezaigula.

Zuen bultzada bear bearrezkoa eta nai ta naiezkoa dugu. Gaur egun, zoritxarrez, gure ume eta gaztetxoek beren kaleko jolasetan eta ibillialdietan ez digute euskararik erabiltzen: etxerako eta ikastolarako bestetarako ez dute.

Or daukagu, erriaren sarreran, Rafael Pikabeak, Oiartzungo seme argi eta jakintsuak eraiki zigun Aita Mendibururen gizairudi edo estatua. Iñundikan ere Rafael Pikabea jaun ospetsu arek oroigarri au jasoerazi bazuen, Aita Mendiburuk *euskaraz* egin zuen lanagaitik izan zen. Gaur, kaleetan erdera gaiendurik entzungo ba-lu, eginaraziko ote zukeen? Ez nintzake baieztera ausartuko!...

Egia, gurea da egiteko au; gure errian euskara salbatzeko eginkizuna Oiartzunen bizi geranok dugu; euskara-zaletasun eta, batez ere, mintzatzeko oitura gure umeetan guk ezarri bear dugu. Bainan zuen argi-bideak, zuen bultzadak bear ditugu. Gaurko zuen ekinaldi au eztenkada eragikor bat izan dakigula!... Onela izango delako uste osoan... berriz ere, eskerrik asko.

Baita ere eskertu nai nituzke egun auetan elizako itzaldietan Aita Mendiburutaz ainbeste berri eman dizkiguten Juan Mari Lekuona eta Iñaki Arbelaitz jaunak: Aita Mendiburu izan zela ba-genekien, baina ain gutxi bere bizi-tza eta egintzetaz!... Aita Patxi Altuna euskaltzain agurgarriak eta Aita Doro-

teo Esnaolak ere (eta bigarren oni bere gaxotasunetik lenbaitleen sendatzea opa diogu) gure Aita Mendiburutaz ikerketa-lan sakonak eginak omen dituzte... onartuak izango direlako segurantzian ongi-etorriak izan ditezela lan auek!

Eskerrik, asko baita ere, Aita Mendibururen Bigarren Mendeurrena goratzeko gure artean izan ditugun guztiei: Korpus egunez umeen jaialdian parte artu zuten guztiei, Oñatiko Abesbatzari, gure erritar organu-jole guztiz ospetsu eta trebe Joxe Manuel Azkue jaunari, xirulari yayo Begoña Agirreri, denei... Eta, zer esanik ez, batez ere, gau eta egun lanean jardun duten Bartzordeko denei eta bakoitzari. Eskerrik asko!

Eta besterik gabe, Euskaltzain agurgarriok, zuei entzuteko ixiltzera noa. Zuek duzute itza.

## AITA MENDIBURUREN II. MENDEURRENA

*Oiartzun, 1982-VII-17*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren agurra**

Xabier Aizarna Gipuzkoako Diputadu Nagusi jauna  
Iñaki Irigoien, Oiartzungo Alkate jaun agurgarria  
Aita Plazaola Jesuiten Loiolako Probintziaren Nagusia

Euskaltzainkideak.

Oiartzuarrak.

Ospakizun honetara hainbeste tokitatik etorri zareten Jaun-Andreak:

Arratsalde on denoi!

Hasteko, eta beste ezer baino lehen, eskerrak zuri, Oiartzungo alkate jaun horri, eskerrak Oiartzungo Udalari eta Oiartzungo herriari, Euskaltzaindiari egin diozuten gomita eta harrera ezin hobeagatik.

Bai. Euskaltzaindia Oiartzunera deitua izan da. Aita Sebastian Mendi-  
bururen omenezko ospakizunetan parte har dezan deitua. Guztiok dakigunez,  
hura hil zela berrehun urte oraintxe dira pasiak. Lehen mendeurrena ere han-  
dikiro ospatu zela badakigu, orain ehun urteko *Euskal-Erria* aldizkariari  
esker.

Euskaltzaindia, deitzen zaionean eta ahal duenean, pozik etorri ohi da  
ospakizun hauetara. Zer xedez edo asmoz, esan beharrik ez dago: euskal kez-  
ka edo arrangura gure herrietan pizteko, edo pizturik baldin bada, indarber-  
ritzeko.

Izan ere, euskararen ardura hartzeko sortua izan zen Euskaltzaindia, eta  
gaur ere horretan dago. Eta horretarako —eta besteak beste—, nekez aurki  
daiteke bide hoberik, hots, joan-denboretan euskara lantzen gailendu zirenen  
izenak eta lanak gogoratzea bezalakorik.

Nortasun handiko herria Oiartzun. Euskalkiz nafarra, baina Gipuzkoako  
zati bilakatua. Erromatarren denboratik sona handikoa.

Euskal idazle, hizlari, predikari, kantari, olerkari eta bertsolarien sehaska eta sorleku izan dugu eta dugu Oiartzun. Frantziskotar naizen aldetik, ezin ahantz nezake Aita Jose Kruz Etxeberria, Zarauzko Kolejioko Mixiolari eta euskal idazlea. Eta geroztik hor dira Lexoti, Lizaso eta Mitxelena bertsolariak, Lete kantaria eta olerkaria, Lekuona zaharra eta gaztea, Aialde, Berrondo... Bat baino gehiago, eta beharbada anitz, oharkabez edo ezjakinez aipatu gabe utziko nituen: barka.

Baina denetan famatuena Aita Mendiburu, noski. Ez naiz hasiko haren bizitze eta lanak kontatzen. Dakizutenez, hemendik urrun hil zen, Italiako desterruan, Karlos III.ak jesuitak Espainiatik kanpora egotzi zituelako.

Lan izugarri handia burutu zuen Aita Mendiburuk euskaraz. Bere bizi-denboran argitaratu zituenak ez dira hutsaren pareko; baina argitara gabekorik ere utzi zigun, eta horietarik zenbaitek geroago ikusi dute argia, eta, azkenik, beste zenbait orain Aita Altunak lehen aldiz atera ditu kalera. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot berari. "Euskararen Lekukoak" bilduma zenbaki berri batekin aberastu digu Aita Altunak, eta, hain zuzen, gaur ospaketa honetan egiten da obra berri honen aurkezpena.

Toki guztiz berezia eta apartekoa zor zaio, eta hala aitortu ere zaio beti Aita Mendibururi euskal literaturan. Gure idazle zaharrenganako halako hoztasun eta gutieste bat zabaltzen hasi zenean, salbuespena egiten zen oraino Mendibururekin. Eta ez alferrik. Egokitasunak, garbitasunak eta euskararen baitako legeen begiratzeak hain harrigarriro eta maila nabarian distiratzen dute Aita Mendibururen obretan! Bai hiztegian, bai morfologian eta bai joseran ere egiazko maisu agertzen zaigu beti. Aurretik Aita Larramendik bidea erraztu eta zerbait lagundu ziola, hori ere ezin uka; baina ez gehiegi, zeren Larramendik euskarari buruz idatzi zuen gehiena erdaraz idatzi baitzuen. Dena dela, adiskide handiak ziren biak, nahiz eta hizkuntzaz kanpoko zenbait gauzatan beti bat ez etorri; adibidez, euskal dantzei buruzko erizpidean.

Baina gaur hemen ditugun hizlariak ni baino gaiago dira Aita Mendiburu eta haren obrei buruz mintzatzeko, eta hala don Manuel Lekuona jaunari uzten diot txanda.



## SEBASTIAN MENDIBURUREN LENENGO LIBURUA IRAKURTZEN

*Oiartzun, 1982-VII-17*

*Manuel Lekuona*

Aita Mendiburu'ren lenengo liburua, *Jesusen Biotzaren Debozioa* izan zen. Eta liburuaren presentamenean, "bataioan", Aita Larramendik egin zuan "aitabitxitza" gomendiozko Karta Eskutitz baten bitartez.

XVI, XVII, XVIII gizaldian, liburu berriren bat azaltzen zanean liburuak bere sarreran olako Gomendiozko Kartak eramateko oitura aundia zan. Besteak beste, Axular'en *Gerok* ere olako Karta batzuek daramazki bere sarrerako orrialdeetan.

Mendiburu'ren lenengo Liburuak ere, olako Karta bat darama. Eta ez nolanaikoa: Aita Larramendi'rena: Euskeraren lenengo Gramatikaren eta Iztegi mardul baten egilea zan Larramendi Aitaren Karta. Gomendiozko, Gomendiozkoa. Aita Mendiburu, liburuaren egileari berari kezkarik aski eman zion Karta.

Alabantzi aundiak ematen zizkion, izan ere, Aita Larramendi'k Mendiburu'ren liburuari. Eta gure Aita Mendiburu kezketan sartu zan. Arrokeria geixko ez ote zan, alegia, bere Liburuaren lenengo orrialdean, oitura ala zan arren, alako alabantziak jartzea. Gure Aita oyartzuarra ez bait zan, bere iza-tez, alako protagonismo-zalea. Orregatik, aren lenengo asmoa, Karta alabantzioso ura ez argitalzea izan bide zan.

Bañan, arrazoibide guziak alkartuta, aizkenean burua baiezkora makurtu bear izan zuan.

\* \* \*

Izan ere, alde batetik, Liburuaren gaiak ala eskatzen zuan. Gai berria zan; Jesusen Biotzaren Debozioa, XVIII gizaldiko urte aietan, debozio berria zan oraindik emen oietan. Apio on batzuek bear zituan. Umezurtz azaltzea etzitzaion konbeni.

Bestalde, Aita Larramendi'k berak ere, baldintza-kondizio ortan bidali bide zion bere Karta ura, bere adiskide oyartzuarrari: kezkarik gabe bere

Liburuaren sarreran argitatzeko kondiziotan. Etzegen dudarik. Karta argitaldu bearra zegon, nai bazuan eta ez bazuan.

\* \* \*

Bestalde, Aita Mendiburu'k berak ere etzeukan segurantzi aundirik, bere Liburuaren balioari buruz. Zalantza biziak ere, bai, ba zituan; lenengo aldia zan gure Aita oyartzuarra liburu-argitatzeko-artan sartzen zala. Etzekian zer arrera egingo zitzaion irakurtzalleen artean bere lenengo idazlanari. Alde ortatik ere kezkek alde batera utzi bearra zeukan.

Aita Larramendi'ren alabantziak gora-beera, Karta argitaldu bearra zegon. Eta argitaldu ere ala argitaldu zan; eta geroztik argitatzeko guztietan beti ere Aita Larramendi'ren Gomendiozko Kartarekin argitaldu izan da gure Aita Mendiburu'ren lenengo "xemea".

Aita Mendiburu'ren lenengo Liburu onen inguruan komentario batzuek egiteko asmoa izan nuan nik iñoiz: "*Jesusen Biotzaren Doboioa irakurtzen izenburu izan zezakean komentario labur bat.*

Kontu egin dezagun, Liburuaren beraren komentarioa egiten ari gerala, Larramendi'ren Karta komentatzen ari geran artean. Ean degu nolako kezkek eman zizkion gure Aitari, Karta bera kritika bat da; Aita andoindarrak bere garaian ikusten zuen euskeraren egoeraren kritika bat. Kritika ortan Aita Mendiburu'ren euskera "Euskera Eredutzat" ipintzen du gure A. Larramendi'k. Euskera garbia. Bañan, bere garbian, erderazko itzik gabe, Jesus'en Biotzaren Debozioaren gauzarik "gei, mee eta ondatsuenak" garbi explikatzeke gai dan euskera. Euskeraren balioaren apolojiarik ederrena izan ziteken Liburu bikaña. Apolojia ori egin bearra baitz zegon euskaldunen beraen artean ere ez erdaldunen artean bakarrik; baitu zenbait euskaldunen artean ere.

Orixe zan, izan ere, Aita Larramendi'ren apoloji-gai klasikoa, bere bizitza guziko apeta eta ametsa: "Euskera gai zala gauza guzi oietarako eta gei-gotarako ere"; eta gauza orren pruebarik argiena, gure Aita Mendiburu'ren lenengo Liburu zan; berak zioen bezela: "Egia onen ikusbidea, zure Liburu au izango da".

Ori da izan ere, asi ta buka, Kartaren mami, muin eta gai guzia. Ez, ordea, Mendiburu'ri loxintxa egireagatik. Bion artean ba zituzten beren asarretxoak, beste zenbait gauzetan: dantza-gaietan, adibidez, Bañan ez, iñolaz ere, oyartzuarraren euskeraren gai ortan; ortan biok oso "a dos zetozen". Konbeni ere, bai, gai ortan, gramatiko andoaindarrari, euskeraren etsaiak eta adiskide txepelak ankapean zapaltzeko.

\* \* \*

Orain, aurrera jarraituaz, Kartaren Kritika egin nai badegu —Karta irakurri alean, irakurtzeak buruan egiten dizkigun atximurrak agertu nai baditu-

gu— lenengo agertzen zaigun gauza, Larramendi'ren euskeraren ezaguera sakona da; ezagun du, gramatika-egille dala; arrigarrizko ezaguera, aditz-joku sintetikoan agertzen du batez ere; gaur aditz-joku sintetikoa galdua duten zenbait aditz-berbo, berak sintetiko-eran, “aire ta bote” parra-parra jokatzan bait ditu. Ikus, onako troxu au: “Ark erakusten dizkitzu... debozio oni *dariozkan* (“jario”) zeruko ondasunen iturburuak. Itzetatik agiri dezu, nola *dizekan* (“izeki”) zure biotzari; ta *eztarauskiola* (“erausi”) mingañari, barrunbeari *dirakiena* (“irakin”) ta gañez *dariona* (“jario”) besterik”.

Lau errenkadako paragrafo berean, lau aditz, sintetiko-eran jokatuak: *jario*, *izeki*, *erausi*, *irakin*...

\* \* \*

Larramendi'ren Karta famatua, Liburuaren 1882'gn. argitalmenean, Aita Ignazio Arana batek erderatua azaltzen da. Askatasun apur batean erderatua. Bai bait ditu utsune ta oker batzuek, guk emen, iraizean, zuzentzen saiatako geranak.

Begira nola erderatzen duan, gure troxu ori: “El os muestra... los manantiales de celestiales riquezas que de sí brota esta Devoción... Bien se os ve por las palabras, aquello mismo que en vuestro corazón *sentis*, y que no *habla* y expresa otra cosa la lengua, sino lo que habla y *bulle* en el interior”.

Erderak ez bait du emen, euskerak duan graziaren laurdenik ere.

\* \* \*

Bañan, graziaren gabeziak gañera, bai bait dago or beste zerbait ere: aditz-berbo bat gaizki erderatua; euskeraz *nola dizekan zure biotzari* dion troxu ortan, alegia; *dizekan* ori ez bait da “sentir”, “arder” baizik: “cómo ARDE vuestro corazón” (“cómo LE ARDE a vuestro corazón” obeto) *izeki* “arder” aditza, sintetikoki (*dizekan*) jokatuaz. “Por las palabras se os conoce cómo se LE ARDE a vuestro corazón...”.

Izan ere, Aita Arana'k Larramendi'ren textoa idaztean, ez cu idazten “dizekan”ik, beste nunbaitetik sortu duan “ditxekan” bat baizik, eta erderatzeoan, “sentir” esaten du bat, “arder” baten ordezu...

\* \* \*

Bañan ez bait da ori bakarrik; itzen batzuek galdu ere egin zaizkio gure Aita Ignazio Arana'ri, bere lanean ari dala.

\* \* \*

Aita Ignazio Arana'k, orain eun urte, Tolosa'ko Eusebio Lopez'neñan Liburu onen argitalmen berri bat egin zuan bezela, andik urte batzuetara—1900'gnean— Edward Spencer Dodgson batek beste argitalmen berri bat egin zuan Donostia'n del Pozo'renean.

Argitalmen au, lenengo argitalmenaren *fac-simil* bezala egin zan, Liburuaren orri-alde guztiak lenengoaren antz-antzekoak egiñak.

Guk, ordea, bi argitalmen oien artean zenbait diferentzi arkitzen bait ditugu, irakurleak ere ikustea nai genduke, garrantzi aundiko diferentzi bait derizkiegu.

Begira grafikoki, lenengo orrialdeetan arkitzen ditugun diferentzi oiek.

Ikus.

Dodgson:

“Arc eracusten dizquitzu gai aundi onen sayets guztiak; arc egoqui santuac; *arc ecarrai ezti ezti gozo gozoac*; arc guizonentzat debocio oni dariozcan Ceruco ondasun iturburuac.”

A. Arana:

“Ark erakusten dizkitzu gai aundi onen sayets guztiak; ark egoki *zentzuak*, ark gizonentzat debozio oni dariozkan zeruko ondasunen iturburuak.”

Argi agiri danez, Aita Arana’ri parrafo ontan troxu bat osorik galdu egin zaio: *arc ecarrai ezti ezti, gozo gozoac*.

\* \* \*

Bañan ez bait da ori bakarrik; parrafo ortan bertan, itz batzuek gaizki erderatu ditu; askatasun geixkoz gañera, bi itz auek gaizki aditu ditu: *egoki*, aditz-berbo egin digu; eta aren ondorengo *santuac, zentzuak* irakurri digu.

\* \* \*

*Egoki* ori or ez da aditza; izen sustantivo bat baizik; *egoera, disposizio*-edo. Eta ondorengo *sentzu* ori, ez da *zentzua, santuac* baizik; *egoki, disposizio santuak*; Dodgson’en textoak dakarren bezelaxe. Aita Arana’k askatasun geixko artu du, *santu* oiek, *zentzu* egitean.

Gañerakoan *egoki* ori, naiko garbi aditz ez baño izen sustantivo bat da, goraxeagoko *sayets* bezela, eta beeraxeagoko *ekarraiak* eta *iturburuak* bezela: *egoki santuek*= “disposizio santuak”.

Parrafo au, goragokoaren “anplifikamen” bat da: lau zatidun amplifikamen bat; lau zati, aditz-berbo baten mendean: *sayetsak* = circunstancias; *egokiak* = disposiciones; *ekarraiak* = frutos; *iturburak* = manantiales. Dana aditz baten mendean, *erakusten* diskitzu baten mendean.

\* \* \*

*Egoki* eta *ekarrai* itzak gaur, bere ortan, ez dira arkitzen iztegieta. Bañan edozeñek daki, *egokitik dispoziora* oso bide laburra dagola; eta berdin, baita *ekarririk fruitura* ere. Eta neurri ortan, parrafo orren muña erderaz, an edo onelako zerbait da:

“El os muestra los lados todos de esta sublime materia; El las santas disposiciones; El los suaves y dulcísimos frutos; El los manantiales celestiales que manan de esta devoción a los hombres.”

Ola, parrafoa biribilduaz, askatasun apur batekin.

\* \* \*

Kritika oni beroni jarraituaz, esan bear degu, baita, beste gauzatxo bat ere, Aita Larramendi Gramatiko on bat bezala asko abonatzen ez duana; bere Kartako troxu au, alegia: “Etzinioke ain argi ta garbi sail oni ekingo, Jainkoak eman EZPAZIZUN, Jesusen Biotzarekiko dezun jaiera ori, ain bizia ta sutua”.

Troxu ontan, ez dakit, nola bere euskal-belarri andoaindarrak protesta-rik egin etzian Aita Larramendi’ri. Areago oraindik, bere gramatikazko jakin-duri aundiak. *Quandoque bonus dormitar Homerus* gertatu zizaion nunbait: “Homero bera ere, aldiz-aldiz loak artzen duala”...

Gramatiketan *consequitio temporum et modorum* esan oi dana, oraingo ontan ez du bear bezela gorde Andoain’go Gramatikoak. Konturatu bear zuan, troxu ori, dana-dan, modo *subjuntivo condicionalean* sartua dagola (“etzinioke ekingo”); eta, kontrara, bukaerako “Jainkoak eman EZPAZIZUN” ori *modo indicativoan* dagola; eta orregatik olako troxu batean beti ere guk, *indicativoko* “ezpazizun” ez baño, *subjuntivoko* “ezpalizu” esaten degula.

“Jainkoak eman ZIZUN”, “Jainkoak eman EZPAZIZUN” *modo indicativoan* daude. *Subjuntivoan*, aditz-jokoa beste bide batetik dabil: “Eman balit, *balizu*, balio”. “Eman ezpalit, *ezpalizu*, ezpalio”...

\* \* \*

Gauza bera esan bait diteke, “etzinioke ekingo”ren eta “eman ezpazizun”en artean arkitzen ez dan *consequitio temporum en modorum gatik* ere: *etzinioke* “geroan” dago; *ezpazizun*, “leenean”.

\* \* \*

Ortaz gañera, bai bait genioke beste zerbait geiago ere esan bearrik, gure Gramatiko andoaindarrari, eta arekin batean baita gure Mendiburu’ri ere, Gramatika-kontuan; eta konkretuki, Sintaxis-gaian, *conjunctio* diralako gramatikakizun batean; Beterrian itzetik-ortzera ta txitian-pitian erabiltzen dan conjuncio bat aipatu ere ez dutela egiten beren idaz-lanetan: BAIT partikula, partikula causal explicativo jator-jatorra.

Aita Larramendi'k bere "El imposible vencido" deritzan Gramatikan, aipatu ere ez, eta aren ondorengo ta eskolako, ez Aita Kardaberatz'ek, ez Aita Mendiburu'k beran idaz-lanetan bein bakarrik ere erabili ez.

Bear bada, Larramendi andoaindarrarengan eta bere denboran, etzan ain arritzeko a Andoain, orduan oraindik, ain Beterri jator egiten etzalakodo Beterriko esaerak —eta aien artean gure BAIT ori— etziran Andoain'en ain itz erabiliak. Eta orregatik nunbait Gramatikoak etzuan aipatu bere Gramatikan; eta aren ondotik, ezta aren bi lagun Jesuitak ere beren Liburueta; bestela beintzat —Larramendi'ren itzalez izan ezik beintzat— ez da konprenderrexa, Mendiburu batek, batez ere, ez erabiltzea, ain "oyartzuarra" dan kausal-itz jator-jator ori; Axular'ek txitian-pitian erabiltzen duan elementu ori... Eta gure Mendiburu'k ez bere "Jesusen Biotzaren debozioa"n, ez "Oroitz-gaieten" ez "Sermoi-Homilietan"...

\* \* \*

Gauza ontatik nik beste ondoren bat ateratzen bait det: Euskera guztia ez dagola gure idazleetan, gure Klasikoetan; gure idazleak etzutela beren idaztietara jaso Euskera dana; gauza asko pasa zitzaizkiela, beren Idaztietara, beren Liburueta jaso gabe.

Izan ere, beren idazi-lanak erderazko "ereduai" begira egin zituzten sobera; eredu oietan ikusten zutena bakarrik jaso zuten beren idaz-lanetara, Literatur-lanetara; gure Euskera osoak, ordea, gauza asko izan, erderatan arkitzen ez diranak, zenbait elementu sintaktiko, batez ere; ola, adibidez, orain eskuartearen darabilgun, *conjunctio causalis* "bait" au, *conjunctio causalis explicativa* esan diteken "bait" sorgin ori, ez Latiñean, ez Grekoan, ez Gaztel-erderan gure Larramendi'k berak bere Gramatikarako berdiñik arkitu etzion gramatika-atal txiki sorgin ori; eta, Larramendi Maisuak bere Gramatikan lekuri eman etziolako, nunbait, gero aren jarraitzalle zintzo ziran Kardaberatz batek eta Mendiburu batek ere beren Liburueta sartu etzutena.

## AITA MENDIBURU'REN URTEA (liburua)

### II. Zatia

#### Euskerari buruz

*"Aita mendiburu'ren lenengo liburua irakurtzen"*

#### Bukatzeko

Orain, bukatzeko, gertakizun bat esango dizutet. Orain berrogei ta ama-bi urtekoa. Bergara'n gertatua. Euskeraren bizitzarekin zer-ikusi aundi dua-

na. Egun otan, ain zuzen, eskuartean darabilgun problema garratzarekin zerikusi aundi: Euskeraren “il-biziko” problema.

\* \* \*

Bergara'n Eusko Ikaskuntzak bere bi urtez-beingo Batzarrak zituan. “Arte Errikoari buruzko” Batzarrak: *Arte Popular*.

Nik Itzaldi bat nuan. Itzaldiaren gaia, *La Poesia Popular*: “Poesi Errikoa”.

Lexoti zaarra eraman nuan nik, kantari-ekipo batekin, nere teorien praktikalari bezela. Lexoti'k Toberak kantatu bear zituan, batez ere.

\* \* \*

Bergara'ko Kontzejuko Areto Nagusian genduan Itzaldia. Eta baginjoazen kalean zear Kontzejura. Eta or ateratzen zaigu taberna batetik gizon bat. Bertsolaria. Elorrio aldekoa. Bizkaitar jatorra. Gizon praktikoa. Praktikoki mintzatu zitzaigun. Bertso biribil batean, bere bertsoaren bukaera onela bota zuan:

Lengo Legeak akartezpoguz  
ilgo iagu Euskeria.

Euskeraren alde guk darabilzkigun lanak gora-beera, alegia

Lengo Legez ekartezpoguz  
ilgo iaku Euskeria.

Itz bitan, Euskeraren “il-biziaren” problema garratza.

\* \* \*

Gure Koplari Lexoti'k, gauza pixka bat ausnar-ondoren, onela erantzun zion:

Gaur goizetikan Oyartzun eta  
arratsaldian Bergara...  
Geldi daudenak, ez dakit, bañan  
gabiltzanak bizi gara,  
Lege Zar gabe bildur zara zu  
ilko ote zaigun Euskara;  
dabillen arte ez dago illik,  
atera zagusun plazara

\* \* \*

Bi egoera, bi ariera antagonikoak? —Ez inñolaz ere, elkarren osagarriak baizik.

Euskalerrian danok euskeraz mintzatzea, ori da “Euskera bizi izatea”.

Eta ori, gure Gobernuaren Dekretoz lortu aal baledi, gauza erreza litza-ke. Bañan ez bait da Dekreto-gauza. Euskaldun bakoitzak, *motu proprio* egin bearreko gauza da; *motu proprio*, kontzientziaz, euskalkontzientziaz.

\* \* \*

Ala ere, Euskal-kontzientzi orri, bein sortu ezkeru, Gobernuak lagun-tzea, bultzatzea, ori bai; Gobernuak bere Dekretoan bidez zenbait Instituzio sortuaz, *indirecte*, bañan ausarki lagun ta bultzaz lezake. Instituzioak: dala Irakaskintzan, dala "Medios de Comunicacion" diralako ortan, dala Administrazioan...

Guzti ortan Gobernuak eta Politikak asko dezakeala, ez dago dudarik; eta Instituzio oiek Errietan sortzen duten giroak, asko lagun bait dezaioke, Erriaren baitan, Euskeraren aldeko Kontzientzi ta *motu proprioari*. Bata bestearekin.

\* \* \*

Eta, ain zuzen, ori bide zan, Elorrio'ko Bertsolariak ikusten zuana. Gobernuaren egitekoa, arazo ontan.

Bañan, gauzaren bukaeran, zertarako? Gure Lezoti zaarrak eskatzen zuanerako: Erriari bere Izkuntza zaarrean mintzaerazteko, mintzaera zaarrean iraunerazteko. Erria Euskeraz mintzatzen dan arte, Euskera BIZI BAIT DA.

Dabillen arte, ez dago illik;  
atera zagun plazara.



## MENDIBURU ETA LARRAMENDI

*Oiartzun, 1982-VII-17*

*K. Mitxelena*

Mendiburuz eta Mendibururen lanez, zahar eta berriez, esatekoak esanak daudelakoan, goraxeagotik hartuko nuke nik gaia hemen mintzatu behar dudanez gero pixkaren bat bederen. Eta Mendiburu baino gorago, eta beste orduko eta geroko beste hainbeste baino gorago orobat, Aita Manuel Larramendi daukagu, euskal gaietan.

Zenbaitek esan dezake eta zenbaitek esango du euskal idazle kaxkarra izan genuela andoaindarra, euskara ia ixil-gordean baizik erabili ez zuena, testu zaharrei Telletxeak gehitu dizkienak aintzakotzat hartzen baditugu ere. Erdaraz idatzi zuen gehienbat, guztiok dakigunez, eta ausarki bezain ederki, gaztelaniaz batez ere. Alde horretarik idazle bezala zor zitzaion zorra, egia esan, ez zaio oraindik aitortu, baina hori behar bada askok Barojari ukatu dionaren pareko arrazoiengatik gertatu da: erdara itsuski, tankera gaiztoan erabili omen zutelako. On da gu ere erdaraz mintzatzea, ahoz eta izkribuz; beheko mailatik goraxeago ezin igo gaitzkeelakoan, halaz guztiz.

Nolanahi ere den, utzi dezagun oraingoz erdaldunentzat aipatu dudan erdal kontua. Haatik, azpimarkatu behar genuke agian nabari dela erdaraz ugari bezain euskaraz urri mintzatu zen Larramendik ondorio ageria izan baldin bazuen, eta euskarari zegokionez izan ere, erdarazkoak ez direla nahi eta ez kaltegarri euskarazkoentzat. Probetxuzko ere gerta daitezke, agi danean.

Harek sortu zuen giroan hazi ziren Mendiburu, lehengoa eta oraingoa, Kardaberaz, baita Basterretxea eta Gamiz bera ere, urrutitik bederen. Lehenbiziko biek izan zituzten Larramendirekin errietaldi aski larriak, baita hizkuntzari dagokion aldetik ere. Maisu eta gidari izan zuten beti, halaz guztiz, hizkuntzaren arloan bestetan baino gehiago. Eta hori euskaraz deus gutti idatzia genuelarik! "V. Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence y del bascuence —erantzun zion behin batean Kardaberazek—, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc." Ik. J. Ig. Tellechea Idígoras, *Anuario del Semin. "Julio de Urquijo"* 2 (1968), 3-31.

Andoaindarraren eragina ez zen gainera, eta beharrik, Konpainian gelditu, Larramendi hil bezain laster bidali baitzituzten aurrean jesuitak, besteak beste. Hor dugu, urrutirago jo gabe, Ubillosen “Hitz aurrea”: “Eusqueraz dorausquizunean, eusquerazco hitzac ez badarabiltzatzu, zure erausia hitzuznea, edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta hitz bacoitza, dagocan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-jàrio[a]ri araututsa, edo *Solecismoa* deitucodioe. Bost onelacò enzuten degu eusquerazco sermoietan! Ala baña, zori gaiztoan dacusun bezala, euscaldun guichic necatu nai dù eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen. Eusquerazco hitzac ongui ez-padirudi, edo oitua ez pada; hurà utzi, aren ordean artu diteque, arc esan naiduana, adirázteco adiña dan, beste bat.” Barka, mesedez, aipamenaren luzea, ez baitut sartu euskera hobearen besteren bizkar erabiltzearren. Horko irakaspenak, eta ez zenbait hitz (*hitzuznea, araututsa* eta are *hitzaurrea* bera) bakarrik, Larramendirenak baitira, geroxeago ikusiko dugunez.

Segiziokoen artean ez daude soilik bere garai eta garaitsukoak, ezta, ez alderatzeko ere, alde honetako euskaldunak: hangoen idazkiak, zori gaiztoz, hemengoak ez ezik, ez ditugu ongi ezagutzen. Aski izan bekit, nabarmenentako bat ahotan hartzeko, Haraneder-en gaitzizenez dabilzan Harrieten Lau Ebanjelioak: hiztegia ez baitute segur aski Dassance-gandik jaso. Hiribarrenek, ordea, fama txarreko hiztegiari egotzi beharko dio Larramendiren zordun agertzea. *Eskaldunac*-en darabiltzan hitzak ez baititu, oker ez banabil, mugaz honunztik bildu.

Nekerik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen Larramendik euskarari, euskara idatziari, buruz. Euskarak burua jasoko bazuen, bere lagunak idatzi zuen bezala, premiazko iruditzen zitzaion, gure alde honetan batez ere, artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa. Hizkuntzaz kanpoko xedeei —Elizaren eginkizunei, batipat— begira zegoen jendeari, ez zitzaion gehiegi kostatzen, erraztasuna lagun, euskararen izaeraz eta egoeraz atzentzea. Berak eskatzen zuena, hizkuntzarekiko arreta gaiarekikoaz gainera, lortu zuen, besterengandik lortu, idazlerik onenengandik. Hementxe dugu lekuko, inora mugitu gabe, bere saioak gerora ere hobetzen aritu zen Mendiburu.

Larramendik berak maila jasoagoa ipini zion bere buruari: sermoiak sermoi, Mendibururen lehen liburuan ageri den gutunak gerorako utzi zuen eredu. Bazekien, noski, goregi zegoela orduko entzule-irakurleentzat; bazekien, eta horrexegatik behar bada hain guttitan eman zion euskarari amore. Hor gelditu zen, beraz, marka ahal zezanak, ahal zitekeen momentuan, berdin eta gairi zezan. Hitz neurtuz egin zituenez hobe genuke beste batean mintza. Inoiz esaten zenez, berez behar Billabonako.

“Dotrinaren” bidez ahalegindu omen zen Larramendi, Kardaberazek arestian esan digunez, euskararen inguruan, euskaraz ez bazen ere, mintzatzzen. Hortik sortu ziren, gainerakoan gainetik, gerra-aurretik *Ezina egina* itzuli zuten *Arte-a*, eta Hiztegi hirukoitza, Euskaltzaindiak behin batean erabilia bestetara aldatzeko baimena ematen badidazue, eta horietarik irabazi

zuen Arakistain eta Gandararen esker ona, berarekin harremanetan jardun zirenak baizik ez aipatzeko.

Larramendik ongi ikasia zuen, iparraldetik hegoaldera zetozen Akademiaren garaian bizi zelarrik, euskarak ere, hizkuntza landuen sailean sartzeko, neurri, lege eta erregela jakinak behar zituela, idazle eta hizlarien artean (predikarien artean, gurean) onarturik zabalduko zirenak. Honelaxe neurtuko nuke nik Aita Manuelen ekarria lanbide honetan:

1. Ez dirudi deus berririk atera zuenik grafia kontuan edo deus gutti, ezer atera bazuen. Aurkeztu zituen apurrak berak ez ziren beti ontzat emanak izan eta Kardaberaz dugu besterik gabe diodanaren lekuko.

2. *Arte*-a morfologiaren barrutian dago ia-ia mugatua: gramatika, paradigma bihurtu zaio, paradigma bilduma hobeki esan. Formak erakusten dizkigu formen erabilera baino areago. Adinkide ezezaguna zuen Urteren aldamenean, urriago delarik agian adizki kontuan, ordena argia azaltzen du liburuan barrena. Gehiago dena, ez da txokozale donibandarraren gisan. Bere hirikoen orde z bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu, eta Gipuzkoako euskalki hori berak begiz joa da, Beterri aldera. Badaki, ordea, euskalki bat baino gehiago dituela euskarak eta saiatzen da ahaleginean beste dialektuen berria zabaltzen.

3. Larramendik nahi zuen euskarak hitz-altxor ugariagoa eta garbiagoa behar zuen izan. Ugaritasunaren bazterrak kanpotik ezarriak zeuzkan aski baitzuen euskarak, baita gehiegixko ere, erdaraz Real Akademiak agertu berria zuen hiztegiari ordain zuzenak ematea hitzez-hitz. Garbitasunari zor zitzaizkionak ere kitatu behar ziren, ordea.

Nahikoa litzateke goiko Ubillosen hitzak berraipatzea zertaz ari naizen norinahi esplikatzeko. Gogora, bestalde, zer dioen Villasantek, *Hist. de la liter. vasca*<sup>2</sup>, 121, J. M. Zabalaren ondotik, Otxoa de Arinen dotrinaz ari dela: "Ciertamente..., echa constantemente mano de voces y vocablos castellanos hasta límites inverosímiles... El hecho es, por lo demás, normal en otros escritos de la época. Mérito indudable del P. Larramendi fue el haber contribuido eficazmente a liberar al vasco escrito de esta servidumbre respecto del castellano en materia lexical."

Hiru bide bederen zabalik zeuzkan hutsarteak betetzeko:

a) Lehenbizikoa litzateke berez irekiena eta ez da horrela gertatzen. Berdin genuke hangoa edo hemengoa izatea euskarazkotzat jotzeko, euskaldunek erabiltzen dutenez gero, baina ez da hori gertatzen, eta etxeoak ere, zertxobait itxuraldaturik ageri bazaizkie, ez dira gauza ezagutzeko. Ik. *Arte*, 389 hh.: "Lo que es de admirar es, que aun hasta los nombres más obvios se les hagan difíciles, por sólo mudar el caso, dexar el artículo, y otras variedades propias de la Syntaxis. Dirán fácilmente lo que significa *zori oneán*, como también *eché onean*; pero si se les pregunta que es *zori-á?* res-

ponden *nic daquit bada*, que no lo saben: *eté cer oté da eche-á?* Ori badaquigu: *Zori-ónac*, eztet aditzen; *eché ónac*, bai. No puede imaginarse menos reflexión... Badaquizu cer dan lenena? jaquin bear bada; *aurredán doaná, edó dagoená*; oró bat da *lendavicicoá*. Etá badaquizu, cer esan nai duen *goi lenén?* ez nic; cer da *goi* ori? Atózea, diozúnean *goierriá* edó *goierritár*, cer esan nai du *goi* orréc? Orain badá sínis nazázu, ezdaquizulá euscáraz, eta aimbát guichiago daquizulá, ceimbat gueiágo uste dezún.”

b) Euskarazkoei, nondinahiko direla, eskuak zabaltzeaz gainera, beste bidea, zabalagoa agian, hartu du Larramendik, aipatu pasarteetan bertan nabari denez. Euskal hitzen adiera, testu-inguru berriak hautatuz, nahi edo ahal adina hedatu behar du. Nola lor bestela delako *goi Lenén* hori “Príncipe Augusto” bihur dadin? “*Lenén* —azaltzen digu Larramendik—, ori berá esan nai deu *Príncipe*, nolá Latinéz badiogú, *principem locum tenere*, lenéngo lecuá, edó lecu lenená iduquitzea, euquitzea. *Lenén goiá*, goitua, goicoá, goratuá, orobatézcoac dira hitz oec (synonimos): eta emén ez hitzai, báicic hitzaquin esán, edó adierázo nai degunari oartú bear gátzaizca.” Adiera berriak ezezik, etxeko ondasunez baliaturik hitzak ere sor daitezke. Ik. leku berean “*onesguná*, onetsi, amatú, maitatu; etá andic *onesguná*, amorea, maitetasuna”. Hitz eratorri horrek ez du, egia esan, etorkizun aberatsik izan, *et pour cause*. Jokabidea, ordea, Oihenartek eta Pouvreaux ikusi zutena, ederki ematen du aditzera.

c) Larramendik bazekien, eta idazten ari ziren imitatzaileek hobeki, zerbait eta zerbait baino gehiago gorde (eta are hartu) behar genuela aldameneko hizkuntzetarik. Prest zeuden, aspaldidanik fidatuei eusteaz gainera, zor berriak ere egiteko mailebu bitartez, beharraren beharrez eta hoberik asmatzeko sormena ernatzeko modurik aurkitzen ez zenean behinik behin. Horrelako okerrak zuzentzeko tankera egokia Larramendik gehitu eta zabaldua zuen, ez aitzindaririk gabe: zorrak hartzeko bihurtzea. *Artilleria* erabiltzen genuen eta erabileraren zuzena honelaxe erakusten zaigu: “viene de el Bascuence *arte*, *rectitud*, y de *illeria*, enfermedad, y golpe de muerte”, “*artilleria*, *sutumpa*, *sutumpadia*”. Nik ez dut inondik ere uste, arrotzek maizenik uste dutenez, zinetan eta benetan hartzen zituela Larramendik honelako ateraldiak. Erdaldunek sinesten ez badiote, hor utzi du, *sutumpa(dia)*-ren itxuran, garbiago dirudien zerbait.

Nolanahi ere den, Larramendik argi eta garbi aitortu zuen asmatzea zilegi zela, edozein hizkuntzatan bezala, “voces facultativas” direlakoetan, hots, alemanez *fachsprachlich* (eta hemen orain *berezituak*) omen direnak.

Jakina da nola iraun zuen honen izenak eta omenak, Astarloaren ondoan gelditzen zelarik agian gramatika eta etimologia gaietan, duela ehunen bat urte arte. Baita ere nola gero, hemengoaz ari naiz, bat batean aldatu zen giroa eta bestelako eguraldia sortu. Arana Goiri eta Azkue ez ziren talde berekoak euskarari buruz, baina bat etorri ziren, nor baino nor amorrotuago, Larramendiren kontra, eta bi orien inguruan bazen noski jende gehiago, lehen

mordoskaka eta gero samaldaka. Zerbaitek, orain ukituko ez dudan zerbaitek, ekarri zuen bestetan etsai edo zirenen erabateko ukamen hori.

Mendiburu berriak Larramendi gogorazi dit. Eta Altunak, zeharka nahiz artez, "Larramendiana" berria ere idatzia eta argitara emana eskaini digu.



## MENDIBURUREN IDAZLAN ARGITARAGABEAK

*Oiartzun, 1982-VII-17*

*Patxi Altuna*

Jaun-andreok:

Mendibururen bi liburu berri hauen prestatzailea izan naizenez gero, gaur Oiartzungo herriak eta Euskaltzaindiak elkar lanean, bere seme prestuari lehenak eta XVIIIgarren mendeko euskal idazlerik onenetakoari bigarrenak, eskaini nahi izan dioten omenaldi honetan liburuen aurkezpena egin dezadan eskatu didate eta ezin uka dezaket pozik hartu dudala neure gain eginkizun hau. Orain esango dizuet zergatik.

Duela ehun urte ere lehen mendeurrena, aurten bigarrena bezalaxe, Uztailaren 17an, gaurko egun berean, ospatu zen Oiartzungo udaletxean. “A las cinco y media”, zioen Pedro Soraluzek biharamoneko Uztailaren 18ko, *La Unión Vasco Navarra* albistarian, “tuvo lugar en el Salón de Actos de la Casa Capitular el certamen literario en honor de Mendiburu”. Haiek bildu ziren egun berean eta ordu beretsuan gaude gu ere ehun urte geroago bildurik, Oiartzungo seme argi eta ospatsu Sebastian Mendibururi gorasarre egiteko asmoz. Orduan eta orain bildutako lagunok gara bakarrik eta ezinbestean desberdinak.

Bai al dakizue nortzuk ziren orduan bilduak? Hona zuetako askoren belarrientzat nabasi eta ezagun diren lagun batzuen izenak: Alfredo Lafitte, Agirre Miramon, Jose Manterola, Klaudio Otaegi, Antonio Arzac, eta are ezagunago zuen guztiontzat Pello Errota, haren seme Gorriya eta Otaño bertsolariak, besteak beste. Orduko oiartzuarrei eta omenaldian eskuartu zutenei, halere, beste lagun sotana beltzeko batzuen ez-agertzea izan zitzairen, dirudienez, harrigarri eta mingarri. Mendiburu jesuita izanik ere, ez zen omenaldi hartan jesuitarik bat ere agertu. Hala dio lehen aipatu dudana albistariak: “Los Jesuitas, por motivos de delicadeza fácil de comprender, no han mandado nadie al Centenario”. Hori gainera omenaldi haren eragile eta eratzailerik suharrena Juan Ignacio Arana jesuita azkoitiarra izan zelarik. Egundun berean telegrama bat bidali zioten hemendik Otaegik, Arzakek eta Soraluzek Urduñara, esanez omenaldia ezin hobeki ospatu zela eta zorianak emanez.

Zer gertatu zen inor ez etortzeko? Hilabete batzuk lehenago Sevillan beste jesuita baten mendeurreneko ospakizunean herri agintariek eta Eliz mandatariek ixkanbila itsusi eta zakarra izana zuten, nori bere ustezko lehen aulki eta toki egokiak eman ez omen zizkiotelako eta Oiartzunen ere halakorik gerta ez zedin erabat ez etortzea erabaki zuten Lagundiko Agintariek. Aldiak eta toki handi nahiak aldatu bide dira pixka bat zorionez gure artean —Aragoiko hiriren batean batzuenak osoro aldatu ez badira ere, egunorokoen bidez oraintsu jakin genuenez— eta ez dirudi hemen gaur inor haserretuko denik honi edo hari aulki baten ordeztzea eskaini zaiolako. Horra zergatik, orduko jesuita euskaldunak eta Aita Arana batez ere gaur biziko balira, Oiartzungo herriarekin eta Euskaltzandiarekin elkar harturik Mendibururi omenaldi hau eskaintzera arras pozik etorriko ziratekeelakoan, etorri naizen ni ere eta beste jesuita gehiago gaur Oiartzuna gogoz eta atseginez.

\* \* \*

Herriko seme, apaiz eta euskal idazle izan zen aldetik Mendibururen goresmen eta laudorioak beste hizlariek egin bait dituzte, ni neure gaiari lotuko natzaio ahalik estuen eta laburren. Diodan lehenik orain argitara eman ditudan Mendibururen esku izkribuak duela hogeitamar urte erabili nituela lehen aldiz eskuartearen eta makinaz garbiro ipintzen hasi ere bai, Filosofiako ikaskuntzek uzten zizkidaten lanarte eta txolarte urrietan. Berehalaxe, ordea, utzi nuen lan hura bertan behera; ez dakit zergatik. Alde batetik hobe, bada orduan ez nintzen gai eginbehar hori orain egin dudana bezala burutzeko.

Urte asko igaro ziren eta esku izkribuak Loiolako Artxiboan lozorro baketsuan egon, harik eta duela sei urte Salamankan tesia egiten ari nintzeanean Mitxelena jaunak esan zidan arte: “Sei urteren buruan ospatuko da Mendibururen heriotzaren mendeurrena; jesuitek zor diozue urte hartarako lan guztien argitaratzea”. Sekula argitaragabeko esku izkribuak ere Loiolako Artxiboan bazirela kontatu nion eta bertantxe neure buruari agindu lan hori ordurako egingo nuela.

Beste autore batzuk nerabiltzan, ordea, garai hartan eskuartearen eta ohi den bezala hiruzpalau urte igaro zitzaizkidan lan honi ekin gabe. Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia egiterakoan, ez bait nuen lagun eta kide langile haien artean esku hutsik agertu nahi, hitz eman nuen nere hurrengo ekarria eta zerbitzua Mendibururen idazlan guztiak argitaratzea izango zela. Eta hona gaur hitz hura betea, edo Mendiburuk liokeenez, osatua. Zorra kitatu baizik ez dut egin, beraz.

Osatua esan dut eta aldeztu bai hala da, baina aldeztu ez. Mendibururen idazlan guztiak ez ditut, izan ere, birrargitaratu; birrargitaratu bat ere ez, hobeki esan, edo gehienez ere lan txiki bat: *San Franzisko Xabierren bederatzirena*, hau lehen ere bitan Iruñean eta Bilbon argitara emana bait zen, nahiz eta grafia aldatu. Baina gainerakoak, Mendiburuk berak lehenik eta gero urteetan zehar behin baino gehiagotan inprimatu ziren hiru lehenak —Je-



*susen Bihotzaren Devocioa, Jesusen amore-nequeei dagozten cembait othoitz-gai eta Euscaldun onaren viciera*— berriro argitara emateko ez dut oraingoz astirik ez biderik izan. Eta ez, noski, merezi ez luketelako, aspaldi ahituak eta agortuak eta inon gutxitan aurki daitezkeenak bait dira, lehen edizioan agertu ziren eran batez ere. Ez dut, beraz, eman hitza osoro bete.

Nik orain argitara eman bakarrak inoiz argitaragabeko berriak dira, lehen aipatutako bederatzaurrena izan ezik. Horregatik eman diet liburu hauei *Mendibururen idazlan argitaragabeak* izena. Honi nagokiola ere beste zehaztasun bat zor dizuet: Mendiburuk idatzi, baina argitara eman ez zituen liburuetatik bat betiko galdu zen damurik eta hura ere ezin argitaratu izan dut, jakina. Jainkoak daki non dagoen. Karlos IIIgarrenak 1767an bere erre-suma eta kolonia guztietatik jesuitak jaurtiki baino hiru urte lehenago amaitu berria zuen Mendiburuk laugarren liburua: “Christau-dotrin ta Catecismo luce bat” deritza berak; baina han dantzei buruz zioena liburua eritzi emaille Larramendiri inola ere gogoko ez izaki, eritzi emaille berriak izendatu, haien ustea jaso, Mendibururi dantzez zioena Idiakez probintzialak ken edo aldarazi eta hainbeste atze-aurre zirela bide, Italiako herbestera aldegiteko errege-manua etorri zitzairen eta gure liburua inprimatu gabe gelditu, dirudienez. Hona zer idatzi zuen Mendiburuk berak urte batzuk geroago liburu horrezaz Italiako herbestean: “... Eliz-jaunentzat eta nai duten beste euscaldunendaco bucatuic utzi nuena Ital-aldera baño len”. Agertuko ote da inoiz zokoren batean ia milla orrialde zituen liburu hura?

Honenbeste hitz egin ondoren, ez dut oraindik esan zein liburu diren orain lehen aldiz argitara emanak. Hauexek: Asteteren Kristau Dotrinaren itzulpena, Mendiburuk egin eta Larramendik zuzendua; Urte guziko igande eta festegunetarako Irakurraldiak; San Franzisko Xabierren bederatzaurrena, hirurok euskaraz noski, eta azkenik gazteleraz idatzia, Idiakez probintzi-buruari behin egin zion eskutitz luzea. Zergatik sartu dudan gaztelerazko karta hau ere euskarazkoen ondoan? Oraintxe esango dizuet, liburu bakoitzaren berri hitz gutxiz ematean.

Asteteren Kristau Dotrina Mendiburuk euskarara itzuli eta Larramendik aldatu, zuzendu eta osatua da gaur dakarkizuedan lehenbizikoa. Ezin inola ere konta hemen eta orain liburuxka honek sortzen dituen galdera eta problema guztiak; liburua hitzaurrean daude zehazkiro aztertuak. Hitz gutxitan hauxe esango dut. 1747an, Burgosen Asteteren Dotrina beraren euskal itzulpen bat atera zen, itzultzailearen izenik gabe eta horren ordez hauxe zioena: “... jesuita batec eusqueraz ezarria”. Izena izkutuan gorde zuen jesuita hori batzuen ustez Larramendi zen, besteenez Mendiburu. Villasantek, esate batarako, honela dio: “Se ha atribuido este catecismo al P. Larramendi y parece cierta la atribución”. Yon Bilbaok, aldiz, honela: “... atribuido a Larramendi, parece ser obra de Sebastián de Mendiburu”. Orain bestalde Mendiburuena dirudien eta liburu hauetan argitara ematen dudan beste itzulpena dugu. Zergatik diodan ‘Mendiburuena dirudien’? Hara: Aita Arana azkoitiarrak hau ere Larramendirena, Burgosen inprimatua, zela uste zuen lehendabizian, Bur-

goskoaren alerik ezagutzen ez bazuen ere, eta hala gaztigatu zion behin kartaz Bonaparteri; baina honek Burgoskoaren ale bat bai bait zuen, ezetz erantzun zion, desberdinak zirela eta hori sines zezan bere eskuz eginiko aldakia igorri zion Londrestik. Bonaparte eta Arana etsi-etsiak zeuden Burgoskoa, izenik gabe agertu bazen ere, Larramendirena zela. Aranak honela dio 1884-eko Abuztuaren 12an bere Egunkarian: "...L. L. Bonaparterena (karta, alegia) Londrestik, A. Larramendiren Cristau-Dotrina euskerazcoaren copia berac copiatu batequin..." hartu zuela. Orduan Aranak, Bonapartek bidalia eta Loiolakoa elkarrekin erkatu ondoren, Loiolako esku izkribuaren azalean honela idatzi zuen: "Catecismo del P. Gaspar Astete traducido en bascuence por el P. Sebastián de Mendiburu..."

Ezin uka zezakeen, halere, Loiolakoari ere, nahiz Mendiburena izan, alde askotatik Larramendiren kutsua zeriola eta lehengo hitz horiek honela osatu zituen: "... y revisado por el P. Manuel de Larramendi...". Hortaz zer, Burgoskoa Larramendirena ote da eta Loiolako hau Mendibururena? Sommervogelen *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus*-en XIIgarren tomoan, Rivière-k prestatu zuenean, Burgoskoa ez zaio gehiago IVgarren tomoan bezala Larramendiri egotzen, Mendibururi baizik, Aita Uriartek, Aranaren lagun eta kideak, bere *Catálogo razonado de obras anónimas y seudónimas...*-en agertzen duen eritziaren arabera. Aranak ere orduko bere eritzia aldatua ote zuen? Uriarteren ustez Burgoskoa eta Loiolakoa batbedera dira, aldaera gutxi batzuk gorabehera. Beste arrazoia ematen du gainera: Mendiburuk Asteteren dotrina itzuli eta *argitaratu* ere zuela bere garaiko bi lagunek, Navarretek eta Hervasek, aitortzen digute; Larramendik aldiz sekula horrelako lanik egin zuenik, inork ez. Burgoskoa ere beharbada Mendibururena da, beraz.

Norbaitek pentsatuko du auzi hori erabakitzea erraza dela, Bonapartek Aranari bidali zion Burgoskoaren aldakia eta Mendibururen hau elkarrekin erkatuz. Bonapartek igorri zion eskuzkoa, ordea, Loiolako Artxibotik izkutatut egin da edo galdu edo norbaitek ostu; han ez dago bederen. Eta Burgoskoaren beste alerik ere ez da ageri Donostiako Diputazioan, ez Madrilgo Bonaparteren bilkinen artean, ez Juan Ramon Urkixorenean ere, hiru toki horietatik esan zidatenez Burgoskoaren ale baten bila nenbilerarik. Inon izatekotan Chicagon eta hara, egia esan, ez nuen jo. Liburuxka honekikoa bukatzeko, diodan beste hauxe bakarrik: Loiolakoak bere baitan dituen Larramendiren zuzenketa eta emendailu guztiak orrien azpikaldean ipini ditut ikerlarien egarria berdintzeko.

Bigarren liburuaz, *Urte guztiko igande eta festegunetarako Irakurraldiak* deritzanaz, hitz gutxitan emango dizuet berri. Italiako herbestaldian, berriro Euskalerrira itzultzeko ametsetan eta irrikitan han eman zituen hamabost urte handi haietan, idatzi zuen liburu sendo eta mardul hau, berak hitzaurrean kontatzen digunez. Guri bi tomo heldu zaizkigu soilik, baina bada-kigu segurantza osoarekin hiru zirela Mendiburuk eginak. Hirugarrenak zituen bederatziurren batzuk eta batez ere San Ignazioren gogojardunen azal-

pen luzeak (“en un bascuence muy liquido” diosku hirurak bere etxean gorde-rik eduki zituen Asteasuko Agirrek) betiko galdu zaizkigu, inork zokoren batean aurkitzen ez badu bederen hirugarren ale hori. Bi tomoetako bat ere Loiolako Artxibotik gal zitekeen, hemen dagoen On Manuel Lekuonagatik izan ez balitz, hitzaurrean diodan bezala.

Gero San Franzisko Xabierren bederatziruena dator. Lehengo bi argitaraldietan ez bezala, oraingoan esku izkribuak dauden daudenean ematen ditut, ezer aldatu eta kendu gabe, gainerako idazlanak bezalaxe. Aita Jorge Agirrek, izan ere, bederatziruena dakarren exenplu xebrerren bat isildu egin zuen, grafia aldatzeaz gainera Euskaltzaindiaren orduko legeen eta irakatsien arabera.

Gaztelerazko karta dator azkenik. Larramendiren eta Mendibururen arteko harremanak, XVIIIgarren mendeko ohiturak, garai bereko Gipuzkoa-ko zaldun eta handizki, apaiz eta herrien berriak eta Mendiburu beraren bizitza, izaera eta aiurria hobeki ezagutzeko biziki interesgarri delako sartu dut eskutitz hori besteen artean. Ez zaitezela haserre Larramendiren kontra, oiartzuarrok, honek Mendiburu, eskutitzak dioenez, “oiartzuar hisitia... buru gogorra... setoso charra...” (“requemado, hijo de Oiarzun, duro de juicio”) deitzen badu. Dantzak zirela eta ez zirela uste eta eritzi desberdinak zituzten eta ez zion inoiz batak besteari amore eman. Nork bere aldetik ikusten zuen arazoa.

Diodan amaitzeko nere hitzaurreaz gain Mitxelena jaunarena ere badutela liburuek Mendibururen hizkerari buruzko ohar argi eta zorrotzez, ohi duen bezala, hornitua; eta azkenik neure nolazpaiteko lan hau Jose Maria Lojendio zenari eskaini diodala, haren aulkia Euskaltzaindian neuretu neuean agindu nuenez. Orain liburu hauei esker Mendibururen eskal idazlanak bi halako ugaldu bazaizkigu, izan dadila euskararen ongirako eta Mendiburu beraren eta haren jaioterriaren aintzarako.



**PEDRO IGNAZIO BARRUTIAREN II.**  
**MENDEURRENA**



## ARAMAIOKO ALKATE JAUNAREN SARRERA HITZAK

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Jexus Zabala, Aramaioko Alkate jauna*

Nere aita-amagandik jaso doten euskeran ongi etorria ematen dautsuet, Arabako Aldundiko Gebara jauna, Euskaltzaindiko Aita Villasante jauna, eta hemen zagozen jaun-andre guztioi.

Aramaioko herriaren izenean eskerrona Pedro Ignazio Barrutiaren hirugarren mendehurrena antolatzen parte hartu duzuen guztioi eman nahi dautsuet.



*Aramaio, 1982-XII-18*

*Ezkerretatik eskumatara: Jexus Zabala - Aramaioko Alkatea; Emilio Gusvara - Arabako Diputatu Nagusia; Fr. Luis Villasante - Euskaltzainburua; Endrike Knorr; Juan M.<sup>a</sup> Lekuona eta Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal.*

Aramaio zorrean agertzen da beraren semea Pedro Ignaziorekin, euskal teatroaren sortzailea da eta. *Gabonetako Ikuskizuna*-ren idazlea aramaioarra izatea guretzat pozgarria da.

Gugana etorri zarie eta pozik aurkitzen gara zuek gure artean ikustean. Bene-benetan ezazue har Aramaioko herriaren ongietorrikerik beroena. Eskerrik asko.



## **PEDRO IGNAZIO BARRUTIA ETA BASAGOITIAREN 3. MENDEURRENA**

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren Agurra**

Emilio Gevara, Arabako Diputadu Nagusia  
Peli Martin, Arabako Kultura batzordeburua  
Jexus Zabala, Aramaioko Alkate jauna

Jaun-andreak:

Ondo gogoan dut. Orain dela 11 urte –1971ko Irailean– Aramaio honetara azaldu zen Euskaltzaindia. Aramaio izanik Arabako lurretan euskaldunena, halako omenaldi bat egin nahi izan zion beroni Euskaltzaindiak. Gaur berriro azaltzen da Euskaltzaindia Aramaioa bertako seme baten mendurrena ospatzera. Bai. Aurten betetzen dira hirurehun urte Pedro Ignazio Barrutia eta Basagoitia hemen jaio zenetik.

Aramaioarra dugu, bada, Barrutia, gero Mondragoen bizi bazen ere. Ez naiz ni sartuko hari eta haren lanari buruz xehetasunik ematen, ze bada gaur hemen hori egingo duenik eta horretarako ni baino gaiago denik. Bakarbakarrik esango dut haren lana, “Gabon gaberako Ikuskizuna”, gure literatura zaharreko beste pitxi asko bezala, luzaroan galdua, ezezaguna eta zokoratu egon dela. Juan Karlos Gerra, Azkue, Aresti eta abarren ahaleginei esker, gaur, eta orduonean, ilunpetatik aterea eta ohoretan jarria ikusten dugu. Zuberoako Pastoralak kenduz gero, Barrutiarena da euskal teatrozko lehengo lana, eta ez nolana hiko lana. Ongi merezia du, bada, Barrutiak gaur bere jaioterrian eskeintzen zaion ospaketa hau.

Eskerrak eman beharrean naiz Aramaioko herriari eta Aramaioko alkate jaunari egin digun harrera ezin hobegatik.

Euskaltzaindia euskararen alde lan egiteko Erakundea denez, honelako gertaldiez baliatzen da gure hizkuntzaganako zaletasuna herrietan sendotu eta bizkortzeko. Hori bera egin nahi du Aramaion eta bai Araba osoan ere. Herri guztiek maitekero gordetzen eta lantzen dituzte beren hizkuntzak. Ez gaitezen gu zabarrak izan. Mendez-mende eta belaunez-belaun guganaino heldu den ondasun hau ez dezagula guk galtzen utzi.

Aramaiok, Barrutiaz gainera, eman ditu, bai lehen eta bai orain ere, euskal arloan gailurtu diren euskaltzale zintzoak: Gabriel Jauregi, Rafael Eriz, Patxi Uribarren, Felipe Tolosa, Pedro Puxana, etab. Azkenengo aipatu dudan jaun honek atereak ditu —besteak beste— *Euskal Aditza* (Bizkaiera), Bilbao, 1970; *El verbo vasco de Oleta (Araba)*, Diputación de Alava, 1977; eta oraintsu, edizio gotor eta dotore batean, *Bizkaiko Forua*, Bizkaiko euskarara itzulia.

Nola aurkitzen da gaur euskara Aramaioko bailara honetan? Hori da nik zuzen ez dakidana. Guztiok dakigu azken urte hauetan bizitzeak aldaketa latzak ezagütu dituela, baserrietatik asko eta askok kaleko bidea hartu duela, bai lanerako eta bai bizitzeko ere, auzoetako eskolak kalean batu direla, etab. Guzti honek —esan beharrik ez dago— bere ondorioak eta arriskuak ditu euskararentzat. Baina bizitzearen martxa geldiaraztea edo aldatzea ez dago gure eskuan. Guk egin behar duguna da gaurko bizimolde berria kontutan hartu eta hor bertan euskararentzat lekua egiten ahalegindu, bizigirot berriak euskara ito ez dezan. Badakit zaila dela. Baserri-girotik hiri-girora aldatze hori gertatu da gure herrian. Eta euskaldunak euskaldun izaten jarraituko badu, euskarak ere, neurri batean, hiritartu beharra izango du.

Badakigu zein den gaur maiz Euskaltzaindiari botatzen zaion harria: euskara batuaren alde jarri dela, eta, beraz, tokian tokiko hizkeren eta batez ere euskalkien etsai bihurtu dela. Baina gauzak ez dira hala. Eta diren bezala azaldu behar zaizkio herriari, ez erdizka, edo apropos direnak eta ez direnak nahastuz. Euskaltzaindiak garbi ikusten du gaurko mundu hiritartu honetan euskarak ez duela etorkizunik batu antzeko euskara molde bat sortzen ez bada, batez ere irakaskuntzarako eta idatzizko zereginetarako, eta horretan ari da. Baina horrek ez du esan nahi herri bakoitzeko euskara-modua eta euskalkia baztertu behar direnik. Euskaltzaindiak nahi du, bada, euskara batua bultzatu eta moldatu, baina nahi du, baita ere, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ahal den neurrian gorde eta lant daitezen, eta baita irakaskuntzan ere leku bat izan dezaten. Horretan, toki bakoitzeko gora-beherek zer eskatzen duten beharko da ikusi. Zubia beharko da egin tokiko euskaratik guztion euskarara. Euskaltzaindiak uste du, bada, denentzat dela tokia: euskara batuarentzat, euskalkiarentzat eta tokiko euskararentzat.

Euskaltzaindia euskalkien kontra ez dagoela frogatzeko ba ote da gaurko ospaketa hau baino froga hoberik? Izan ere, zertara dator gaur Euskaltzaindia Aramaiora? Lehen ere esan dut. Hemengo seme batek, Barrutia jaunak, egindako teatro lan bat gogoratzera; eta teatro lan hori bizkaiera zaharrean eginik dago. Euskalkian, beraz, eta ez euskara batuan. Eta Euskaltzaindiak ez du hargatik Barrutia zapuzten. Berak nahi duena da euskara salba dadila, gaurko kenka larri honetan bizirik atera dadila, behar diren gaurko-tzeak eginik ere.

Aramaiok, bada, euskaldun izaten iraun dezala: horrek digu guri axola.

Eta honekin bukatzen dut. Eskerrak, berriz ere, Aramaioko herriari, udalari eta alkate jaunari.

## PEDRO IGNAZIO BARRUTIA ARAMAIOKO ANTZERKILARIA

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal*

Hirurehun urte pasatu da Aramaioko herri honetan haur bat jaio zala. 1682.eko urte hartan beste zenbait ume gehiago munduratu ziran, jakina, Aramaion eta guztien izenak eliz liburuetan azaltzen dira, legeak agintzen dauen lez. Baina eliz liburu horietara joko bagendu hasieran aitatutako haur horri dagokion zatia besteak baino erabiliago dagoela konturatuko ginake. Izena azpimarratuta, orria tolestua, ...e.a. Gu baino lehenago beste norbait ibili danaren seinalea.

Pedro Ignacio de Barrutia ipintzen dau orrialdearen ezkina batetan; aldamenean haurraren datuak azaltzen dituelarik. Urteetan zehar izen hori ahaztuta egon da liburu hartan. Ia hiru mende oso pasatu behar izan da liburuan inork lehen aldiz murgil egin arte. Ez dakit zein izango zan lehena. Azkue? Ezetz esango neuke. Juan Karlos Gerra? Ba leike. Beharbada Aresti? Arestik ez ebala liburua sekulan aztertu iruditzen jat, datuak On Jose Markiegik bialdu eutsazan eta.

Dana dala, ez dot uste lehena zein izan zan ezagutzeak beste munduko garrantzirik daukanik. Jarraipenari emango neuskio inportantziarik gehiena horrek ekarri baiteusku Barrutiaren bizitzan sakontzeko aukera. Eta jarraipen horri esker, gaurregun apurtxo bat gehiago dakigu aramaioar honen gorabeheri buruz.

Hirurehun urte pasatu da eta Barrutiaren herkide askok gaur izango dabe gizon horren gaineko lehen berria. Gaur, Udaletxe honetan ospatzen dogun ekintzaren bidez, aramaioarraren irudia eskaini dautsagu herriari. Hauxe baita edozein herriko-sume ohoratzeko dan erarik onena, hau da, herriak bereganatu, ezagutu haren oroitzapena gorde dezan.

Baina aurrera egin baino lehenago puntu bat garbi itxi gura neuke. Ez dotela zuetariko inor salatzen Barrutiaz ezer ez edo ezer gutxi jakiteagatik. Ez eta askoz gutxiago be. Errua ez dala gurea badakit. Nik berbaldi hau eskaintzen iharduteak ez deustala inolako meriturik ematen dakidan lez. Zergatik? Bada, nire betebeharra dala uste dotelako. Neuri tokatu jat, eta akabo!

Goazen, ostera, hirugarren mendeurrenarekin. Hainbeste urte eman ondoren oraintxe dogula Barrutia aramaioarra behar bezala aupatzen aitortu gura neban. Eta bakoitzak bere ale txikia ipini behar dauela uste dot, aupada nabaria izan dala ikusi daigun. Ba leike batzuek gu “borono”-tzat hartzea esku artean daroagun ospakizun hau folklorekeria merke besterik ez dala esan leikelarik. Baina ihardunaren bidez okertuta dagozela erakutsiko neuskie, ez baitago arrazoi hobeagorik ariketaren ejenpluak dakarrena baino. Eta inolako txobinismo barik hau esatera ausartuko nintzeke: ezin leikela norberaren baloreak bertan behera itzi eta mesprezatu, arrotzen alde apustua egiteko. Honek berba bat ekartzen deust gogora: salataria, traidorea.

Euskal Herriak dituen baloreak ezagutarazten ihardun behar dogu, euskaldunon bizitza bera janzten eta aberasten joan ahal izateko. Honexegatik, Barrutiari eskainitako mendehurren hau. Denok ezagutu daigun aramaioar honen izen eta izana.

Baina zein arraio da Barrutia? galdetuko deust zuetariko bateon batek sarrera luzezka xamarra egiten ari naizela gehitzen dauelarik. Eta egia da. Parka nazazue eta noan, beraz, zuzen berbaldiaren harira adarretatik ibili beharrean. Pedro Ignazioren gaineko zehazkizunak ezagutzea baita hona ekarri zaituztena.

\* \* \*

Herri honetako Zalgo auzoan jaio zan 1682.ko Uztailaren 3 an. Zalgo-koa zan Pedro Ignazioren ama eta semea eukitzera bere baserrira itzuli zan Arrasatetik. Katharina Basagoitia Olabide eukan izena Pedro Ignazioren amak, eta hogeit urte inguru eukiko eban, semea munduratu ebanean. Seguru ez dakit, baina Katharina, garai hartan, Arrasaten neskame bezala egongo zala iruditzen jat. Nongo etxean neskame? Bada, bere semea izango zenaren aitarenean esango neuke.

Barrutiarrak oso ospe haundikoak ziran Arrasaten eta baita inguruetan be. XVIIgn. gizaldiaren lehen zatian, Arrasateko Udala auzoan, jauregi bat jaso eban Martin Barrutia Etxagibel-ek, Espainiako Armadaren kapitainak. Harrez geroztik eraikuntzari “Palacio” deitu jako. Gaurregun be hantxe dago (1). Martin hau Ana Maria Salinas-ekin ezkondu zan, hau Arrasaten XIVgn. mendetik oso ezaguna dan sendi bateko alaba dalarik. Horra hor, esate baterako, Fray Placido de Salinas y Santa Maria, San Benito Ordenaren Espainiako Nagusia eta Montserrateko Abadea, XVIgn. mendean. Honen jatorria Garagartzako “Santa Maria de Aroca” baserrian egoan, gaurregun “Santa-maixo” bezala ezagututakoan, alegia.

Pedro Ignazioren sendia goi mailakoa zala esan dot. Eta froga Juan Karlos Gerraren *Estudios de Heráldica Vasca* liburuan aurkitu leike, Barru-

---

(1) Eta bertako ugazaba Antonio Plazaola Jauregiarraburu dogu, hau Aramaioko “Basagoiti” (Basauti) baserrian jaioa da. Beraz, gaurregun be zelabaiteko erlazioa ematen da Barrutia-Basagoitia artean.

tia, Barrutia-Etxagibel (aitatutako Martin), Barrutia-Salinas (Martin eta andrearena), Barrutia-Umendia (Pedro Ignazio eta andrea) harmarriak ipinzen baititu.

Martin kapitainak eta Ana Mariak hamairu seme alaba euki zituzten. Horietako bat Pedro Alonso, hau da, Pedro Ignazioren aita. Baina Martinek ez bide eban ondorengoak berezko familia barruan bakarrik itzi gura eta gehiago ekartzen saiatu zan. Aramaioko eliz liburu batetan honela irakurri leike eta:

“...bauticé a una niña que traxo D. Mrn. de Barrutia, vecino de Mondragón, a la que puse el nombre de Mariana... Fueron padrinos..., escribano local, y...beata”.

Ez dau esaten ama zein zan.

Haur jaio berri hori Aramaiora ekartzeko Martinen erabakia eta, urte batzu beranduxeago, Pedro Ignazioren kasua ikusita gero, barrutiarrek Aramaioren zenbait baserri eukiko ebezala esatera, ausartuko nintzake, errenteruek erabilitako baserriak, jakina. Baina hau nire eritzi bat besterik ez da. Dana dala, suposamendu honetaz jarraitu behar dot. Begira: Katharina Basagoitia, barrutiarena izango zan baserri bateko alaba eukiko genduan, eta gazte zala lehen aitatutako Martinen etxera joango zan neskame. Eta gizona gizon danez geroztik hain normala ei dana pasatu zan: Martin kapitainaren semea zan Pedro Alonsok haurdun itzi eban Katharina gaztea. Biak hemeretzi-hogei urtetakoak. Pedro Alonso, gainera, abade izateko bidean. Honen moduko beste kasu batez egin dot topo egun gutxi dala Arrasateko Artxibategian, bertako andra batek, eta Uribarri auzoko abadeak, seme bat euki eben eta.

Orduko abadeen eredua...!

Baina goazen ostera gure kasuarekin. Pedro Ignazio jaio eta urte batzu geroxeagoko agiri batetan irakurtzen dogu:

“dijo que sabe que Don Pedro de Barrutia y Salinas, de la Orden de Santiago, hubo en Cathalina de Basagoitia, a Pedro de Barrutia, hijo natural siendo ambos solteros, y libres de todo género de impedimentos para poderse casar uno con otro, y por tal su hijo natural le criaron y alimentaron.”

Ikusten danez, barrutiarrak ohituratuta ei zegozen. Sasikumeak sortu... eta Aramaiora. Hori bai, zaldunak ez ziranik, inork ez esateko, Barrutia abizena ematen eutseen jaio berriei. Eta Pedro Ignaziorekin berbera gertatu zan. Pedro Alonsok eta Katharinak ez ebela semea sortuta gero elkar ikusiko esango neuke. Gazterik hil zan (1699-V-16) Pedro Alonso, hogetamasei urtekin (1663-7-23.an jaioa). Gaixorik hil zan. Eta beraren testamentuan hone-la irakurtzen dogu:

“Dn. P.<sup>o</sup> de Barrutia Salinas del horden de Santiago, Vicario y cura de la Parroquia de Sancti Spiritus de la ciudad de Salamanca”.

Horra hor, beraz, Pedro Ignazioren bititza eta lana aztertzean kontutan hartu beharko dan puntu garrantzitsu bat.

Pedro Alonsok Arrasaten egin eban testamentua, 1.699-Martxoaren 13.an, Ignazio Agirre eskribauarekin. Kontu garbitzaile bezala-testamentario-beraren anaiak Thomas —Leintz bailarako arkiprestea— eta Manuel itzi zituen, Phelipe Fernandez de la Peña bere morroiarekin batera. Morroi honek eukazan,

“todos los vienes y ropas de seda, lino y lana y dinero que para su servicio havia traído a esta dcha. villa”.

Ekarri abadeak, noski, Eta testamentuan bertan irakurri leikenez, Salamankan eta beste herri batzuetan ondasun gehiago eukan. Familiari joan jakozan bikarioaren ondareak, eta beraren semearen amaz ahazten zan bitartean sasi-arreba Mariana kontutan eukan, honi erhaztun bat itxi eutsan eta. Baina, ez dakit zergatik, Marianagaz berba egitean “sobrina” erabiltzen dau.

Testamentuan azaltzen dauen borondateari jarraikiz, Arrasateko San Frantzisko komentuan izan zan lurperatua, beraren gurasoek eukeen kaperatxoan,

“que me hagan los funerales conforme a persona de mi calidad” aginduta izten ebalarik.

Pedrorenen oinordeko-heredero-bakarra beraren semea izan zan, testamentuan dioen lez:

“...y en el remanente que quedare de todos mis vienes, derechos y acciones, echo el desquento del quinto que a de hacer la orden según derecho, como también de los gastos de mi enfermedad y funerales, deyo y nombro por mi heredero universal de todos ellos a Pedro de Barrutia, mi hijo natural, avido en Cathalina de Basagoitia, natural y vecina de Aramaiona, que por tal la declaro y es condición expresa que atento el dicho Pedro de Barrutia mi hixo es de tierna edad, lo que motivase la dicha herencia para entrar en poder de los dchos. D. Manuel y D. Thomas de Barrutia, mis hermanos, a quienes encargo y ruego le asistan con todo lo necesario y distribuyan el mandamiento de mi herencia en acomodarle atendiendo a las maiores conbeniencias suias, como espero de la lealtad de mis dichos hermanos”.

Salamankan bikario eta Leongo San Markos-en kalonje, ondoko lerroetan irakurtzen dan lez:

“En el Real Conbento de Sn Marcos de la horden y Cavallería de Santiago de la espada extramuros de la Ciudad de León, a quatro días del mes de Junio de mill y seiscientos y noventa y nueve años, ante mi el escribano y testigos, los Sres. priores y canónigos de dho. Real Conbento, estando juntos en su capítulo y sala Prioral, para lo cual fueron llamados a son de campana como es costumbre..., dijeron dar y otorgar todo su poder cumplido el que de derecho se requiere y es neccessario. Mas puede y debe baler a D. Melchor

Alegre y Blanco y D. Ignacio de Lossada y Prada, canónigos de este conbento, y cada uno y en solidum para que en nombre de este Real Conbento percivan y cobren el quinto de todos los vienes, heredades, frutos y demás derechos y acciones que hubieran quedado por fin y muerte de D. P. de Barrutia canónigo que fue de esta casa y vicario del Conbento de Sancti Spiritus de Salamanca, y todo lo demás que por razón de la herencia de dicho quinto toca y pertenece a este dicho Real Conbento, en conformidad de sus loables estatutos y consejos apostólicos y reales.” (1)

Baina ikusi dogunez, ondareak banatzeko orduan aitak ama baztertu ba eban be, are mingarriago iruditzen jat Pedro Ignazioren portaera, ez baitirudi jaramon haundirik egin eutsanik, Katharinaren heriotze agirian ipintzen dauenari jarraitzen badautsagu:

“En veintidós de Noviembre de mil setecientos cuarenta y tres años fue enterrada en la Parroquia de San Martín de Zalgo, Catalina de Basagoitia. Murió de edad de ochenta años, poco más o menos. Recibió los Santos Sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema Unción. Era pobre. Para que conste firmé. Joseph de Belarroa.”

Beraz, Katharina ez zan inoiz ezkondu. Testamentuan ez dau ipintzen Pedro Ignazioren aitaren ondareak zeinolakoak ziran. Baina asko izango zala pentsatu behar dogu, ondokoa irakurrita gero:

“Y para después de los días del dicho mi hixo y si falleciese sin tomar estado, en cualquiera de los dos casos buelba al tronco la dcha. mi herencia o la parte que sobrase de ella, y con la dcha. cantidad se aumente la memoria de las dos misas hasta que alcanzaren los réditos, imponiéndose el dho. principal a razón de cinco reales cada misa y que con esta obligación quede el subcesor del mayorazgo de esta mi casa y esto mismo sea el Patrono de dcha. Capellanía y los demás que fuesen subcesores de el dcho. mayorazgo y que llegado el caso de aumentarse la dcha. Capellanía el subcesor o subcesores que fuere de dcho. vinculo tenga libre facultad de nombrar capellán a quien quisiera.”

Benetan, hotzean harturik, ezin Pedro Ignazioren amarekiko jokaera onartu, hori Arrasaten ederki ondo bizi zala ama behartsu hil baitjakon Ara-maion. Zortzi kilometro, bion arteko distantzia fisikoa. Ikusten danez, askoz haundiagoa, gogoarena.

\* \* \*

“En tres de Julio de mil seiscientas y ochenta y dos a., yo D. Andrés Garro (de la Parroquia) bautizó a Pedro Ignazio de Barrutia, hijo de D. Pedro de Barrutia y Salinas y de Catharina de Basagoitia. Sus padrinos fueron Dn

(1) D. Ignacio de Lossada y Prada Arrasatera etorri zan, familiako gorabeherak eza-gutzera.

In.º de Arraga y Luisa de Arraga. Abuelos paternos D. Mrn. de Barrutia y D.<sup>a</sup> Ana Maria de Salinas, vecinos de Mondragón; maternos Gregorio de Basagoitia y Mariana de Olavide, vecinos de este valle. Y lo firmé D. Andrés de Garro (rubricado)”.

Don tituluak, pertsonaien maila adierazten dau.

Horixe da, beraz, Zalgoko Martin Deunaren elizako Jaiotagiritako Bostgarren liburuan, eta berrogeitamahirugarren orrialdean irakurtzen doguna. Lehen aitatu dot eta berriz esan behar dala iruditzen jat: sasiseme nahiz alabei dagokienez, barrutiarrek Aramaiorako joera ei eukeen. Mariana eta Pedro Ignazio hemen jaio arren, Arrasaten egin eben heuren bizitza. Biek Barrutia abizena eroien eta —nahiz eta sasitxitak izan— ondo konpondu ziran familiako gainerakoekin, lehen azaldu doten ereduak erakusten deuskunez.

Hau dala eta, Pedro Ignaziok ez ebala urte asko Aramaion emango, uste dot. “Al que criaron y alimentaron” irakurri dogu, baina mutiko koxkorrari hegoak hazi bezain laster jaioterritik ospa egingo ebala, pentsetan dot. Nora? Bada, lehenengo Arrasatera, beraren aitajaunarengana esango neuke. Baina gero, aitag berak, Salamankara eroango ebala, uste dot. Beharbada “sobrino” bezala, baina Gaztelako hiri hartan egingo zituela erdi mailako ikasketak iruditzen jat. Beranduago, osabak egingo ziran kargu testamentutik ulertu leikenez.

Hamasei urte zituan Pedro Ignaziok, aita hil jakonean. Garai hartakoa da gure gizonari buruz dogun lehen berria. Ez dot beste arrastorik aurkitu 1.710 arte.

Hain zuzen be, 1.710.ean Arrasateko eskribauaren lanpostua bete behar zala eta, Pedro Ignaziok bere burua azaldu eban:

“Y estando assi juntos, se leyó un pedimento de Pedro de Barrutia, en que suplica se le presente en la plaza que está vacante por muerte de Ignacio de Aguirre. Y por concursar en él las calidades que para el empleo se requiere, se le presentó la numería...”

Honela dio Arrasateko Udal-agiri batek, 1.710-11-21.ean.

Eta entzun duzue, onartu egin eutseen eskabidea. Honegaz ba da puntu bitxi bat, aitatu behar dotena. *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoan, Serapio Muxikak “El vascuence en los archivos municipales de Guipúzcoa” artikulua idatzi eban. Honela dio zati batek:

“Siguiendo mis investigaciones en los archivos de la provincia, he tenido la fortuna de hallar estos días en el archivo municipal de la villa de Eibar la traducción al vascuence de unas ordenanzas municipales sobre elecciones, dictadas por el Sr. Cano y Mucientes, corregidor que fue de Guipúzcoa desde el año 1754 al de 1758. Dicen así las citadas ordenanzas:”

Eta hamabost artikulutan, hauteskunde edo “elezinuetarako” agintzak ematen ditu. Ikus daigun zer dioen zortzigarrenak:



“Baita bere egon della Conttuban Justticia Errejimenthu gustticha es-teila nombrau escribauzatt, habaderen semerik, verrogeitta amar ducatten-penan bacoachac.”

Ordenantza hau, urte batzu lehenago izan balitz, etzukeen Pedro Ignazio bere karguan ihardun ahal izango. Baina etzan honela izan, eta Barrutia 1.753.arte, aritu zan udal beharrean. Urte hartako Irailean azaldu eban lana izteko eskabidea.

“en atención a su abanzada edad e impedimentos de su persona”.

Eskribau izateari buruzko beste aipamen bat egiten dau Barrutiak bere testamentuan:

“Declaro que al tiempo y quando me hube de examinar de escribano numeral de esta villa, que fue el año pasado de mill setecientos y diez, hizo esta noble villa la presentación de la numería que quedó bacía por fin y muerte de Ignacio de Aguirre escribano que fue de número de ella, la que era de Andrés de Aseguinolaza y Gerónima de Guezala su muxer, vecinos que fueron de esta dicha villa, la qual dicha numería me la cedió verbalmente para durante los días de mi vida para que usase de ella por renta de tres ducados de vellón en cada un año sin capitalidad alguna, la qual dicha renta he pagado y satisfecho al susodicho en vida suía y después a sus hixos y herederos como consta de mi libro de quantas y de años que se hallan en ella, la qual cesará al tiempo de mi fallecimiento y quedará la numería para ellos o como dispusiese esta noble villa y libres mis hixos y herederos de dicha obligación por quanto se le agrega a dicha numería todo lo travajado por mi desde el año de mill setecientos y once que obtube título de su Real Magestad, con aprobación de mi examen”.

1.711.ko Martxoaren 28an azaldu eban Barrutiak bere titulua Udaltxean.

“Este día presentó Pedro Ignacio de Barrutia el título de escribano numeral de esta villa, despachado por su Majestad en Marzo de este presente año.”

Barrutia, Maria Luisa Umendia Arraga andereñoaz, ezkondu zan 1.713.ko Abenduaren 7an. Odolkide ziran laugarren belaunaldian eta Aita Sainduak baimena eman behar izan eban ezkontza egiteko. Sendiaren tradizioari jarraituz, eta garaiko ohituren arauera, seme alaba askotako gurasoak izan ziran: Martin Joseph, Arrasateko errenten administratzailea; Pedro Antonio, Arrasateko eliza nagusiaren presbiteroa; Maria Joseph de Santa Rita eta Maria Vicenta de Santa Teresa de Jesús, Arrasateko Konzepzioko lekaimetxean errezel beltzeko erlijiosak; Maria Francisca, Miranda de Ebroko eskribaua zen Ignazio Pinedo-ren emaztea; Maria Michaela eta Maria Antonia, ezkongabeak.

Pedro Ignazio Arrasateko eskribau izatetik aparte beste kargu batzu be euki zituan. Esate baterako, Udal-administratzailea; herriko Konzepzioko

lekaimetxearen ordezkaria; Arrasateko aitonen semeen (“fidalgos”) sindi-koa;...

1753an, emaztea hil jakon Pedro Ignaziori, eta hau be etsipenezko egogera batetan jausten dala esango neuke. Andrea gaixoaldi luze baten ondoren hil zan, eta honek markatu ei eban Pedro Ignazioren ordutik aurrerako izakera. Beraren azkena ikusten dau eta azken borondatea adierazi behar dauela konturatzen dalarik, testamentua egiteari ekiten dautsa urte hartako Ekainean,

“hallándome como me hallo en sanidad aunque con ayes cotidianos y en edad mui abanzada”.

Lehen ikusi dogun lez, bertako urte Irailean, lan uztea eskatu eban. Andrearen heriotzeak zerikusirik eukiko eban erabagi horretan. Cristoval Bentura de Urrechu eskribauarekin egindako testamentutik zati honeik ateratzen dodaz:

“Cuando su divina Magestad fuese servido de llamarme de esta presente vida a la eterna, quiero y es mi voluntad que mi cuerpo sea amortajado en avito de nuestro seráfico Padre San Francisco, y enterrado en la Iglesia Parroquial de San Juan Bautista, de esta villa en la sepultura que tenemos enfrente del altar de San Martin de ella, donde se hallan enterrados Maria Luisa de Umendia y Arraga mi difunta muxer y sus padres, y que sea con el acompañamiento de la Comunidad del Combento de nuestro Padre San Francisco de esta villa, con onra maior de entierro, novena, cavo de año, y misa añal en la misma conformidad que la hicieron sus funerales la dicha Maria Luisa mi muxer”.

1.759.ko Urriaren 5ean, hil zan Arrasaten, Pedro Ignazio. Hirurogeitamazazpi urte zituan.

\* \* \*

Pedro Ignaziok “Acto para la Noche Buena” titulupean antzerki lan bat idatzi eban, Arrasaten emateko. Ordu batzu eman dodaz hango Udaletxeko artxihoan, baina orain arte, behintzat, ez dot aurkitu antzerkia sekulan eman da izan zanaren daturik.

1.897an, Barrutiaren orijinala, Migel Biguriren liburutegian ei egoan. Biguri hau, Barrutia sendiaren ordezkaria zan eta Juan Karlos Gerrari bialdu eutsan orijinala, honek segituan kopia bat Resurrección María de Azkue jaunari bialtzen eutsalarik.

*Euskalzale* aldizkarian argitaratu eban Azkuek Barrutiarena, honelako oharra ipintzen ebal:

“Mondragoi-ko geure adiskide batzuk lortu ta eskuratu dauskue, irakurkizun au. Erderazko gauza asko ta erderakada geiago eukiarren, guztia agertu nahi izan dogu, azaldariak (Mondragoiko bertako *eskribau* Pedro Ignazio Barrutia-tarrak) orain IA BERREUN URTE egin eban erara”.

Beraz, ez jakon Azkueri iruditu lanak meritu haundirik eukanik. Eskerak, urte batzuk pasatu ondoren obra ostera be izan zala aztertua. Eta sakonkiago egin zala esan behar da. Aita Villasante, Luis Mitxelena, Ibon Sarasola..., eta, batez ere, Gabriel Aresti orain arte “Gabonetako Ikuskizuna” hoberen ikertu dabenak doguz. Aurten, berriz, ostera ekin jako lanaren azterketari eta beharrezkoa jat Joseba Lakarra, Jon Kortazar eta Juanmari Lekuonaren izenak aitatzea.

Baina ez dot orain jaun horien eritzirik azalduko (parkatuko deusteela, uste dot), eta bai —ordea— *La Provincia de Guipúzcoa* izeneko liburuan Francisco Elias de Tejada eta Gabriella Percopo ikerle-idazleek adierazten dabena:

“Pieza que le ha hecho acreedor al título de fundador del teatro vasco que le discierne Luis de Michelena, mientras el Padre Luis Villasante palpa en ella la naturalidad cautivadora. Tan moderna en sus rasgos que en 1956, con leves arreglos, sorprendió la buena fe de un jurado, alcanzando fácilmente el primer premio en un concurso literario. En verso fácil relata los sucesos que en Navidad evocan los cristianos, introduciendo personajes vivacísimos, compuestos para la lucha de dos reinos. Que Cristo es, según el arcángel San Gabriel, el “zeruko erregea”, el rey del cielo; Lucifer el príncipe del infierno “infernuko prinzipa”. Es la pieza reflejo del teatro clásico del siglo XVII, sin la menor concesión a la estética afrancesada de la hora, más cerca de la *Raquel* de Vicente García de la Huerta, que de las comedias moratinianas por la frescura popular y por la viveza alegre de los personajes. Incluso aparece el gracioso inevitable en los tablados clásicos hispánicos y la burla desenfadada que no repara en anacronismos para hacer brotar la sonrisa en el auditorio; tal cual la escena en la que los mondragoneses se niegan a pagar a Augusto el tributo demandado, aún siendo el gran emperador del mundo entero, “mundu guztiko Enperadore Zesar Augusto aundiak”. Por sus valores literarios, espejo del gusto popular y pervivencia del teatro no contaminado de galicismos postizos, el *Acto de Nochebuena* ofrece el signo político de un estilo negador de la europeización literaria”.

Hauxe izan da gure herkideari buruz esan gura nebana. Gehiago azaldu ahal izango litzake, baina luze joko gendukenez gero ez dot uste merezi daunik. Gainera orain Juanmari Lekuona dator eta berak emango dautsue, nik baino hobeto, obra honen inguruan diran xehetasunen berri.

Amaitzeko, gogoeta bat eta gurari bat.

Gogoeta: Barrutia Euskal Literaturaren historian mugarri bat dogula.

Guraria, berriz: Ez dadila sekulan Aramaioko euskal harrobia agortu.

Besterik ez. Eskerrik asko.



## P. I. BARRUTIAREN III. MENDEURRENA

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Endrike Knörr*

Jaun-andereok!

Egun, hemen, liburu bat aurkeztu nahi genuen, baina ezina gertatu zaigu garaiz ateratzea. Olentzarokari ez, Erregeetan etorriko dela espero dugu.

Barrutiaren mendeurreanaren prestalanetan hasi ginenean, Euskaltzaindiaren aginduz, liburu bat argitaratzea pentsatu genuen horretarako sortua zen Batzordean. *Gabonetako Ikuskizunaz* gainera, liburuak itzulpena ekarri beharko luke, orobat zenbait artikulu. Testuaz eta itzulpenaz Joseba Lakarra arduratu da, berriki, *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* deritzan aldizkarian aritua (XV (1981), 121-156.orr). Egile berak obraren alderdi batzu aztertu ditu. Beste aldetik, Jose Mari Belez de Mendizabal aramaioarrak Barrutiaren biografiar lan interesgarri bat idatzi du. Eranskin gisa, Azkuek Gerrari egin zion esker onezko gutuna. Ondoren, Jon Kortazarren artikulua dator, lehen ondu zuena (ikus *Fontes Linguae Vasconum*, XIII (1981), 221-252.orr) hedatuz eta erdal itzulpena gehituz. Azkenik, Juan Maria Lekuonaren lan bat aurkituko duzue, obraren neurkeraz.

Eskerrak eman beharrean naiz, liburuaren prestatzaile jardun dudanez gero. Eskerrak, bai, aipatu ditudan lagunei, Halaber Arabako Foru Diputazioari, berorren babespean plazaratzen bait da liburu. Eta eskerrak ere *Anuario* eta *Fontes* aldizkarien zuzendariei, lehen argitaratu lanak liburuon sartzeko baimenagatik.

Ez nuke bukatu nahi, Batzordearen inguruan ibili den zurrumurru bat aipatu gabe. Baliteke laster edota denbora luzearen buruan jaun batek *Gabonetako Ikuskizunaren* eskuizkribu jatorrizkoa erakustea. Poztuko gara, noski, alde, horrela bada. Baina jakin bedi ere atea zabalik izan dituela jaun horrek, barrutik dei egin zaiola, inolako erantzunik jaso gabe.

Mila esker.



## ARABA ETA EUSKARA

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Emilio Gevara, Arabako Diputatu Nagusia*

Queridos amigos:

No es ésta, la primera vez que la Diputación Foral de Alava acude a una sesión pública de la academia. Estuvo la Diputación en las conmemoraciones de Juan Bautista Gámiz, de José Pablo de Ullibarri, en el homenaje a Odón de Apráiz, en el ingreso en la Academia de Enrique Knörr, etc... Actos, por otro lado, de los que ya quedan o van a quedar el mejor de los recuerdos: las publicaciones de sus obras.

Tampoco será ésta la última vez que nuestra Diputación participe en las sesiones de la Academia, porque, por encima de las personas que en cada momento sean elegidas por los alaveses para gobernarles, la Institución seguirá trabajando por la vida del euskera, para decirlo como vuestro académico Severo Altube.

Eran unos los Diputados que decidieron fundar, junto con las Diputaciones hermanas de Navarra, Vizcaya y Guipúzcoa, la Academia de la Lengua Vasca.

Eran otros los Diputados que ya en 1977 declaraban al Euskera patrimonio cultural de la Provincia y lengua oficial en la Administración Foral, e iniciaban la creación del Servicio del Euskera.

Son hoy otros los Diputados que han venido trabajando para desarrollar el Servicio y convertirlo en instrumento de la reuskaldunización, tan necesaria, tan evidentemente reflejada.

Y dentro de pocos meses habrá otros Diputados que intentarán cumplir con su obligación —porque todo esto es para nosotros una obligación— y lograrán con toda seguridad mejorar y acrecentar lo que hasta hoy hayamos podido realizar.

Y es que, en definitiva, la Diputación Foral permanentemente tiene que estar y estará al servicio de su pueblo, y por tanto y por definición al servicio del euskera.

Por ello, es evidente que debo de ser yo quien, en nombre de la Diputación Foral de Alava y con toda sinceridad, os agradezca cuanto venís haciendo por la lengua y la cultura de nuestro pueblo, y os pida la mayor benevolencia posible al juzgarnos por lo que no hemos sabido hacer o disponer.

Unicamente me atrevo a solicitar desde aquí y estimar que nosotros y los que vengan hagamos, en estos momentos tan importantes para nuestro país, y precisamente para corresponder a vuestro trabajo el mayor de los esfuerzos posibles para saber separar lo que pueden ser legítimas y lógicas discrepancias al concretar las vías y los modos de reuskaldunización, de lo que tiene que ser voluntad y deseo unánime de todos: que el euskera, como toda lengua, se convierta en auténtico instrumento de comunicación, y por tanto de fraternidad, entre hombres de un mismo pueblo que desean convivir y realizarse como tales colectiva, solidaria y pacíficamente.



**EUSKAL FESTEN  
MENDEURRENA**



## EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA SORTZEAN

*Bilbo, 1982-VII-30*

*Fr. L. Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Peli Martin, Arabako Diputazioko Kultura saileko ordezkari jauna:

Jaun-Andreak: Arratsalde on eta eskerrik asko, Euskaltzaindiaren batzarre honetara etorri zareten guztioi!

Bi arrazoi haundiz bildu gara gaur hemen, Bilbon, batzarre ospetsu honetan.

Bata da, gaur betetzen direla ehun urte euskal festak hemen Bilbon egin zirenetik. Bestea, berriz, Euskal Idazleen Elkarteari hasiera edo sorrera eman nahi zaiola gaur. Euskaltzaindiaren barnean bada Literaturat-batzordea, eta batzorde honek Elkarte hori sortzeko asmoa hartu eta aurrera eraman nahi du. Gaur, hain zuzen, kalera atera nahi ditu Elkarte berri honen xedeak, helburuak eta ibilpide legeak.

Lehenbiziko gaiari buruz —orain dela ehun urte hemen Bilbon egin ziren euskal festak, alegia— ez noa ezer esatera, zeren Arana Martija eta Alfonso Irigoien jaunak horretaz mintzatuko baitira.

Beste gaiari lotuko naiz, hitzerdi bat baizik esango ez badut ere.

Zenbaitek dio ea zergatik edo zertarako sartzten den Euskaltzaindia literatura bultzatzera edo Idazleen Elkarte muntatzera; librea izan behar duen arlorik edo esparrurik baldin bada, literaturarena dela, etab. Arrazoi du, noski, literaturak libre izan behar duela dioenak, eta, zinez, Euskaltzaindiak ez du inor katigatu nahi. Euskaltzaindiak, honetan, beste gauza askotan bezala, zera egiten du: gaurko egoera eta premiak ikusirik, obra honi hastapena eman, Elkarte hau martxan jarri eta kaleratu, alegia, gero bere baitarik bizi dadin.

Gauza bat da ezin ukatua, agiri-agirian eta begien bistan baita, hots, gaur-egun sorkuntza lana edo kreaziozko literatura urrituaz doala gure artean, makal eta erkin dabilela. Eta hori hizkuntzarentzat gaitz larria da.

Patxi Altunak ateraberi du “Mendibururen idazlan argitaragabeak” deritzon liburua, Mitxelena jaunaren hitzaurre batekin. Hitz-aurre honetan honako hau irakur daiteke: “Harrigarri bada ere, hizkuntzalaritzarako joera (eta hizkuntzarekiko ezaguera) maizago ageri dira gurean, filologi-ikasleen artean, literaturaren estudiorako isuria baino. Gurean diot, euskal filologian, bestetan ez baita horrelakorik gertatzen, alderantziz baizik sarrienik. Eta, edozein desoreka kaltegarri bihur daitekeenez gero, badirudi komeni litzaugu-keela, oraingoz bederen, pisuak berdintzen saiatzea” (Op. cit., LXXIX. orr.).

Zergatik urritasun hau? Arrazoi bat baino gehiago aipa daiteke, segur. Baina bat bakarrik aipatuko dut: idazleak bakarti eta babesik gabe aurkitzen duela gaur bere burua. Inprenta kostuak izugarri altxatu dira, salmenta, berriz, guztiz bakana eta urria da; eta Argitaldariak guztiz esku-lehor portatzen dira idazleekin. Orduan zer egin behar du honek? Mututu, idazteari utzi, edo Axular-ek esango lukeen bezala barrenean gelditu eta estali. (Ax. 6)

Esango didazue azken bolara honetan euskal liburu pila ateratzen dela plazara, baina irakaskuntza mundukoak dira gehienbat. Sorkuntza literatura, aldiz, literatura ederra edo artezko literatura gainbehera doakigula diote euskal liburu berrien kontu daramatenek. Eta beste literatur-motei deus kendu gabe, alderdi hau suspertzeko eta indarberritzeko zerbait egin beharra dago.

Euskaltzaindiko literatur-batzordeak uste du, bada, Idazleen Elkarte tresna eta bide egokia izan daitekeela idazleen eskubideak zaintzeko eta baliarazteko. Eta orduan idazleek ere giro hobea izango dutela lan egiteko.

Eta zeregin hau Euskaltzaindiarena ez dela dioenari, Euskaltzaindiaren beraren lehen Arautegiak bere 5. artikuluan dioena gogoaraziko nioke. Hara pasartea: “A la sección tutelar corresponde velar por la conservación, difusión y pureza de la lengua en todos los órdenes de la vida y de las relaciones sociales y fomentar la literatura vasca en todas sus manifestaciones”.

Gainerakoan, beste xehetasunetan ez naiz sartuko, zeren gurekin baititugu Jagon Sailburua, Literatur-batzorde burua eta literatur batzorde idazkaria, eta horiek arazo honi buruz zernahi berri eta zertzelada emango digute.

Eskerrik asko berei eta entzule guztiei!

## BILBOKO EUSKAL JAIEN MENDEURRENA

*Bilbo, 1982-VII-30*

*Jose Antonio Arana Martija*

Denok dakizuenez, Iparragirrek Madriden *Gernikako Arbola* kantatu zuen urte berean, 1853an, Antoine d'Abadie jaunak antolatu zituen Urruñan lehen Euskal Jaiak, eta hurrengo hamaika jaialdiak ere Lapurdiko herri honetan ospatu ziren. Gero 1865.etik hasita 1876. arte, Saran antolau ziren, eta horien artean, 1869.ekoa da aipagarria, lehendabiziz bertsolarien txapelketa eratu zelako eta txapelketaren azkenera gizon bat eta neska bat heldu zirelako.

Donapaleu eta berriz Sarako Euskal Jaiak ospatu ondoren, mugatik honantz etorri ziren hurrengoak, Elizondon 1879.ekoak antolatuz. Otaño eta Elizegi bertsolariak azaldu ziren Elizondoko jaietan eta olerkarien artean Felipe Arrese Beitiak aditzera eman zizkigun beraien dohaiak. Han zegoen mahai buruan Artuko Kanpion jauna. Urte berean, mugatik honako eremuan, Donostian ere ospatzen dira Gipuzkoako lehen Euskal Jaiak.

Hurrengo urtean, 1880an, Gipuzkoako Donostian, Nafarroako Beran eta Zuberoako Maulen antolatzen dira Euskal Jaiak. Eta Bizkaira ere bada-tozkigu, Begoñan ospatzen baitira. Luis Iza Agirrek, hurrengo urtean Calderon de la Barca-ren *Zalameako Alkatia* itzulita argitara emango duenak, irabaziko du lehen saria. 1881.ean, Gipuzkoan Euskal Jaiak toki bitan izango dira: Irunen eta Donostian.

Heldu gara Bilboko Euskal Jaietara, 1882an, orain ehun urte direlarik. Saran eta Iruñean ere ospatzen dira baina guri gaur Bilbon oroitzea dagokiguna, hemen egin zen antolakizuna da.

Uztailaren 30ean, igandez, eta 31an, astelehenez, egingo ziren jaien berri *Euskal-Erria* aldizkariak iragarriko zuen irakurleen artean. Jaien berri Iruñeko *Revista Euskarak* ere eman zuen eta hemen Bilbon, liburuxka bat argitaratu zen Lore Jokoen araudi eta programa emanez. Hamalau lan aurkeztuak zirela diosku aurretiaz *Euskal-Erria* aldizkariak, bakoitzaren izenburua emanez.

Bilboko Euskalerrria Elkartearen eskuetan utzi zuten Jaien antolaketa, Sociedad La Euskalerrria, erdarazko aldizkariak diotenez. Elkarte hau Erribe-

ra kaletik San Nikolas elizara zihoan kalean zegoen, 8. etxean. Uztailaren 30ean, igande goizez, gaur ehun urte direlarik, prestaera zehatzetako lanetan zebiltzan elkartekoeak. Antolakizun burua Aureliano Galarza zen, mungiarra bera, gero 1887.eko Azaroaren 8an, euskarazko katedra bat sortzea Bizkaiko Diputazioari eskatuko ziona. Elkartearen Burua zen. Fidel Sagarminaga zen ordea, Ohorezko Burua. Txistularien eta musikegileen sariak erabakitzeke batzordearen buru Aureliano del Valle zen. Eta literatur sailean eman behar ziren sariak erabakitzeke han zebilen gidari Arturo Kanpion, lehen eta beste toki batzuetan hartutako esperientzia Bilbora zekarrena.

Bizkaiko ikurrin bat jarri zen Euskalerrria Elkartearen egoitza etxe aurrean; eta argiz ondo apainduta zegoela aurrekaldea, diote aldizkariak. Barruan, hainbat euskaldun eta euskal gizonen oroigarriak jarri zituzten eta horien artean azpimarkatu behar ditugunak: Iparragirre, urte bete lehenago, 1881.eko Apirilaren 6an hil zena; Mateo Benigno Moraza, foruzaleak ziren Elkartekoak eta; Sebastian Mendiburu, orain bezala, orduan ere idazle honen mendeurrena betetzen baitzen.

Igande goizean, bertsolarien txapelketa egitea asmatu zuten antolatzaileek. Baina ez zen bat ere aurkeztu saiora eta eginkizun gabe geratu zen goiza. Gero, 14 urte barru, berriz Bilbon Euskal Jaiak antolatu zirenean, 1896an, bertsolariak ez zuten hutsik egin eta Euskalduna Frontoian eratu zen txapelketan Elizegi eta Beldarrain bertsolariak helduko ziren azkenera.

Gaueko 9retan danbolindarien txapelketa hasi zen, eta ordu biko saioa egin zuten azkenean Julian Uria txapledun aldarrikatu arte. Alzola, Durango, Eibar eta Orduñako Txistulariek parte hartu zuten txapelketan. San Inazioaren Martxa, jaiaren bezperan, Esku-dantzaren doinuak eta beste doinu libre bat izan ziren txistularien saiorako doinu hautatuak. Irabazlea getariarra zen: Julian Uria Aizpuru. Urte terdi lehenago, Bilboko Udal Txistularia izan zen Francisco M.<sup>a</sup> Arzuaga Letamendia "Txango" hila zen, 1881. eko Urtarrilaren 14ean. Eta hutsune hau betetzeko eratu zen lehiaketara, hainbat txistulari etorri ziren. Orduan, Pedro Uria, Iruneko txistulariak, irabazi zuen lehiaketa; beraz, Euskal Jaietako egunetan Pedro zen Bilboko Txistularia eta Julian anaia irabazi zuen Jaietako txapelketa. Gaueko jaialdi hau amaitzeko, Uria anaia txistu kontzertu eder bat eskaini zuten, eta Alzolako txistulariek ere parte hartuz, amaitu zen gaueko jaiak, han zeuden guztiek *Gernikako Arbola* kantatuz.

Baina ordurako Musikegileen saria ere erabakita zegoen. Eta Aureliano del Vallek zuzentzen zuen batzordeak erabaki hau hartuta zeukan: lehenengo saria, Tolosako Modesto Letamendiari eman zioten; eta bigarrena, Segurako L. Z. letrekin agertzen zen bati. Igande gaueko saioa hasteko, eta astelehenekoan berdin, Letamendiaren musika lana kantatu zuten Elkartekoeak, piano laguntzaile Aureliano del Valle zelarik.

Musikegile lehiaketa honek merezi du irazkintxo bat. Modesto Letamendia Erasun, Tolosan jaioa zen 1828an; eta bertan, jaioterrian, hilko zen

1887an. Piano eta bibolin irakaslea zen bertan, Tolosan. Bera ezaguna ez bada, haren lan bat oso zabaldua da Euskalerrian “Arantzazuko Ama Birjina” kantuaren egilea baita. Lehiaketa honetarako aurkeztu zuen musikalana, Felipe Arrese Beitiaren olerki batekin baliatuz prestatu zuen: “*Arbola bat.*” *Euskalerrria* aldizkariak argitaratu zuen Jaietako urte berean; eta gero, Azkuek birargitaratu *Euskalzale* aldizkarian, 1897an.

Bigarren saria irabazi zuen L. Z. hori inork etzekian nor zen eta honen berri gaur hemen emotea dagokit. Leonzio Zaragozano zen musikegile hau, donostiarra bera eta orduan, Segurako Konzepzionisten komentuan kapeilaua. Honek ere Felipe Arrese Beitiaren olerki bat erabili zuen musikatzeko: *Arbola bat zan paradisuan*, 1881.eko jaietan saritua. Musikalan hau ere, *Euskalerrria* aldizkarian agertzen da argitaratuta.

Astlehenean, San Inazio egunean, Literatur saileko lehiaketaren erabakia aldarrikatua izan zen. Hiru gai ziren lehiaketarako jarriak eta bakoitzaren irabazleek, hauek izan ziren:

## 1. Gaia

a) Klaudio Otaegi, hondarribiarra, *Arbolari oroipena* lanagatik. Hara hemen olerkiaren lehen bertsoak, Jose Manterolak orduan irakurri zituenak:

Mila kolore dituen ibar parretsu baten erdian  
Jaunak paratu zuen aritz bat lur sendo eta gurian  
euskaldun denok bizi gintezen doatsu bere azpian.

b) Felipe Arrese Beitia, otxandiarra, bizkaieraz idatzitako lan bategatik, hots, *Libertadea, baina Gernikako Arbolapean*. Olerkiaren hasiera hau dugu, orduan Luis Iza Agirrek irakurri zuena:

Zeruak beti dakustaz dollor  
odei bat bere bagarik,  
ia sei urte onetan emen  
ez dabe opa euririk;  
eguzkiaren berotasunak  
gaukaz ain baltzizkatu rik,  
¿nok esango dau ez gagozala  
azalez gaztelarturik?

Sei urte lehenago, hain zuzen, foruak moztuak ziren.

## 2. Gaia

a) Felipe Arrese Beitia irabazi zuen 2. gaiaren saria, *Lauburugaz laurak bat* izenburuko lanarekin.

Olerkiaren bukaera hau zen, Ramon Adan de Yarzak Jaietan irakurri zuena:

Gora Bizkaia, gora Gipuzkoa  
 Naparroa ta Araba!  
 Laurok genduzan eskubideen  
 besteren eske ez gara;  
 Eta azkenez gora Lauburu  
 Euskal-erriko bandera,  
 beragaz geure Foru maiteak  
 biztuko doguz atzera.

b) Ramon Artola, donostiarrak, irabazi zuen bigarren saria, *Oh Euskal-erri maitea!* lanarekin.

Artolaren olerkiaren lehen zortzikoa hau da, orduan, Manterolak irakurritikoa:

Zuri begira nago  
 Bainan, nola! nola!  
 lengo antzikan ezin  
 emanik inola;  
 atzo zinan zorion  
 guzien krisola,  
 Eta gaur? gaur bestien  
 gisan española!

### 3. Gaia

Foru zuzenbidea aztertzeko sortua zen 3. gai hau, eta Yanziko Salvador Etxaidek irabazi zuen saria, *Hilburuko* gaiaz idatzitako lan batekin.

Asteleheneko saio hau, Letamendiaren kantuarekin hasia zena, Gernika-ko Arbola, denek zutik kantatuz bukatu zen. Fidel Sagarminagak hitzalditxo bat egin zuen eta eguerdiko giro eder batetan, aurreskuak eta arin-arinak dantzatu ziren denen txalo eta alaitasunezko besarkaden artean.

Nire txostentxo hau amaitu orduko, beste aipamen bat ere egin beharrean naukazu, jaunok. Euskal Jaiak bukatu ondoren, Erakusketa bat eratu zen Bilbon 1982.eko Abuztuan; eta erakusketa horren inguruan, Literatur Lehiaketa bat ere antolatu zen. Hemen ere Felipe Arrese Beitiak irabazi zuen saria *Bizkaitar zarrak eta erromatarrak* olerkiarekin. Ikusten dugunez, otxandiarra zen, egun haietan, sari irabazle ospetsua eta urteko muga igarotzen dugun momentuan, merezi du gure oroipen eta txaloa.

Besterik ez.



## BILBO EUSKAL ARLOAN ERAGILE

Bilbo, 1982-VII-30

Alfonso Irigoien

Jaun andreak:

Orain ehun urte, ordurako Foruak galdurik (1) eta oraindik Gernikako batzarretan nahi zen euskal katedra sortu gabe (2) eta Arana Goiri-ren asmoz eta eraginez bultzatu zen mugimendu bizkaitarra, geroago abertzale deituko zena, abiatu gabe (3), Bilbon ere Euskal festak egin ziren, beste leku askotan urteetan zehar egin ziren bezala, erdaraz *Fiestas éuskaras* deituak. Egin ere orduko Euskal-Erria elkartearen dotore omen ziren saloietan egin ziren 1882-garreneko uztailaren 30 eta 31-n (4). Halakoetan ohitura zenez lore jokoak ere egin ziren eta poesian sariak Klaudio Otaegik eta Felipe Arrese Beitiak irabazi zituzten, Ramon Artolak aipamen berezia izanik. Salvador Etxaide Igantzikoak *Libertad de testar*, legeei dagokien erdarazko lanagatik ere izan zuen eta bestelako gauzak ere izan ziren.

Ehun urteurrena dela ta Euskaltzaindiak opor garaiko eguneon, orduan jaiak egin ziren urteko egun bereon, ospatzea erabaki zuen eta egun horretarako hitzaldi bat egiteko esan zitzaidan, geroago, agian, jendearen aldetik egokiago izan zitekeen une batean gauza zabalago bat egiteko asmoz. Baina gero Euskal Idazleen Elkarteak egun horretan berean sortzea pentsatu da eta programan, ene ondorik, aurretik hitz egin dutenez gainera, beste hiruk dute hitza, eta, izan ere, halako gauza bat egun oro sortzen ez denez gero ez dago zertan esanik ondokoak duen axola berezia.

Gaia ere zer edo zer aldatu zait horrela eta goiko titulura makurtu naiz.

Egia esateko, Bilbo euskal arloan eragile dela baieztatzea ez dut uste eskualderen bateko zenbaiten gustukoa denik, behar bada Bilbo baino eragi-

---

(1) 1876-garren urtean zeharo suntsitu ziren.

(2) Ezaguna denez R. M. Azkue-k irabazi zuen eta 1888-garren urtean hasi zen, cfr. *Euskera* II (1957), 265-266 orr.

(3) Arana Goiri-k 1892-garren urtean argitara zuen *Bizkaya por su Independencia* liburua eta 1893-garrenean egin zuen Larrazabalgo hitzaldia.

(4) *Euskal-erria*, VII (1882), 73-74 orr., eta VII (1882), 129-132 orr.

leagoak badiratekeelako. Zoritzarrez, ordea, orainarte ez dugu inon behar den bestekorik izan, eta hala gabiltza ibili ere eremu latz honetan. Inork ez du dudarik egiten Ifarraldea XVI, XVII eta abar mendeetan askozaz ere eragileago izan zela Hegoaldea baino, XVIII-garren mendean Gipuzkoan Larramendi-ren inguruan sortu zela literatura mota bat, Markinako eskola dei daitekeena ere izan zela, eta abar. Bilbo xumeago ari bazen ere, beste hiri asko bezalatsu, nolabait ari zen, euskaldunak kokatzen bederen. Aurreko lan batean, *Bilbo eta euskara* (5) titulua daramanean, hain zuzen ere Euskaltzaindiko beste batzarre batean irakurri nuenean, esaten nuen nola Bilbon argitara zen 1596 urtean Betolaza-ren dotrina erdaraz eta eukaraz, nola Frantzisko Mendieta-k 1609 urtean pintura bat egin zuen euskarazko irakurgai bat daramana eta orain Gernikako batzarre etxean dagoena, nola Rafael Mikoleta apez bilbotarrak euskaraz ikasteko metodo bat egin zuen 1653 urtean, orain Londresen gordetzen dena, eta abar, eta abar, nola geroago gabonetan bai Santiagoko elizan eta bai Abandon zegoen San Frantzisko-koan urte oro gabon kanta berriak egiten ziren eta paperean jarri euskaraz kantatzeko, batzuetan erdarazko zatiren bat ere bazeramatela, eta abar, eta abar. Guzti hori ez dut berriz errepikatuko.

Edozein modutan ere, orduko lana bukatu ondoan Azkue-ren *Particularidades del dialecto roncalés* (6) berrirakurtzen ari nintzela hark han bidena-bar dioena gogora ekarri nuen eta hain zuzen ere orduan ikertu nuena indartzera dator:

Errokariko euskararen gainean ari dela hurrengo hau dio: “Hoy son contadísimas las personas que lo hablan en Isaba, habiéndose reducido estos 20 años a una tercera parte, quizás escasa, el número de las que hacen algún uso del vascuence en Uztarroz. Empieza ya a notarse en este último pueblo el mismo curioso hecho que se notaba en Bilbao desde mediados hasta fines del siglo pasado, de que habiendo perdido la mayoría de sus habitantes su lengua tradicional, conservaban (y aún se conservan algunos) cual si fuesen vocablos castellanos, palabras como *ampur* poquito, *chalabete* un juego de niños (contracción de *uts* ala *bete*)...”, etc.

Hemen aipatuko dugu oraintsu Mitxelenak idatzi duena (7): “Y no se trata de hacer chistes sobre aquel *tertium quid* que hablaban los bilbainos y que el vizcaino Juan Antonio Moguel, en 1800, caracterizaba con esta frase: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaten*”. Delako *tertium quid* horrezaz esan beharra dago kanpoko norbaitek pentsa dezakeela Bilbon hizkuntza *criollo* bat egiten zela eta ene ustez hori errealitatetik urrun legoke. Gure denboran Eibarko euskararen gainean ere halakoak entzun izan ditugu: *Ori da trigoak maduratzeko denpora preziosoa*, eta abar, baina nik ezagutu ditudan Eibarko

(5) *Euskera* XII (1977), 385-425 orr.

(6) *Euskera* XII (1931), 207, 208 orr.

(7) Luis Michelena, “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, *Revista de Occidente*, núms. 10-11, Extraordinario II, febrero 1982, 72 orr.

euskaldunek oso ondo hitz egiten dute euskaraz eta ez dute halakorik esaten. Agian aspalditik purismoaren maskara kendurik dudalako pentsatzen dut Eibarko euskara ederra dela, eta, izan ere, oso ederra, egungo egunez dakitenei entzunez gero, zeren orain nabarmena baita hango erdal giroa ere, Errenteriakoa eta beste leku askotakoa bezala, entzuten direnak gora behera. Gure artean, gainera, beste fenomeno bat ere seinalatu beharrekoa da: Aspaldi Donostiara trenean joaten ginenean kontura gintezkeenez jendearen artean, hitz egiten ari zela, sarri entzuten zen euskaraz mintzatzen ari izanik erdarara iragaitea, gero berriz euskarara, eta hala, hau da, kodez aldatzea, eta geroago ikasi dut Lekeition ere ohitura handia dagoela horretarako. Nire ustez euskararekin gauza bat gertatzen da: edo jakiten da, hobeto edo gaizkiago, edo ez, baina ez dago *criollo* delakorik. Aurreko frasean Bilborako *toro* hitza agertzen da, baina Bizkaian badira *toro* eta *zezen*, biak erabiltzen dituztenak, noiz nola. *Manzanía*, jakina, Eibarko *triguak maduratzeko* bezalatsukoa dela dirudi, agian ohituraz horrela esaten ez zutena.

Argi dago, ez hain aspaldiko euskal sustrai nabariak baditu ere, jadanik joan den mendeko bigarren alderdian aldaketa ekonomiko sakona eta hedatzeko joera handia duen Bilbo eta bere ingurua ez dela euskara nagusiturik duen hiria, alderantziz baino, bere handiagotze horretan, eta horrexegatik beragatik batez ere, erdalduntzea datorkiola, eta ez dela bihurtzen benetan eta mugimendua ibiliz erakutsirik, euskaldunen hiri buruzagia, behiala Joanes Etxeberri Sarakoak Iruñeaz beste giro batean esan zuen erara (8).

Ondorioz, lege zaharreko bideak okertzerakoan Bilbori gertatzen zaiona ez da gelditzen, ordea, erreazio gabe, eta hori ez da Euskal Herriari apurka apurka hedatzera doakionaren ispilu eta eredu besterik.

Beste alderdi batetik, alabaina, lehen Azkueren hitzetan Erronkari aipatu denez gero, ez dugu ahaztu behar Erronkari herri hori berori ere Nafarroako eremu zabal batean, industrializazio gabe ere, eta agian horrexegatik erreazio makalez eta aldakuntza hobeto asimilaturik, gertatu denaren ispilu eta eredutzat ipin dezakegula, Araba ere gogoan izanik. Badira, gainera, beste alderdi batzuetako zenbait foko erdaldundu ere.

Esan dezagun, hargatik, Arana Goiri-ren politikazko eraginak batez ere, alderdi batetik, eta Azkue-ren lanak eta kezak, bestetik, Euskal Herri osoan, eta ez Bizkaian bakarrik, dutela oihartzuna eta ondorioa hainbat urtetan zehar egungo egunerarte.

Bide horretarik etorri zen hain zuzen ere azkenengo gerra zorigaitzokoan Bilbon kokatzea Euzkadiko gobernua, diktadorearen ondorik haren eremua zabaldu bada ere, ez behar den bestean, noski.

---

(8) *Iruñea Escualdunen hiri buruçaguia*, cfr. Julio de Urquijo e Ibarra, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas*, Paris 1907, 34 orr.

Gerra ondoan, ordea, aldatze handiak gertatu dira munduan eta ondorioz baita Euskal Herrian ere. Bizimodua beste era batekoa da. Komunikabide sozialak, telebista ere tartean dela, eragin handia dute, automobilak eta autobide-autopistak hiriburuak eta hiriak hurbildu dituzte lehenago askok sinetsiko ez zukeen moduan, baserriko mundua hiritartzera makurtu da eta neurri handi batean Euskal Herria bera hiri nagusi bilakatu da, atzerritik lehen etorria zen jendeaz gainera multzo askozaz handiagoa itsatsi zaigu, eta hainbat denbora dela krisi luzean gaudela esaten bada ere, eta gaude, aurrerapidea atzeraezina da, geroago eta gazte gehiagok egiten ditu Unibertsitatean ikasketak, lehenago apez edo fraile izateko asmotan egiten zituztenak hainbeste ez zirela, eta harrigarriro, komunikabide sozial nagusienetako joera batere aldekoa ez bada ere, lehen baino askozaz gazte gehiago euskaldun berri bihurtzen ari da, egunen batean euskaldun zahar izan litekeena.

Hala ere Bilbon, eta ez Bilbon bakarrik, erdaldun multzo handia dago eta euskaldunek gutxiengoa osatzen dugu milaka asko bagara ere, gauza nabarmena denez. Behar den besteko neurri batean berreuskalduntzea axola handikoa litzateke, oraingoz Erronkari berreuskalduntzea baino handiagokoa noski, Azkue-k gorago egiten zuen konparazioa haintzat harturik. Ez dago esan beharrik, ordea, Nafarroan Iruñea berreuskaldundu behar dela aurretik.

Jakina, hiritartze geldiezin honetan, fenomeno honi dagokion euskal literatura nazional egoki ta hon bat sortzeak ekar lezakeen etekina nahi ta ezkoa da, beste zenbait alderdi, euskara biziko bada, zaintzen baldin badira.

Egun sortzen den Euskal Idazleen Elkarteak izan bedi horretarako urrats egoki bat.

Esan dut.

# **GAI LABURRAK**



## OBSERVACIONES SOBRE LA FLEXION NOMINAL VASCA

Károly Morvay

*Departamento de Estudios Hispánicos de la Universidad de Budapest*

La descripción de la flexión nominal vasca ofrece mucho menos dificultades que la de la flexión verbal. Algunos autores hasta llegan a afirmar que “El sustantivo y el adjetivo tienen declinación, aunque es muy sencilla”. (1) Este aserto puede provenir de R. Lafon, quien llama simple la declinación del euskera en comparación con su complicada conjugación: “La complejidad del verbo contrasta con la simplicidad de la declinación” —dice al presentar las características de la lengua vasca. (2) En este contexto el calificativo *simple* resulta mucho más relativo. Tenemos que tomar en consideración también que Lafon, al igual que otros autores franceses, reduce el sistema casual vasco a once casos, y así no llama la atención sobre la subdivisión genérica y semántica de los paradigmas nominales, observables juntamente en los omitidos casos locativos. En este artículo, basado principalmente en el examen de la “toki-deklinazioa”, (3) quisiera dar una breve descripción de la declinación vasca.

Sin juzgar la adecuación o no de los tradicionales términos “lengua aglutinante”, “aglutinación”, recuerdo sólo que el euskera utiliza para su flexión nominal morfemas casuales /MC/ añadidos a un morfema lexemático /ML/ invariable. A veces un mismo ML puede llevar varios MC /*superdeclinación*/. El vasco, en menor medida, usa también lexemas casuales pospuestos al nombre, una especie de posposiciones por lo cual J. Allières habla del “doble genio” de la lengua vasca (4).

La mayoría de las gramáticas coinciden en afirmar, como lo hace L. Villasante, que en el vasco “hay una sola y única declinación. Sin embargo, esta única declinación adopta dos /o si quiere tres formas/” (5): declinación

---

(1) M. DÍEZ; F. MORALES; S. ANGEL: *Las lenguas de España*. Madrid, 1977, p. 307.

(2) R. LAFON: *La lengua vasca*. /en/ Enciclopedia Lingüística Hispánica. Madrid, 1959. I. p. 78.

(3) Cf. L. VILLASANTE: *La declinación del vasco literario común*. Oñate, 1972, p. 18.

(4) J. ALLIÉRES: *Manuel pratique de basque*. París, 1979, p. 62.

(5) L. VILLASANTE: op. cit. p. 14.

indefinida - declinación definida /o declinación indefinida - declinación singular, declinación plural/. La observación sobre la existencia de una única declinación bipartita o tripartita, sólo vale para los casos no locativos, y significa que la flexión nominal vasca en los casos mencionados consta de una sola serie de morfemas casuales que se añaden al morfema lexemático seguido por el morfema declinacional /MD/. Esquemmatizando: ML + MD + MC. Donde el ML es siempre invariable; el MD en la declinación indefinida es:  $-\phi-$ , en la definida singular:  $-a-$  y en la definida plural:  $-e-$ . /Estoy simplificando la descripción: para resaltar el carácter aglutinante de la flexión nominal vasca habría que decir que en el plural el MD es  $-\phi-$  y aparece un morfema pluralizador /MP/  $-e-$ , ausente de las otras dos declinaciones/.

Los MC son: Nominativo:  $-\phi$ ; Ergativo:  $-k$ ; Dativo:  $-i$ ; Genitivo posesivo:  $-en$ ; /A/Sociativo:  $-ekin$ ; Destinativo:  $-entzat$ ; Instrumental:  $-z$ ; Partitivo:  $-ik$ ; Prolativo:  $-tzat$ ; Motivativo:  $-engatik$ .

Todas las gramáticas coinciden en afirmar que el vasco no distingue el género gramatical en su sistema nominal y subrayan al mismo tiempo que la distinción entre femenino y masculino aparece sólo en ciertas formas verbales. Hemos visto que los casos no locativos desconocen efectivamente la categoría del género, pero en los casos locativos tenemos formas claramente diferenciadas para nombres animados por un lado y nombres inanimados por otro, distinción que a mi modo de ver no recibe la atención que merece. Considero que este tipo de diferenciación genérica, expresada por un morfema auxiliar /MA<sub>1</sub>/, es una de las características fundamentales de la declinación vasca (6).

En la declinación indefinida de los inanimados aparece una diferenciación semántica, la distinción entre nombre comunes y propios /nombres de lugar/, expresada por un segundo morfema auxiliar /MA<sub>2</sub>/, Esquemmatizando, la flexión nominal en los casos locativos es: ML + MD + MA /1, 2/ + MC.

Los nombres también en los casos locativos tienen por MD  $-\phi-$  en la declinación indefinida,  $-a-$  en singular y  $-e-$  en plural, pero los dos últimos en varios casos quedan embebidos por la vocal temática /la del ML/ o se funden con la  $-e-$  inicial del morfema auxiliar. /Cf. la observación nr. 9.1./.

Como acabamos de mencionar, un rasgo característico de la declinación locativa es que los nombres revisten morfemas auxiliares de género /MA<sub>1</sub>/:  $-engan$  para los animados —lo mismo para comunes que para propios /apellidos, nombres de pila/— frente el  $-\phi-$  de los inanimados en la declinación indefinida y la definida singular; y frente el infijo  $-ta-$  de inanimados era declina-

(6) El término género *animado e inanimado* aparece por ej. a propósito de los pronombres españoles *nadie-nada* en el manual de J. Roca Pons: *Introducción a la gramática*. La Habana, 1968. I. p. 199.

La distinción entre animados e inanimados es muy importante en algunas lenguas eslavas /por ej. en el polaco/ dentro de la declinación de los nombres masculinos.



ción definida plural. Como hemos visto en la declinación indefinida de los inanimados hay una diferenciación semántica expresada por otro morfema auxiliar /MA<sub>2</sub>/ que es *-ta-* para los nombres comunes y *-ø-* para los nombres de lugar. /Se podría decir que los animados también tienen un MA<sub>2</sub>: *-ø-*/.

Los MC en los casos locativos son: Inesivo: *-n / -an*; Ablativo: *-tik / -dik*; Adlativo: *-a / -ra*; Adlativo terminal: *-aino / -raino*; Adlativo tendencial: *-antz / -rantz*; Genitivo locativo: *-ko, / -go*/.

Txillardegi afirma que en el vasco hay “dos declinaciones distintas, para nombres comunes y nombres propios” (7). A la luz de las observaciones hechas más arriba, me parece que debemos destacar también la división entre animados e inanimados sin dejar de subrayar que los nombres propios /los nombres de pila y los apellidos junto con los nombres de lugar sólo tienen declinación indefinida. Tampoco hay que olvidar, sin embargo, que no pocos nombres de lugar llevan el artículo definido /MD singular/ *-a*, y por consiguiente se declinan en singular / *Gipuzkoa, Donostia*/.

El sistema casual vasco consta de 16 casos: 10 casos no locativos y 6 locativos. /Cf. la observación no. 10.3./ Hasta la fecha no existe una terminología comúnmente aceptada para la denominación de los casos. Podría representar una solución distinguir esencialmente entre casos no locativos y casos locativos y usar las formas correspondientes de los pronombres *nor, zer*, como lo hace por ejemplo M. Sagüés en su gramática (8). Esta solución tendría la ventaja de señalar en la mayoría de los casos la fragmentación genérica y semántica de la declinación vasca.

### Observaciones sobre los casos no locativos

1. El Partitivo y el Prolativo son casos exclusivos de la declinación indefinida. El Prolativo no siempre es considerado como caso independiente (9).

2. El ML se modifica excepcionalmente en el caso de los nombres con una “*-a* orgánica”. /Cf. la observación nr. 5.3.2./ No hablo aquí de la modificación del ML en algunos pronombres, siendo que examino sólo la flexión nominal /sustantivo y adjetivo/.

3. Un rasgo característico de la declinación definida en plural es que el MD *-e-* puede ser sustituido por una *-o-*, morfema de cercanía: *mendiok* ‘estos montes’, etc.

4. La forma de Nominativo plural es irregular: tiene un sufijo inanalizable /MD + MC/: *-ak*.

(7) TXILLARDEGI: *Euskal gramatika* /San Sebastián, 1978/, p. 78.

(8) M. SAGÜÉS: *Gramática elemental vasca*. San Sebastián, 1980, pp. 23-28.

(9) J. ALLIERES: *Les basques*. 1977, p. 54.

5. En cuanto a las reglas de ligazón /MD + MC/ es importante subrayar que son diversas según las tres declinaciones /indefinida, singular, plural/ (10).

5.1. Los MC de la declinación indefinida revisten una *-e* epentética entre dos consonantes y una *-r* epentética entre dos vocales, fuera del Prolativo cuyo MC es *-tzat* lo mismo para nombres terminados en consonante que para los que acaban en vocal.

5.2. En el singular de los nombres con *-a* orgánica esta se funde con la *-a-* del MD /*eliza, elizak, elizaren, etc./*.

5.3. En el plural, fuera del nominativo que es un caso excepcional /cf. la observación nr. 4./, las reglas de la ligazón son las siguientes:

5.3.1. Entre la terminación vocálica del ML y la *-e* del MD no aparece ningún sonido epentético. Hasta cuando el ML acaba en *-e*, las dos *-es* se conservan. /*mediek, mendiei, mendien; etxeek, etxeei, etxeen, etc./*.

5.3.2. En el caso de los nombres con *-a* orgánica esta *-a-* se pierde /*elizek, elizen/*.

5.4. Para los diptongos finales *ai, ei, oi* son válidas las mismas reglas que para las vocales, para *au* final las mismas que para las consonantes. /*zelairi, gauil/*.

5.5. Los nombres terminados en *-r* tienen *-rr-* en las tres declinaciones, con la excepción del Nominativo y Prolativo de la declinación indefinida. /*Eibar, Eibartzat - Eibarrek, Eibarri, etc./*.

## 6. Formas sincréticas:

6.1. Aparece sincretismo entre las formas indefinidas y singulares de los nombres terminados en *-a* orgánica. /*aitari, elizari, etc./*.

6.2. En el caso de los nombres terminados en vocal no hay sincretismo entre los casos correspondientes de la declinación indefinida y las del plural /*mendiren - mendien, etxeren - etxeen, elizaren - elizen, etc./*, pero aparece sincretismo en el Ergativo, Genitivo posesivo, Asociativo, Destinativo, Instrumental y Motivativo entre la declinación indefinida y la plural de los nombres terminados en consonante /*haranek, haranen, haranekin, haranentzat, harenez, haranengatik/*.

6.3. Por ser irregular la forma del Nominativo plural /cf. la observación nr. 4./ se produce sincretismo con el Ergativo singular /*mendiak, haranak/*. En este caso las correspondientes formas verbales excluyen la ambigüedad.

---

(10) No todas las gramáticas destacan esta diversidad. Es Txillardegui quien en su *Euskal gramatika* expone muy claramente sus reglas. Cf. op. cit: pp. 88, 106-107, 113-116.

### Observaciones sobre los casos locativos

7. Los nombres animados no se combinan con el MC *-ko*. /≠ No tienen caso Genitivo locativo/.

8. El MD *-e-* de la declinación definida en plural, como lo hemos visto en los casos no locativos, puede ser sustituido por una *-o-*, morfema de cercanía. /*mendiotatik, haranotatik, idiongandik, gizonongandik*/.

9. Las reglas de ligazón son las siguientes:

9.1. Como hemos visto más arriba el MD *-a-* /singular/ y *-e-* /plural/ puede sufrir ciertos cambios:

9.1.1. La *-a-* queda embebida por la vocal temática o por la vocal epentética en el caso de los nombres inanimados /*menditik, haranetik*; frente a las formas marcadas de los animados /*idiarengandik* o *idiagandik*/. Cf. la observación nr. 10.2./.

9.1.2. Los nombres terminados en *-e-* la conservan en contacto con el MD del plural /*etxeetatik, semeengandik*/.

9.1.3. Los nombres terminados en *-a* orgánica pierden esta en contacto con la *-e-* del MD del plural /*elizetatik*/.

9.1.4. La *-e-* del plural se funde con la *-e-* del morfema auxiliar de los nombres animados /*idiengandik, gizonengandik*. Las formas de los inanimados son: *mendietatik, haranetatik*/.

9.2. Los animados terminados en vocal revisten el MA<sub>1</sub> con una *-r* epentética: *-rengan-* en la declinación indefinida y en el singular de la definida /*idirengandik, idiarengandik*/.

9.3. Los nombres comunes inanimados terminados en consonante tienen una *-e-* epentética en su MA<sub>2</sub> en la declinación indefinida: *-eta-* /*haranetatik*/.

9.4. Para los nombres terminados en diptongos o en *-r* valen las reglas especificadas en las observaciones 5.4. y 5.5. /Cf. también la observación nr. 11.5./.

10. El problema de la superdeclinación:

10.1. Las formas de los nombres animados declinados en los casos locativos resultan de una superdeclinación doble —excepto las del Inesivo que vienen de una simple. Con otras palabras el Ablativo y los tres casos Adlativos se forman del Inesivo cuyas morfemas son: /*r/en* + *ga* + *n*. Donde el primer elemento es el MC del genitivo posesivo /caso no locativo/; *-ga-* es el verdadero MA<sub>1</sub> de los animados: *-n* es en MC del Inesivo.

10.2. El morfema *-ren-* puede sufrir elipsis en ciertos casos. /*idiagan = idiarengan/*, etc. (11).

10.3. Otros casos superdeclinados, como por ejemplo el Adlativo destinativo del diccionario *Hiztegia 80* (12), caracterizado por el MC *-ra- + -ko /menditarako, mendirako, mendietarako/*, a mi entender no forman parte del sistema casual vasco y habrá que englobarlos en el fenómeno de la superdeclinación, rasgo característico del euskera, lo mismo en su sistema nominal que en el verbal —en ciertas formas nominales derivadas de verbos.

## 11. Los MC:

11.1. Es de notar que los MC pueden resaltar la distinción genérica en los tres casos adlativos, con una *-r-* en los MC de los inanimados /*-ra, -rantz, -raino* frente los MC *-a, -antz, -aino* de los animados.

11.2. El MC del Inesivo /*-n/* tiene una forma especial /*-an/* en la declinación indefinida de los inanimados /*mendian, haranean/*.

11.3. En el Ablativo plural puede aparecer una variante irregular del MC /*-rik/* que hace posible la diferenciación las formas sincréticas de la declinación indefinida y plural /Cf. 11.2./.

11.4. El MC del Ablativo: *-tik* y el del Genitivo local: *-ko* revisten la forma *-dik, -go* respectivamente, tras *n* y *l*.

11.5. El MC del Genitivo locativo de los nombres de lugar terminados en *-r* puede ser *-eko /Eibarreko - Eibarko/*.

## 12. Casos de sincretismo:

12.1. Sobre las formas sincréticas de los nombres terminados en *-a* orgánica véase la observación nr. 6.2.

12.2. Se produce sincretismo en los casos locativos entre las formas correspondientes de la declinación indefinida y las de la definida plural siempre cuando el nombre, sea animado o inanimado, termine en consonante /*haranetatik, gizonengandik/*.

Es posible que estas coincidencias y las que hemos visto en la declinación de los casos no locativos, hayan contribuido al hecho que muchos estudiosos ignoraron la existencia de la declinación indefinida (13).

*Resumiendo:* Los casos locativos nos facilitan el análisis de la flexión nominal del euskera, siendo que no sólo reflejan su división respecto al número /declinación sin distinción de número y declinación con distinción de sin-

(11) Como *eliza/ren/ inguruan*. Cf. L. Villasante: op. cit., p. 23.

(12) *Hiztegia 80*. /Vasco español; español-vasco/, p. XXVII.

(13) L. VILLASANTE: op. cit. p. 13.

gular y plural/, sino también señalan su diferenciación genérica /género animado e inanimado/. Al mismo tiempo reflejan dentro de la declinación indefinida una subdivisión semántica entre los inanimados /nombres comunes - nombres propios de lugar/. De esta manera la declinación bipartita/tripartita está fragmentada en cinco/siete paradigmas diferentes subdivididos cada uno en dos grupos según si el nombre declinado termina en vocal o en consonante. Hay que recordar que en los paradigmas declinacionales funcionan ciertas reglas de ligazón que muchas veces diferencian claramente las dichas subclases de la flexión nominal vasca, pero otras veces producen sincretismo entre los casos correspondientes de las diferentes declinaciones.

## APENDICE:

### CUADRO 1.

La fragmentación de la flexión nominal vasca.

#### Casos no locativos

Declinación sin distinción de número /≠indefinida/	Declinación con distinción de número /≠definida/	
	declinación en singular	declinación en plural

#### Casos locativos

Declinación indefinida				Declinación definida			
Animados		Inanimados		Animados		Inanimados	
Nombres comunes	Nombres propios /apellidos y n. de pila/	Nombres comunes	Nombres propios de lugar	Singular	Plural	Singular	Plural
-V -C	-V -C	-V -C	-V -C	-V -C	-V -C	-V -C	-V -C

Observación:

-V = terminados en vocal

-C = terminados en consonante

CUADRO 2.

La expresión formal de las categorías gramaticales en los casos locativos. /Ejemplo: Adlativo/  
Esquema general: ML + MD + MA /1,2/ + MC

MORFEMAS	Declinación indefinida			Declinación definida			
	Animados	Inanimados		Animados		Inanimados	
	Nombres comunes y propios (apellidos y n. de pila)	Nombres comunes	Nombres de lugar	Singular	Plural	Singular	Plural
MD	-ϕ-			-a-	-e-	-a-	-e-
MAL	-/r/engan-	-e/-ϕ-		-/r/engan-		-e/-ϕ-	-ta-
MA <sub>2</sub>	/-ϕ-/	-ta-	-ϕ-	/-ϕ-/			
MC	-a-	-ra-		-a-		-ra-	
EJEMPLOS	idirengana gizonengana Enekorengana Mikelengana	menditara haranetara	Bilbora Eibarrera	idiarengana gizonarengana	idiengana gizonengana	mendira haranera	mendietara haranetara

Observaciones:

En lugar de la MD plural -e- puede aparecer una -o-, morfema de cercanía.

## CUADRO 3.

El sistema casual vasco /Declinación de los pronombres: *nor*, *zer*/

## Casos no locativos

1. Nominativo	nor	zer
2. Ergativo	nork	zerk
3. Dativo	nori	zeri
4. Genitivo posesivo	noren	zeren
5. /A/Sociativo	norekin	zerekin
6. Destinativo	norentzat	zerentzat
7. Instrumental	nortaz	zertaz
8. Partitivo	—	zertik
9. Prolativo	nortzat	zertzat
10. Motivativo	nor/en/gatik	zergatik

## Casos locativos

11. Inesivo	norengan	non	zertan
12. Ablativo	norengandik	nondik	zertatik
13. Adlativo	norengana	nora	zertara
14. Adlativo terminal	norenganaino	noraino	zertaraino
15. Adlativo tendencial	norenganantz	norantz	zertarantz
16. Genitivo locativo	—	nongo	zertarako

## CUADRO 4.

Los morfemas flexivos /MD (+ MA) + MC/ de la declinación vasca.

CASOS NO LOCA- TIVOS	Declinación indefinida	Declinación definida	
	(sin distinción de número)	singular	plural
1.	-∅-	-a∅	-ak
2.	-/e/k	-ak	-ek
3.	-/r/i	-ari	-ei
4.	-/r/en	-aren	-en
5.	-/r/ekin	-arekin	-ekin
6.	-/r/entzat	-arentzat	-entzat
7.	-/e/z	-az	-ez /etaz
8.	-/r/ik	—	—
9.	-t zat	—	—
10.	-/r/engatik	-arengatik	-engatik

CASOS LOCATIVOS		Declinación indefinida			Declinación definida			
		Animados	Inanimados		Animados		Inanimados	
		Nombres comunes y propios /apellidos y n. de pila/	Nombres comunes	Nombres de lugar	Singular	Plural	Singular	Plural
11.	<i>-r/engan</i>	<i>-e/tan</i>	<i>-e/n</i>	<i>-arengan</i>	<i>-engan</i>	<i>-e/an</i>	<i>-etan</i>	
12.	<i>-r/engandik</i>	<i>-e/tatik</i>	<i>-e/tik</i>	<i>-aren- gandik</i>	<i>-engan- dik</i>	<i>-e/tik</i>	<i>-etatik</i>	
13.	<i>-r/engana</i>	<i>-e/tara</i>	<i>-e/ra</i>	<i>-aren- gana</i>	<i>-engana</i>	<i>-e/ra</i>	<i>-etara</i>	
14.	<i>-r/enganaino</i>	<i>-e/taraino</i>	<i>-e/raino</i>	<i>aren- ganaino</i>	<i>-engan- aino</i>	<i>-e/raino</i>	<i>-etaraino</i>	
15.	<i>-r/enganantz</i>	<i>-e/tarantz</i>	<i>-e/rantz</i>	<i>-aren- ganantz</i>	<i>-engan- antz</i>	<i>-e/rantz</i>	<i>-etarantz</i>	
16.	—	<i>-e/tako</i>	<i>-ko</i>	—	—	<i>-e/ko</i>	<i>-etako</i>	



**CUADRO 5.**  
**PARADIGMAS DECLINACIONALES**

**La declinación de los nombres propios**

	<i>Animados /V</i>	<i>Animados /C</i>	<i>Inanimados /V</i>	<i>Inanimados /C</i>
1.	Eneko	Mikel	Bilbo	Eibar
2.	Enekok	Mikelek	Bilbok	Eibarrek
3.	Enekori	Mikeli	Bilbori	Eibarri
4.	Enekoren	Mikelen	Bilboren	Eibarren
5.	Enekorekin	Mikelekin	Bilborekin	Eibarrekin
6.	Enekorentzat	Mikelentzat	Bilborentzat	Eibarrentzat
7.	Enekoz	Mikelez	Bilboz	Eibarrez
8.	—	—	Bilborik	Eibarrik
9.	—	—	Bilbotzat	Eibartzat
10.	Eneko/ren/gatik	Mikelengatik	Bilborengatik	Eibarrengatik
11.	Eneko/ren/gan	Mikelengan	Bilbon	Eibarren
12.	Eneko/ren/gandik	Mikelengandik	Bilbotik	Eibarretik
13.	Eneko/ren/gana	Mikelengana	Bilbora	Eibarrera
14.	Eneko/ren/ganaino	Mikelenganaino	Bilboraino	Eibarreraino
15.	Eneko/ren/ganantz	Mikelenganantz	Bilborantz	Eibarrerantz
16.	—	—	Bilboko	Eibarreko

Observación: Los nombres propios sólo tienen declinación indefinida /con la excepción especificada en la observación sobre los nombres de lugar con el artículo definido: *Gipuzkoa, Donostia/*.

*Animados* = Apellidos, nombres de pila.

*Inanimados* = Nombres de lugar.

/V = Terminados en vocal.

/C = Terminados en consonante.

### La declinación de los nombres comunes

Animados terminados en vocal /menos -a orgánica y -e/.

	<i>Declinación indefinida</i>	<i>Singular</i>	<i>Declinación definida plural</i>
1.	idi	idia	idiak
2.	idik	idiak	idiek
3.	idiri	idiari	idiei
4.	idiren	idiaren	idien
5.	idirekin	idiarekin	idiekkin
6.	idirentzat	idiarentzat	idientzat
7.	idiz	idiaz	idiez
8.	idirik	—	—
9.	iditzat	—	—
10.	idirengatik	idiarengatik	idiengatik
11.	idirengan	idia/ren/gan	idiengan
12.	idirengandik	idia/ren/gandik	idiengandik
13.	idirengana	idia/ren/gana	idiengana
14.	idirenganaino	idia/ren/ganaino	idienganaino
15.	idirenganantz	idia/ren/ganantz	idienganantz
16.	idirenganako	idia/ren/ganako	idienganako

Animados terminados en -a orgánica.

1.	aita	aita	aitak
2.	aitak	aitak	aitek
3.	aitari	aitari	aitei
4.	aitaren	aitaren	aiten
5.	aitarekin	aitarekin	aitekin
6.	aitarentzat	aitarentzat	aitentzat
7.	aitaz	aitaz	aitez
8.	aitarik	—	—
9.	aitatzat	—	—
10.	aitarengatik	aitarengatik	aitengatik
11.	aitarengan	aita/ren/gan	aitengan
12.	aitarengandik	aita/ren/gandik	aitengandik
13.	aitarengana	aita/ren/gana	aitengana
14.	aitarenganaino	aita/ren/ganaino	aitenganaino
15.	aitarenganantz	aita/ren/ganantz	aitenganantz
16.	aitarenganako	aita/ren/ganako	aitenganako

Animados terminados en *-e*.

	<i>Declinación indefinida</i>	<i>Singular</i>	<i>Declinación definida plural</i>
1.	seme	semea	semeak
2.	semek	semeak	semeek
3.	semeri	semeari	semeei
4.	semeren	semearen	semeen
5.	semerekin	semearekin	semeekin
6.	semerentzat	semearentzat	semeentzat
7.	semez	semeaz	semeez
8.	semerik	—	—
9.	semetzat	—	—
10.	semerengatik	semearengatik	semeengatik
11.	semerengan	semea/ren/gan	semeengan
12.	semerengandik	semea/ren/gandik	semeengandik
13.	semerengana	semea/ren/gana	semeengana
14.	semerenganaino	semea/ren/ganaino	semeenganaino
15.	semerenganantz	semea/ren/ganantz	semeenganantz
16.	semerenganako	semea/ren/ganako	semeenganako

## Animados terminados en consonante.

1.	gizon	gizona	gizonak
2.	gizonek	gizonak	gizonek
3.	gizoni	gizonari	gizonei
4.	gizonen	gizonaren	gizonen
5.	gizonekin	gizonarekin	gizonekin
6.	gizonentzat	gizonarentzat	gizonentzat
7.	gizonez	gizonaz	gizonez
8.	gizonerik	—	—
9.	gizontzat	—	—
10.	gizonengatik	gizona/ren/gatik	gizonengatik
11.	gizonengan	gizona/ren/gan	gizonengan
12.	gizonengandik	gizona/ren/gandik	gizonengandik
13.	gizonengana	gizona/ren/gana	gizonengana
14.	gizonenganaino	gizona/ren/ganaino	gizonenganaino
15.	gizonenganantz	gizona/ren/ganantz	gizonenganantz
16.	gizonenganako	gizona/ren/ganako	gizonenganako

## Inanimados terminados en vocal /menos -a orgánica y -e/.

	<i>Declinación indefinida</i>	<i>Singular</i>	<i>Declinación definida plural</i>
1.	mendi	mendia	mendiak
2.	mendik	mendiak	mendiek
3.	mendiri	mendiari	mendiei
4.	mendiren	mendiaren	mendien
5.	mendirekin	mendiarekin	mendiekin
6.	mendirentzat	mendiarentzat	mendientzat
7.	mendiz	mendiaz	mendiez
8.	mendirik	—	—
9.	menditzat	—	—
10.	mendirengatik	mendia/ren/gatik	mendiengatik
11.	menditan	mendian	mendietan
12.	menditatik	menditik	mendietatik
13.	menditara	mendirara	mendietara
14.	menditaraino	mendiraino	mendietaraino
15.	menditarantz	mendirantz	mendietarantz
16.	menditako	mendirako	mendietako

## Inanimados terminados en -a orgánica.

1.	eliza	eliza	elizak
2.	elizak	elizak	elizek
3.	elizari	elizari	elizei
4.	elizaren	elizaren	elizen
5.	elizarekin	elizarekin	elizekin
6.	elizarentzat	elizarentzat	elizentzat
7.	elizaz	elizaz	elizez
8.	elizarik	—	—
9.	elizatatzat	—	—
10.	elizarengatik	elizarengatik	elizengatik
11.	elizatan	elizan	elizetan
12.	elizatatik	elizatik	elizetatik
13.	elizatara	elizara	elizetara
14.	elizataraino	elizaraino	elizetaraino
15.	elizatarantz	elizarantz	elizetarantz
16.	elizatako	elizako	elizetako

## Inanimados terminados en -e.

	<i>Declinación indefinida</i>	<i>Ssingular</i>	<i>Declinación definida plural</i>
1.	etxe	etxea	etxeak
2.	etxek	etxeak	etxeek
3.	etxeri	etxeari	etxeei
4.	etxeren	etxearen	etxeen
5.	etxerekin	etxearekin	etxeekin
6.	etxerentzat	etxearentzat	etxeentzat
7.	etxez	etxeaz	etxeez
8.	etxerik	—	—
9.	etxetzat	—	—
10.	etxerengatik	etxearengatik	etxeengatik
11.	etxetan	etxean	etxeetan
12.	etxetarik	etxetik	etxeetatik
13.	etxetara	etxera	etxeetara
14.	etxetaraino	etxeraino	etxeetaraino
15.	etxetarantz	etxerantz	etxeetarantz
16.	etxetako	etxeako	etxeetako

## Inanimados terminados en consonante.

1.	haran	harana	haranak
2.	haranek	haranak	haranek
3.	harani	haranari	haranei
4.	haranen	haranaren	haranen
5.	haranekin	haranarekin	haranekin
6.	haranentzat	haranarentzat	haranentzat
7.	haranez	haranaz	haranez
8.	haranik	—	—
9.	harantzat	—	—
10.	haranengatik	haranagatik	haranengatik
11.	haranetan	haranean	haranetan
12.	haranetatik	haranetik	haranetatik
13.	haranetara	haranera	haranetara
14.	haranetaraino	haraneraino	haranetaraino
15.	haranetarantz	haranerantz	haranetarantz
16.	haranetako	haranerako	haranetako



# “TORIBIO ALZAGA ETA FELIPE ARRESE BEITIA SARIAK” BANATZEAN

*Bilbo, 1982-XII-3*

*Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua*

## EUSKALTZAINDIA

**Zergatik eta nola sortu zen; eta**

**eskuetan darabiltzan lanak**

Jaun-Andreak: Gau on digula Jainkoak denoi!

Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak, dakizutenez, urtero antolatzen dute sariketa hau. Igaz ere ondo gogoan dut nola egun honetan beronetan agertu nintzen, baina agertu bakarrik, berandu eta presaka, ze Madrilerako trenan hartu behar genuen Euskalarien Jardunaldietako liburua han aurkezteko. Aurten, berriz, horrelako estuasunik gabe nator. Eta hasteko, zorionak eman nahi dizkiet irabazleei.

Eskatu zait hitzaldi bat egiteko Euskaltzaindiari buruz: azal dezadala, alegia, Euskaltzaindia zer den, nola egiten dituen bere lanak, zer asmo eta ekintza dituen eskuen artean, eta abar. Ahaleginduko naiz ahalik eta argien hori esplikatzen, nahiz eta hitzaldi labur batean dena esatea ezina den.

Eta beste gabe gaian sartzen naiz.

### I. Euskaltzaindia zer den eta nola sortu zen

Euskaltzaindia Euskararen Akademia da. Zuek badakizue zer diren hizkuntzen Akademiak. Frantses hizkuntzak badu berea. Gaztelaniak ere bai, noski. Gailego hizkuntzak ere bai. Italiarrek badu Crusca deitzen dioten hori. Asturiasko hizkuntzak orain berriki sortu du berea. Hain zuzen, urte honen hasieran ospatu zen Asturiasko hizkuntzaren Akademiaren sortze hau; eta Euskaltzaindiaren izenean bertan izan ginen. Katalanak ere badu, guk baino lehenagotik, noski, baina ez dio deitzen Akademia, *Institut* baizik: “Institut d’Estudis Catalans”. Akademia horiek zer edo zertarako diren ere gutigora-behera guztiok dakigu: hizkuntza lantzeko arau gidariak zabaltzen dituen Elkarte edo Institutuzio ofizial eta publikoa.

Euskarak Akademia bat behar zuela, aspalditxotik hasi ziren esaten gure artean gizon buru-argi batzuek. Mendez-mende pilotu gabeko untzia bezala arrokapean eta olatuen artean galdurdean dabilen hizkuntza gaxo honek, Akademia bat behar duela, inork izatekotan, esaten. Pilotu gabeko untzia irudi hau XVIII. mendeko Joannes Etcheberri Sarako idazleak dakar (1). Ulibarri Galindez arabarrak, berriz, zera esaten du: Gernikako arbolaren pean 24 gizon behar direla izendatu euskararen ardura har dezaten (2). Eta joan den mendean Aizkibel azkoitiarrak, Duvoisin lapurtarrak, Aristides de Artiñano bizkaitarrak, Manterola donostiarrak etab. argi eta garbi esaten eta errepikatzen dute euskara Akademia baten beharrean dela (3).

Baina Akademia hori nola eta nork egin behar zuen? Hor zegoen kokka, hor dago untzea, bizkaitarrek esaten dugun bezala. Asmoak asmo eta ametsak amets, urteak igaroko dira hori egiteko modua asmatu arte.

Azkenean, eta zorionean, konturatu ziren herri-agintarien arazoa zela hau, eta agintariak egiten ez bazuten, ez zela egingo. Izan ere, Elkarte edo Institutio publiko bat da Akademia. Herriko agintarien babes eta atzekaldea behar du, nahiz eta bere buruaren jabe izan bere zeregina betetzean. Herriak, eta honen ordezkari diren agintariak, ematen diote, gainera, autoritatea eta mandatua Akademiari hizkuntzaren gain erantzunkizun hau har dezan.

Guk bagenituen Diputazioak (Hegoaldean behintzat). Eta euskal Diputazioak izango dira Euskaltzaindiaren sortzaile. Esan behar da, gainera, Bizkaiko Diputazioak hartu zuela aurrea.

1918ko Urtarrilaren 25ean Elgezabal-tar Kosme eta Landaburu-tar Peli diputadu jaunek Bizkaiko Diputazioari eskea egiten diote eta honek eske hori onartzen du. Bizkaiko Diputazioak, bere aldetik, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoari eskatzen die asmo honetan parte hartzeko, eta haiek baietz erantzuten dute (4).

Baina Diputazioentzat ez zen gauza erreza honelako Elkarte baten mol-dara taxutzea. Zer egin orduan? Hain zuzen, urte hartako udan biltzekoa zen Eusko Ikaskuntzaren Batzarre ospetsua Oñatin, eta beroni gomendatu zioten arazoa. Inoiz esaten da Eusko Ikaskuntza dela Euskaltzaindiaren ama, baina nik esango nuke ama barik, amabitxi edo ama-ponteko izan zela. Ama,

(1) Ikus *Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes d'Etcheberri* (Urkixo jaunaren edizioa), Paris, 1907; 59 orrialdean. Baina Akademiaren aipurik ez du egiten. Euskarak aitzindari bat behar duela eta hori Axular izan daitekeela: hori esaten du.

(2) Ikus J. P. Ulibarriren *Gutunliburua*, faksimilezko argitalpena, Gasteiz, 1975; 185. orrialdean.

(3) Ikus jaun horien lekukotasunak *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca* liburuan.

(4) Sendoa S. A. argitaldaria ari da *Euskera* aldizkariaren gerra aurreko zenbakiak bir-argitaratzen. Ikus Igo tomoa, 39 orrialdean. Bertan dator Euskaltzaindiaren sorreraren kondaira labor bat.



esan dudanez, euskal Diputazioak izan ziren, hots, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioak.

Eta Diputazio hauen izenean eta hauek emandako mandatuaz Eusko Ikaskuntzak eskuak sartu zituen arazo honetan eta bai ederki burutu ere, Euskaltzaindia martxan jarri arte.

Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarrean luze eztabaidatu zen: lehenik, ea euskararentzat Akademia bat behar ote zen. Erantzuna aho batezkoa izan zen: Baietz. Bigarrenik: Zer helburu jarri behar zitzaion Akademia honi? Hemen eztabaida luzeak izan ziren. Batzuek zioten euskara aztertzea, beste batzuek euskara zaintzea, beste batzuek bi helburuok sartu behar zirela. Baina zenbaitek zioen bi helburu hauek bata bestetik urrun xamar daudela, eta gizon jakintsuak, gehienetan, ez direla hizkuntzaren bizitzeaz axolatzen, eta horregatik ez Akademia bat, baina bi beharko zirela egin: bata euskara aztertzeko eta bestea euskara zaintzeko. Azkenean erabaki zen bat bakarra sortzea, baina bi sailaz osatua: Iker sailaz eta Jagon sailaz. Eta halaxe dago, gaur ere, Euskaltzaindia taxutua.

Bai. Guztia beharrean dagoen hizkuntza bat izanik euskara, Jagon Sail hau, oraingoz behintzat, eta luzarorako, beharrezkoa da. Beste hizkuntzetako Akademietan ez da izaten Jagon Sail horren beharrik, osasun onez bizi diren hizkuntzak direlako; baina guztiok dakigu euskara ez dagoela egoera zoriontsu horretan. Inoiz entzuten ditugu honelako galderak: Zertarako sartzen da Euskaltzaindia beste Akademiek egiten ez dituzten gauzak egitera: Bertsolari Txapelketak eratu, Irakasle tituluak eman, Itzultzaileen Eskola sortu, etab. etab.? Bai, egia da; baina Jagon Saila ere egotzi zitzaion berari. Eta Euskaltzaindiak, ikusi izan duenean ekintza batzuk oso beharrezkoak zirela euskararen onerako eta ez zegoela beste inor horiek egiteko, bera jarri izan da beroriek egitera, eta horrela jokatu, ez da bere Arautegitik irten, zeren, esan dudana bezala, bere helburu nagusietarik bat baita hau, hots, euskara jagotea edo zaintzea.

Eusko Ikaskuntzak eratu zuen Euskaltzaindiaren Arautegia (Estatutoak). Herriari jakin arazi zitzaion Arautegi honen aitzin asmoa (prentsa bidez) eta epea eman ere bai, oharrek bialtzeko; gero, azkenean, lau Diputazioei pasatu zitzaion, eta hauek onartu zuten. Arautegi zahar honetan euskaltzain osoek (académicos de número) 12 izan behar zuten, eta euskalki denetik hautatu behar ziren.

Arautegi zahar honetan dagoen puntu bat nahi dut aipatu: euskararen batasunarena. Gaur batzuei iruditzen zaie azken urteotako asmakeria dela hau, baina ez da bat ere hala. Euskaltzaindiari bere sortze egunean egotzi zitzaion zeregin hau, eta, gainera, Jagon Saileko zati bat bezala azaltzen da han. Hitez-hitz eta han dagoen bezala esango dut:

“6. art. a) ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal eredu bat ger-tutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa”.

Eta erdaraz: “trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común” (5).

Ez da ahaztu behar Eleizalde jaunak Oñatiko Batzarrean oso gogor azpimarratu zuela euskararen batasunaren beharra, euskarak etorkizunik izango baldin bazuen (6); eta hala, Euskaltzaindi jaioberriari arazo korapilotsu hau egotzi zitzaion.

Lehenbiziko lau euskaltzainak Oñatin hautatu ziren: Azkue, Urkixo, Eleizalde eta Kanpion. Gainerako zortziak hurrengo urtean, 1919ko Irailaren 21ean, Donostiako Diputazioan. Eta jakingarri da nola izan zen hauteskunde hura. Botoa emateko eskubidea izan zuten, Oñatiko lau euskaltzainez gainera, garai hartako euskal aldizkarien Zuzendari jaunek (a título de “compromisarios” esaten da aktan). Aldizkariok hauek ziren: *Jaungoiko-zale*, *Euzko Deia*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Euskal-Erria*, *Euskal Erriaren Alde*, *Euskal-Esnalea*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna*.

Horrela osatu ziren 12 euskaltzainak. Horietarik 3 Iparraldekoak ziren, eta gainerakoak Hegoaldekoak.

Uste dut, esanak esan eta, garbi gelditu dela puntu bat, eta da: Euskaltzaindi Erakunde edo instituzio publiko bat dela, propio eta berariaz Euskal Herriak bere bidezko eta legezko ordezkarien bidez sortua, eta honetarako sortua: euskara lantze kontuan arau gidariak emateko eta euskarari buruz ikerketa eta azterketak egiteko, hizkuntza zaintzeko, etab. Esan nahi ote du horrek euskararen ikerketan monopolioa duela berak? Ez, noski: ikerketaren mundua ez da barruti itxi bat. Hor dira Unibertsitateak eta beste, eta nahi duen orok egin dezake iker lana. Eta Jagon sailean monopolioa ote du Euskaltzaindiak? Ezta hori ere.

Baina badago zerbait berak bakar-bakarrik dezakeena, berari bakarrik dagokiona: euskara lantze kontuan ofizialtasunez hornitutako arau gidariak ematea, legezko autoritate bat duten arauak, alegia. Horretarako badu Euskaltzaindiak ahalmen bat herriak berak emanik. Hemen sartzen dira euskararen ortografia, gramatika, erabilpen ona, hiztegia, euskararen batasuna, etab.

## II. Geroagoko aldakuntzak

Urteak joan eta urteak etorri, Euskaltzaindiak hazkunde handia ezagutu du. Hasieran euskaltzain osoak 12 ziren; orain, berriz, 24. Euskaltzain urgaz-

(5) *Euskaltzaindiaren Sortarauak - Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*, Bilbao 1920, p. 3-4.

(6) ELEIZALDE (LUIS DE): “Metodología para la restauración del euzkera” in *I Congreso de Estudios Vascos*, 428 orriald. Eleizaldek baino lehen Aizkibelek ere idatzi zuen euskara batu baten beharraz. Ikus SATRUSTEGI (J. M.<sup>a</sup>): “Aizkibel euskara batuaren aintzindari”, *Euskera* (1979), 153.

leak ehundik gora. Euskaltzaindiaren etxea hasieratik Bilbon dago. Baina gero, Euskal Herriko hiriburuetan, hots, Donostia, Gasteiz, Iruñe eta Baionan Ordezkaritza edo Delegazioak jarri dira, eskabideei eskualde bakoitzean hurbilagotik erantzun ahal izateko.

Francoren garaian egun txarrak pasatu behar izan zituen, baina nola edo hala iraun zuen. Orduko beharrek hori eskatzen zutelako, Jagon Sailari eman zion halako lehentasun bat: Kongresoak, Bertsolarien Txapelketak, Sariketak, Mendeurrenen ospaketak eta holako antolatzen zuen, ahal zue-nean.

Eta Euskaltzaindiaren legezko nortasuna zenbaitek ukatzen edo dudatan jartzen zuelako, burura jo zuen eta Joan Karlos erregeren Onartze Dekretoia lortu zen (7). Autonomia hasi denean, berriz, Eusko Kontseiluak eta gero Estatutoak Euskaltzaindiaren nortasun hori aitortu dute.

### III. Euskaltzaindiaren lanak

Ez da erraz hitzaldi motx batean Euskaltzaindiaren lanen berri ematea. Hala eta guztiz ere zerbait esaten ahaleginduko naiz.

Gerra aurreko garaian euskararen ortografia erabaki zuen. Urrats handia izan zen hura. Gero berehala heldu zion beste gaiari: euskararen batasunari, Kanpion-Broussain-en txostena oinarri hartuz (8), baina aurki azaldu ziren eragozpenak; gaia aski heldua ez zela ikusirik, bertan-behera utzi ez, baina nolabaiteko luzapena eman zion ordukotz arazo honi; Azkuek, ordea, arazoaren premia ikusirik, berak bere aldetik landu eta prestatu zuen euskara batu horren eredu bat. Dakizutenez, *Gipuzkera Osotua* deitu zion (9). Oraindik asko ez dela Mitxelena aitortu du gerra ondoko garaian sortu den euskara batua eta gipuzkera osotu hori anaia bizkiak direla, nahiz eta gauza denta-tan berdin-berdinak ez izan (10).

Gerra aurreko garaian Euskaltzaindiaren lan handietan handienetakoa *Morfología Vasca* deitzen dena da, noski. Azkue-ren lana da berau, baina bai Euskaltzaindiarena ere, zeren hark Euskaltzaindiaren batzarreerako prestatu baitzuen eta han irakurri eta beste euskaltzainen oharrak hartzen baitzi-tuen.

(7) Ikus Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca.

(8) CAMPION-BROUSSAIN: "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera", *Euskera* (1922), 4-17.

(9) AZKUE: "Gipuzkera Osotua", *Euskera* (1934-1935).

(10) Ikus Mitxelena-ren hitzaurrea Aita Villasante-ren liburua.i: *La H en la Ortografía Vasca*, 9 orriald.

Gerra aurreko beste lan handi bat *Erizkizundi Irukoitza* izan zen, Azkueren aginduz eta gidaritzapean askoren artean egina.

\* \* \*

Gerra ondoko garaian ekintza asko eta mota askotakoak aipa daitezke. Baina horien aipamenean sartzera koan Axular-en pasarte bat dator kit gogora: “Gure bizitzea —dio San Gregorio aipatuz— itsasoz dohana bezala da... Itsasoz dohana iatean, edatean, lo datzanean, eta are iarririk dagoenean ere, badoha, ezta orduan ere baratzen. Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza bada gu ere geure adinak eta denborak berekin: ezta pausatzerik, ezta gelditzerik, eta ez trikatzerik” (11).

Euskaltzaindiari ere hori bera gertatzen zaiola esango nuke. Euskal itsasoaren erdian sarturik dagoelarik, hark agintzen edo eskatzen dionaren araber a ibili beharra du. Esan nahi dut: euskararen premiek zer eskatzen duten eta hari lotu beharra dauka.

Purismo giroaren eraginez pilatutako aurre iritzi eta oker adituak gainditzen laguntzeko, 1959. urtean, eta hemen, Bilbon, egindako Batzarre batzuen ondoren, Agiri bat eman zuen Euskaltzaindiak, euskal hitza zein den jakiteko erizpidea emanez (12). Bederatzi urte geroago, hots, 1968an, Arantzazuko Batzarre famatuak egiten dira, euskararen batasunari eskeiniak. Edozeinek daki 1960tik eta 1970era bitartean gure herriaren aurpegia zeharo bestelakotzen dela; nekazal giro batetik giro hiritartu batera aldatzen dela, alegia. Aldaketa honen ondorioz euskara batuaren auziari hortzak sartzeko garaia heldua dela garbi ikusten da, gizarte giro berriak eskaturik. Iparraldekoekin ortografian bat egiteko, H letra neurri batean hartu behar den ez den eztabaidatzen da Arantzazun, eta hamar urteko epea jartzen, herriak asmo honi nola erantzuten dion ikusteko (13). Hamar urteko epea betetzean, Bergaran egiten da batzarrea, hamar urte horietako gorabeherak aztertuz (14), eta hurrengo urtean H-aren arazo honi buruz azken erabakia hartzen da (15). Ezin esan daiteke, beraz, gauzak arinegi eta itsumustuan egin zirela.

Bitartean, berriz, Euskaltzaindiak aditzaren batasuna (16), Deklinabi-dearena (17) eta Erakusleena (18) erabakitzen ditu. Baita ere erabaki du bus-

(11) Ax. 40.

(12) “Euskaltzaindiaren Agiria euskal itzei buruz”, *Euskera* (1959), 214.

(13) “Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria”, *Euskera* (1968), 250.

(14) Ikus Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra; *Euskera* (1978), 435.

(15) “H letraren ortografi arauak”, *Euskera* (1979), 659.

(16) “Aditz laguntzaile batua”, *Euskera* (1973), 5; “Aditz sintetikoa”, *Euskera* (1977), 789.

(17) Ikus *Euskera* (1979), 633.

(18) Ikus *Euskera* (1979), 629.

tidurak ez idaztea esanahiaren aldakuntzarik adierazten ez dutenean (19). Jakina denez, euskal hitzek aldaera edo “variante” asko izan ohi dituzte tokitik tokira. Guztion euskararako forma bat hautatu edo hobetsi behar zen; eta hori ere egin du, neurri batean behintzat: ikus “Batasunerako hiztegia” (20). Prestatu zuen, baita ere, “Zortzi urte arteko ikastola hiztegia” (21), Merkatalgo hiztegia edo Nomenclator Comercial (22), Euskal Izendegia, hots, pertsona izenena (23), eta Euskal Herriko Udalen izendegia (24).

Guztiok dakitenez, euskal literatura zaharrea maisulanik baldin bada, Axular-en Gero liburua da hori. Zor zaion bezala, Euskaltzaindiak berariazko kasu edo axola eman dio liburu honi. 1954ean atera zuen beronen edizio bat (25) eta 1964ean beste bat; azkenengo hau erdal itzulpen eta guzti (26).

Hortaz gainera, aipatzekoak dira *El libro blanco del euskara - Euskaren liburu zuria* (27), eta *Estudio Sociolingüístico del euskara* (28).

Aipagarri, baita ere, Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak (Primeros Encuentros Internacionales de Vascólogos) izenarekin Gernika eta Leioan egindako bilkura gogoangarriak. Bilkura haien lanak dauzkan liburua kalean da jadanik (29).

Euskaraganako zaletasuna herrian pizteko eta mantentzeko hainbat jaialdi, batzarre, sariketa, txapelketa eta ospaketa antolatu dira. Denak banan-banan aipatzea ezina da. “Bai euskarari” kanpaina soilki gogoratu nahi dut, 1978an egin.

1972an beste urrats handi eta ondoriotsua egin zen, hots, euskal irakasle tituluaren sortzea. Begien bistan zegoen euskarak ez zuela etorkizunik eskolan sarrera ematen ez bazitzaion. Eskolarik ezin egon zitekeen, ordea, irakasle edo maisurik ez zen bitartean. Orduan norbaitek behar eta Euskaltzaindiak sortu zuen titulu hau (30).

(19) “Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren agiria”, *Euskera* (1979), 91.

(20) *Euskera* (1968), 251.

(21) *Euskera* (1975), 7 ss.

(22) *Nomenclator de términos comerciales*. Pamplona, 1974.

(23) *Euskal Izendegia. Nomenclator onomástico vasco*. Pamplona, 1977.

(24) Bilbo, 1979.

(25) *Euskaltzaindiaren Ardurapean. Gero, bi partetan partitua eta berezia*. Zarautzen, 1954.

(26) PEDRO DE AXULAR, *Gero (Después)*. Barcelona, 1964.

(27) Bilbao, 1977.

(28) 12 tomo serokopiatuak.

(29) *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*. Iruñean, 1981.

(30) Ikus *Euskera* (1972), 220; (1976), 283.

Beste urrats handia, batez ere gerora begira, izan da “Euskararen Leku-koak” edo testiguak deitzen den liburu bildumaren sortzea (31). Jakina denez, lehengo euskal idazle zaharren liburuak ez dira erraz aurkitzen, edizio berrien eta gaurkotuen faltaz. Horiek, berriz, beharrezkoak ditugu euskara sustraitik eta bere osotasunean ikasi eta aztertzeko. Bilduma honetan euskalki guztietako idazleak ager daitezke. Orain arte bost liburu agertu dira: Lizarraga Elkanoakoa, Etxepare, Etxeberri Ziburukoa, Mendiburu eta Lapeyre. Beste hamar edo, bidetan daude. Denboraren buruan uste dugu bilduma hau ezin utzitzkoa bihurtuko dela euskara sustraitik eta bere osotasunean aztertzeko.

Eta esan beharrik ote da? **Euskera** aldizkaria da Euskaltzaindiaren agerkari nagusia. 1920an agertzen hasi zen. Gerra dela eta hogeitaz irten gabe egon zen, baina hori gora-behera, 42 tomok osatzen dute gaur **Euskera**-ren kolezioa. Bertan agertzen dira Euskaltzaindiaren erabaki, agiri, berriak, euskaltzainen eta baita kanpokoen azterketa lanak, testu zaharren edizioak, etab. Ni hemen ezin has naiteke, bistan da, **Euskera**-n agertutako lanen kontu ematen. Gerra aurreko **Euskera**-ren zenbakiak aspaldi agortuak zeuden eta orain berragertzen dira.

Euskaltzaindiaren bi sailen arabera, *Iker* eta **Jagon**, liburu bilduma bana sortu da, bata *Iker* eta besteak **Jagon** izena duena, beren luzeeragatik **Euskera**-n sarrera ez duten lanak argitaratzeko. Horietako bat, Lafitteren omenaldiko liburua, euskaltzain eta euskalari askoren lanez hornitua, laster azalduko da. Eta bai beste bat ere, Iparragirreri buruzko lanekin.

Euskal Liburutegia, “Azkue Biblioteka” izena daramana, Ribera kaleko 6an kokatua: horra beste obra bat Euskaltzaindiaz maitaro zaindua. Euskaltzaindiak nahi du bertan biblioteka publiko bat eraiki, euskal gaiena, noski, ahalik eta osoena eta hornitua, kontsultarako, azterketak egiteko, etab.

#### IV. Batzordeak

Euskaltzaindiak Komisio edo Batzordeen bidez egiten ditu bere lanak. **Euskera** aldizkarian ikus daiteke batzorde horien kopurua (32). Beharren eta gora-beheren arabera, ez dira beti berberak izan: batzuk jarri, beste batzuk kendu, berritu etab. egin izan dira. Hala, esate baterako, Alfabetatze batzordea luzaroan Euskaltzaindian egon da; orain bere gain jarririk dago. Gaur egun batzorderik nagusienak honako hauek dira: Aditzarena, Gramatikakoa, Hiztegi-gintzakoa, Bertsolariena, Oinarrizko euskararena, Dialektologiarena eta Literatur batzordea. Azkeneko hau une honetan “Euskal Idazleen Elkar-tea” behar bezala legeztatua jarri nahiean dabil, euskal autoreen eskubideak zaintzeko.

(31) Euskaltzaindiaren Agiria: “Euskara eta euskal literaturaren lekukoak” liburu bilduma sortzeaz, **Euskera** (1978), 343.

(32) Ikus **Euskera** (1981), 763.

Dialektologi batzordeak ere asmo eta lan handiak darabiltza. Herrizherri eta magnetofonik euskararen bilketak egin nahi ditu (eta lanean hasia da), aldez aurretik prestatutako galdeketa batzuen arabera. Horrela euskarak tokitik tokira dituen berezitasunak jakiteko bide bat gehiago izango dugu. Batzordearen azken helburua, “Euskararen Atlasa” burutzea da. Euskararen Atlasa: ekintza handia hau ere. Gaur-egun edozein hizkuntzak du bere Atlasa egina: frantsesak, gaskoinak, katalanak etab. Guk oraindik ez dugu geurea. Lehen aipatu dudan “Erizkizundi Irukoitza”, Azkueren eraginez burutua, horrelako zerbait da, baina ez dago behar bezala argitaratua, eta, gainera, bere garaiko kriterioekin eta tresnekin egin zen. Orain oraingoa behar dugu. Gaur egun ere herriko euskara biziak oraindik behar bezala jasoak eta aztertutak ez dauden berezitasun eta ondasunak ditu. Eta beharrezkoa da horiek jasotzea. Lan horretan dihardu Dialektologi batzordeak.

## V. Asmoak

Epe laburreko batzuk bakarrik aipatuko ditut. Datorren urtean, Erregetako zubian, eta Uztaritzen (Lapurdi), bilkura batzuk egin nahi ditugu, mailaguzko hitzei zer tratamendu eman behar zaien, batez ere euskal ortografian, aztertzeko. Badira, alegia, kultur hitzak edo kultismoak, guti asko hizkuntza guztietan zabalduak: hitz oriek, euskaraz hartzekotan, nola ahozkatu eta idatzi behar diren: hori aztertzea izango da bilkura horien gaia. Puntu hau erabakitzea beharrezko gertatu da Euskaltzaindiaren beste asmo bat, *Hiztegi hiritartua*, aurrera eraman ahal izateko (33).

Datorren urtean beteko dira ehun urte Markinan Lore Jokoak ospatu zirenetik. Hori dela eta, euskalkien arazoari buruz zerbait antolatu nahi da.

Hemendik bi urtetara, berriz, Kanpionek ateratako *Gramática de los 4 dialectos literarios de la lengua euskara* liburu famatuaren ehun urteak betetzen dira. Ordurako Euskal Gramatikari buruzko Biltzar bat prestatzen ari gara. Nik ez dakit, baina behar bada Biltzar hau izango da (hala nahi genuke) euskarak behar duen Gramatikaren oinarriak eskainiko dituen.

Ikusten duzuen bezala, uzta aski ugari eta aberatsa izan da Euskaltzaindiak bere bizi denboran bildu duena.

Hitzaldi hau bukatu baino lehen, bi puntu berezi ukitu nahi ditut, laburki izango bada ere. Badakit, ba, horiek direla eta, maiz Euskaltzaindia ez dela ongi konprenitua eta hartua izaten. Bi puntuok hauetxe dira: 1 Garbikeria edo Purismoaren arazoa. 2 Euskara batua eta euskalkien arazoa.

(33) Ikus *Euskera* (1982), 271.

## VI. Purismoa

Edozeinek daki hizkuntzek kanpoko hitzak mailebatzen dituztela, hau da, hartu eta etxera ekarri ohi dituztela. Euskarak ere, besteek bezalaxe, hala egin izan du mendeetan zehar. Eta hitzok, hizkuntza hartzailean sustraiturik eta bertakoturik daudenean, zilegitzat jotzen dira. Hizkuntza hartzailearen hitzak bezala jotzen dira. Gaztelaniaz, esate baterako, "Alcalde" hitza arabetik dator, baina inork ez du muxinik egiten hitz hori erabiltzeagatik. Beste kontu bat da kanpoko hitza oraindik sartua ez dagoenean eta horren beharra ere garbi ikusten ez denean. Orduan, bai, halako kontra bat egiten zaio, eta arrazoiz, ze hizkuntza batek bere garbitasuna eta jatortasuna neurri batean gordetzea on da eta behar da. Bego, bada, hau garbi.

Ikus dezagun orain gure hizkuntzan zer gertatzen zen, batez ere mende honen hasieran. Gure euskalari eta euskaltzaleek aurkitu zuten euskarak badituela hainbeste hitz latinetik batez ere hartuak. Esate baterako: *bake, errege, zeru, kantatu, arima, gorputz, familia, kolore, frutu, fede, eliza*, eta holako. Zinez, haiek orduan aurkitutako baino asko eta asko gehiago dauka, baina zorionean euskal hitz askoren latinezko jatorria jakitera ez ziren heldu; bestela larru gorrian utziko gintuzten. Hasi ziren, bada, horrelako hitzak hizkuntzatik kanpora jaurtitzen, eta horiek utzitako zuloa estaltzeko hitz berriak asmatzen edo beste euskal hitz bat kanpora botatakoaren ordaintzat erabiltzen. Kontuan eduki behar da botatako hitzak hizkuntzan sustrairik sakon eta sendoenak dituztenetakoak direla. Ekintza hau zentzugabekoa zen eta kaltegarria, ze hizkuntza indarge eta kolokarazia uzten zuen. Aspertzeke ibili zen Altube euskaltzain jauna hori esaten, baina erdia alferrik.

Erizpidea bera, printzipioa zen hemen okerra, eta hau zuzendu behar zen. Eta hori egin zuen Euskaltzaindiak 1959ko agiri horrekin. Zein da euskal hitza?, galdera honi erantzun behar zitzaion. Eta erantzuna hau izan zen: Euskal hitza da euskaran erroak egina dagoena. Erro horiek zenbat eta sakonagoak eta zabalagoak izan, orduan eta euskaldunago da hitza; horri, eta ez etimologiari, behar zaio kasu eman. Hau da, bestalde, auzi honetan hizkuntza guztiek segitzen duten neurria. Erregela hau gidatzat harturik, hainbeste korapilo eta sasi problema askatzen dira.

Gogoan dut agiri hori Euskaltzaindiak eman zuenean, zenbat protesta heldu ziren Euskaltzaindira. Baina agiri horrek pixkaka bere lana egin zuela uste dut, eta gaur, alde horretatik behintzat, zentzua sartu zaigu. Horrekin ez dut esan nahi orain ere burua lehengo lekuan dutenak ez direnik, baina gehienek Euskaltzaindiak erakutsitako bidea hartu dute. Oro har, eta salbuespenak aparte, uste dut auzi hau garbitu dela.

Baina orain beldur naiz urak ez ote doazen beste aldera. Gaur badirudi askok parra-parra gaztelanianatik hartzen dituztela hitzak, nolana eta askotan, itxuren arabera, premiarik gabe. Hori, ordea, ez da Euskaltzaindiaren bidea. Agian egunen batean beste agiri bat eman beharko du, ez lehengoaren kontra, baina bai osagarri. Nik konprenitzen dut gauza hauek ez direla Mate-



matikak, mugak ez direla beti garbi egoten, euskara hitz berrien premian dagoela eta idazleari neurri batean bere sorketa lana eta tresnaren egokitze lana egitea ez zaiola galerazi behar, eta horretarako askatasun bat behar duela. Baina Euskaltzaindiak ere arau gidariak emateko lanari ez dio utzi behar; behar direla ikusten duenean, behintzat.

## VII. Euskara batua eta euskalkiak

Badakit gai hau labana dela, batez ere bizkaitarrentzat. Hemen ere hainbeste aurre-iritzi eta oker-aditu metatu dira, gai honen ikusbide zuzena eragozten digutenak.

Aurrena objezio batzuk aipatuko ditut eta ahaleginduko naiz beroiei erantzuten. Gero zein den Euskaltzaindiaren jarrera arazo honi buruz hitz gutitan esango dut.

### Objezioak:

1. Euskalkia da herriko hizkuntza; batua, berriz, artifiziala, asmatua. Lehenetsuna herrikoari eman behar zaio. Euskara batua, hartzekotan, azken helburu bezala har daiteke. Herri bidetik joan behar da, beraz. Bestea geroko utzi.

2. Euskara batua egitean, bizkaiera baztertua edo zokoratua izan da. Ez da, beraz, gurea.

Uste dut hauek direla objezio nagusiak. Goazen erantzutera.

Lehenengoari: Hemen oker-aditu asko dago gorderik. Euskalkia dela herriko hizkuntza esatean, euskalki hitzaz zer esan nahi da presiski: euskalki mintzatua ala euskalki idatzia? Bizkaiera mintzatua, esate baterako, tokitik tokira desberdin da Orozkotik hasi eta Oñatiraino. Bizkaiera idatziak, bai, badu halako batasun bat, idazleek eman diotena. Mogelek moldatu zuen bizkaiera idatzia Markinako euskara oinarritzat hartuz, baina Bizkaian bada, Markinakoaz gainera, beste euskara motarik. Horrek esan nahi du bizkaiera literarioa hizkera batu bat dela bera ere, herriko hizkeratik gehiago edo gutiago aldendua; beraz, badu artifizialtasun bat, euskara batuak duen bezalaxe, eta eskoletan irakasten diren munduko hizkuntza guztiek duten bezalaxe.

Euskalkiak direla lehen eta euskara batua gero? Hori ez dut hain garbi ikusten. Neretzat euskara da lehen, euskalkiak gero. Irudi baten bidez azalduko dut hau. Zuhaitza edo arbola edo arbolaren enborra euskara da. Enbor horretatik adarrak ateratzen dira gero, hots, euskalkiak. Lehenago da arbola, beronen adarrak baino. Euskara batuak enborrean batzen gaitu, guztiona den enborrean. Beraz, euskara batua ez dago bukaeran edo azken helburuan; nik esango nuke hasieran dagoela, guztiona dena bihurtze bat dela. Artifizialtasun bat baduela? Bai. Baina hori bizkaierari ere gertatzen zaio. Ni gernikarra naiz eta ondo dakit han ahoz egiten den hizkera eta liburuetako bizkaiera ez

direla alde guztiz gauza bera. Baina gaitz hau noraezekoa da eta hizkera landu guztietan gertatzen da.

Bigarren objezioa: Euskara batua egiterakoan bizkaiera baztertua izan dela. Hau ere ez da egia; egia osoa ez behintzat. “Enero” esateko giputzek *Hilbeltza* esaten dute; ez da hori hartu, *Urtarrila* baizik; bizkaitarra, beraz. “Septiembre” esateko *Iraila* hartu da, ez giputzen *Agorra*. “Hiero” esateko giputzek *burni* esaten dute, bizkaitarrek *burdina*, eta hau hartu da. Hola segi nezake adibideak ateratzen eta zerrenda luzea aipatuko nuke, baina aski da. Beti ez da hola gertatu, noski; erregela batzuen arabera egin dira hautaketak. Aditzean ere *gara*, *zara* formak hartu dira, eta ez giputzenak. Baina hau ere esan behar da: aditzean aukera guti zegoen handik eta hemendik hartzen ibiltzeko; erabateko sistema itxia da aditza, eta orduan bat hartu behar zen, eta bat hori giputza izan da, baina hor ere ez beti. Subjuntiboan Iparraldeko forma batzuk ere sartu dira. *Eritzi* aditz sintetikorako bizkaieraren jokabidea hobetsi da, etab.

Hemen gertatzen dena da euskararen barnean badela erdiko multzoa, giputz, lapurtar eta Nafarroako hizkerez osatua; eta gero bazterraldean daude bi euskalki oso bereziak: sortaldean xuberotarra eta sartaldean bizkaitarra. Bazterraldekoak pixka bat aldenduak gelditzen dira eta orduan normala zen erdiko multzora jotzea. Baina ez beti. Askotan gertatzen da bazterretan batasuna dagoela eta ez erdiko multzoan, eta orduan bazterrekoei eman zaie lehentasuna.

Nik askotan esan dut bizkaitarrak izan direla euskara batu baten bultzatzaile handienak, eta hala da. Beren euskalkia besteengandik pixka bat urrun gelditzen zelako eta zabalkundeari begiraturaz, aspaldidanik ibili dira tresna zabalago baten bila, berena ere baztertu gabe. Diodanaren lekuko izen mordo aipa nezake: Juan Antonio Mogel, Vicenta Mogel, Añibarro, Uriarte, Azku, Garitaonandia, Altube, Eleizalde (34), Txomin Agirre, Mikel Zarate, G. Aresti, I. Berriatua... Idazleak bere obrak zabal daitezela nahi du, besteak beste, eta orduan gehienek ulertzeko egokiena den hizkera forma bilatzea normala da, neurri batean behintzat.

Eta bukatzeko, esan dezagun zein den Euskaltzaindiaren jarrera arazo honetan. Bi agiri emanak ditu gai honi buruz (35). Euskaltzaindiak nahi du, noski, euskara batua; baina horrek ez du esan nahi euskalkiak lantzearen kontra dagoenik. Berak uste du tokia dagoela bai batarentzat eta bai bes-teentzat. Honetan ere Euskaltzaindia bi jarrera puntakoen artean dago. Batzuek ez dute euskara baturik nahi, euskalkia bakarrik; beste batzuek, aldiz,

(34) Eleizalde eta Altube bizkaieraz mintzo den Deba ibai harrokoak dira.

(35) “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca “Euskaltzaindia”: el euskara común, los dialectos y las hablas locales”, *Euskera* (1979), 101. “Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan”, *Euskera* (1979), 697.

euskara batua bakarrik nahi dute, eta ez euskalkirik. Bion ostikoak eta era-soak hartzen ditu Euskaltzaindiak, baina bera ez da hain hertsia. Badaki euskalki literarioak ere hor direla; euskalki horiek badituzte idazle ospetsu batzuk, obra beneragarri batzuk, tradizio bat. Hori lantzea, mantentzea eta irakaskuntzan ere irakastea on da, guztion euskara baztertu gabe. Oraindik orain Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiarekin batean prestatu du bizkaitar aditz eredia eskolan irakatsia izan dadin. Badakit zenbaitek Euskaltzaindia jorratu duela horregatik. Esan digute ea zergatik arduratzen den euskalkiez, euskara batua duelarik bere eginbide nagusi. Baina berak uste du bata eta bestea egin behar dituela.

Noiz erabiliko da bata —euskara batua— eta noiz bestea —euskalkia—? Hori ez da erraz mugatzea. Badirudi zenbait idazte motetarako —adibidez, sorketa literaturarako— egokiagoak direla gaurkoz euskalkiak; hizkera aseptiko eta standard horretarako, berriz, euskara batua. Bihar-etzi zer izango den geroak esango du. Eta azkenik, nik eskatuko nieke neure herritar bizkaitarrei ez dezatela trena gal, ez dezatela galdu bizkaitar idazleek beti agertu duten zabaltasun hura.



**EUSKALTZAINDIAREN  
AGIRIAK**



## BIZKAIKO ADITZAREN ERABILERAZ OHARRAK

(Batzarra egin ondorik Mitxelena-k bialdu dituen oharrak bere kontuan harturik zerbait zuzendu da.)

Bilbon bildu dira, karmeldarren Begoñako etxean, 1982-garreneko Abuztuaren 6-an, Euskaltzaindiaren aurreko hileko batzarraren agindua beterik, Aita Lino Akesolo, Pedro Pujana, Juan San Martin eta Alfonso Irigoien jaunak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Iker Sailaren Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiari bialdu deutsan “Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan” dalakoa ikertzeko eta bere ganean eritxia emoteko.

Hasteko, aitatu dan sail horretako Euskara Zerbitzuak lan horri ezarri deutsan hitzaurrea irakurri da eta horren ondorik Irigoien-ek ekarririko txostena.

Batzarreko berbak batzeko eskatu jako Irigoieni eta hain zuzen bere hauxe berau da ondorioa.

1. Deklinabideari jagokozanetan Irigoien-ek txostenean esaten dituenak haintzat hartu dira eta horretara **-akaz, -akan, -akana, -akanantz, -akanaino, -akandik** —baita **-akanik** bere—, **-akaitik**, ontzat hartzea erabagi da, eta ez **-ekaz, -ekan, -ekana**, eta abar. Baita **-tarik** eta **-etarik, -(r)endako** eta abar, gehitzea bere, **baten** eta **batean**, biak, bakoxta bere arloan erabiltea, **batzuren, batzurentzat, batzutan, batzutara**, formen ordezt **batzuen, batzuentzat, batzuetan, batzuetara**, eta abar, eta euskera batuko deklinabidean legokezan Bizkaiko erak gogoan hartzea.

2. Aditzari jagokozanetan hurrengo honeek aldatzeko eskatzen da:

a) 23 orr. Oharra ipintea: “**Ditut, dituk / ditun, ditu**, eta era horretakoak hobetzat hartzen dira”.

b) 24 orr. **Darabilzak, darabilzana, darabilz, darabilzuz, -l-** eta guzti ipintea.

d) 25 orr. Goitik behera 1b: **gaituk** eta **gaitun(a)** bere ipintea.

e) 27 orr. **Garabilz** eta **zarabilz, -l-** eta guzti ipintea.

f) 30 orr. **Deuazat, deuzanat, deuzan(a), deuzane** formen ordez **deuadaz, deunadaz, deunaz, deunez** ipintea.

g) 31 orr. **Dinoazat, dinoazanat** formen ordez **dinoadaz, dinoanadaz** ipintea.

h) 32 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **dakardak / -zak, dakardana(a) / -zana, dakart / -daz, dakardazu / -z, dakardazue / -z, dakarde / -z, 2. dakarrat / -daz, dakarrenat / -daz, dakarra / -z, dakarna / -z, dakarragu / -z, dakarnagu / -z, dakarrie / -z, dakarne / -z, 3. dakarkot / -daz, dakarkok / -zak, dakarkon(a) / -zan(a), dakarko / -z, dakarkogu / -z, dakarkozu / -z, dakarkozue / -z, dakarkie / -z, 1b. dakarguk / -zak, dakarguna (a) / -zan(a), dakargu / -z, dakarguzu / -z, dakarguzue / -z, dakargue / -z, 2b. dakartzut / -daz, dakartzu / -z, dakartzugu / -z, dakartzue / -z, 3b. dakartzuet / -daz, dakartzue / -z, dakartzuegu / -z, dakartzuee / -z, 4. dakarkiet / -daz, dakarkiek / -zak, dakarkien(a) / -zan(a), dakarkie / -z, dakarkiegu / -z, dakarkiezu / -z, dakarkiezue / -z, dakarkiee / -z.**

i) 33. orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **daroadak / zak, daroadan(a) / -zan(a), daroat / -daz, daroadazu / -z, daroadazue / -z, daroade / -z, 2. daroaat / -daz, daroan(a) / -zan(a), daroaa / -z, daroan(a) / -z, daroaa / -z, daroanagu / -z, daroan / -z, daroane / -z, 3. daroakot / -daz, daroakok / -zak, daroakon(a) / -zan(a), daroako / -z, daroakogu / -z, daroakozu / -z, daroakozue / -z, daroake / -z, 1b. daroagugu / -z, daroaguzue / -z, daroaguzue / -z, daroaguzue / -z, 2b. daroatzut / -daz, daroatzu / -z, daroatzugu / -z, daroatzue / -z, 3b. daroatzuet / -daz, daroatzue / -z, daroatzuegu / -z, daroatzuee / -z, 4. daroakiet / -daz, daroakiek / -zak, daroakien(a) / -zan(a), daroakie / -z, daroakiegu / -z, daroakiezu / -z, daroakiezue / -z, daroakie / -z.**

j) 34 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **darabilak / -zak, darabilan(a) / -zan(a), darabilt / -daz, darabildazu / -z, darabildazue / -z, darabilde / -z, 2. darabilat / -daz, darabilnat / -daz, darabila / -z, darabiln(a) / -z, darabilagu / -z, darabilenagu / -z, darabile / -z, darabilene / -z, 3. darabilkot / -daz, darabilkok / -zak, darabilkon(a) / -zan(a), darabilko / -z, darabilkogu / -z, darabilkozu / -z, darabilkozue / -z, darabilke / -z, 1b. darabilguk / -zak, darabilgun(a) / -zan(a), darabilgu / -z, darabilguzue / -z, darabilguzue / -z, darabilgue / -z, 2b. darabiltzut / -daz, darabiltzu / -z, darabiltzugu / -z, darabiltzue / -z, 3b. darabiltzuet / -daz, darabiltzue / -z, darabiltzuegu / -z, darabiltzuee / -z, darabilkiet / -daz, darabilkiek / -zak, darabilkien(a) / -zan(a), darabilkie / -z, darabilkiegu / -z, darabilkiezu / -z, darabilkiezue / -z, darabilkie / -z.**

k) 35 orr. **Ninoian, hinoian** eta abar, **ninoan, hinoan** eta abar, ipintea, -o- eta -a- bokalen bitartean -i- barik, aurrekoetan **noa, hoa** eta abar, ipinirik **noanean, hoanean**, eta abar, egitea, **noianean** eta **hoianean** formen ondoan, zabal dabilelako eta baterago datorrelako beste euskalkietako joereagaz. Bar-



din balioko leuke, ostera, **noa** erabilirik gero **noianean** egiteak. Horretara beti **ninoian** eta abar izango lirateke.

l) 40 orr. Oharra ipintea: “**nituan, hituan, zituan** eta **zituen** hobetzat hartzen dira”.

m) 41 orr. **Zenkarren** eta **zenkarren** bereztea, bigarrena **zenkarreen** edo **zenkarrien** ipinirik. Bardin **ekarren** eta **ekarren**. Ibilli aditzarenetan -l- ipintea -z baten aurrean bere: **erabilzan** eta abar, edo **erabiltzan**.

n) 49 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **heroadak** / -zak, **heroadan(a)** / -zan(a), **eroadan** / -zan, **zeroadan** / -zan, **zeroaden** / -zan, **eroaden** / -zan, 2. **neroaan** / -zan, **neroanan** / -zan, **eroaan** / -zan, **eroanan** / -zan, **geroaaan** / -zan, **geroanan** / -zan, **eroen** / -zan, **eroanen** / -zan, 3. **neroakon** / -zan, **heroakon** / -zan, **eroakon** / -zan, **geroakon** / -zan, **zeroakon** / -zan, **zeroakoen** / -zan, **eroaken** / -zan, 1b. **heroakun** / -zan, **eroakun** / -zan, **zeroakun** / -zan, **zeroakuen** / -zan, **eroakuen** / -zan, 2b. **neroatzun** / -zan, **eroatzun** / -zan, **geroatzun** / -zan, **eroatzuen** / -zan, 3b. **neroatzuen** / -zan, **eroatzuen** / -zan, **geroatzuen** / -zan, **eroatzuen** / -zan, 4. **neroakien** / -zan, **heroakien** / -zan, **eroakien** / -zan, **geroakien** / -zan, **zeroakien** / -zan, **zeroakien** / -zan, **eroakien** / zan.

o) 50 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **hekardan** / -zan, **ekardan** / -zan, **zenkardan** / -zan, **zenkarden** / -zan, **ekarden** / -zan, 2. **nekarran** / -zan, **nekarnan** / -zan, **ekarran** / -zan, **ekarnan** / -zan, **genkarran** / -zan, **genkarnan** / -zan, **ekarren** / -zan, **ekarnen** / -zan, 3. **nekarkon** / -zan, **hekarkon** / -zan, **ekarkon** / -zan, **genkarkon** / -zan, **zenkarkon** / -zan, **zenkarkien** / -zan, **ekarkien** / -zan, 1b. **hekargun** / -zan, **ekargun** / -zan, **zenkargun** / -zan, **zenkarguen** / -zan, **ekarguen** / -zan, 2b. **nekartzun** / -zan, **ekartzun** / -zan, **genkartzun** / -zan, **ekartzuen** / -zan, 3b. **nekartzuen** / -zan, **ekartzuen** / -zan, **genkartzuen** / -zan, **ekartzueen** / -zan, 4. **nekarkien** / -zan, **nerkarkien** / -zan, **ekarkien** / -zan, **genkarkien** / -zan, **zenkarkien** / -zan, **zenkarkien** / -zan, **ekarkien** / -zan.

p) 51 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **herabilan** / -zan, **erabilan** / -zan, **zerabilan** / -zan, **zerabilen** / -zan, **erabilen** / -zan, 2. **nerabilan** / -zan, **nerabilan** / -zan, **erabilan** / -zan, **erabilenen** / -zan, **gerabilan** / -zan, **gerabilan** / -zan, **erabilen** / -zan, **erabilenen** / -zan, 3. **nerabilkon** / -zan, **herabilkon** / -zan, **erabilkon** / -zan, **gerabilkon** / -zan, **zerabilkon** / -zan, **zerabilkien** / -zan, **erabilkien** / -zan, 1b. **herabilgun** / -zan, **erabilgun** / -zan, **zerabilgun** / -zan, **zerabilguen** / -zan, **erabilguen** / -zan, 2b. **nerabiltzun** / -zan, **erabiltzun** / -zan, **gerabiltzun** / -zan, **erabiltzuen** / -zan, 3b. **nerabiltzuen** / -zan, **erabiltzuen** / -zan, **gerabiltzuen** / -zan, **erabiltzueen** / -zan, 4. **nerabilkien** / -zan, **herabilkien** / -zan, **erabilkien** / -zan, **gerabilkien** / -zan, **zerabilkien** / -zan, **zerabilkien** / -zan, **erabilkien** / -zan, **erabilkien** / -zan.

r) 52 orr. **Balira** aurretik ipintea eta **balitzaz** atzetik.

s) 54 orr. Paradigma guztiko formetan **-tza-** sustraia **-txa-** eran ipintea, hau da, **banintzako** formearren ordeztu, **banintxako** eta abar, aurrekoen bide beretik eta Mogel-en erara.

t) 57 orr. **Bagenbilkoz** zuzen ipintea erratu barik.

u) 63 orr. Paradigma osoa aldatzea. Honela: Goitik behera 1. **bahekart / -daz, balekart / -daz, bazenkart / -daz, bazenkarde / -z, balekarde / -z**, 2. **banekarra / -daz, banekarn(a) / -daz, balekarra / -z, balekarn(a) / -z, bagenkarra / -z, bagenkarn(a) / -z, balekarre / -z, balekarne / -z**, 3. **banekarko / -z, bahekarko / -z, balekarko / -z, bagenkarko / -z, bazenkarko / -z, bazenkarkie / -z, balekarkie / -z**, 1b. **bahekargu / -z, balekargu / -z, bazenkargu / -z, bazenkargue / -z, balekargue / -z**, 2b. **banekartzu / -z, balekartzu / -z, bagenkartzu / -z, balekartzue / -z**, 3b. **banekartzue / -z, balekartzue / -z, bagenkartzue / -z, balekartzue / -z**, 4. **banekarkie / -z, bahekarkie / -z, balekarkie / -z, bagenkarkie / -z, bazenkarkie / -z, bazenkarkie / -z, balekarkie / -z**.

x) 67 orr. **Genduke / -z, zenduke / -z** eta **zendukie / z**, besteen aurretik ipintea, hau da, **geunke / -z, zeunke / -z** eta **zeunkie / -z**, formen aurretik.

z) 77 orr. **Nadin, hadin** eta **dedin** besteen aurretik ipintea, hau da, **nai-**, **haiten** eta **daiten** formen aurretik.

aa) 80 orr. **Deiden** eta **deizuen** zuzen ipintea.

ab) 81 eta 110 orr. Bigarrenean oharra ipini da: "(Sistema barria ere zabaldu da). Literatura tradizioan oinarririk ez dauka". Lehenengoan ez da ipini eta paradigma biak osorik kentzen ez badira ipini beharrezkoa da. Guk gurago genduke biak kentzea, **dait sodan, eitsazu** eta holakoak oso bitxiak eta sustrai eskasekoak direlako euskeraz.

ad) 82 orr. **Nendin, hendin** eta **zedin** aurretik ipintea, hau da, **neintean, heintean** eta **eitean** formen aurretik, eta horreek eurok bere aldaturik, hau da **neinten, heinten** eta **eiten**.

ae) 88 orr. Ez da ezer ipini paradigma horretan eta bertako nota batekin dino: "Idatziz, literatura mailan ez da inoiz erabili". Baina **RS 1596** dalakoan badator forma bat: **quendu deyque** ('hiri'), n.º 136. Mogel-ek bere, **Conf.**, 1881, 130 orr., **esan daikio** darabil, Aita Lino Akesolo-k jakinerazoten dabeenez. Horretara paradigma osatzea erraza da. Egin gura ez balitz formok ipini beharko lirateke gitxienez, erabili gura dituenak bidea zabalik izan daian.

af) 91 orr. Paradigma osoa kendu behar da. **Neintekio, leitekiet**, eta horrelakoak Bizkaiko euskeraz **nenkikio, lekiket** edo **lekikit**, eta abar, direlako. **RS 1596** dalakoan holangoak ditugu: **aspertu banequio asper lequiquet** 'si me le vëngasse, vëngarse meya', n.º 10, eta Egaz **manequi ora nequique choriari** 'si volar supiesse trabaria el paxaro', n.º 230. Paradigma osatzea erraza da. Goikoan legez, ipini gura ez balitz formok behintzat ipini beharko lirateke, erabili gura dituenak bidea zabalik izan daian.

ag) 92 orr. Aurrekoaren gauza berbera. Osatzekotan **nenkikion**, **(z)ekikedan** edo **(z)ekikidan** eta abar ipini beharko lirateke.

ah) 93 orr. **ginei / -z, zinei / -z, zineie / -z**, falta dira.

ai) 110 orr. Gurago genduke osorik kentzea, **eitsok**, **eitsazu** eta abar oso bitxiak eta azalekoak direalako euskeraz.

aj) Azkenez, komeniko litzateke paradigmok argitara agertu baino lehenago nor edo nok **-e- / -ee- / -ie / -oe-** pluralizatzailleak berrero arakatzea eritxi ondo ezarririko baten azpian agertu daitezkan.

Eta guzti hau Euskaltzaindiari honela jakinerazotea erabagi da, gero behar direanak bete ondoan erantzuna prestatu daian.

*Idazkari erara  
Alfonso Irigoien*



## HITZ MAILEBATUEZ

*Donostia, 1982-IX-24*

*Koldo Mitxelena*

Inor gutxik ukatuko luke gaurregun euskaldunen artean nabari den erdaratikako hitzen premia gorria. Hori horrela delarik, bi auzi sortzen dizki-gu gutxienez egoera horrek:

a) nondik-norakoa da premia horren neurri arrazoizkoa, zuzena ez bada ere;

b) zer itxuratan agertu behar dute mailebutan hartzen edo hartuko ditugun hitzok.

Mailebuen beharra nondik datorren bistan dugu. Euskara, hizkuntza “ñimiñoa” izateaz gainera, ez da erabilia izan, menderen mendetan, hainbat eta hainbat eremutan. Eremu horiek euskaraz landu nahi baditugu, beraz, eta badirudi euskaraz landu nahi ditugula, gure hitz-altxorra ia itxuragabeki ugaritu beharrean aurkitzen gara, dela hitz sortuen medioz, dela bestetariko hitz “arrotzen” bitartez.

Aski nabarmen dela deritzat ezin dezakegula hutsune hori etxeko gaiez bete. Ez hori berez ezinkizun litzakeelako (ikus beza, nahi duenak, zer gertatu zitzaion hungaroari, magyar-ari, XVIII. mendean eta arrezkero), baizik eta ezinkizun delako bat-batean eta itsumustuan mende luzeek utzi duten hutsar-tea betetzea.

Esan dezadan, gerora gabe, egoera eskas hau ez dela euskal hitz-altxorrena (“kultoagoek” “lexikoa” deitzen duten horrena) soil-soilik, gora-goko mailako beste eskasien ume delako: ikusteko begirik duenak, bekus. Zor zaiona aitortzen badiogu egiari, gainera, eskasia eta are gabezia ez dira euskararen edo euskal hiztegiarenak, euskaldunonak baizik, hondarrik hondarre-nean bederen. Salbuespen urriak salbu jakitearen alorrak, esate baterako, ez ditugu artean gehiegi landu, ez euskaraz eta ez erdaraz. Zerbait ikasi egin dugu, onenean ere, alor horietan, baina ikasi duguntxoa, besterengandik ikasi dugunez maizenik, besteren hizkuntzan ikasi dugu eta ikasten. Morrontza honetarik ihes egin nahi badugu, bai hizkuntza gaietan ere, noraezeko izango dugu hitzak ez ezik bestelako sorkariak ere sortzea.

Normalerantz jo nahi badugu, eta normalerantz jo behar genuke, nolaz-paiteko hesiak ipini beharko dizkiogu geure hiztegiari, hesi eta mugarrri aldakorak alde batetik eta iraunkorrek bestetik. Urrutiko inoiz batean, Bilbon noski, "Euskal hitzak zein diren" edo zelako erabakia hartu zuen Euskaltzaindiak. Erabakiaren mamia eta muina hauxe genuen, oker ez banabil: hitzaren jatortasuna ez dela etorkiaren arabera neurtzen, hiztunen usarioaren arabera baizik. Nondinahiko den, bada, euskarazkoa da euskaldunek erabili eta erabiltzen badute. Zenbatek, zenbatetan eta zenbateraino, ordea, erabili?

Jakina da euskaldunok, baita garbizaleenok ere, bi hitz-zorro izan ditugula aldamenean, hizketan ari garelarik. Hobeki esan, zakutto bat alde batean eta zaku sakon-zabala bestean. Lehenbizikoan, euskarazkotzat guztiok edo gehienok dauzkagunak daude; bigarrean, berriz, erdararen (inguru haue-tan, erdara baten) ondasun itxuraz azkengabeak gordetzen dira. Eta hartan ez badugu aurkitzen bila gabiltzana, sarri askotan sartuko dugu bestean eskua, hor nekerik gabe idoro dezakegulakoan.

Jokabide honek ez dirudi egoki idazterakoan, ezta ere aho-hizkera lan-duagoan. Norbaitek, Euskaltzaindiak inork baino lehenago, saiatu beharko luke soroa usuago mugarritzen eta hitz kontuak garbitzeko galbae tapituagoa erabiltzen. Ezta hau, ordea, begien itxireki batean erabaki daitekeen arazoa. Are gehiago, ez da, gainera, hemen eta orain dihoakiguna.

\* \* \*

Hitz edo morfema berriak hartzerakoan, eta berriak dira aspaldixkodanik hartuak ez ezik onartuak ere izan direnak gure artean, itxuraldaketaren bat edo beste nozitu behar izaten dute. Hor daude itxuraldaturik dauzkagunak eta horiek ez dute, gehienbat, ukitu berriren premiarik. Bestek dira, agian, berri-berriak, ezinbestearen ezinbestekak harrerazi dizkigunak (dema-gun ikusi berri dudak *exakzioa*) holako zerbaiten premia bizian aurkitzen direnak.

Hotsen aldetik, hobeki esan, hizkuntza idatziaz ari garenez, letren alde-tik nola erdaratikako hitzak egokitu da lehen puntua. Bigarrena, berriz, eta ez da bestea baino errazagoa, iturburuari dagokiona da. Erdara esan ohi dugu euskaldunok eta nahiz ongi dakigun "erdara" hitz-estalkiak hizkuntza bat baino gehiago tapatzen dituela (hitz bitan, gurea ez diren lehengo, oraingo eta etorkizuneko hizkuntzak oro), badugu halako ixuri bat nork bere inguruko erdara erabateko ERDARA *kat' exokhen* balitz bezala hartzeko. Eta egungo egunean eta bizi garen Euskal Herriko partean, gaztelania da *de facto* erdara bakarra, are gehiago hizkuntza gidari bakarra, milaka eta milaka hitz berri guri, eta guri ez bada gure ondorengoei, sartu nahi dizkietenean.

Zenbait iritzi agertu izan dira gure artean hitz mailebatuen iturburuari dihoakionez, eta aditzera eman nahi nituzke, goitik behera, inoren izenik aipatu gabe, premiarik ere ez dagoelakoan. Ordena hau litzateke:

1. Bada erdaratik hartzekoak jatorrizko erdaratik hartu nahi duenik eta aldakuntzarik gabe, ahal den neurrian: *paidagogia, pterodaktylu, psykhologia*, etc.

2. Erdararen itxura ahalik eta leialkienik gorde nahi dutenak baina Erdararenak, lehen esan dugun bezala: *texto, doktore, exakzio, experimentu...* Eta erdaraz *film filme* bihurtu badigute, guk ere *filme*-ri eutsi beharko, esate baterako.

3. Badira bitarteko erdararen oztopoak erraztu eta xinpletu nahian dabiltzanak: *testu, dotore, esperimentu* (edo *-mendu*) eta abar. Maila ugari aurki daiteke, noski, horrelakoen artean.

4. Azkena izan daiteke Arana Goirik eta gero, euskal kondairen legeak hobeki zekizkitela, Olabidek eta hartu zuten bidea, izen propioetan batez ere. Olabideren *ebaingeri*-ak, adibidez, dakarren egitea duela 1.700-2.000 urteko mailebuak euskararen barruan har zezakeen antza da: lat. *euangelium ebaingeri* bihur zitekeen eta badirudi ia *ebaingeri* bihurtu behar zuela.

Dena den, eta bigarren eta hirugarren iritzien artean sor ditezkeen istilurik nagusienak nik, guztiz oker ez banabil, Bergaran azaldu nituen: ikus **Euskera** 24<sup>2</sup> (1978), 773-785. Gehiago erants daitezke, dudarik gabe. Ez dut, beraz, berriz banaka honera aldatu beharrik. Teknikoegia zela esan zuen nere miresleren batek, baina ez dut uste kontu teknikoak beste inola trata daitezkeenik.

Badakit auzi honetan lehen gertatu eta eginaren indarra arrazoibide nagusi gisa sartu nahiko dela. Lehen egina ez da, ordea, ongi eta zuzen egina, nahi eta ez.





**ZENBAIT HERRI-IZENEI  
BURUZKO DIKTAMENAK**



## OTXANDIO

Don José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— y Secretario de su Comisión de Toponimia, emite el siguiente

### DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 467 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Ochandiano, es en su versión oficial académica: OTXANDIO.

Que el nombre de dicha villa aparece documentado ya como OTXANDIO en el Fuero que dió Sancho VII, rey de Navarra, a los labradores del Duranguesado en el año 1115 y que textualmente en el párrafo correspondiente dice así: “Han otro fuero; si huest el Rey de la tierra obier á otra terra, andar los durangueses á defender la so terra, non han aexir a otra terra fuera troa *Ochandio*, a la otra parte troa Elosua de Vergara; non han otro fuero”.

Que esta forma toponomástica de OTXANDIO fue objeto de atención entre otras, en la ponencia de Manuel Agud y Luis Michelena *Formas populares de topónimos del País Vasco anteriores a 1900*, “Actes et Memoires du Cinquième Congrès International de Sciences Onomastiques. Volume II. Tirage á part”, pág. 20, Salamanca, 1958.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a cinco de enero de mil novecientos ochenta y tres.



## GORDOXOLA

Don José Luis Lizundia Askondo, miembro correspondiente y Secretario de la Comisión de Toponimia de esta Real Academia de la Lengua —Euskaltzaindia—,

### CERTIFICO:

Que esta Comisión académica, en su sesión de fecha 3 del actual, celebrada en el Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa, adoptó entre otros el acuerdo de dar plena conformidad al informe preparado por el académico de número y miembro de esta Comisión D. Alfonso Irigoyen Echevarría, y que se titula “SOBRE LA ANTIGUA FORMA DE LO QUE HOY EN CASTELLANO SE LLAMA GORDEJUELA”.

Que con ello la Comisión no hace otra cosa que ratificar lo que se propuso al aprobar el *EUSKAL HERRIKO UDALEN IZENDEGIA* —*Nomenclator de los Municipios del País Vasco— Nomenclature des Communes du Pays Basque*, en cuya relación figura con el número 287, la versión euskérica, de lo que se llama en castellano Gordejuela, como: GORDOXOLA.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho Valle encartado, expido la presente en Bilbao a siete de enero de mil novecientos ochenta y tres.

V.º B.º

*El Presidente de la Comisión*  
*Luis Mitxelena*



## ERDARAZ EGUN GORDEJUELA DERITZAN UDALAREN IZEN FORMA ZAHARRAZ

Bilbao, 1982

Alfonso Irigoyen

Lope Garcia de Salazarr-ek, *Las Bienandanzas e Fortunas* delakoan (1) **Gordjuela** dakar beti XV-garren menderako, ikus fol. 140 c.1 eta abar, eta jende izen bezala P.º **Gordjuano**, fol. 139 c.1. Iturriza-k ere, II, 332, 336, 337 orr., (2) **Gordjuela** dio. Diptongazioa, -ue- alegia, erdarazkoa dela argi dago, q iriki eta azentudun baten ondorik sortua. Gainera erdaraz **Gordejuela** izatera iritsi baldin bada erdaldunen arteko herri etimologiagatik izan da. Erdal diminutibo geminatua ezarri zaio, alegia, hau da, -**ejuela**: Ikus erdarazko **calle** > **calleja** > **callejuela**.

Jakina, **Gordju**- bezala agertzen den aurreko elementuan ez dugu -**ellu(m)** tipoko erdal diminutiborik jatorriz, beste zerbait baino. Diminutibo izatekotan, euskaldunen artean erabili izan diren tipokoa zatekeen, -**xa** / -**xu**, -**xo** / -**xi**, -**xe**, alegia, eta batzuetan, Nafarroako erromantzean bezalatsu, azken bokalik gabe -**x** (3), **Gordju** erdal jatorrizko izengoitiari itsatsia.

Beste alderdi batetik -**uela** bukaera jatorriz, erdal diptongazioa sortu baino lehen, -**ola** da, nahiz diminutiboarena izan, nahiz euskaldunen arteko -**ola** ezaguna, 'abereak biltzen ziren toki agiria edo eta bertako edo beste era bateko gordeleku estalia'. Jatorriari dagokion alderditik erdal diminutibotzat hartuko bagendu mozio femeninoa duela esan beharko genduke, ordea, eta ez da argi ulertzen zergatik izan behar zuen halakoa, euskaldunen artetikako diminutiboaren geminazioa ez baldin bada, formaren aldetik femeninorantz bultzatua, zentzuz ez bazen ere, mozio bat bederen hartu behar baitzuen. Horren

---

(1) Bilbao 1967. Angel Rodriguez Herrero argitara zuen, bereziki XV-garren mendeko esku izkribu batez baliaturik eta traskrizioaren ondoan orjinalaren erretratua ere eskainirik.

(2) Juan Ramón de Iturriza y Zabala, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, II, Angel Rodriguez Herrero-ren edizioa, Bilbao 1967.

(3) Ikus **Garclaton Petrox**, 1366-garren urtekoa, Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, "Merindad de Sangüesa", **Vrçaynquy**, **Val de Ronqual**, 478 orr. Afrikatua duten bikote sailean ere gauza bera aurkitzen dugu: **Peruch d'Iriua-rrren**, 1366-garren urtekoa, *PN-XIV, op. cit.*, "Merindad de Pamplona-Montañas", **Arizqun**, **Baztan**, 531 orr.

alde dugu **Gordojano**, geminazioaren alde alegia, sufizotzat **-ano** duela aurreko geminaziorik gabekoaren ondorik, hau da, **Gordox(o) + -ano**.

Euskaldunen arteko **-ola** izatearen kontra bada arrazoi bat. Araba-ri dagokion Donemiliaga Kukullako 1025-garren urteko dokumentu ezagunean **olha- / -olha** bezala agertzen da eta latinezko **-ll-** geminatuak izanikako tratamendu berbera izan du erdaldunen artean, cfr. **Olhabarri**, egun **Ollabarre**, **Barolha**, egun **Baroja**, ikus Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 30 orr., eta jakina, erdal diptongazioa oso goiz egin baldin bazen, VI-garren mende inguruan, Pidal-en eritzian, toponimoak garai horretarako esistitu behar zuen erdarazko **-q-** irikiaren tratamendu berbera izateko —gogoan izan goragoko **Baroja** formak ez duela—. Edozein modutan ere, delako geminazioaren arrastoa begien aurrean izan beharko genduke. Ez da halakorik agertzen, ordea.

Kasu berean dugu **Landajuela** deitura ezaguna eta **Landajo** —ezaguna hau ere— < **\*Landaxo** formatik datorrenean oinarritua, biak lehenengo elementu bezala **landa** euskal hitza dutela. Baina hemen ez da **\*Landējuela** izatera iritsi **Gordejuela** delakoaren kasuan bezala, agian deitura moduan izkribuz hala finkaturik irau duela. Eduardo Escarzaga-k (4) **Ardijuela** ere ematen du, izena arakatzen ari garen udaleko mendi bati hala baiteritza eta hain zuzen ere Zubiete-n kokatua baitago. Hor ere badirudi **Ardixo-** pertsona izena ikusi behar dugula lehen elementu bezala (5).

*Las Bienandanzas e Fortunas* delakoaren esku izkribuan ikus litekeenez **Gordojuela** dugun bitartean eta baita **P.º Gordojano** ere, **Ayanguiz** irakur genezake —azkenengo letrak **g, i**, laburpenaren marka eta **sigma** bezala datoz—. Badakigu, ordea, herri horren inguruko euskaldunek **Aiángis** edo **Aiēngis** ahoskatzen dutela, erdarazko **-j-** alboratuz (6). Beraz, euskaldunek **|j|** gorde dute, gehienez ere zenbaiten artean **|dʒ|** ahoskatzera iritsirik, eboluzio normalez, eta hori berori egiten dute **Aiangiz**-en bertan. Berdin gertatzen da **Leioa** forman, erdaldunen artean **Lejona**.

Esan nahi dudana da XV-garren mendeko izkribuan **Gordojuela** hitzaren **-j-** bokal artekoa **-x-** baten ordain bezala ager litekeela, baina ez **Ayanguiz** delakoan. Bertako beste testo batean, ordea, badugu: **forçaron vna muger moça, mançeu de Çurixe**, fol. 153 c.2. Argi dago **Zurixe** gizon baten izena dela. **Zuri** eta **-xe** diminutiboa, Nafarroan XIV-garren mendean emakume baten izen ondokotzat agertzen den bezalatsukoa. Ikus **Maria Çurixa non pauper** (7).

(4) *Descripción histórica del Valle de Gordejuela*, Bilbao 1919, 11 orr.

(5) Ikus **Domnus Ardixo de Menaza**, 1118-garren urtean, Juan del Alamo, *Colección diplomática de San Salvador de Oña*, Madrid 1950, tom. I, dok. 140.

(6) Ikus Alfonso Irigoyen, "Formas de nombres de localidades vizcainas", *FLV* 11 (1972), 207-218 orr.

(7) *PN-XIV*, op. cit., "Libro del monedaje de tierras de Estella (1350)", **Los Arquos, Quinnon de Roytegui**, 333 orr. A. Apat-Echebarne-k, *Una geografía diacrónica del Euskara*



Ezaguna denez gaztelaniazko **j** zaharra, [ʝ], bokal artean eta baita beste posizioz ere [š] delakoarekin nahasi zen (8).

Beraz egungo euskal mundurako **Gordoxola** forman uzteak arrazoizkoa dirudi, inguruetako euskaraz, hizkuntza galdu zen arte, nola esaten zen ez dakigunez gero.

Bilbon 1978-garren urteko Martxoaren 7-an.

**P.S.**—Orain argi eta garbi uste dut \***Gordoxola** pertsona izen batetik etor litekeela, **Ardjuela** aipaturikakoa \***Ardixola** batetik datorkeen bezalaxe. Aski izango da gogora ekartzea *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antropónimo* delakoan aipatzen ditudan **cum filiolo nostro Garsiola** (1086-garren urtea, **San Millán**, supl. 32) (9), eta **Guarçuella, macip de Johan Curia**, irakur bedi **Çuria** (1351-garren urtea, **PN. Peaje de Pamplona**, n.º 332) (10). Lehenengo **Garsio + la** dugu, gizezkoa izanik ere, eta bigarrena ere, erdal diptongaziazko forma batez deitua, gizezkoa da. Delako diptongaziorik gabeakoa ere badugu: **Pero Garçola** (1350-garren urtea, *PN-XIV, Lib. mon. Est.*, 357orr.), **Galuarra-n, Val de Lana**.

Aulestin 1982-garreneko Abuztuaren 24an.

---

*en Navarra*, Pamplona 1974, 127 orr., hurrengo oharra egiten dio **Çurixa** hitzari: “forma vizcaina (?) del vasc. **zuria** = el blanco”. Baina ezin izan dezakegu inolako dudarik bukaerako **-xa** suffixoa besterik ez zela eta, gainera, hipokoristikoak osaturik ez zen nahi ta nahi ez emakume izenetan bakarrik agertzen, gizezkoetan ere bai. Hala ere egun **-(e)sa**, palatalizazio gabeko sail batekoa, erabiltzen da euskaldunen artean pertsona izen baten ondoan mozio femeninoa egin nahi baldin bada, erdaldunen jatorrikoa, alegia. Modu horretara **Donatesi(e)** esaten zaio **Donato**-ren emazteari, artikulua ere hartzen duela, eta **erregiñesi(e)** (Aulesti, Bizkaia). Ikus baita **Jaingo** eta **jainkosa** ere. Ene etxean umeari gauez lo zetzala txixa biltzeko **trapaxak** ipini izan zaizkio. Delako hitzak daraman diminutiboa **-xa** da. **Amaxe** formak, ordea, **-xe** du eta baita **geroxeago**, eta abar, sailekoak ere, **gerotxoago**, eta abar, **-txo** dutenak bezala erabiltzen direnak. Gainera, **(h)auxe**, **(h)orixe**, eta lekuzko deklinazioz hormiturikakoen ondoan **(h)emendixe** —Lekeition **(h)emendixerik**—, **(h)onaxe**, **(h)onakoxe**, **(h)ortixe** —Lekeition **(h)ortixerik**—, **(h)oraxe**, **(h)orakoxe**, bestelakoetan **(h)onexeri**, **(h)orrexek**, eta abar, sail osoan agertzen da, gorago aipaturikakoetan bezala kontesto fonetikoaren arauera, bikote afrikatuduna distribuzio konplementarioz dutela leku askotan, cfr. **(h)ementxe**, **(h)ortxe**, **(h)antxe**, eta abar, balio intensiboz erabiltzera iritsi badira ere denboraren buruan. Gogora ekar ditzagun erdaraz Ameriketara erabiltzen diren **ahorita** eta halakoak.

(8) Ikus R. Menéndez Pidal, *Manual de Gramática Histórica española*, décimotercera edición, Madrid 1968, § 35 bis. 3, 6, eta § 53.6.

(9) P. Luciano Serrano, *Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Madrid 1930.

(10) Angel J. Martín Duque, *Peajes navarros*, “Peaje de Pamplona”, Pamplona 1973.



## SOBRE LA ANTIGUA FORMA DE LO QUE HOY EN CASTELLANO SE LLAMA *GORDEJUELA*

Para el siglo XV Lope García de Salazar en *Las Bienandanzas e Fortunas* (1) trae siempre **Gordojuela**, cfr. fol. 140 c.1, etc., y como gentilicio **P.º Gordojoano**, fol. 139 c.1. En Iturriza, II, pp. 332, 336, 337, (2) se lee también **Gordojuela**. Está perfectamente claro que la diptongación **-ue-** es románica y que procede de una **o** abierta y acentuada. Además, si la forma castellana ha llegado a establecerse como **Gordejuela** se debe a una etimología popular hablantes románicos. Su terminación ha sido identificada, evidentemente, con el diminutivo geminado de tipo románico **-ejuela**, modificándose así la forma anterior: cfr. en castellano **calle** > **calleja** > **callejuela**.

Naturalmente, en el elemento anterior que aparece como **Gordoj-** no podemos ver un diminutivo románico del tipo **-ellu(m)**, sino otra cosa. Si se trata de un diminutivo podía ser del tipo de los que entre hablantes vascos circulaban como **-xa** / **-xu**, **-xo** / **-xi**, **-xe**, y que a veces podía aparecer también sin vocal final como **-x** (3), según la tendencia del romance navarro, uno de los cuales, seguramente **-xo**, estaría aplicado al sobrenombre **Gordo** de origen románico.

Por otra parte la terminación **-uela**, antes de producirse la diptongación románica, era **-ola** originariamente, tanto si correspondiera a la forma del diminutivo, como al conocido **-ola** que entre hablantes vascos significaba 'sel, cabaña'. Si, en lo que se refiere a su origen, lo aceptáramos como diminutivo tendríamos que decir, naturalmente, que tiene moción femenina de género, y no se entiende bien porqué había de ser así, a no ser que se trate de una geminación del diminutivo realizada entre hablantes vascos, e impulsada hacia el femenino en cuanto a la forma, no en cuanto al sentido, pues alguna de las mociones había de tomar. En favor de esto, es decir, de la geminación, tene-

---

(1) Bilbao 1967. Edición de Angel Rodríguez Herrero, quien se valió especialmente de un manuscrito del siglo XV, ofreciendo su facsimil junto a la transcripción.

(2) Juan Ramón de Iturriza y Zabala, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, II, edición de Angel Rodríguez Herrero, Bilbao 1967.

(3) Véase **Garciaton Petrox**, año 1366, Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, "Merindad de Sangüesa", **Vřaynquy**, **Val de Ronqual**, p. 478. En el grupo de dobles que tienen sibilante africada encontramos: **Peruch d'Iriuarren**, año 1366, *PN-XIV, op. cit.*, "Merindad de Pamplona-Montañas", **Arizqun**, **Baztan**, p. 531.

mos la forma **Gordojano**, que sobre el primer sufijo no geminado recibe **-ano**, esto es, **Gordox(o) + -ano**.

En contra de que se trate de **-ola**, 'sel, cabaña' en vascuence, hay razones fonéticas. En el conocido documento de 1025 de San Millán de la Cogolla concerniente a Alava aparece en la forma **olha- / -olha**, y entre hablantes románicos su **-lh-** tuvo el mismo tratamiento que la **-ll-** geminada latina, cfr. **Olhabarri**, hoy **Ollabarre**, **Barolha**, hoy **Baroja**, véase Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, p. 30, y naturalmente, si la diptongación románica se produjo tempranamente, en opinión de Pidal hacia el siglo VI, el topónimo debía existir en esa fecha para que la **-o-** tuviera un tratamiento semejante a la **-q-** abierta románica —téngase presente que la forma **Baroja** de más arriba no lo tiene—. En cualquier caso debiera estar a la vista el efecto del tratamiento que se ha señalado para el grupo consonántico asimilado a la geminada latina. No vemos, sin embargo, nada de esto.

En el mismo caso está el conocido apellido **Landajuela**, con base en **Landajo** —también conocido— procedente de **\*Landaxo**, llevando ambos como primer elemento la palabra vasca **landa**. Pero esta forma no ha llegado a desembocar en **\*Landejuela**, como en el caso de **Gordejuela**, acaso porque por haberse fijado en la escritura haya perdurado así como apellido. Eduardo Escarzaga (4) da también **Ardijuela**, nombre de un monte de cuyo municipio estamos estudiando su denominación, situado en Zubiete. Parece que en este caso debemos también ver como primer elemento un nombre de persona: **Ardixo-** (5).

Como puede verse en el manuscrito de *Las Bienandanzas e Fortunas*, en tanto que leemos **Gordojuela** y también **P.º Gordojano**, tenemos también **Ayanguiz** —las últimas letras aparecen escritas así: **g, i**, signo de abreviatura, y **sigma**—. Sabemos por otra parte que los hablantes vascos de las cercanías de dicho pueblo lo pronuncian como **Aiángis** o **Aiéngis**, rechazando la **j** castellana (6), lo que quiere decir que tales hablantes han conservado la **|j|**, llegando a lo sumo, por evolución normal, a **[dʒ]**, y esa es la pronunciación de la propia localidad. Lo mismo sucede con la forma **Leioa**, entre hablantes románicos **Lejona**.

Lo que quiero establecer es que en el manuscrito del siglo XV la **-j-** intervocálica de **Gordojuela** puede aparecer como variante de una **-x-** y pronunciada como tal, lo que no puede suceder en el caso de **Ayanguiz**. En otro texto del mismo manuscrito tenemos también **-x-**: **forçaron vna muger moça, manceba de Çurixe**, fol. 153 c.2. Está claro que **Zurixe** es un nombre de varón. Está compuesto de **Zuri** 'blanco' y el sufijo diminutivo **-xe**, y es seme-

(4) *Descripción histórica del Valle de Gordejuela*, Bilbao 1919, p. 11.

(5) Véase **Domnus Ardixo de Menaza**, año 1118, Juan del Alamo, *Colección diplomática de San Salvador de Oña*, Madrid 1950, tom. I, doc. 140.

(6) Cfr. Alfonso Irigoyen, "Formas de nombres de localidades vizcainas", *FLV* 11 (1972), pp. 207-218.

jante al que, apuesto a un nombre de mujer, se registra en Navarra el siglo XIV, cfr. **Maria Çurixa non pauper** (7).

Como es sabido, la antigua **j** castellana, [ʝ], se confundió con [š] entre vocales y también en otra posición, lo cual fue señalado por Pidal (8).

Por todo esto parece razonable que para el mundo vasco la forma quede establecida como **Gordoxola**, teniendo en cuenta que no sabemos cómo la decían en dicha localidad y en sus inmediaciones hasta que se perdió la lengua vasca.

Bilbao a 7 de marzo de 1978.

**P.S.**—Ahora creo con toda claridad que **\*Gordoxola** puede proceder íntegramente de un nombre de persona, de la misma manera que el **Ardiuela** mencionado puede venir de **\*Ardixola**. Será suficiente que traigamos a la mente **cum filiolo nostro Garsiola** (año 1086, **San Millán**, supl. 32) (9) y **Guarçuela, macip de Johan Curia, Léase Çuria** (año 1351, **PN. Peaje de Pamplona**, n.º 332) (10), que menciono en *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico*. En el caso del primero tenemos **Garsio + la**, aunque se trate de varón, y el segundo, llamado con una forma que lleva el sello inconfundible de la diptongación románica, es también varón. Sin tal diptongación aparece en **Pero Garçola** (año 1350, **PN-XIV, Lib. mon. Est.**, p. 357), en **Galuarra, Val de Lana**.

Aulesti a 24 de agosto de 1982.

(7) *PN-XIV, op. cit.*, “Libro del monedaje de tierras de Estella” (1350), **Los Arquos, Quinon de Roytegui**, p. 333. A. Apat-Echebarne en *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Pamplona 1974, p. 127, hace la siguiente observación en relación con la palabra **Çurixa**: “forma vizcaina (?) del vasc. **zuria** = el blanco”. Pero no podemos tener duda alguna de que su terminación **-xa** no es otra cosa que un sufijo, que además, no aparecía exclusivamente con nombres de mujer formando hipocorísticos, sino también con nombres de varón. Sin embargo, hoy en día se emplea **-(e)sa**, correspondiente al grupo no palatalizado, aplicado a un nombre de persona cuando se desea formar un vocablo de moción femenina en las siguientes condiciones, tratándose, sin duda, de una influencia románica: se le llama **Donatesí(e)** a la mujer de **Donato**, tomando además el artículo, y **erregiñesi(e)** ‘(la) reina’ (Aulesti, Vizcaya). Véase también **Jainko** y **jainkosa** ‘Dios’ y ‘diosa’. En mi casa para recoger al niño la orina cuando dormía de noche se le han solido poner **txapaxak**. Tal palabra lleva como diminutivo **-xa**. La forma **amaxe** ‘abuela’ tiene **-xe** en cambio, así como también las formas del grupo **gero-xeago** ‘un poco más tarde’, etc., que se emplean de la misma manera que las del grupo que tienen **-txo**, tales como **gerotxoago** ‘un poco más tarde’, etc. Tenemos además **(h)auxe**, **(h)orixe**, etc., así como también los que van tras las formas provistas de declinación locativa **(h)emendixe** —en Lequeitio **(h)emendixerik—**, **(h)onaxe**, **(h)onakoxe**, **(h)ortixe** —en Lequeitio **(h)ortixerik—**, **(h)orraxe**, **(h)orrakoxe**, y en las no locativas **(h)onexeri**, **(h)orrexek**, etc., lo cual aparece en toda la serie, de la misma manera que en las mencionadas más arriba, llevando en muchas partes el doblete africado en distribución complementaria, según el contexto fonético, cfr. **(h)ementxe**, **(h)ortxe**, **(h)antxe**, etc. Estas formas han llegado a adquirir valor intensivo al cabo del tiempo. Recordemos el **ahorita** y formas semejantes que se emplean en América.

(8) Cfr. R. Menéndez Pidal, *Manual de Gramática Histórica española*, decimotercera edición, Madrid 1968, § 35 bis. 3, 6 y § 53.6.

(9) P. Luciano Serrano, *Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Madrid 1930.

(10) Angel J. Martín Duque, *Peajes navarros*, “Peaje de Pamplona”, Pamplona 1973.



## HIRUERRIETA

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta beronen Toponimia Batzordeko Idazkari denak, ondoko hau

### ZERTIFIKATZEN du

Herri Izendegi Batzorde honek, bere azken bilkuran, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Diputazioan, hil honen 3an egindakoan, beste gai batzuren artean, Udal horretako informe eskaria ikusi zuen eta eritzi hauetara heldu zen:

1. *Hiruerrieta* hitza ongi hedatua dela hizkuntzaren aldetik. Bestalde tradiziozko izena ez denetik eta ez eta historikoa, eskubide osoa duela Udalak oraingo grafia normalizatuan jartzeko, alegia, HIRUERRIETA forman.

2. Hala eta guztiz ere, batzorde honek zenbait kontsiderazio egiten dizkio Udalbatzarrari eta hara hor:

2.1. Udal horren izena, lehengo hiruren bilduma egin zenetik ofizialki beti izan da Iruerrieta (ikus B.O.E. 1966-4-26) eta ez Ikaztegieta, ez eta Orendain, ez Baliarrain. Iruerrieta 1966an sortua izan zen, beraz, 16 urte bakarrik ditu eta ez du aspalditasun gehiagorik.

2.2. Fausto Arozena Probintziako Artxibari-Burua zenak, Gipuzkoako zenbait udal txiki batukeran, bere iritzia azaldu zuen, hala nola, "Bidegoyan", esanaz, Gipuzkoako Foru tradizioan eta historian izenak nondik hartu bazeudela: *Saiatz* kasu honetan. Informe horiek Gipuzkoako Diputazioan egongo dira.

2.3. Ildo honetara eraman daiteke Udal honen izena ere, zeren eta —Ikaztegieta izena, udal-hiriburuarena, ez bai zen onartua izan— hor zegoela eta dagoela *Bozue* izena, zenbait udalen izen kolektiboa XII. mendetik dokumentatua; beraz, Gipuzkoako onomastikorik zaharrenetarikoa. Bozue eskualde txiki baten izen amankomuna zen eta bi komunitatetan banatua, bata, "Bozue Mayor" (Bozue Nagusia izango litzateke euskal bertsioan), bost udalek osotua: Amezketeta, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain. Beraz, azken hirurak gehiengo bat izan bazuten, izen hori hartzeko eskubidea. Baita ere, Bozue komunitate honen gorengo udalak Ataun, Lazkao, Zaldibia diren bezala, beheengoak edo behekoak Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain baidira, *behea*, *behekoa* hitz jokuaz baliatzea zilegi litzateke.

Eta hala adierazteko eta aipaturiko Udalera bidaltzeko, izenpetzen dut, Bilbon, mila bederatzehun eta laurogetahirugarreneko Urtarrilaren ha-maikan.





## ARRASATE-MONDRAGOE

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari ordea eta beronen Toponimia Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau egiaztatzen du, Batzordearen izenean:

1. Egia da abertzaletasunaren berbizkudearen eraginez “Mondragón” deitu herriaren euskal bertsiotzat *Arrasate* erabili dela, batez ere paperetan. Horregatik Euskaltzaindiak berak onarturiko Euskal Herriko Udalen Izendegian, *Arrasate* ere jarri zuen euskal forma bezala, *Mondragoeren* alboan, baina,

2. “Mondragón” deitu herriak euskarazko izen bezala *Mondragoe* jarzeko eskubide aski eta sobera duela uste du Batzorde honek, bai dokumentuetan, bai euskal literaturan eta herri usodioan agertzen den bezalaxe. Hara lekuko batzuk:

2.1. *Cantares de Mondragón* deitutakoan, alegia, Mondragoeko erreke-ta zela eta Erdi Aroko azken aldean gertatutakoan: “Erre dezagun *Mondragoe...*” agertzen da. Antzinako euskal testu baliotsu baten zatia da eta besteak beste ikertu dute: Juan Carlos Guerra historiagile eta euskaltzain izan zenak. Ikus “Viejos textos del idioma - Los cantares antiguos del euskera - I - Cantares banderizos”, pág. 225, Revista *Euskalerrriaren alde*, San Sebastián 1921; Juan Gorostiaga euskaltzainak, *Epica y Lírica vizcaina antigua*, pág. 53, Publicaciones del Centro de Estudios Vascos, Bilbao 1952 eta Luis Mitxelena euskaltzainak, *Textos arcaicos vascos*, pág. 83, Ediciones Minotauro, Madrid 1964.

2.2. *Endechas de D.<sup>a</sup> Emilia de Lastur* deitutakoetan, Esteban de Garibai kronistak, bere *Memorias* izeneko II. liburuan pasarte hau dakar: *Mondragoeri* artu deusat gorroto, Giputz andra ok artu ditu gaxtoto...”. Euskaltzain euskaltzale berberak aztertu dute testu zahar hau, aipaturiko lan bere-tan, orrialdeak: Guerrak, 333; Gorostiagak, 61 eta Mitxelenak, 76.

2.3. Pedro Ignacio de Barrutia, Udal eskribau eta euskal idazle izan zenak, bere *Gabonetako Ikuskizuna* (Acto para la Nochebuena) delakoko pasarte batetan: “Gure Mondragoen pagatzen du...” agertzen da. Ikus besteak beste, Joseba Andoni Lakarrak egin duen Edizio Kritikoa, Arabako Foru Di-putazioaren Kultur Kontseiluaren argitalpenean, Vitoria-Gasteiz 1982.

2.4. Juan Ignacio Iztuetak *Guipuzcoano Provinciaren Condaira edo Historian*, I. R. Barojaren moldiztegia, Donostia 1847, zenbait aldiz, adibidez: 36, 72, 73, 99, 286, 287, 479 orrialdeetan, *Mondragoi* deitzen du Leintz ibarreko hiri hau.

2.5. *Garoa* euskal literaturako eleberri famatuan, Domingo Agirre egileak, sorrerako euskaltzain izan zenak, Santo Tomasetako Azoka eta Demak aipatzerakoan, zenbait pasartetan, *Mondragoe* jartzen du, hala nola, 80, 82, 90, 100 orrialdeetan, Florentino Elosu moldiztegia, Durango 1912.

2.6. P. Luis Villasante O. F. M.k “Santa María de Aránzazu Patrona de la Provincia” Enciclopedia Guipúzcoa, San Sebastián 1964, 32 orrialdean, Mondragoetarrek erromesen kanta dakar: “Oñati ta *Mondragoe* zeuzkan bere aldian...” “Oñati ta *Mondragoek* Kofradiak jarririk...”.

Beraz, *Euskal Herriko Udalen Izendegia –Nomenclátor de los Municipios del País Vasco– Nomenclature des Communes du Pays Basque*, Euskaltzaindiak, 1979an onartu eta argitaraturiko Izendegiak, honela dakar: 439. Gaurko izen ofiziala: Mondragon. Euskal izena: *Arrasate = Mondragoe*.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalera bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, mila bederatziehun eta laurogeita hirugarreneko Urtarrilaren hogetabatean.

Oneritzia

*Koldo Mitxelena*

*Batzorde-burua*

## BILBO

Adjunto pláceme remitir a V. I. dictamen académico de la Comisión de Toponimia y Entidades de Población de esta Real Academia de la Lengua —Euskaltzaindia— sobre la denominación oficial euskérica de esa Villa.

Lo que traslado a V. I., para su conocimiento y de la Corporación municipal que preside.

Dios guarde a V. I. muchos años.

Bilbao, 14 de febrero de 1983.

*Fr. Luis Villasante*  
*Presidente*

Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de la Villa de BILBAO.

\* \* \*

Atsegin zait Hizkuntzaren Erret Akademi honen Toponimia eta Herri Izendegi batzordeak onartu duen akademi diktamena, Uri horren euskal izen ofizialari buruzkoa, alegia, bidaltzea.

Berorren eta berori buru den Udalbatzarraren jakinerako, igortzen dizut hau.

Jainkoak jagon zaitzala.

Bilbo, 1983.eko Otsailaren 14ean.

*Fr. Luis Villasante*  
*Euskaltzainburua*

BILBO Uriko Udalburu eta Alkate jauna.

\* \* \*

Don José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— y Secretario de su Comisión de Toponimia y Entidades de Población,

### CERTIFICO:

Que esta Comisión académica en su sesión del mes de la fecha, aprobó el dictamen relativo a la petición de informe sobre la denominación del muni-

cipio como Bilbao-Bilbo, requerido por el Ayuntamiento de dicha villa. Esta Comisión dió cuenta al Pleno de la Corporación académica, celebrado el pasado día 28 en el Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa, de las resoluciones de esta Comisión, en relación a este informe, así como las de otros cuatro municipios de la Comunidad Autónoma Vasca, dándose por enterado y ratificando la propuesta. El dictamen dice así:

— Que según el *Euskal Herriko Udalen Izendegia - Nomenclátor de los Municipios del País Vasco - Nomenclature des Communes du Pays Basque*, el municipio que figura con el n.º 154, con la denominación administrativa de Bilbao, en su versión euskérica académica es *BILBO*.

— Que es habitual en muchos casos de nombres de ciudades importantes y sobre todo puertos relacionados con diversas culturas, tener varios nombres, como por ejemplo: Bordeus (nombre gascón occitano), Bordeaux (nombre francés), Bordele (nombre euskérico), Burdeos (nombre castellano), Burdigala (forma utilizada en la época romana); Santander y Gijón, que tienen además exónimos euskéricos conocidos sobre todo en los puertos vizcainos y guipuzcoanos, Sanandere y Kixon respectivamente; Londres, London; Köln, Colonia, Cologne; Madrile - Parise, exónimos vascos de las dos capitales estatales; etc. Resulta lógico por lo tanto, que la ciudad y puerto más importante del País Vasco tenga más de una forma, en este caso, Bilbao y Bilbo. Lo tienen también otras capitales: Donostia = San Sebastián = Saint-Sebastien; Baiona = Bayona = Bayonne; Iruñea = Pamplona = Pampelune; Donibane-Garazi = Saint-Jean-Pied-de-Port = San Juan de Pie de Puerto; Maule = Mauleón.

— Que *Bilbo* es la forma euskérica usual y documentada en todo el ámbito del euskera occidental, o sea, Vizcaya, Alava y Cuenca del Deba, así como cuantos euskaldunes, por relación de mercado y comunicación, lo usan habitualmente. Puede ser que en valles vascófonos alejados, fundamentalmente navarros, guipuzcoanos orientales o norpirenaicos se use la forma Bilbao, más por desconocimiento, y porque reciben la imagen del nombre a través del castellano o francés, que por comunicación habitual. Exactamente al revés sucede en Vizcaya, donde euskaldunes analfabetos llaman Pamplona o San Juan de Luz en euskara, cuando cualquier persona culta sabe que las formas euskéricas son Iruñea y Donibane-Lohizune.

— Que la forma *Bilbo* aparece documentada de dicha forma en numerosos textos y documentos, de los que se citan algunos:

— *Letras de los villancicos en romanze y basquenze, que se han de cantar en la iglesia parroquial, y matriz del Señor Santiago de esta Noble Villa de Bilbao, este año de 1794*: “Beintzat gomutan dauka/Bilboko urijak lagunduten deutsela/bizkaitar guztijak”. (Esta cita, como otras que siguen, se transcriben en la grafía moderna).

— Jose Paulo Ullibarri, fiel regidor, escribano y veterinario de la anteiglesia de Abando, en su obra de principios del siglo XIX, inédita hasta 1975,

*Gutunliburua*, escribía siempre en euskera *Bilbo*. En su presentación dice: "...en la Ante-Iglesia de San Vicente de Abando, pegante a la villa de Bilbao. Jaundone Bixente Abandoko Eleix-atetan *Bilbo* uriyaren alboan".

— En la doctrina cristiana de D. Bartolomé Olaechea, Rector del Santo Hospital de Bilbao y publicada en la imprenta de D. Pedro Apraiz de Bilbao en 1814, dice en la portada: "*Bilboko ospitale santuko Erretoriak*".

— Idem, en la edición de la misma imprenta de la obra de Juan José Moguel "Baserritar nekezaleentzako eskolia", dice: "*Bilbon*, 1816 garren urtian".

— Idem, en la edición del catecismo de Astete en la variante dialectal de Llodio, hecha en Bilbao en la imprenta de Felipe Morales, dice: "*Bilbon*, 1828 garren urtian".

— Idem, en la obra *Maijatzeko illa* de Jose Antonio de Uriarte, impresa en la imprenta de Delmas e hijo, aparece: "*Bilbon*, 1850 garren urtian".

— Idem, en la obra *Konfesiño ona* de Juan Antonio de Moguel, en la misma imprenta, últimamente citada, aparece: "*Bilbon*, 1853 garren urtian".

— Idem, en la traducción euskérica de *El Alcalde de Zalamea* de Calderón de la Barca, traducida por Luis de Iza, que dice: *Zalameako Alkatia*. *BILBON* Juan E. Delmasen moldiztegian MDCCCLXXXI".

— Idem, en la obra *Euskal Izkindea - Gramática euskara*, formada y traducida por Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue, primer profesor de lengua euskara de Bizkaia, en cuya portada y en versión bilingüe, dice textualmente: "*BILBON* Astui-ko Jose-n moldiztegian 1891. *BILBAO*, Tipografía de José de Astuy, 1891".

— Idem, en la obra bilingüe, asimismo, del autor últimamente citado, *Jaungoikua eta Foruak*, Bilbao 1896, aparece a dos columnas: "1526 garren urteko agorrikan 10 garrenian Matxin Saez La Najatarran etxian, *Bilbo* onduan. El 10 de agosto de 1526, en casa de Martin Saez de la Naja, cerca de Bilbao...".

— Idem, el mismo Sr. Azkue, que como se sabe fue fundador y primer presidente de esta Institución académica, publicó en la revista *Euskalzale*, en su n.º de 27 de octubre de 1898, sobre el euskera en Bilbao, en el que repetidas veces aparece siempre *Bilbo* como única versión euskérica, llevando inclusive como título general, *EUSKAREA BILBON*.

— Que Emiliano de Arriaga en su *Lexicón bilbaino*, Bilbao 1896, dice respecto al tema que nos ocupa: "Yo por mi parte, no digo que sea, pero si que quisiera que fuese derivación del euskérico *Bilbo* y en tal caso no entendería la razón para llamarle de otra manera, como tampoco alcanzo por qué se dice Londres en vez de London".

— Que en la *Historia de la Noble Villa de Bilbao* de Teofilo Guiard y prólogo e índices sistemáticos de Andrés E. de Mañaricua, reedición de la

Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1971, hay dos referencias que dicen: “El P. F. Ign. de Arana, intentó derivarlo de “bi-albo, dos costados, dos laderas del río Ibaizabal, y de ahí *Bilbo*-erri y *Bilbo*-zar” y Sabino de Arana y Goiri, hace significar al vocablo Bilbao (eusk. *Bilbo*) “bajo la escarpa”.

— Que el académico de número y catedrático de Lengua y Literatura Vasca D. Alfonso Irigoyen, miembro además de esta Comisión de Toponimia, en un trabajo titulado *Formas de nombres de localidades vizcainas*, Revista *Fontes Linguae Vasconum*, n.º 11, Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra, Pamplona 1969, recoge los testimonios de Gorozika, Gernika, Bermeo, Markina, Zeanuri, Ereño, Etxano y Urduliz. En todos aparece *Bilbo*.

— Que el mismo académico en su trabajo *Bilbo eta euskara*, publicado en la Revista *Euskera*, tomo XXII, Bilbao 1977, trata repetidas veces el tema que nos ocupa, figurando siempre en todas las citas en euskera, el término *Bilbo*.

— Que en topónimos derivados de la capital vizcaina, también se da la forma *Bilbo*, concretamente en la villa guipuzcoana de Eibar, existe la forma *Bilbo* Zarra como nombre de calle, desde hace lustros, siendo una denominación usual y documentada.

— Que sin embargo hay una ocasión que aparece también en euskera la forma *Bilbao* y es concretamente en *Los refranes de Garibay* del siglo XVI, donde aparece el refrán: “*Bilbao* an bere dongeak *birao*”. La duda queda, en que si en aquella fecha se decía en euskera *Bilbao*, o si se trataba de una cuestión de rima.

— Que el término *Bilbo* aparece en las obras de Shakespeare *The Merry Wives of Windsor* Act. I, Scene II, V, 167. Et Act. Scene III, V, Verse 115 y *Hamlet*, 194, con la significación de grillete y espada de hierro de Bilbao. Sobre este punto, concretamente en *complete works of William Shakespeare*, London 1978, Glossary, página 1072, dice: “*BILBO*, sub. sword (from *Bilbao*) y su derivado *Bilboes*, sub. irons, fetters”.

— Que igualmente en el *Webster's Third New International Dictionary*, Springfield, Massachusetts, 197, aparece la forma *Bilbo*, lo que demuestra que, por la secular relación del comercio anglo-bilbaino, en inglés se ha usado la forma normal euskérica *Bilbo*, como “exónimo” de la capital vizcaina.

— Que abundando sobre el mismo tema el historiador F. Sesmero López, en su obra *El Arte del Renacimiento en Vizcaya*, Bilbao 1954, y en su capítulo “Las Artes del Hierro: esbozo histórico”, dice: “No solamente se exportaba el hierro en bruto o en barras, sino que también se origina una potente corriente de exportación de armas que desde el Señorío se llevaban a diferentes lugares de Europa, siendo célebre un tipo de espada llamada en Inglaterra “*Bilbos*”, como indicando su punto de origen o manufacturas: *Bilbao*”.

— Que según Jon Bilbao, profesor de la Universidad de Nevada y autor del *Eusko Bibliografía*, la mayor obra bibliográfica sobre temas vascos, la forma *Bilbo* o *Bilboa*, aparece en actas y documentación del Consulado de los Estados Unidos de América en Bilbao, lo cual, según él, hace ver el uso en lengua inglesa de dicho vocablo, si bien en textos posteriores se ha dejado de usar.

— Que para situar definitivamente el tema que nos ocupa, ha de hacerse la consideración general de que los focos euskéricos han perdido irradiación con respecto a la extensión e influencia del castellano, máxime cuando el “locus” cultural se recibe a través de la cultura escrita y el “locus” euskérico ha sido fundamentalmente oral, por la marginación del euskara como lengua de administración, de enseñanza y de comunicación.

— Que por todo ello esta Comisión entiende que ambas expresiones: *Bilbao* y *Bilbo* son compatibles y de uso alternativo, que no ambivalentes, de lo que se deduce es que así como Bilbao era solamente oficial en su forma usual castellana, también ha de pasar *Bilbo* a tener idéntico rango oficial en su uso euskérico, al pasar también la lengua vasca a ser lengua oficial, de acuerdo con el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y concretamente, del artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, que trata de la nomenclatura oficial de las entidades de población.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicha villa, expido la presente en Bilbao a treinta y uno de enero de mil novecientos ochenta y tres.

V B

*Luis Mitxelena*

*Presidente de la Comisión*





## ERDARAZ SAN JULIAN DE MUSQUES DERITZAN UDALEKO AZKEN ELEMENTUAREN FORMA ZAHARRAZ

Bilbao, 1982

Alfonso Irigoyen

Angel Rodríguez Herrero-k Lope García de Salazarr-en *Las Bienandanzas e Fortunas* argitara eman zuen Bilbon 1967-garren urtean, bereziki XV-garren mendeko esku izkribu batez baliaturik eta traskrizioaren ondoan orijinalaren erretratua ere eskainirik. Laugarren tomoan hainbat aldiz agertzen da ikertzen ari garen izena. Esku izkribuan honela dator: **m**, **u**, **s** altua, beti **s** baten eran eman litekeena, **q**, eta laburpenaren marka, argitaratzaileak beti **-que-** izkribaturik aldatzen duena, behin izan ezik, **-qui-** forman eman baitzuen, fol. 139 c.1 (1), eta **sigma**. Izkribua egin zen garaiean azkenengo hau erdaraz berdin erabiltzen zen **s** adierazteko nahiz afrikatuaren gisakoa behar zen lekuan. Baina eginikako traskrizioan beti **s** letraren bidez aldatzen da, eta horrela **Santursi**, fol. 195, c.1 eta 2, **Salsedo**, fol. 195, c.2, eta **Viscaya**, fol. 195, c.2, **s** batez ematen zaizkigu, orijinalen **sigma** irakurtzen baita. Seguru asko ikertzen ari garen hitzean delako **sigma** afrikatu baten lekuan zegoen, eta ez frikatibo batenean, baita erdaldunen arteko ohiturari jarraiturik ere, edo ta gehienez ere hauen artean ordurako frikatibo bihurtua, baina ez **s** inondik ere. Fonema sibilante bat baino gehiago grafia berdinez izkribatze horrek behin baino gehiagotan kutsua utzi du toponimoen izen ofizialetan eta hemen ere hori gertatu dela pentsatzea da arrazoizkoena. Bokalismoaren arazoa, ordea, ez da argi agertzen XV-garren mendeko izkribuan. Halako kasuetan behin baino gehiagotan tradizio zaharreko **-i-** bokalismora jotzen zen euskaldunen influentziatz, erdararen kutsatzerik agertzen ez baldin bazen.

Juan Ramón Iturriza-k XVIII-garren mendean (2), **concejo de Músqiz** dakar, II, 300, 313, 314 orr.

---

(1) Hurrengo datozen folioetan **-que-** forman agertzen da traskrizioa eginik, esku izkribukoa beti laburpenaren markaduna bada ere: 42 c.1, 45 c.2, 51 c.1, 60 c.1, 124 c.2, 127 c.1, 159 c.1, 195 c.1, 195 c.2. Aski da erakusbidetzat.

(2) Juan Ramón de Iturriza y Zabala, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, II, Angel Rodríguez Herrero-ren edizioa, Bilbao 1967. Argitaratzaileak bigarren tomoaren 316-garren orrialdean kortexe artean nota bat gaineratzen du komilak ipinirik: "Fue natural de Músqiz el licenciado Montefío de Salazar". Ez du aipatzen nondik hartu duen.

Jesús María Sasia-k (3), ordea, dio: “s. XV **Musquis** y **Musques**”, gora-go ikusi duguna, eta beherago jarraitzen du: “Fluctúa luego a lo largo de los siglos siguientes la forma **Muzquiz** en doc. juntamente con las citadas”, ikus n.º 1865. Ez du gehiago aipatzen. Jakina, berak **Muzkiz** euskaldunagotzat hartzen du, intuizioaren bidez horren atzean baitabil, baina arrazoirik adierazi gabe emanikako eritzia da edozein modutan ere. Bigarren notan ikus daitekeenez Iturriza-ren argitaratzaileak ere **Múzquiz** ematen du nonbaitetik bil-durik.

**Muzkiz** legez ahoskatu izan baldin bada sibilanteen asimilazioaren bidez gertatu zatekeen eta gertatu ere azken sibilantea erdaldunen artean frikatibo izatera makurtu zenean eta ez lehenago. Baina edozein modutan ere, ikusi dugunez, XV-garren mendeko testoak joera zaharraren erakusle dira eta oraingo izen ofiziala ere bai lehenengo sibilanteari dagokionean. Iturriza-k, gainera, **Musquiz** besterik ez du ematen bera euskalduna izanik, erdal kontes-toan azaltzen badu ere.

Ene ustez toponimo bihurtu den patronimikoaren formako bat besterik ez da **Musquiz**. Pertsona izena \***Muski** zatekeen, **Musko** / **Amusko** formen bikotea (4), eta -z sufijo patronimikoa hartu zukeen, bikotetzat -iz zuena, latinetikako -nis > (-nes) > -ns genitiboa zutela iturritzat euskaldunen artean. Hain zuzen ere latinezko lehenengo forman -n- bokal artekoa eroririk eta azken posizioiko frikatibo / afrikatu oposizioaren neutralizazioa gertaturik -(i)tz bilakatzen zen, edo -intz bihurturik nasala asimilatzen zen.

Bilbon 1978-garren urteko Otsailaren 28-an.

---

(3) Jesús María Sasia, O.S.B., *Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Bilbao 1966.

(4) Ikus **Orti Musco**, 1156 eta 1173-garren urteetan, José María Jimeno Jurio, *Documentos medievales artajoneses*, Pamplona 1968, dok. 97 eta 132.

**SOBRE EL ULTIMO ELEMENTO DEL NOMBRE  
DEL MUNICIPIO QUE EN CASTELLANO SE LLAMA  
SAN JULIAN DE MUSQUES**

**Traducción castellana del propio autor.**

*Bilbao, 1982*

*Alfonso Irigoyen*

Angel Rodríguez Herrero publicó en Bilbao en 1967 *Las Bienandanzas e Fortunas*, de Lope García de Salazar, utilizando para ello especialmente un manuscrito del siglo XV y ofreciendo junto a la transcripción el facsímil del original. En el cuarto tomo aparece muchas veces el nombre que estamos estudiando. En el manuscrito se lee así: **m**, **u**, **s** alta que siempre se puede transcribir por **s**, **q** y signo de abreviatura, que el editor transcribe siempre por **-que-**, salvo una vez que lo hace por **-qui-**, fol. 139 c.1 (1), y **sigma**. En la época en que se escribió el manuscrito este último signo se solía utilizar ambigualmente, tanto para **s** como para representar una sibilante de tipo africada. Pero en la transcripción que se nos ofrece de la obra se lee siempre **s**, y de esta manera tenemos **Santursi**, fol. 195, c.1 y 2, **Salsedo**, fol. 195, c.2, y **Viscaya**, fol. 195, c.2, siempre con **s** donde se lee **sigma**. Con toda probabilidad la **sigma** de la palabra que estamos estudiando estaba en el lugar de una africada, y no de una fricativa, aun siguiendo los hábitos de hablantes románicos de la época, o a lo sumo con evolución a fricativa entre estos últimos, pero en ningún caso por **s**. El hecho de utilizar una grafía igual para representar más de un fonema sibilante ha dejado más de una vez su huella en nombres oficiales de topónimos, y lo más razonable es pensar que en este caso ha sucedido otro tanto. La cuestión del vocalismo no aparece, sin embargo, clara en el manuscrito del siglo XV. En estos casos en más de una ocasión se tendía al vocalismo **-i-** de tradición antigua por influencia de hablantes vascos, si es que no se imponía la tendencia románica plenamente.

---

(1) En los folios que siguen aparece la transcripción hecha como **-que-**, registrándose siempre en el manuscrito el signo de abreviatura: 42 c.1, 42 c.2, 51 c.1, 60 c.1, 124 c.2, 127 c.1, 159 c.1, 195 c.1, 195 c.2. Es suficiente como muestra.

Juan Ramón de Iturriza el siglo XVIII (2) da **concejo de Músquiz**, II, pp. 300, 313, 314.

Jesús María Sasia (3), sin embargo, dice: “s. XV **Musquis** y **Musques**”, lo que hemos visto más arriba, y más abajo continúa: “Fluctúa luego a lo largo de los siglos siguientes la forma **Muzquiz** en doc. juntamente con las citadas”, véase el n.º 1865. No dice más. Naturalmente, para él **Muzkiz** es más vasco, teniendo en cuenta que anda intuitivamente tras las huellas de ello, pero, en cualquier caso, no aduce ninguna razón para sostener dicha opinión. Como puede verse en la segunda nota el editor de Iturriza da también **Múzquiz** utilizando alguna fuente.

Si se ha llegado a pronunciar **Muzkiz** ello ha podido ser así por asimilación de la primera sibilante, para lo cual era necesario que la última de ellas evolucionara entre hablantes románicos de africada a fricativa, no pudiendo ser anterior el fenómeno de asimilación. Pero en cualquier caso, como hemos visto, los textos del siglo XV muestran la situación antigua, así como, en lo que se refiere a la primera sibilante, también el nombre oficial actual. Además Iturriza, siendo él vasco-hablante, no da más que **Musquiz** en texto escrito en castellano.

A mi juicio **Musquiz** no es más que una forma de patronímico convertida en topónimo. El nombre de persona podía ser \***Muski**, doblote de **Musko** / **Amusko** (4), que recibiría el sufijo patronímico **-z**, el cual alternaba con el doblote **-iz**, cuyas formas tenían como fuente el genitivo latino en **-nis** > **(-nes)** > **-ns** entre hablantes vascos. En efecto, caída la **-n-** intervocálica en lo que se refiere a la forma más antigua y producida la neutralización de la oposición fricativa / africada pasaba a **-(i)tz**, o habiéndose convertido en **-intz** se asimilaba la nasal.

Bilbao, a 28 de febrero de 1978.

---

(2) Juan Ramón de Iturriza y Zabala, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, II, edición de Angel Rodríguez Herrero, Bilbao 1967. El editor añade una nota entre corchetes en el segundo tomo, p. 316, que lleva comillas: “Fue natural de **Múzquiz** el licenciado Monteño de Salazar”. No especifica la fuente.

(3) Jesús María Sasia, O.S.B., *Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Bilbao 1966.

(4) Véase **Orti Musco**, años 1156 y 1173, José María Jimeno Jurio, *Documentos medievales artajoneses*, Pamplona 1968, doc. 97 y 132.

## VITORIA-GASTEIZ

D. Luis Michelena Elissalt, miembro de número y presidente de la Comisión de Entidades de Población de esta Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y catedrático de Lingüística Indoeuropea y Vasca de la Facultad de Filosofía y Letras de Vitoria, emite el siguiente

### DICTAMEN

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco, preparado por esta Corporación académica, la entidad de población y municipio que figura con el número 629 VITORIA, figura en su versión euskérica como GASTEIZ.

Que la razón de que deba emplearse *GASTEIZ* con *s* es que así aparece en la documentación medieval: Reja de San Millán, año 1025; Fuero de Vitoria, año 1181, etc.

Que la edición del Fuero de Población de Vitoria, por la Caja de Ahorros Municipal, que contiene la reproducción fotográfica del Fuero obrante en el Archivo de la Ciudad y del Apéndice II a la *Historia de Vitoria*, de Landazuri, en la edición primera de 1780, Vitoria, 1970, demuestra asimismo que es *GASTEIZ*. Igualmente de fácil acceso es el trabajo de Gerardo Lz. de Guereñu, "Pueblos Alaveses", en el *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, XIII (1969), pág. 72. Hay que indicar que *Gasteiz*, tanto como nombre de la ciudad como apellido, cayó en total desuso, al ser sustituido por el apelativo oficial *VI(C)TORIA*, no volviendo a la luz hasta finales del siglo XIX.

Que si algunos muy modernos han empleado *Gazteiz* con *z*, no lo han hecho porque hubiera apoyo documental. Lo más que podría decirse es que, entre algunos y no precisamente entre los más familiarizados con la lengua, dominó alguna vez la idea de que *z* era de alguna manera "más vasco" que *s*, cuando uno y otro sonido están igualmente arraigados en la lengua.

Que tal vez se haya defendido *z* por alguna etimología, pero ésta es una materia en que solamente los textos valen, no las hipótesis etimológicas.

Y para que conste y su remisión al Exmo. Ayuntamiento de Vitoria, expido la presente en Bilbao, a veinte de julio de mil novecientos setenta y nueve.



## EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak hurrengo adierazpen hau egin nahi du “Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra” dela eta.

Aurretiaz azaldu nahi du, erakunde politikoa ez denez, ezin dela hasi Projektuari inolako gogoramen orokorrik egiten, Konstituzioari egin ez zion modura, salbu 3. artikuluari, berau Españako hizkuntzez ari baita (erantsitako 1. dokumentua). Aldi berean gogoratu nahi du, 1979.eko Maiatzaren 25ean, Iruñean ospaturiko batzarrean onartu zuen akordioa. Geroago aipatu akordioa, Nafarroan euskararen status delakoa (2. dokumentua) berretsi egin zuen ageriko bilkuran eta orduko Foru Diputazio Goreneko Burua zen Jaime Ignacio del Burgo jauna bertan zelarik eta baita Malon eta García de Dios jaun Diputatuak ere.

Hau dela eta 573/1976 E. D. delakoaren 1. artikulua babespian eta erantsitako Estatutuen 1. artikulua f (3. dokumentua) zera *kontutan hartzen du* alegia, Lege Projektuaren 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen diola, zeren bertan, bakarrik, egun Erresuma Zaharrean euskaraz hitz egiten den tokietan ofizialtasuna aitortzen dio, euskararen atzerakuntzarako orainsu eta iragan mendean emandako arrazoi historikoak kontutan izan gabe; euskarak bizirik dirau erdal eremuetan hiztegi, esaldi eta, batez ere, toponimi eremuan; eta oro har, Nafarroako herriaren kontzientzia eta oroipen kolektiboan dirau, eta azken batez ondare orokorra euskara hitz egiten den eremua, mugatu ezin dena.

Kexa bizi-bizia azaldu nahi du hizkuntza biziari emandako tratamenduarengatik, hau da, Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 6. artikuluan eta Valenciako Komunitate Autonomoaren Estatutuko 7. artikuluan, 4. eta 5. dokumentuak eskaintzen zaiena baino ahulagoa baita. Aipaturiko Komunitate biok Nafarroak daukan egoera berbera daukate linguistika eremuaren desberdintzapenez, bai historia alorrean eta bai egungo egoeraz. Baina hizkuntza biei dagokien ofizialtasuna ez da aurretizko jiteaz murrizten.

Guztionengatik eta Uztaileko bilkura arruntean, Nafarroako euskal idazle baten bigarren mendeurrena dela eta, berau mintzairaz Nafarroa Garaikoa eta idazlearen sorterrian ospaturik. Hau dela eta, ezin du ixilarazi daukan kezka bizia, datorren foru legeak 9. artikulua garatuko duen itxaropenaz, beronek arazo hau behar den eran bideratuko duelakotan Gure Erakundearen eritzia jasorik eta baita Nafarroa Mailan eragina daukaten beste erakundeena ere. Euskaltzaindia aholkutze tekniko eta zientifikoa eskaintzeko prest legoke beronekin legislatzaileei laguntza emanez.

Azkenez, Euskaltzaindiak zera nabarmendu nahi du, hots, bai Lege Proiektu hau eta bai eman ahal diren beste zenbaitzu hala Gorte Jeneraletan nola Komunitate Politikoei dagokionetan, euskara negatiboki jotzen duenean —berau Mendebal Europako hizkuntza zaharrena delarik— adi izango dela eta ahaleginak eginen dituela jagoten bizirik iraun dezan, bizkortzen eta garapen eskubideetan galtzaile ez irteteko.

Oiartzun, 1982.eko Uztailaren 17.an.



## DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA

La R. A. L. V.-Euskaltzaindia, desea hacer la siguiente declaración en relación, sobre todo, al artículo 9.º del “Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra”.

Previamente ha de subrayar, que no siendo una Institución de carácter político, no puede entrar en ninguna otra consideración de tipo general al Proyecto, como no lo hizo a la Constitución, excepto el artículo 3.º, que trata de las lenguas españolas (documento adjunto n.º 1). Asimismo ha de recordar el acuerdo adoptado en sesión académica celebrada en Pamplona, el 25 de Mayo de 1979, ratificada momentos más tarde en la sesión/acto público, en presencia del entonces presidente de la Excma. Diputación Foral D. Jaime Ignacio del Burgo y los Diputados Forales Sr. Malón y García de Dios, sobre el status del euskara en Navarra (documento n.º 2).

Por lo tanto y al amparo del artículo 1.º del R/D. 573/1976 y artículo 1.º f) de sus Estatutos anexos (documentos n.º 3), *considera* que el artículo 9 del Proyecto de Ley mencionado da un tratamiento discriminaotrio al vascuence 0 euskara, ya que restringe su oficialidad a zonas-reserva de territorios hoy vascoparlantes del antiguo Reino, sin tener en cuenta las causas históricas y de otro tipo de su retroceso reciente y del pasado siglo; de que la lengua pervive en zonas castellanizadas en vocabulario, modismos y no digamos en toponimia; que está presente en la conciencia y memoria colectivas del pueblo navarro en todo su conjunto, y que en definitiva en su consideración de un patrimonio general, no restringible a su ámbito vascófono presente.

Lamenta vivamente que el tratamiento dado al uso de las dos lenguas, sea inferior al que se le da en el artículo 6.º del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 7.º del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Valenciana (documentos 4 y 5), comunidades políticas ambas, que tienen idéntica situación a Navarra, en lo que respecta a diferenciación de zonas lingüísticas, tanto históricas como actuales, pero donde la oficialidad de las dos lenguas respectivas, no se restringe con carácter previo.

Por todo ello y en su sesión ordinaria de Julio, con motivo del bicentenario de un escritor en euskara navarro, celebrada en su localidad natal de habla alto navarra, no puede por menos de mostrar su grave preocupación, esperando en todo caso que la futura ley foral que desarrolle el artículo 9.º, reconduzca debidamente el tema, oyendo a esta Corporación académica, como a otras Instituciones con ámbito de actuación en Navarra, ofreciéndose para un asesoramiento técnico y científico, que ayude a los legisladores en esta materia.

Finalmente, esta Real Academia de la Lengua-Euskaltzaindia, hace patente que tanto en este Proyecto de Ley, como en otros que puedan darse, tanto en las Cortes Generales, como en las Comunidades políticas correspondientes, y que afecten negativamente al euskara, la lengua más antigua de Europa Occidental, estará atenta y tratará de velar por sus derechos de mantenerse viva, en recuperación y desarrollo.

Oiartzun, 17 de Julio de 1982

**EUSKALTZAINDIAREN  
BATZAR-AGIRIAK**



Oiartzungo Ikastolan, aita Sebastian Mendibururen II. Mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere batzarra, 1982.eko Uztailaren 17an. Bildu dira L. Villasantate buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin, J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Lizundia idazkari-ordea batzarrean aurkitzen da eta X. Kintana euskaltzain urgazlea ere bai, Merkatalgo Izendegiko partean; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari delarik.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek beren ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin, arratsaldeko bostetan hasi da batzarra.

I. *Irakaslego batzordea*. Eguneko gaietan lehen pundua Irakaslego batzordearen egoera berria ikustea izan da. Eusko Jaurlaritzak Euskararen Gaitasun agiria emateko eskubidea berak duelarik, batzorde honen lana asko mugatu eta ttipitu da. Hala ere Nafarroa eta Iparraldeko arazoak hortik kanpo gelditzen direlarik, batzorde honi nolabaiteko jarraipena ematea komeni dela ikusi da.

A. Irigoyen jaunak adierazi du, gai hau eta izendapen batzu orain baino lehen ere Euskaltzaindiak erabili omen dituela, eta berak ez dituela inongo agirietan jasorik aurkitu. Zuzendaritzak aztertzen dituen puntuak ez direla agirietan sartzen, erantzun zaio, Batzarrari aurkeztu behar bait dizkio. Izen horiek Batzarrari aurkezteko, hain zuzen ere, lehenengo Irakaslego batzordekide guziet gutun bana bidali zaiela esan da, batzordean jarraitu nahi duten galdetuz. Hau da, beraz, erabakiak hartzeko unea eta ez besteak.

Nafarroan Ekainean egindako azterketen berri eman da gero. Haritschelhar jaunak, beste alde, Iparraldeko egoerari buruz, han Euskararen tituluak Unibertsitateak emango dituela esan du.

Iritziak bateratuz, Irakaslego batzordea datorren Apirila arte behintzat dagoen dagoenean uztea erabaki da.

II. *Merkatalgo Hiztegia*. Izendegi honen birrargitalpena dela eta lan proposamenari egindako oharrak jaso dira. Gehigarri eta aldaketak banan-banaka ikusteko batzordeñoa izendatu da, A. Irigaray, A. Irigoyen, L. Mitxelena, K. Rotaetxe eta X. Kintana bera barne direla. Birrargitalpen hau, gaur ikusi denez, Bilboko Merkatalgo Ganbarak bere bezeroentzat egingo omen du, eta ez Euskal Herri guzira Euskaltzaindiak ohi duen eran. Zabalkunde mugatua izango du beraz.

III. *Euskararen egoerari buruzko adierazpena.* Azkenaldi honetan gertatzen ari diren lege-mugaketa eta eztabaidak kontuan izanik, euskararen etorkizunari buruz izan ditzaketen ondoreak sumatzen dira eta adierazpen bat argitaratzea komenigarri izango dela, esan da. Nafarroan, esate baterako, etorkizun oso beltza ikusten da gure hizkuntzarentzat, gaur euskara mintzo den lurraldeetara mugatuz legeak dioen ofizialtasuna, eskoletan euskara bazterturik dagoela han ere jakinik. J. L. Lizundiak egin daitekeenaren zirriborro bat zabaldu du, eta iritzi guziak luze eta zabal eztabaidatu ondorean, eranskintzat ematen den adierazpena onartu da.

Eta besterik gabe amaitu da hileroko batzarra.

\* \* \*

### **Gorazarreko batzar irekia**

Arratsaldeko 6 t'erdietan eta hileroko batzarraren ondoren, hasten da Ikastolako Batzar Aretoan aita Sebastian Mendibururen II. mendeurrena dela eta gorazarreko batzar irekia. Goian aipaturikoekin batera, E. Agirretxe, J. A. Arana, J. M.<sup>a</sup> Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, P. Charritton, J. Estornes Lasa, J. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. M.<sup>a</sup> Lekuona, I. Sarasola, M. Ugalde eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak ere biltzen dira batzar honetan.

Lehendabizi, Mitxelena eta Lizaso bertsolariak saio labur-labur bat eskaintzen dute.

Ondoren, Iñaki Irigoyen alkate jaunak Oiartzungo herriaren izenean, agur hitz batzu irakurtzen ditu; A. Luis Villasantek euskaltzainburu bezala, era berean eginaz.

*Gorazarre txostenak:* D. Manuel Lekuona euskaltzain jaunak "A. Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Devocioa* irakurtzen" gaiaz egiten du; Luis Mitxelena euskaltzain jaunak "Mendibururen hizkeraz hitz bi", izenekoaz eta Patxi Altuna euskaltzain jaunak "Mendibururen idazlan argitaragabeak", deitutakoaz.

*Idazkaria*  
J. M.<sup>a</sup> Satrustegi

*Euskaltzainburua*  
Fr. Luis Villasante

Bilbon, 1982.eko Uztailaren 30ean, Arbieta kaleko bere bulegoan bildu da Euskaltzaindia. Berez, batzorde zenbait deituz antolatu zuen Euskaltzainburugoak bilera, baina eguneko gaien garrantziagatik eta datorren Abuztuan hileroko batzarrerik egingo ez delarik, batzarre orokortzat hartua izan da. Goizeko hamaiketan eman zaio hasiera. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, J. A. Arana, P. Charritton, X. Gereño, X. Kintana, K. Rotaetxe eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari delarik.

Gai arruntak ikusi dira lehenik. Hezkuntza Kontseilaritzatik jasotako gutun batekin, "Bizkaiko Aditzaren Erabilera" izenburuko lana etorri da, iritzia eskatuz. Erantzuna eman aurretik, A. Irigoyen, J. San Martin, L. Akesolo, L. Mitxelena eta P. Pujanak osaturiko batzordeñoak begiratu emango dio. Bakoitzak bere oharrak egin bezain laster Bilbon egun batez biltzeko gelditu dira. Azken iritzia Euskaltzaindiari ekarriko zaio Hezkuntza Kontseilaritzari gero kontu emateko.

Bilboko etxea aipatu da gero. Euskaltzaindiko bulego nagusitzat erosteko zen etxeaz deusen berririk ez da ageri aspaldian, eta harremanen jarraipenerako J. A. Arana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta izendatu dira.

## Batzordeen azalpena

**I Argitalpenen batzordea.** Euskera aldizkaria. Datorren alean 1982.eko Ekainera arteko lanak sartuko dira. Rikardo Badiolak eskuarteko gaien zerrenda aurkeztu ondoan, Batzarreetan irakurri gabeko idazlanen arazoa eztabaidatu da. Orain baino lehen gai laburren sailan horrelako batzu sartu izan dira. Gertatzen dena, oraikoen, euskal ikasleen tesina eta "B" mailako euskararen titulua lortu zutenei eskatutako lanekin bilduma haundia daukagula geure "Azkuete Bibliotekan". Denak Euskeran sartzerik ez dago; batzu sartu eta beste asko baztertzen baditugu, berriz, iskanbilak etorriko zaizkigu. Mugaketaren bat egin beharra ikusten da, geroari begira. IKER izan daiteke irtenbide bat, edo offset-en bidez banan-banaka zabaltzen hastea, bestela.

Nola nahi ere, zer mailako lanak diren ikusi beharko da lehenik. J. A. Aranak txosten bat ekarriko du horretaz.

**II Merkatalgo Izendegia.** Dagokion batzordeak azken ikutua eman ondoan, Merkatalgo Izendegia onartu da. Argitalpenari buruz, Euskaltzaindiak euskara, gaz-

telania eta frantses, hiru hizkuntzetan bere oharrak egin ohi ditu horrelako lanetan. Bilboko Merkatalgo Ganbarak bere lagunkideentzat ateratzeko asmoa duenez, ez dela hiru hizkuntzetan argitaratzearen beharrik ikusten, esan da. Neurria ere ez omen da beste gure Izendegiena izango.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

\* \* \*

### **Ospakizuneko batzar irekia**

Arratsaldeko 4 t'erdietan, 1882.eko Uztailaren 30ean eta Bilbon egin ziren Euskal Festeen mendeurrena ospatuz, Euskal Idazleen Elkarte sortzeko batzarra egin da, Bizkaiko Diputazioaren Bibliotekan. Lehen aipaturiko euskaltzainekin batera, J. A. Arkotxa, J. Estornes, P. Goenaga, J. M.<sup>a</sup> Iriondo, J. L. Lizundia, P. Martin, X. Mendiguren, L. M.<sup>a</sup> Mujika, P. Uribarren, A. Zatarain eta A. Zubikarai euskaltzain urgazle jaunak biltzen dira batzar honetan. Beste idazle mordoxka bat ere ageri da.

Euskaltzainburuaren agurraren ondoren, J. A. Arana jaunak 1882.eko Euskal Festeen kronika laburra egin du eta A. Irigoyen jaunak "Bilbo euskara arloan eragile" txostena irakurtzen du.

Euskaltzaindikoko Literatura batzordeburu den F. Krutwig jaunaren hitzekin hasten da batzarraren bigarren partea, Literatura ekintza bizkortzeko Idazleen Elkarte baten premia adieraziz eta J. San Martin, Jagon Sailburuak, Elkartearen helburu eta zehaztasunak eman ditu. Ondoren, Elkartearen behin-behineko batzorde zuzendaria hautatzen da eta bazkidegintzarako kanpaina ireki.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*

*J. M.<sup>a</sup> Satrustegi*



Donostian, Diputazio Jauregian, 1982.eko Irailaren 24ean egin du Euskaltzaindiak, arratsaldeko lauretan, bere hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzain jaunak; Justo Garate euskaltzain ohorezko jauna; J. L. Alvarez "Txillardegi", J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Mujika, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak. F. Ondarra euskaltzainak egiten du Idazkari bezala, J. L. Lizundia Idazkari-ordearen laguntzaz.

J. Haritschelhar eta E. Knörr euskaltzain jaunak goizeko bilkuran egon dira. J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko agiri biak onartu dira.

Batzarraren hasieran L. Villasante, euskaltzainburuak, A. Plazido Mujika euskaltzain urgazlearen hilberria eman du eta ondoren, P. Altuna euskaltzain jaunari ematen dio hitza. Beronek, Aita Mujikaren goratzare txostena irakurtzen du, euskaltzain urgazle zenduaren bizitza eta lanen berri zehatzak emanez.

Jarraian, euskaltzainburuak, batzarraren izenean, ongi etorri berezi bat egiten dio Ameriketan bizi den eta euskaltzain ohorezko den Justo Garate jaunari, Euskal Herrira etorri berri baita.

X. Kintana jaunak sari edo aipamen berezi bat jarri behar litzatekeela euskaltzaletasuna agertzen duten Merkatal etxeei, proposatzen du. Gaietan ez zegoenez gero, idatzita proposamen zehatz bat egitea eskatzen zaio eta estudiantuko dela.

### **Goizeko bilkuraren berri**

Goizeko bilkuran, J. L. Lizundia jaunak, Euskaltzaindiaren egoitza berriaz, horretarako izendatu zen batzordeak egin dituen gestioen kontu eman du.

Euskaltzaindiak, batasunerako eskaini dituen erabakiak bildumatu eta sailkatu egin ditu Jaurilaritzako Hezkuntza Kontseilaritzaren Euskara Zerbitzuak eta ondoren, euskaltzainburuari igorri. Euskaltzaindiak ontzat hartzen du L. Villasante jaunak

egin duen gainbegirada eta hala adieraziko zaio Jauriaritzako Zerbitzu horri, bide batez, egin duen lan baliotsuagatik eskerrak ematea erabakiz.

Bizkaierazko aditzaren erabileraz, horretarako izendatu zen batzordeak egin duen txostenari birrespena eman zaiola, aditzera eman da. Lan hau Jauriaritzako Hezkuntza Kontseilaritzak eskaturik aztertu da eta lan honen xedea, Bizkaiko irakas-kuntzarako izango da batez ere.

Azaroaren lehen hamabostaldian, Bertsolaritzari buruzko Jardunaldiak egitea programatu du Jagon Sailak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin batera. Jardunaldi hauek Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren bigarren egitarau barnean sartzen direla, kontu ematen du J. San Martin jaunak. Bestalde, Bertsolaritza batzordea biltzekotan da Txapelketaren bigarren ekitaldia antolatzeko.

*Hiztegi saileko zenbait puntu tratatzeko Jardunaldi* batzuen proposamena eginenez, bi txosten irakurri dira goizeko euskaltzainen bilkuran. Bata, euskaltzainburuarena eta bestea, Iker Sailburuarena. Jardunaldi hauek Abenduan egitea pentsatu da, eta ahal bada Durangon, Euskal Liburu Azokaren egunetan. Beraien gai nagusia maileguzko hitzen ortografia aztertzea izango litzateke eta agian, konposaketa legeak ere bai. Guzti honetaz lehen eztabaida bat egin dela goizeko bilkuran, aitzen eman da eta baita propioki bi batzorde suntsikor izendatu direla ere. Hizkuntza batzordearen esku gelditzen da gaiak erabatez, mugatzea eta finkatzea eta jaun hauek osotuko dute: L. Mitxelena buru, L. Villasante, E. Knörr, F. Krutwig, P. Goenaga, X. Kintana, L. M.<sup>a</sup> Mujika, I. Sarasola, M. Azkarate eta M. Zalbide. Jardunaldiok prestatzeko antolakizun batzordea ordea, honela izendatu da: J. San Martin buru, R. Badiola eta J. L. Lizundia idazkari.

### **Dagozkien batzordeen azalpena**

Hurrengo ostiralean, alegia, Urriaren lehen arratsaldeko 4etan, Iruñeko "Sario" ikastetxean, Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko D mailako etsaminak, horretarako izendatuta dagoen batzordeak egingo dituela, aitzen eman da.

Dialektologi batzorde idazkariak, alegia, J. M.<sup>a</sup> Etxebarria jaunak, uda honetan, euskal eskualdeetako zenbait herritan egin diren giza-gorputzari buruzko inkesta lanen behin-behineko azalpena eman du.

### **Txostena**

"Testu zahar baten bitxitasunak" izeneko Bitor Kapanaga jaunaren txostena irakurri da. "Refranes y Sentencias" bilduman agertzen diren zenbait errefracu eta esaera aztertu ditu, bere txostenean. Ondoren, gai honetaz eztabaida sortzen da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkariak*

*Fco. Ondarra-Jose Luis Lizundia*

Donostiako Diputazio Jauregian, 1982.eko Urriaren 29an, arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilera. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, P. Andiazabal, J. A. Arana, X. Aranburu, M. Atxaga, P. Charritton, J. Etxaide, E. Etxezarreta, P. Goenaga, X. Kintana, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M.<sup>a</sup> Mugika, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak.

X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

### **Goizeko bilkuraren berri**

Goizeko euskaltzainen bileran, Toribio Alzaga eta F. Arrese-Beitia antzerki eta olerki sariketetarako mahaikoak izendatu dira.

Maileguzko hitzei buruzko Jardunaldietarako, Iparraldeko J. Haritschelhar eta P. Lafitte batzordekide izendatu dira.

Donostiako gure ordezkaritza, Txurruka kalean, 7, laster irekitzeko moduan dagoela jakinerazi digu Diputazioak. Dialektologi lanak bertatik eramango dira eta beste zerbitzu batzutarako tokia ere badago.

**Euskera** aldizkariaren gerra aurreko lehen hiru zenbakiak birrargitara ditugu eta salgai daude. Euskaltzaindiko urgazle eta batzorde lankideei salneurritik behera-phen ahalik haundiena egingo zaie.

Españaño Akademiar Eugenio Montes zenaren heriozkari Euskaltzaindiraren doluminak agertzea erabaki da.

### **Batzordeen berriak**

*Gramatika.* Patxi Goenaga, batzorde idazkariak, egoera nahiko eskaxa dagoela esan du. 1984.eko Kongresoari buruz hiru ardatz nagusi azpimarratu ditu: lan nagusiak, batzordeak egindako lanen aurkezpena eta aurrera jarraitzeko plangintza. Azken puntu honetan, zein autore ikertu, langile arazoa eta finantziaketa. Datorren batzarrerara, Kongresoan aurkeztuko diren gai nagusien hautapena eginik ekartzeko, eskatu zaio batzordeari.

*Bertsolariak.* Txapelketako lehen fasea amaitu dela aditzera eman du J. San Martinek. Bigarren ekitaldia Azaroan egingo da, Gernikan eta Oartzunen. Azken-aurrekoa, Goherrin eta Durangon, liburu azokarekin batera; eta 1982. Txapelketa amaiera, Donostian, Abenduaren 19an.

### **Txostenak**

J. M.<sup>a</sup> Satrustegik, Pragara egin berri duen bidaiaren berri eman du. N. Tauer euskaltzain ohorezkoak bere liburu, aldizkari eta euskaltzaleen gutun bildumak Euskaltzaindiari eskaintzen dizkiola, aditzera eman du. Hildako hogeita hamabost bat jaunen eskutitzak Azkue Bibliotekarako berekin ekarri ditu, hala nola, aldizkari bi-txienak eta idazki zenbait. Beste berri batzuren artean, Rudolf J. Slabý izeneko euskaltzain urgazle ezezagun bat izan zela Pragan Azkue zenaren denboran, aditzera eman du. Eskerrak emango zaizkio Tauer jaunari eskaintza honengatik.

Luis M.<sup>a</sup> Mugikari zorionak eman dizkio euskaltzainburuak doktoradutza lortu duelako. 1984.eko kongresoari buruz planteamentu batzu egin nahian, latinetik zuzenean eta erromanikotik euskarara etorritako hitzen aldaketak aztertu ditu. Gaztela, Aragoi eta Gaskoin aldekoekin ezberdinak, noski. Azentuaren garrantzia aipatu du, Zaraitzu eta Erronkariko kasuan, bereziki.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Donostian, Diputazio Jauregian, 1982.eko Azaroaren 26an, egin du Euskaltzaindiak, arratsaldeko lauretan, hileroko bere batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; L. Akesolo, J. A. Arana, X. Aranburu, M. Atxaga, P. Charrington, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, X. Kintana, I. Laspiur, J. L. Lizundia, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi jauna idazkari dela.

Ezin etorria: J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunak adierazi dute.

Aurreko agirian, J. L. Davant jaunaren izena ez dela agertzen, jakinerazi da.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

### Goizeko bilkuraren berri

*Hauteskundeak.* Euskaltzainburugoko karguen bigarren urteburua denez, hauteskundeak egin dira goizean. Agiri bereziak dioen eran, hamabi euskaltzain etorri dira eta beste bostek eman dute idazkiz beren botza. Atera dira: L. Villasante, euskaltzainburu; J. Haritschelhar, buruorde; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, idazkari eta E. Knörr, diruzain. Era berean berriztatu dira beste kargu hauek ere: Iker Sailburu, L. Mitxelena; Jagon Sailburu, J. San Martin eta liburuzain, A. Irigoyen.

Beste gai batzuren artean, honako hauek aipatu dira:

1936.eko gerra denbora eta ondoko urteak nahiko ilun dira Euskaltzaindiaren historian. Erdal Akademiako P. Sainz Rodriguez, orduan Hezkuntza Ministeritzako arduraduna zenaren bidez jakin dugu, Euskaltzaindiaren etorkizunarentzat garrantzitsu den, berak hartutako erabaki bat. Gerra osteko **Euskera** aldizkaria birrargitaratzean, ezagutzen ez ziren batzar agiriekin batera, denbora horretako berriekin txosten bat ere plazaratzea erabaki da.

Euskaltzaindiko bulegolanen sailkapena egin beharra ikusten da eta horretarako jardunaldiren batzu sartuko dira 1983.eko lanen egutegian.

Urteko gure eginkizunen agerpen zehatz bat zor diogu Euskal Herriari. Garrantzitsua puntu hau dirulaguntza ematen digutenen aurrerako, batez ere. Horretarako, Idazkari nagusiak eta batzorde bakoitzak beren memoria egin behar izango dute urte amaiera honetan.

**Batzorde agerpenak**

*Argitalpenak.* Argitalpenen egoera aztertu ondorean, hau da eskuartean darabaguna: **Euskera** 1982-1, azken zuzenketak eginik laister kaleratzeko dago. IKER-2 erdi egina dute inprentan eta denbora berean zuzenketak egiten doaz. JAGON-1, Iparragirri buruzko alea, argitaletxearen abiadan doa. JAGON-2, Bertsolariei buruz oraintxe emandako hitzaldiekin mamituko da. Hizlariak zuzenketaren batzu egiteko epea daukate.

Lekukoen bilduman, bost ale agertu dira orain arte eta beste seiren bat datorren urtean ateratzeko aukera ikusten da. Ia gertu daude lan hauek eta finantziabidea ere lortua.

Euskaltzaindiaren historia laburra aspaldi eskuartean daukagu, eta azkenean euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez argitaratzea erabaki da.

Gerra aurreko **Euskera** aldizkariaren birrargitalpena bosgarren alean doa. Otsailerako aterako dira beste aleak.

Pertsona Izendegia ere aurrera doa eta Urtarrileko batzarrean eman ahal izango da zerrenda berria euskaltzainei.

Azkueren *Euskalerraren Yakintza* izeneko liburua birrargitaratzeko, baimena eskatu du Espasa-Calpe argitaletxeak. Denbora berean, hitzaurre baten beharra adierazten dute zuzendariak. Euskaltzaindiak, beste alde, rr, ll eta tt bikoitzak erabiltzea gomendatzen du. Jose M.<sup>a</sup> Satrustegiri eskatu zaio hitzaurrea egitea.

Azkenekoz, Rosa M.<sup>a</sup> Arzak, Euskaltzaindiaren liburu-gordailuko berri eman du, urteko sar-atera eta gaurko egoera adieraziz. Zenbait liburuk irteera txarra dute eta metaturik daude. Horien salmenta nolabait bultzatzea beharko dela, ikusten da.

**Txostenak**

Euskaltzainburuak ongiatorria eman dio Jose M. Larrarte jaunari lehen aldiz batzarretara bait zetorren. Larrarte jaunak "sintagma mugagabea Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* liburuan" aztertu du. Gramatika gaietan gabiltzanez, eskertzekoa da bere txosten luzea.

X. Kintana jaunak merkatalgo arloan beren emaitzak euskaraz agertzen dituzten etxeen aipanena edo/eta agiriren bat egitea eskatu du, beren ekintzaren bultzagarri. Ez da garbi ikusten Euskaltzaindiari dagokion ala beste Elkargoren batek egin behar lukeen.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Aramaioko Udaletxean, P. I. Barrutiaren hirugarren mendeurrena ospatuz, bildu da Euskaltzaindia, 1982.eko Abenduaren hemezortzian, arratsaldeko lau t'erdietan. Etorri dira: L. Villasante euskaltzainburua, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martín eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. A. Arana, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, P. Martín Latorre, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. Haritschelhar eta P. Altunak ezin etorria adierazi dute.

Emilio Guevara, Arabako Diputatu Nagusia, eta Jexus Zabala Aramaioko Alkatea, eseri dira mahai buruan, L. Villasante eta E. Knörr euskaltzainekin batera.

Herriko Alkateak eman die batzartuei ongietorria.

### **Goizeko bilkuraren berri**

Euskaltzainek goizean erabilitako gai hauek aipatu ditu idazkariak: datorren Urtarrilaren zazpian eta zortzian, maileguzko hitzei buruzko jardunaldiak egingo dira Uztaritzen.

Otsaileko batzarra, Nafarroan egingo da, Blas Alegria zenaren mendeurrena Lakuntzan ospatuz. Eta 1983.eko egutegiarekin jarraituz, Joannes Elizalde “Zerbitzari” idazlearen ehun-urteburua, Azkainen, bazko astean edo egitea aipatu da. Markinan, Dialektologiako jardunaldien jarraipena egin daiteke Irailean, “Parlanzu edo Piestak” izeneko gertakariaren mendeurrena gogoan dela.

Denbora berean, Tolosako “Lizardi Kultur Elkartek” olerkari honen omenez martxorako gertatu nahi duen kultur astean partaide izango da Euskaltzaindia, bere batzarre berezirik egingo ez badu ere.

Eskuarteko beste zenbait gutun, eskari eta albiste ikusi dira.

### **Barrutiaren omenaldia**

Lau hitzaldirekin ospatu da P. I. Barrutiaren mendeurrena.

Euskaltzaindia bigarren aldiz datorrela Araban euskara hobekienik gorde duen Aramaiora, gogoratu du L. Villasantek bere agurrean. Xuberoko pastorelez beste

alde, Barrutiaren “Gabonetako ikuskizuna” euskarazko teatro zaharrena da. Euskaltzaindia euskalkien aurka dagoela esaten dutenei eskuarteant ditugun Dialektologiako azterketak eta gaurko hau bezalako ospakizunak, lekuko mintzairen maitemenez eginak direla esan die.

J. M. Velez Mendizabal mintzatu da gero Aramaioko antzerkilariaren bitzitza gaitzat harturik. Haren jatorria, aita-amen berriak eta hamazazpigarren mendeko herri giroa adierazi ditu zehaztasun ugariarekin.

J. M. Lekuonak Barrutiaren lana aztertu du bere txostenean, zer baliotako idazkia den azalduz. Besteak beste, lekukotasun estimagarria eskaintzen dio Euskal Herriko antzerkigintzari.

Oraintxe atera berri da Arabako Foru Diputazioak egin duen “Gabonetako Ikuskizuna. Edizio, itzulpena eta oharrak”, izenburuko argitalpena. E. Knörr jauna horretaz mintzatu da lanaren helburu eta mugak azpimarratuz. Joseba Andoni Laka-rrak egin du traskribapena.

E. Guevara, Arabako Diputatu Nagusia mintzatu da amaieran, Arabako Foru Aldundia, Euskaltzaindiaren sortzailetakoa dela aitortuz; eta karguetan gizonak aldatu arren, Arabak ez diola bere erantzunkizunari alor honetan inoiz uko eginen, esanez.

Besterik gabe bukatu da batzarra.

Arratsaldeko seietatik aurrera, Oartzungo INTXISU taldeak, Barrutiaren “Gabonetako Ikuskizuna” antzeztu du.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*



# **BATZAR TXOSTENAK**



## **LITERATUR-SAILA**



## TESTU ZAHAR BATEN BITXITASUNAK \*

Donostia, 1982-IX-24

Bittor Kapanaga

Garrantzi handia ematen zaie testu zaharrei euskalarien artean, gaur egun. Eta testu horien artean badugu bat, guztietan gailen agertzen zaiguna eta arreta sakonez begiratua dena: "Refranes y Sentencias..." delakoa.

Zenbait euskalarietzat, euskal testu zahar guztien artean aztergarriena eta balioetsuena dugu; eta norbaitzuk esan eta idatzi dutenez, desiragarri izango litzateke, norbaitek testu horren ikerketa sakon eta ahalik zehatzen bat egingo balu. Esate honen egokitasunari buruz inork zalantzarik ez duela izango, uste dut; eta bilduma hori Mendebaldeko euskalkiaren eremuan egina denez, euskalki hori ondo ezagutzen duen batek egin behar lukeela ikerketa hori pentsatzea, bidezkoa dirudi. Baina lan hori neketsua eta luzea litzatekeenez, gai horietarako gaur ematen diren laguntzaz baliatuz egin beharrekoa dela, uste dut. Beraz, izan beza norbaitek, burutapen eta laguntza hori. Askok itxoindako eta amestutako lana egingo luke.

Bitartean, holako laguntzarik lortu ezin dugunok, geure lan xumez lagundu dezakegu auzia argierazten; eta horixe da hain zuzen, saio labur honen xedea.

\* \* \*

Pentsaerazgarria dugu, mendebaldar euskalaririk ez dela ausartu gaurdaino ikerketa hori egitera jakitea, baina horrelaxe izan bide da, guk dakigunez behintzat. Gorostiaga jaunak egin izan du horretaz lan bat, bildumaren alderdi bat ikertuz, baina liburuaren muina ikutzeke.

Beraz, eta dakigunez, Julio Urkixo izan da, errefrau bilduma horren ikerketa bat egin eta argitara eman izan duena. Baina bere lanean argiro ikusi daitekeenez, Urkixok ez zuen gehiegi menderatzen gure hizkuntza, Mendebaldeko euskalkia, batez ere.

Pena ematen du gaur ere, 49.errefrauaz ari denean idatzi zuenak: arabar euskalkian oraintxe ere bizi-bizirik dirauten aditz formez (*deustak-deustat*)

---

\* Txosten hau, Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburuak, irakurri du Euskaltzaindiaren batzarrean.

aritzean, bi horiek nahasi egiten ditu, bigarren hori ezingotzat jo, eta esistitzen ez den forma batez (deuskat) ordaintzen du.

Gainera, berak ere behin eta berriro adierazten duenez, lan hori egitean bere xedea, ia bakarra, bildumako errefrau edo atsotitz gehienak erderetatiokoak direla, baieztatzea izan da. Eritzi hau ez duzue debaldekoa; honen indargarri, lanean zehar berak idatzitakoak irakurtea aski da; hona hemen ale batzu:

- 21.ean: “No conozco ningún proverbio castellano idéntico a éste”.
- 104.ean: “No conozco refrán castellano que le haya podido servir de modelo. Su sentido es, a mi juicio, el del italiano”.
- 206.ean: “Ignoro de dónde está tomado este refrán”.
- 391.ean: “No conozco este refrán en otras lenguas”.
- 406.ean: “No he logrado hasta ahora hallar sus equivalentes”.
- 411.ean: “No conozco equivalentes en otras lenguas”.

Izan ere, erderatikotasun hori frogatzez landa, ezer gutxi balio du Urkixoren lanak. Jatorri hori ez dutela irudi zaizkionak ia gehienak saltoan pasatzen ditu, gehiago ikertu gabe. Hala ere, eta zuzentasunari zor diogunez, hau ere esan beharra dago: uste horretan arrazoia zuela Urkixok, ene eritziz; eta berak hartakotzat hartu izan zituenak, eta beste batzu ere, erderatikoak ditugula, nire ustetan.

\* \* \*

Beste akats larri batzu ere ageri dira Urkixoren lanean, nire eritziz; eta horien artean bat, hauxe dugu: “Refranes y Sentencias...” delako bilduma hori, liburu hori, *egile baten* lana dela uste izatea. Urkixo izan behar zen bezelako buru argi bat horretan geratzea, harrigarri egiten zait.

Puntu hau argitzeko, baditugu zenbait azterbide:

1) Egile bat-berak eginak balira erderatik euskerarako itzulketak eta honetatik berriz erderarakoak, hor ageri diren aldaketa eta bihurketak barneko direla, iruzurkeria latza litzateke liburu horren egintza.

2) 1596. urtean argitaratua izan zen liburua, inprimatzailearen izena ondo agertuz eta egileen aipatzeke. Urte haietako liburua ikusiz, eta izaten dituzten eskaintza loriatsu eta handikioiak kontutan izanez, ulertezina zaigu oraingo honetan egile bat izan eta bere burua izkutatzea.

3) Liburuko euskal testuak, Mendebaldeko euskalkian ditugu gehienak; eta honen barruan, Arabako euskera nagusi dela, esan liteke; baina Arratia-koa ere ageri da, Lenitz aldekoa eta beste batzuetakoak bezelaxe. Beraz, esku asko ageri dela hor, pentsakizun bidezkoa genuke.

Baina hala ere, “el autor” gora eta “el paremiólogo” behera, dabilkigu Urkixo jauna. Une batetan bakarrik susmatzen du (edo agertu behintzat) zer-

bait zalantzarri badagoela arlo horretan; 37. errefracuz ari denean, honela idazten du: “¿Indicará esto que el que tradujo al vascuence los refranes de 1596 no fue al mismo tiempo el autor de la versión castellana que aparece en el libro que comento? Bien pudiera ser, pero no me atrevo a asegurarlo”. Eta itsuek ere ikusteko bezain argi dagoena bertanbehera utzi eta, berriro “el autor” gora eta “el autor” behera, diardu. Liburuari buruzko ardura bakarria berorren erderatikotasuna frogatzea zuela, dirudi.

Egile bat bakarria ez zela izan, argi dago niretzat, behintzat. Eta alderantziz, apailatzaile bat izan zela esan daiteke; hori nabaritzen da, ezer nabaitzekotan, bilduma arretaz irakurri ondoren. Beste norbaitzuk lagunduta bada ere, bilduma argitaratzeko apailatzearen arduradun nagusi bat izan zela, agian. Eta puntu honetantxe dagoke, agian, liburu horretako misterio, korapilo eta gaiztasunen erroa. Argiroago esanez, hauxe uste dut neronek: nabari dudana apailatzaile horrek Mendebaldeko euskera ez zuela ezagutzen.

Beraz, joan gaitezen haritik: zerbait pentsatu behar eta, pentsa dezagun, Gasteizko edo inguruko uretan batetako komenturen batetan egina dugula bilduma, urte askotan zehar. Gauza asko ulertu daiteke horrela: arabar euskerraren eragina, baina era berean beste eskualdetakoak ere agertzea; bilduma osoaren zehar ageri den erudito usaina; gazteleratiko itzulketak, Ekialdeko euskeratikoak (hainbat ageri dira), eta bertako esaerak nahaspildurik agertzea; iturri batetatiko itzulketetan hain estilo ezberdinak ageri izatea, etb.

Neronek horrela nabari dut: lehendik egina zen bilduma bat, argitaratzeko apailatua izan zela; eta egiteke zeuden zenbait itzulketaz hornitua izan zela; apailatze lan horretan ahotik belarrirako hainbat okerdura egin izan zirela (99.ean “Daminda” ene ustez, *dagidan* besterik ez dena. 5.ean “ebilikia”, arabarren *ebilikoa* ziur asko, etb.); ulertzen ez zituen mendebaldeko hitzen adierazgarritzat edozer ezarri zuela eta zuzenketak egitean, eredutzat zenbait hitz okertu hartuak izan zirela.

\* \* \*

Eta laburki bada ere, hasi gaitezen adierazpen bat edo beste ematen, errefracu batzu aztertuz:

5.a: “Arri ebil okiak oroldirik ez, erle uzatuak abaarik ez”.

“No tiene moho la piedra movediza, ni hace panal la abeja espantadiza.”

Nonahikoa izan daiteke euskera mota hau, baina *oroldi* hitzak arabar itxura du. Baina harrapatu diezaigun erderazko itzulketak duen hutsa: “uzatua” (uxatua) ez dugu *espantadiza*, *espantada* baizik; beraz, aurrekoa ere ezin daiteke izan *movediza*, *movida* baizik; eta uste hori esateko, beste era batzuen artean, “ebilikoa” esaten da arabarrez eta arratiaz ere; beraz hemen ahotik belarrirako huts bat ageri dela, esan daiteke. Gero, beste esaera batetan ere, eta zuzenketa giza ezarritako hutsa, agian.

24.a: “Aita zarra eta behse etena ezta gerena”.

“Padre viejo y abarca rota no es deshonra”.

Zalantzas beterik ari da Urkixo jauna, errefrau honi buruz. “Behse” hori zalantzarria dela, dio alde batetik, beste inon ageri ez den eta entzun ez den hitza delako. Eta bestalde, H. Nuñez-en bilduman, hitz batean izan ezik berdina den errefrau bat badela dio; eta hain zuzen, hitz horretantxe izan ezik:

“Padre viejo y manga rota no es deshonra”.

Euskera gehiago jakin izan balu eta “egile” baten ustean itsuturik izan ez balitz, hitz honetantxe zeukan Urkixo jaunak, liburuaren korapilo asko askatzeko giltza. Jakin izan balu, euskaldunak *manga* esateko *beso* esaten duela beti, errazki ulertuko zuen, horrako “behse” hori “behso” bat baino besterik ez zela; eta gaizki borobildutako “o” bat “e” bihurturik, eta hitz berri baldras sorturik, Azkuen hiztegiraino heldua dugula.

Eta era berean, ulertzen ez zituen hitzen lekuan edozer ezarten zuen apailatzaile bat ere hor ibilia zela, ohartuko zuen gainera. Apilatzaille hori, Ekialdekoa izan zela, agian, eta Mendebaldeko euskalkia ez zuela ulertzen esateko ere, badugu zergatikorik. Ikusi arretaz jarraiko adibideak:

55.a: “Ynudea laztan dauenak, seiari bezuza”.

“A la ama quien tiene voluntad, al niño regala”.

Honi buruzko adierazpena, hauxe genuke: esaera hori lehendik itzulketaz hornitua izango zela, baina Mendebaldeko “sein” = *niño* baino Ekialdeko “sehi” = *mozo* ezagunagoa izango zela apailatzailearentzat, eta horrelaxe ageri zaigula.

\* \* \*

Hurrengo esaera honetan dugu nabariago uste hori.

523.a: “Bagila sey goseen bai ila”.

“Junio, prenda muerta de los niños hambrientos”.

Esaera hau, zaharra dugu agian, eta Mendebaldekoa zalantzarik bage. Errefrau hauxe adiskide batek eskuetara ekarri zidanean sortu zen nigan bilduma honekiko ardura eta ikerketa bat egiteko irrika.

Izan ere, 55. esaera hori, erderatikoa dela argiro ageri den bezelaxe, beste hau, 523. hau euskal eremuko dugula ere aski garbi nabaritu daiteke. Baina hor ageri zaigun esanahiak ez du, euskal esaera zaharrak izan ohi duten tairorik, eta “prenda muerta” delako horrek kutsu arraroa du. Bestalde, “Bagila - bai ila” horrek, euskal esaeren atondura bete-betean agertzen du.

Gainera, nahiz eta orain arteko euskalariak ez duten sumatu izan horrelakorik, “bagil” hori “bage-il” (mes de la escasez) genuelako ustean tinko nengoen, “Uztail” (mes de la cosecha) eta “Daguenil” (mes de la abundancia) genituen bezela. Beraz, bagetasun uste hori erakusten digun arren, hor zerbait okertua zegoela pentsatzen nuen, eta azkenean, ondorio honetara heldu izan nintzen: “n” baten aldaketa izan behar dela hor, eta “Bagila, sein gosea bai



ila” eginez gero, euskal taio eta Mendebaldeko izakera oso-osoan hartzen dituela:

“Bagila, sein gosea bai ila”

“Junio, el niño hambriento ya es muerto”.

Bagilaren gosearotasuna eta sein gosearen ahultasuna, eta gainera, “Bagila” eta “...bai ila” errima hitzak ageri zaizkigu esaeraren osagai, duten zeregina egokiro betetzen dutelarik. Euskal esaeretan, zaharrenetarikoa izan daiteke honako hau.

Baina Bagila “gosearo” izate hori, arraro egingo zaie norbaitzuri, gaur egun; hala ere, kontutan izaten badugu, lehen Euskal Herrian ez zegoela patatarik, artorik eta udaberrian erein eta bizkor lortzeko beste zenbait barazkirik, eta Azaroa zela ereiteko aroa, eta Uztaila uzta hartzekoa, argiro ulertzen da, Bagila izango zela sarri askotan, uzta heldu aurreko gosea jasan beharreko aroa.

\* \* \*

Baina Ekialdeko batentzat, Mendebaldeko “sein” eta “bai”, bereak zituen “sehi” eta “bahi” errazki bihurtu daitezke, esanahia arras aldatuz. Agian, nik orain egin behar izan dudana aldaketa (*n* horrena), alderantziz egin izan zuela dirudi, apailatzaileak XVI. mendean. Honetantxe ikusi nuen nik apailatzailearen eskua, geroago beste esaera askotan ere ikusi behar izan dudalarik.

Begira:

86.a: “Ogia lenago, ora baino”.

“Pan primero que mastin”.

Hauxe dugu, hemen agertuko ditudan adibide guztien artean, aurrerago esan dudanaren baieztagarriak indartsuena. Oraino bizi den Mendebaldeko esaera zaharra dugu; mutikotan ene izebari entzundakoa eta bere esanahia eta atondura, Mendebaldeko euskeran (esakeran eta izakeran) ondo errotuak dituen:

“Ogia lenago ora baino”.

“Antes el pan que la masa”.

Neskatoei andrakeriak ebakitzeko eta gauzen gertamoldea agerrerazteko erabilia dugu esaera hau. Gauzak euren aurre-gertaldia beharrezkoa dutela jakinerazteko. Eta esaera honek badu beronen kidea ere, mutikoentzat eta gizonekoentzat erabilia, gaur egunean ere erabili ohi dena:

“Txapela lenago burua baino.”

“Antes la boina que la cabeza.”

Esanahi bat bera, atondura ere berdina, baina erakusleak ezberdinak: emakumeentzakoak batean eta gizonentzakoak bestean. Biok batean, Mendebaldeko izaeraren erakusgarri bikainak. Baina ekialdekoa izan behar

zuen hari, “ora” horrek zakurraren irudia eskaintzen zion. Guri ez ordea; guk, *ora-maia*, *ora-ola*, *orategia*, *opil-ora* eta honelakoak erabili egiten ditugu, eta “ora” ere bai, forma honetantxe; beraz, honek erakusten digu garbiri, ezeinek erakustekotan, Ekialdeko apailatzaile bat ibili zela hor eta nahi zuena ezarri zuela ulertzen ez zituen hitzen ordez.

\* \* \*

272.a: “Iak, emak, erak ta zegiok trankart”.

“Hiérole, dale, mátale y no le hagas falsa”.

Esaera honek, urrundik ageri du erderatikoa izan behar duena; Urkixo jaunak ere hori uste izan zuen, baina etorburua bilatzean huts egin zuela, uste dut:

“Peque de falsa, y no de mansa” ematen du berak; baina hori, “karakaxetara” joatea beste dela, uste dut.

Mendebaldeko euskeran, esaera honen hitzak gure belarrietan honela sartzen zaizkigu:

“Iaik, emoik, eraik eta ezeiok...?”

“Come, da, bebe y no le hagas...?”

Esaera honi buruz, bat-batean oroitu nintzen, noizbait eta erderazko libururen batetan, honako hau edo irakurria nuela:

“Come fuerte, bebe y no te atranques”.

Baina H. Nuñez-en bilduman begiratu arren, ez dut aurkitu. Behar bada beste hitz batez hasia izan daiteke, eta hor izan arren nik ez aurkitzea. Hala ere, horren ordez beste hau aurkitu dut, gailegoz eta harrigarriro baliotsua: ro baliotsua:

“Comer, e beber, e quem vier detrás, cerre a porta”. El Portugués.

Beraz, nik gogoratzen nuen “Come fuerte, bebe y no te atranques” hori (gutxi gora-behera) izan bide da nonbaiten. Badakigu, erderazko *atrançar* hitzak, atea ixtea eta heste-betekada egitea esanahiak dituela, behintzat; eta horretatik sortutako *trancazo*, *atración*, *atracarse* eta horrelakoak ere badirela, euskeran erabiliak ere bai, lehenen hori behintzat. Beraz gailegozko hori, eta darabilgun euskerazko hau, dirudienez, gaztelerazko horretatik hartu eta gaizki itzulitakoak izan daitezke. Betekada ustearen ordez ate ixtea ageri zaigu gailegoz, baina hori bidezkoa da, “atrançar” hitzaren esanahien arauera. Euskerazkoan bihurteta handiagoa dugu erdal itzulketari bagagozkio, baina ez agian hastapenean euskeraz izan zitekeana nabaritzu:

“Iaik,... eraik eta ezegik trankart”.

“Come... bebe y no te atranques”.

Baina ekialdar bat, “eran” hitz horrek erraterazi zezakean. Arabako euskeran, gaur ere, *beber* = *eran* dugu bete-bete, beste eskualde batzuetan

bezela; baina Ekialdean ahots horrek heriotza ematea adierazten du; beraz, hemen ere lelo berdina ageri zaigu: Mendebaldeko euskalkia ondo ulertzen ez zuen eta guk nabari dugun apailatzaileak, bereak eta bi egin zituela eta ondo-rioztat halako hitz arraro bilduma utzi zigula: *ebiloki, bese, trankart...*

\* \* \*

Eta azkenez, ekin diezaiogun esaera guztion artean erabiliena eta bitxie-na dugunari:

167.a: "Erioak erezan, Butroeko alabea Plentzian".

"El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia".

Hasteko, "Erioak" = "tartago"z ordaintzea, ikusi ditugun beste egintzen antzekoa dugu: zerbait ipini behar eta eskura zetorkiona ipini (burura esatea gehiegi ote den...). Ezin daiteke besterik esan ordaindura horretaz.

Baina hemen gaia sakona dugu eta sakondu dezagun, lantxo apal honek ematen digun aukera murritzean.

1) Esaera hau Mendebaldekoa dugu, Bizkaiko Uribe aldekoa, zalantzarik gabe, hor ageri diren izenek dioskutenez. Baina ez Plentzia bertakoa, seguruenik. Leku izenez eginak izan ohi diren euskal esaerak aztertuz, ia beti, honako zelakotasun hauek aurkitzen ditugu: aurkakeran (kontraposizio) ezarritako bi lekuizen eta bertako zerbait agertzen zaigula; esaeraren sorlekua ez dela izaten leku bi horietako bat ere, bitarteko edo inguruko besteren bat baizik. Honen adibideak pilaka ditugu Euskalerrian eta bakoitzak bere ingurukoa ezagutuko du, noski. Bat agertuko dut hemen, dakizkidan beste batzu idazteko zakar samarrak iruditzen zaizkidalako:

"Elorrión buzkentza, Durangon tronpie."

Non sortua ote dugu? Elorrión edo Durangon ez behintzat; Abadiñon edo hor nonbait seguruenik. Durango eta Elorrio bitartean hamabi kilometro dira, eta Abadiño eta beste herri batzu dira bitarte horretan. Eta hor ageri zaizkigun tronpa eta buzkentza, kondairan edo ipuinetan erroturiko gauzak ditugu: Durangoko "herejia" zelakoaz zerikusi duena tronpa, eta ez dakit nolako gertakizun edo ohituratik datorkiguna buzkentza.

Bestalde, dantza-kantu zaharrek heuren partaidetza eskatzen digute arazo honetan; izan ere, antxinetako dantza-kantuetan holako esaerak agertzen zaizkigu. Ezin esan duguna, esaerok kantuetatik sortuak izan daitezkeen, ala kantuak esaera zaharrak alkarri josiz egin ohi zituzten. Baina lotura sakonak dituztena argiro dago.

Hona hemen eredia:

Elorrión buzkentza	Geriarra ailegaute
Durangon tronpie,	asto arrantzie.
Garaien tanboliñe	Ai, ai, ai, asto arrantzie.
Berrizen dantzie,	

2) Liburuak “Refranes y Sentencias...” du izena; beraz, horietakoz egi-na izango zela kontutan izan behar dugu; eta erderaz ageri den “El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia” hori, ez dugu ez bat eta ez beste. Berdinak zitekean “Cristo nació en el portal de Belem” edo “Ortuño murió ahogado en el río”, esaterako. Beraz, euskal esaera zahar hori, beste zerbait dugu, eta erderazko itzulketa ez dagokio bere esanahi jatorrari.

3) *Erioak* hitza *El tártago* hitzez ordaintzeak, itzulketa horren fidagarritasunaren neurria ematen digu. Heriotza ustea landara izen batez ordaintzeak, aski esaten digu; baina okerdura hau jakinez egindakoa dugu, eta “la muerte le mató” ez ipintzearren asmatutakoa, ene eritziz.

4) Esaera hau oso zaharra izan daiteke; “Butroeko alabea Plentzian” zati horrek, Oñaz eta Ganboatarren burruka garaietakoa izan daitekeela pentsatzeko bidea ematen digu. Izan ere, butroetarrak oñaztarren alderdiko buruzagietarik ziren eta Plentzia urian zuten euren habia bat. Beraz, hamaseigarren menderako bere esanahia ilundurik zuen esaera zahar bat izan daiteke.

5) Esaera hau bertokoa eta agian zaharra dugunez, euskal esaera gehienak bezela bi kontraposizioz egindakoa izan daitekeela pentsatzea ere bidezkoa dugu. Eta bigarren zatia “Butroeko alabea Plentzian” hori aski argi dugunez, lehen zatian dugu auzia: “Erioak erezan” horretan.

Eta aztertu ditugun izatasun horien argitan abiatuz, egin dezagun auzia erabakitzeke edo argitzea lortzeko saiaketaxoa.

Gure auzitako itzultzaile edo apailatzaileak “erioak” hitzari heriotza zentzua hartu izan ziola dirudien arren, esaera Mendebaldekoa dugunez, Mendebaldeko zentzuz ikertu beharra dugu. Eta Mendebaldean *erio* hitzak bere esanahi argia eta gotorra du: *manantial* edo *manamiento*.

Horrela ikasi nuen nik mutikotan eta horrela erabili izan dut beti: iturrian erioa hasi, edo erioa agortu; ontzi batek erioa izatea, mendian ur-erioak ikustea etab.; *luperioa* (lur-erioa) ere erabilten dugu; eta erion aditza, Mendebaldean sarri erabilia dugu.

“Erioak” hitzeko *k* hori aktibotzat hartua izan den arren, berdin-berdin izan daiteke plurala ere; areago oraindik, plural itxura gehiago du, zeren *a* mugatzaile barik hobeto zegoen, bestela izan balitz. Zerbaitegatik Azkuek bere hiztegian honela ipinten du: “Eriok erezan (Muerte sin artículo)”. Horretaz behintzat ohartu zen Azkue.

Eta “erioak” hitza erderazko “manantiales” hitzez ordaintzen badugu, esaeraren bi zatietako *zer* usteak argiturik genituzke; lehen aipatu duguneko *buzkentza* eta *tronpie* bezela, honetan, *Butroeko alabea* eta *erioak* genituzke. Eta *zer* ustea argituz gero, *non* ustea geratzen zaigu ikertu beharrean: erioak non?

“Erezan” = *mató* egin zuen itzultzaileak, Ekialdeko *erhan* delakoaren irudipean; gauza berdina ikusi dugu 272. esaera aztertu izan dugunean, *erak* hitzari buruz.

Esan dugun bezela, Mendebalde zati haundi batetan, *beber* ustea adierazteko *eran* hitza erabilten da. Eta iragan formako adizkerak egitean, honako hauek sortzen zaizkigu: *eraban* (arabarrez) *erauen* (arratiaz) etab., baina inoiz ere ez *ereban* formarik.

Baina hor aditz bat izan behar delako ustea alde batera utziz, hobe dugu Mendebaldeko euskerak ematen dizkigun bideetan abiatzea. Eta lehengo galdeari jarraitzea:

Erioak non?

Leku izenei buruzko esaeretan, ia beti bi agertzen bazaizkigu eta bi horien artean izaten bada gehienetan, esaeraren sorlekua (bi horietatik kanpo, bitartean esan nahi dugu), hemen ere egin dezagun arakatzeko lantxoak.

Plentziako eskualdean izan daiteke esaera horren sorlekua, eta hor inguruan edo urrunago esaeran aipatzen diren erioen kokalekua, esaerak beharrezko duen bigarren *nongoa*.

Eta bilaketa lana hasi eta berehala aurkitzen dugu Ereza mendia, erioz bete; Euskalerrian mendi eriozurik bada, Ereza dugu benetan eriozua beronen malda barrenetan, hiru erreka sortzen direlarik.

Eta korapiloaren giltza hauxe izatekotan, esaera honelakoa genuke:

“Erioak Erezan, Butroeko alabea Plentzian”.

“Manantiales en Ereza, la hija de Butrón en Plencia”.

Honela harturik, euskal esaeren taio benetakoa hartzen du, esaera jator eta ulergarria bilakatuz; eta batez ere, “esaera” zentzua hartuz, hori falta baitu liburuan ageri zaigun itzulketak.

Dantza-kanturen batetako zatia izana ote dugu? Gaitz izango zaigu orain hori jakitea; baina Erandio aldeko soinujotzaile batek, laster eratuko luke honako ale bat:

Txakolina Bakion  
neskato lirainak Mungian,  
Erioak Erezan  
Butroeko alabea Plentzian,  
andra nagia etxean  
goizeko saldea arratsian.

Esaerak kantuen osagai, kantuak esaeren sorterazle, ezin dugu esan zein dugun hemen oiloa eta zein arrautza. Baina sakonki lotuak dituguna, bai.

Bestalde, euskal esaeren arauetan (eta Mendebaldekoenetan, bereiziki) egokiro sartzen zaigu:

“Elorrion buzkentza, Durangon tronpie”.

“Erioak Erezan, Butroeko alabea Plentzian”.

“Birepoak...n, gantzagiak...n”.

“Etxekoandrea sukaldean, artzaina artaldean”.

Esanahiari dagokionez, oso argi dugu auzia: garrantzi handiko emakumea izan behar zen Butroetarren alaba hori, edonola ere, esaera batetan bere oroitzua geroari uzteko; Erdi Aroko jauntxo familien itzela eta Euskalerrian emakumeek beti izan duten gizarte begirunea kontutan izanez, bidezkoa dugu hori. Eta garrantzitsuak ditugu beti ur erio eder batzu, zenbat eta ugariagoak, hainbat garrantzitsuagoak. Beste esaera horretako “buzkentza” eta “tronpie” bestean edo areago garrantzitsuak bai, behintzat. Beraz, honetantxe legoke esaera honen benetako zentzua.

\* \* \*

Eta honekin amaitzen dugu saio labur hau, zerbaitetarako baliagarri izan daitekeelako ustean, eta beronen ondorioak eman ditzan.

Neronen aldetik, honako hauek behintzat ateratzen ditut: edozein testu zahar (bostehun urte zahartasuntzat jo badaiteke behintzat), baliotsua izan daitekeela, baina euskera erabilia mila bider baliotsuagoa izango dugula beti. Eta honetaz ariz labankada ederrak egin badaitezke ere, testuez ariz izugarriki handiagoak egin daitezkeela.

## **GRAMATIKA SAILA**





## EUSKARARA IRITSITAKO HITZ ERROMANIKOEN BOKALISMOA

*Donostia, 1982-X-29*

*Luis Mari Mujika (\*)*

### A) AURRETIKOAK

Latin aroaren eraginaz mintzatzean, maiz, maila erromanikora jo ohi da; maila hori mailebuen bokalismoan eta kontsonantismoan inguruko erromantzeek eginiko lexiko eta fonetik zerikusian konkretatzen da.

Hemen latinosteko (edo-eta guri hurbilagoa zaigun) bokalismoaz arituko gara; aro berri hori, nolabait, oso zabala da, hau da, goi-erdiarotik hasita behe-erdiaro arte doana; bitarte horretan latina erromantzeetan desegiten etorri baitzen. Dударik gabe, erromanikoaren kontzeptua, zabala ez-ezik, anbigua da, gaitza baita hitz batean eginiko aldaketa inperio-aroko latin erromanizantean, ala erromanikoan bertan, gertatu ote zen, jakitea, batez ere bokale batzuen mugida eta atzetonikeren erorketa kasuan.

Latinean bertan aldaketa nagusiak eman ziren intentsitate arazoan, hots, latin klasikotik arruntera, eta bestainbeste kantitateari zegokionez, u eta o, i eta e nahastu zirenean.

ERROMANIA-ko eskualde zabal batean bokaleen errerealizazioa (eta horien barne Galian eta Iberian) eskema honen arabera gertatu zen:

<i>Latin klasikoa</i>	Latin arrunta
$\bar{i}$ $\bar{e}$ $\bar{o}$ $\bar{u}$ $\bar{i}$ $\bar{e}$ $\bar{o}$ $\bar{a}$ $\bar{a}$	i                                    u e                                    o e                                    o a

Gaztelanian latin arrunteko zazpi bokaletako sistema bostera murrizten da, e/o tonikeren diptongapena emanaz (berdin gertatzen da asturiar-leoneran, eta nafar-aragoieran). *Jungemann*-ek ongi dionez diptongapenak salbuespenak eduki zituen: “En castellano, e o del latin vulgar no se diptongaron delan-

(\*) Lan hau “Latina eta erromanikoaren eragina euskarari” tesi doktoralaren zati bat da, geroa Ed. *Sendoa*-n argitaratua izan dena. Lan hau Euskaltzaindiaren batzarrean 1982-ko Urriaren 29-an irakurria izan zen.

te de consonantes palatales; en esta posición confluyeron con e, o procedentes de ç o latino-vulgares: lectu cast. *lecho*, pero arag. *lieito*; folia cast. *hoja*, pero arag. *fuella*" (1).

Erromantzeetan bokaleen sortea, silaba aske ala trabatueta, desberdina izan zen; fenomeno hori gaztelaniaz, gogoratu dugunez, e/o azentudunen dip-tongapenez lotu dugu (pedem, portam = pIE, pUErta). Bestalde, bokale doi-nugabeek aldaketa fonetikoak sortu zituzten, batez ere, *yod*-aren ostean. Fenomeno hauek, beraz, bokale erromanikoen sailean aztertuko ditugu, erromantzeekin duten zerikusiatatik.

Izan ere, azentuaren posizioak bokale atzetoniken (eta batzutan silaba osoen) galketak sor ditzake, hitz esdruxola eta gainesdruxolen sorrera galera-ziaz, gutienez, mendebaleko erromantzeetan. Honela, latineko frax(i)nus esdruxolak erromantzeetan ondorio hauek izan zituen: gazt. *fresno*, fr. *frêne*, kat. *freisa*, prob. *fraise*.

*Sabeliko-osko* hizkeratik zetorren bokalismoak (eta kontutan izan min-tzaira horretako jendeek konkistatu zutela Hispaniaren zati bat) hitz baten barnean o bokale u formulan ixtea suposatu zuen (octuber *october* ordez). Gaztelanian latineko azken u bokalea o formulan ireki zen (suelO, cielO, mundO, higO); baina, ia eti, euskaran delako u hori eutsi egiten da (*zorU*, *zerU*, *mundU*, *fikU*), eta noizbehinkako o soluzioen aurrean (halanola, *sorO*, *fagO*, *solO*, *zikiriO*, *ikO*, etab.) u amaiera zaharragotzat jo behar da. O soluzioan erromantzearen eragina ikusi behar da. (Alabainan, kontutan izan latinaren substratu fonetikoari dagokionez, grekotik eta indoeuropearraren geruzatik datorren o delako hori u baino zaharragoa dela latin arkaikoan).

Espainia-ren barnean bokalismoak jokaera desberdinak edukiko ditu Gaztela, Aragoi, Katalunia etabarretako erromantzeetan (adibidez, *ai* e-ra eta *au* o-rako murrizketak, nolabait, mendebalde eta hegoalderago, hau da, Valentzia, Lusitania, Galizia, Toledo aldera ematen ez dena).

Latin arruntetik eratorriko erromantzeen mamidura fonetikoak (euskaratutako mailebutan zerikusi nabaria duenak) faktore fonematiko eta morfe-matiko berezi diren arazoetara begi zorrotzez jartzea eskatzen du.

Hemengo berezitasun nagusien artean nabarmengarria da latin arruntak azentuaren eta kantitatearen eremuan esdruxola edo proparoxitonoen ordez paroxitonoak erabiltzeko zuen joera. Honek zerikusia nabaria eduki du erromantze bidez gureganatutako mailebutan, eta hori guztia euskararen inguruko erromantzeen zehar, hau da, konkretuki, gaztelania, gaskoinera (okzitaniera orokorra), frantzesia eta nafar-aragoieraren bitartez (2).

(1) Cfr. La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones, 302 or.-Ikus gainera: R. Menéndez Pidal. Manual de gramática histórica española, par. 10,3 eta 13,3.

(2) Nafarroako erromantzearen ikerketarako, zehazki, ikus bibliografia hau (FLV 27(1977)413 ond.) F. González Ollé. Textos lingüísticos navarros. Pamplona 1970.-H. Viñes.

Esandakoa bokale atzetonikaren erorketagatik gertatu zen, *orla* or(u)-lam, *erregla* reg(u)lam, *tella* te(gu)lam, *berde* vir(i)dem kasuetan bezala, eta maiz, alboko erromantzeen eraginez.

Beste kasu batzutan, latinean bertan eman zen esdruxola azentutik azken-aurreko silabara lerradura (tōnitrum-etik tōnitrum-era, cōlubra-tik cōlubra-ra) eta hori atzetonikaren erorketak kontsonante pilaketarik sor ez zezan, *palbra* ala *colbra* hitzetan gisa.

Nabaria da erromantze batzuek (latin arruntak bezala) kontsonante pilaketak (CL, CLR, MN, MB bezalakoak) murrizteko joera dutela. Murrizketa hori nabarmena da *coloma* colomba (mb-m), *llamar* clamare (cl- 11 bustia) kasuetan. Euskarak, noski, horietako murrizketa aunitz bere joeraz egiten du, eta hori gardena da BR, FR, ND, NB gisako taldetan (liburu, ferekatu, manatu, txoloma, etab. adibidez). Gaztelanian, konkretuki *corónica* arkaismoa CR taldea anaptixiaz anulatzeko lehia da, gaurko *crónica* kultistaren ordeze.

Eraberean, latinean hiato bazterketak azentuaren lerraduragatik eman ziren, hau da, io-tik *ió*-ra igaroz (honela *filiolus*-etik *filiólus*-era, eta gaztelaniaz o = *ué hijuelo*, italieraz o = *uó figliuolo*).

Baita kontutan hartzekoa da aditzetan batez ere, azentuak intziditu zuen fenomeno morfematiko bat. Puntu honetan sintomagarria da azentuak aurrizkitik temara jasan zuen lerradura (corrimiento), euskaraz bereziki, aurrizkiaren erorketa ekarri baitzuen. Adibide garbiak dauzkagu hauetan; *txukatu* (e)xsucare-tik, *sendo* (e)xemptus-etik, *txertatu* (in)sertare-tik, *nūlatu* (an)nulare-tik.

Azentuari eta kantitateari dagokien fenomeno hauetan euskara ez da nagusiki ukitua ikusten; beraz, gure mintzairan azentuak, gehienetan, erromantzeetan baino bizidura edo intentsitate apalagoa du; hauetan, dudarik gabe, azentuari dagokiona latin arrunta eta erromantzeena da. Hori dela eta, mailebuetako bokale aurretoniko eta atzetonikoen erorketa egoera fonologikoen intzidentzia gisa interpretatu behar litzateke. Puntu honetan, saraitzuek (salacenco) eta erronkarierak (eta, nolabait, goi-nafarrerak ere) badute zerikusia, *abre* (abere-tik), *trintete* (trinitatem-etik), *tepla* (tipula-tik, lat. cepullam) kasuetan gertatzen denez.

Euskal Herriak (Zerdeña bezala), lur nagusi batean, eskualde nahiko aislatua delarik, hizkuntzan latin arkaismo fonetikoaren fenomeno bitxiak gor-

---

Manuscritos inéditos en romance navarro. Actas del XII Congr. Intern. de Lingüística y Filología Románicas. Bucarest 1971, t.2,71-91.—*J. M. Lacarra*. Un nuevo texto foral navarroaragonés. Homenaje a F. Indurain. Zaragoza 1972, 172-199.—*R. Ciérvide*. El romance navarro antiguo. (Resumen en FLV 2.269 ond.)—*IDEM*. Registro del Concejo de Olite (1224-1537). Pamplona 1974.—*M. A. Libano*. El romance navarro en los manuscritos del Fuero antiguo del Fuero General de Navarra. Pamplona 1977.

detzen ditu. Beraz euskal eta sardiniar bokalismoa mailebuetan arkaismo baten lekuko da.

Bokaleen murrizketa-sistemak (Balkanetan eta Zerdeñan gisa, kantitatearen goiz-galketagatik) gurea ere ukitzen zuen, halako bokalismo soil eta murriztu bat azaldu zelarik (hau da, bost bokale eta hiru irekierakoa, *ae/ē/ě-tik e-ra*, eta *ā/ā-tik a-ra* soilduaz). Latineko mailebuek desfonetizapenera makurtzen dira, euskararen sistema bokaliko soilago baten eraginagatik. Honek denak ondorioak izan zituen gaztelanian, inguruko erromantzeen artean, fonetikoki, bera baita euskararen hurbilena (3).

Eraberean, *i-tik e-rako* aldaketak (lat. *piperem*, it. *pepe*, prob. *pebre*, kat. *pebre*) etzuen ukitu gure mintzaira. Zerdeñako lugodoesak, berriz, *pibere* eman zuen, euskararen antzera, eta hori latin arkaismoaren zokoa zelako. Fenomeno berbera *picem* hitzaren kasuan (sardinieraz edo sardoaz *pighe*, gertatzean; euskaraz, berriz, *pike*; gaztelaniaz, ordea, *pEz*, bokale aldaketaz).

IV. mendea ezkeroz, kantitate edo kopuruaren desfonetizapena ia Erromania guztian gertatzen da, atzebokaleen irekiera-graduari garrantzi guti ematen zaiolarik, eta horrela *o* eta *o-ren/u* eta *u-ren* nahasketa areagotzen delarik.

### 1. Gaztelaniako bokale-sisteman euskal eragina

Euskararen aldameneko erromantze berezi batek bost bokale eta irekiera soila (hau da, erdialde eta aurreko *e* bokalea, eta aurrekaldeko irekiera tipia) edukitzea hizkuntzalari batzuentzat euskal substratuaren ondorioa izan da (izan ere, katalanera, frantsesa eta portugaleraren sistemak konplexuak baitira) (4).

Gamillscheg-ek uste duenez, euskarara igarotako mailebuak interesgarriak izan daitezke gotiko aurretiko lexiko *iberoerromanikoa* aztertzeko (5).

(3) Euskara beraren jatorriari dagokion arazo-ikuspegia ez galtzeko (hots, hemengo latin influxutik aparte eragina aztertzeko) ikus, arren, ikerketa hauek: *A. Tovar*. Estudios sobre las primitivas lenguas hispánicas.—*R. Lafon*. "L'état actuel du problème des origines de la langue basque", *EJ*, 1, (1947) 151-163.—*IDEM*. "Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiqnes", *Word* 7 eta 1.—*K. Bouda*. Baskisch-kaukasische etymologien. Heildelberg.

(4) Hemen hizkuntzalaritza erromanikoz halako bibliografia funtsezkoa eman nahi dugu, alderdi konkretuen osagarri gisa: *W. D. Elcock*. Eléments de linguistique romane. Paris 1956.—*C. Tagliavini*. Le origine delle lingue neolatine. Bologna 1969.—*B. E. Vidos*. Manuale de lingüística romanza. Florentzia 1959.—*R. Menéndez Pidal*. Manual de gramática histórica española. Madrid 1977.—*W. Meyer-Lübke*. Introducción a la lingüística románica. Madrid 1926.—*IDEM*. Grammaire des langues romanes, 4 ale. Paris.—*A. Badia*. Gramática histórica catalana. Barcelona 1959.—*G. Rohlf's*. Manual de filología hispánica. Bogotá 1957.—*Idem*. Romanisch Philologie, 4ale.—*H. Lausberg*. Lingüística románica. Madrid 1965.—*I. Jordan, M. Manoliu*. Manual de lingüística románica. Madrid 1972.

(5) Cfr. Romanen und Basken, 48 or.



Hegoaldetik gaztelania mende askoz euskararekin elkarbizitzen ari da; albokotasun geografiko horretaz gainera, penintsula-iparreko hizkera erromanikoek dependentzi fonetikoak dituzte, batez ere, mendialdeko ibarretan, zeinetan euskaldungoarekin harremanak baitzeuden. Merino Urrutia-k Errioxa Garaiko ibar zenbaiten euskal lexiko eta toponimi hondarrak nabarmendu ditu Birkonkistaldiko euskaldunak beste lurretara jaistean gaztelanian euskal geruzazko transparentzi fonetikoak utzi zituen. Mende batzuk geroago (bereziki XVI mendea ezkeroz) gaztelaniak —politik ofizialtasunez lagundurik —euskal lurralde tradizionaletan gainartu du, batez ere, Araba eta Nafarroako lurretan, nahiz-eta Nafarroa erdialdeko gaztelaniaketa (castellanización) nahiko berria izan (hau da, XVIII azkenaldekoa eta XIX mendekoa) (8). Gaztelaniatze prozedura horrek, tamalez, bere bidea aurrera darama, gure hizkuntza nazionalak etxean jasaten duen status diglosikoagatik (9).

## 2. Bokale soiltasuna eta eragin erromanikoa

Euskaran nabarmengarria gertatzen da bere bokale eta kontsonante soiltasuna (simplismo); lege horretatik kanpo, noski, asibilaketa eta bustidura errealezazioak (hots, ts/tz/tx, ñ/tt/dd kasuak). Baita aipagarria da talde kontsonantikoek (cl-tik *l*-ra, fr-tik *f*-ra, nd-tik *n*-ra, br-tik *r*-ra, adibidez) bokale anaptiktikoaren bidez eginiko anulaketa (hots, *lib(u)ru* liburu ordez, *f(o)rogatu* frogatu ordez, *k(e)leta* kleta ordez).

Bestalde, gure aurretonika eta atzetonika batzuen erorketak erromantzeen eragina isladatzen du (latin arruntean emandako kasu zehatzak kendurik, noski). Erorketa horiek euskarari kanpotik eraginagatik ematen dira, euskarak ez baitu doinu intentsitaterik, erromantzeen neurrian, normalean behintzat. Gainera, mailebu latino batzuek jatorrizko bokaleak ukigabe gordetzen dituzte *mukuru* lat. cumulum-etik, *murkila* lat. furcillam-etik, *apezpiku* grek. lat. episcopum-etik kasutan bezala, nahiz eta, maiz, metatesiak ere eman.

Baita aipagarria da azken bokaleen iraupena, txikidurazko sufijo edo atzizkietan (-ulu, -elu, -ila etab.), batez ere, ekialdeko euskalkietan. Azken bokalearen erorketa, maiz, *a* artikulua interpretapen oker baten ondorio daiteke, hegoaldeko euskalkietan, bereziki, gertatzen denez (hots, AN., B., G. euskalkietan); adibidez, *sakel* lat. saccellam, *upel*/lat. cupellam kasuetan.

Elementu horien erorketek, bai hitz barnean, bai hitz amaieran, inkorporapen beranta adierazten dute, dudarik gabe (*tella* te(gu)lam-etik, *ostatu*

(8) *Azkon* (Silv. Pouvreau). Nahiz-eta jatorri zahar eta iluntsukoa izan, gurera erromani-koatik sartua. Berceo-ren idazkietan present (Ikus *Corominas* DCELC 1,348). Beraz, gazt. zaharrean *ascona*. Covarrubias-ek "*azcona montera*". Katalaneraz ere *ascona*, *azcona*.

(9) Cfr. *J. N. Merino Urrutia*. El río Oja y su comarca. Logroño 1968.—IDEM. El vascoence en la Rioja y Burgos, San Sebastián 1862.—*P. Ormaetxebarria*. "Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos". *HomUrq.* 2,153-175.

hos(pi)tatum-etik bezala). Bukaerako hitzaren izaerari dagokionez euskaratutako mailebuek gaztelaniaren tankera tratatuaz parte hartzen dute, eta euskara LS, RS, NT soluzioetatik bereizten da, hau da, gaskoineran, probentzalean eta frantsesean normalak diren joeretatik. Hau guztia gure *arrunt, present, prest* gisako mailebuetan isladatzen da ongi (10).

## B) EUSKAL BOKALISMOA MAILEBU ERROMANIKOETAN

Euskarak, erromantze bidez sarturiko mailebuetan, latinak erromantzerako igarobidean jasandako aldaketak daramatza. Bestalde, gure hitzek gaskoin-biarnoerak, gaztelaniak, frantzesak, nafar-aragoierak dituzten berezitasunak ere isladatzen dituzte, noski. Latineko *au* diptongoaren iraupena, adibidez, gaskoineraren eragin -ezaugarria izanen da, eta berdin *ie-ue* diptongoei dagokienez gaztelaniarekiko (*huelga, suerte, siesta* kasutan bezala).

Askotan aitortu dugunez, euskal bokalismo aintzinakoena sardoaren tipologiakoa da, eta bestalde, ekialdeko Erromanian Probentza eta Iberoerromaniako berezitasunekin bat dator.

Beste zonaldean, Ipar Italian bezala, silaba aske eta tratatuaren portarea desberdina izanen da, beti ere latina beraren (baca eta bacca gisako) zalantzak kontutan edukirik.

Hona hemen estadio erromanikoko bokalismoaren eskema, euskararen egoera ere bertan ukitzen delarik:

LATIN klas. kantitatea	ī	ĩ	ē	ě	ā	ō	ū	ū
EUSKARAN	i		e		a	o		u
SARDOAN	i	ɛ	ɛ	a	ɔ	ɔ		u
GAZTELANIAN	i	e	ie	a	ue	o		u
FRANTZES MOD. trab.	i	e/ɛ		a	ô/ɔ			ü
PROBENTZALERAN	i	ɛ	ɛ	a	ɔ	ɔ	(ɣu)	ü

### 1. Bokalismo klasikora erreferentziak

Ekarritako adibidetan, dudarik gabe, bokalismoarik soilena sardoarena da, eta euskarazkoa berarekin biziki bat dator. Gaztelanian ere nabarmena da soiltasun antzekoa, bainan *ë* laburraren diptongapenean bereizketa garbia ematen da (festa = *fIEsta*, perna = *piERna*), eta berdin *ö* laburraren kasuan (dolum = *dUElo*, solum = *sUElo*) (11). Euskarari eta sardoari ez dagokie,

(10) Bokale-sudurkatzeari buruz *Baldinger*-ek (Gamillscheg-eri komentatuz) hau dio: "Gamillscheg ha demostrado, en un fundamental estudio de 1950, que en el área gall. port. de una parte, y en el área vasco-gasc. de otra, ha tenido lugar una nasalización solo *regresiva* que se da en la Galorromania". La formación de los dominios lingüísticos. Madrid 1962, 154 or.

(11) *Erregu* (ruego), eta *leku* (errom. zahar. *lucco* lat. locum) kasuetan diptongapenaren hondarra gelditu zaigu, lehenengo bokalea erortzean.

bestalde, artikulapen fenomenoak non izan zen, hots, silaba askean ala trabatuan. Adigarri da, eraberean, erromantze batzutan (sobreselbanoan, adibidez) i latino luzea *e* bokalean irekitzea (filia = *feglia*).

Orain, bada, konstata dezagun latin bokaleek inguruko erromantzeen zehar (edo bidez) ze jokabide hartu duten gureganatzean.

a) *Latin klasikoko ṛ luzea*

1) *Gaztelaniaren zehar*

Gaztelaniaren zehar euskarara etorritako hitzek ṛ luzea gordetzen dute, bai silaba askean eta bai silaba trabatuan.

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
insulam siricam rivum tinam	isla sirga (V. G. Diego, Dicc. 503) rio tina (V. G. Diego, Dicc. 1017)	irla BN., L. sirga B., G. errio G. tiña B., G.

2) *Frantsesaren zehar (12)*

<i>Latina</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Euskara</i>
syringam (REW 8504) medicinam caniculam	seringue mèdecin chenille	xiringa BN., L., S. bedezi S. xenila L. (sombbrero alto)

3) *Gaskoineraren zehar*

Hemen gaskoinera hitzaz, prezeski, Gaskoinia-ko hizkera edo erromantze tradizionala ulertzen dugu, eta euskarari dagokionez, berezikiago, biarnoera eta landesa; beraz, biarnoera (bearnés) BN. eta S. euskalkiekin harremanetan dago, eta laburdera (labortano), berriz, landesarekin. Euskalki horietan gaskoineararen eragina nagusia da, eta behar bada, frantsesarena baino handiagoa, euskara tradizionalan, behintzat.

Iparraldeko lurretan gure hizkuntzak mende askotan gaskoinerarekin muga geografiko egin du, beraz, frantsesa erreinu eta administraritzako hiz-

(12) Cfr. A. G. Handricourt eta A. C. Juillard. Esai pour une histoire structurale du phonétisme français. Paris 1943.—W. von Wartburg. Evolution et structure de la langue française. Berna 1946.



kuntza ofiziala solik baitzen IX. menderarte, gutienez, goian aipaturiko eskualdeetan (13).

Euskal Herriko hegoaldean, aitzitik, gaztelaniaren eragina aintzinagotik bortitza edo iraunkorragoa zen bitartean (bai herri hizkera mailan eta bai administraritza mailan), iparraldean, bestelaz, gaskoinera zen euskararen harremanetako hizkera egitazkoa, frantsesa eskolan eta administraritzan beranduago sarturik, eta zer esanik ez komunikabideetan. Hau dena zabalki isladatzen da ipar eta ekialdeko euskarari ditugun gaskoin mailebuetan.

<i>Latina</i>	<i>Gaskoinera</i>	<i>Euskara</i>
faginam	faschina biarn. zahar.	haxina BN.
peregrinum	pelegri (Palay 2,329)	pelegri S.
*sphingulam (REW 8154)	espingle	ixpilinga L. (alfiler)
claviculam	cabilhe (Lespy 1,138) (352)	kabila (Lhande)
tapitium	tapi	tapi BNZ.
periculum	perilh (Palay 2,339)	peril BN, L., S.
limum	lim (Lespy 2,26)	lime S.
superpelliceum	suerpelis	suerpeliza L.

### b) *Latin klasikoko i laburra*

Latin klasikoko i laburrak euskarari *i*-ren funtzioaz irauten du, gure bokalismoaren soiltasuna tarteko delarik; honetan, beraz, sardoarekin bat gatoz. Erromantze gehienek, batzuek silaba nahasi edo tratatuan, eta askean bestetuek, *i* hori *e* gisara artikulatzen dute (halanola, gaskoinerak, katalanar, gaztelaniak). Hona adibide batzuk. Lehenik silaba nahasian: lat. silvam

(13) Hona gaskoinerari buruz ikerketa batzuk: *A. Luchaire*. Etudes sur les idiomes pyrénéens de la région française.—*G. Rohlf*s. Le gascon. Etudes de philologie pyrénéenne.—*E. Bourciez*. “Les mots espagnols comparés aux mots gascons”. Bull. Hisp. 3(1901), 159-226 ond.—*W. D. Elcock*. De quelques affinités phonétiques entre l’aragonais et le bearnais. Paris 1938.—*J. Lemoine*. Toponymie du Languedoc et de la Gascogne. Paris 1975. *Serapio Mugika*-k “Los gascones en Guipúzcoa” (hom. Echegaray, 2-29) lanean, Gipuzkoan, gaskoinek izaniko presentzia nabarmetzen du, eta bereziki, Donostian, Hondarribian, Pasaian, etaba. gure Urgull, Higuier, Passaje, Beloca (Bell-loc), Monts-pas, Polloe, Montaut izenak lekuko direlarik. Gure ustetan gipuzkeran gaskoin itxura duen zenbat hitz (halanola: *ardit*, *polit*, *galant*, *ausart*, etab.) gaskoin kolonien bitartez etorria izan daiteke. Bestalde, ez ahaz frankoek (eta gaskoinek bereziki) zenbait hiritan merkatal presentzia eduki zutela, eta herri batzuetako foruak okzitaniaraz idatziak zeudela.

(14) *Kabilla* BN. hitzak “galga” eta “palo grueso y largo que atraviesa el eje de la rueda” adierazten du. AN., B., L., R. euskalkietan “tibia” adierazten du, eta “clavija” BN-an. Bere jatorri hurbilenekoa iparreko formulentzat *cabilhe* (Lespy 1,138) biarn. lat. claviculam-etik, Larrasque-ek ere proposatzen duenez. Hor atzetonikaren erorketa emango litzateke. Ez ahaz zubererako *khabela* aldagaia.

gazt. *selva*, kat. *selve*, it. *selva*. Lat. vir(i)dem gazt. *verde*, fr. *vert*, port. *verde*. Eta silaba askean: lat. piperem gazt. zahar. *pebre*, kat. *pebre*, it. *pepe*.

Kurioski, euskarak, sardoak gisa, latin klasikori zintzoki jarraitzen dio, aintzin itxura duten mailebuetan, behintzat. Adibidez, *piperem* hitzak i laburra gordetzen du euskaran (*piper*) eta sardoan (*pibere*). Zintzotasun antzekoa *pilum* hitzean: *bilo* (eusk.), *pilu* (sardoa); lat. picem: *bike* (eusk.), *pighe* (sardoa). Aitzitik, *e* soluzioa edo irtenbidea gaztelanian eta probentzaleran (*pEz/pEtz*).

Alderdi honetatik begiraturik, beste euskal hitzok, ordea, bokalismo berankorra edo erromanikoa isladatzen dute (hots, i laburraren ordeko *e* erromanikoa): *zEña* lat. signum, *fErm*o lat. firmum, *promEs* lat. promissam, *sedEla* lat. sedilium, *lEtera* lat. litteram, *zEruka* lat. siliquam, *bErme* lat. firmum, etab. Leizarragarengan fenomeno berdina *chrEsma* chrismam-etik, eta *prEmitia* primitiam-etik (nahiz-eta hemen aldaketa silaba eztonikoan gertatu).

### 1) Gaztelaniaren zehar

Gaztelaniak, bai silaba nahasian eta bai askean, "sistema italikoa" deitzen den bokalismoa aurkezten digu, *e* emanaz latineko i laburraren ordain. Hona gure adibide batzuk aipaturiko aldaketaz gaztelaniaren zehar:

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
vir(i)dem	verde	berde B., G.
siliquam	seluga (V.G. Diego, Dicc. 499)	zeruka B. (mata de alubias)
vicem	vez(ero)	bezero B. (cliente)
concilium	concejo	kontzeju B., G.
insigniam	enseña	entseña S.
gypsum	yelso (gazt. zahar.)	igeltsu B., G., L.
siccinam	cecina (V.G. Diego, Dicc. 175)	zezina AN.
absynthium	asencio (ajenjo)	asentsio B., G.
vitium	avezar (V.G. Diego Dic. 1054)	bezu B. (costumbre) (15)
briscam	bresca (REW 1309)	beraska BN.G. (panal de miel)

(15) *Bezatu* G. (acostumbrar), *bezi* B. (domar), *bezu* B. (costumbre). Aldagai guztiok gaztelaniaren mailebuak dira, jatorria gazt. *avezar* (acostumbrarse), *vezo* hitzetan dutelarik. *García Diego*-k (Dicc. 7227) gazt. *avezar* lat. vitiare-tik, *ty* taldearen asibilapenaz. Bestalde, gazt. zaharrean oso ezaguna *vecero*. Gurean *zebatu bezatu*-ren metatesia da. Ikus REW 9396, *Mitxelena* (Emerita 17,348). *Vecero* hitzaz "que ejerce por primera vez el cargo concejil" ikus *García Diego* (Dicc. 546 or.). Latineko *vicem* hitzak galdu egin du bere belarearen gogordura *bezero* kasuan (gaztelaniaren zehar), baina ez, kurioski, *viquea* (parte en la molienda) Arabako hitz zaharrean.

2) *Frantsesaren zehar*

Frantsean latineko *i* laburra, batzutan oi/ei formuletan irekitzen da (nivem = *neige*, piscem = Poivre (16))

<i>Latina</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Euskara</i>
capillum (17) triglam permittere vir(i)dem	chavel fr. zahar treille permettre vert	txapel BN. L.R.S. (sombbrero) treilla L. permetatuL. ferde BN.

3) *Gaskoineraren zehar*

Gaskoineran, batzutan, latineko *i* laburra ei diptongoan ireki daiteke (vitrum = *veyre*), probentzaleran bezala (*viere*).

<i>Latina</i>	<i>Gaskoinera</i>	<i>Euskara</i>
pediculum vitrum virgam minus	pedoulh (Lespy 2,138) beyre (Palay 1,145) bergue (Lespy 2,100) menhs (Lespy 2,62)	pedoil BN., L., S. (piojoso) beira AN.BN.L. (vidrio) (18) bergu S. (verga) mens BN. (imbécil, débil de espíritu)
pilam	pelhe (Lespy 2,141)	pella BN.

Okzitanieran, orokorki, *i* latinoaren irekiera berdina (e), *menux* BN. (casquivano) lat. minus (19). Beste kasu batzuk: *mespretxa* BN., L., S. biarn. mespresa (Lespy 2,67) lat. minuspreiare, *meskabatu* BN. S. biarn. mescap.

(16) Txikidurazko-ITTUS atzizki latinoa ere *e* formulari irekitzen da frantsesa eta gaskoinera gisako erromantzeetan, -ETTE/ET emanez. Fenomeno horren testigutzak euskarari: *kokeETA* BN., *goldalET s.*, *konkETA* AN., G., L., *kofalETA* (Oih.), *kubelETA* L., *kurtsETA* L., *KordelET* B.

(17) *Kapelu* AN., L. (boina), AN. (gorro de niño), dudarik gabe, *txapela* baino mailebu zaharra da, behelatiniko \**cappellum* batetik datorrelarik. *Kapela* B., G. (sombbrero) hitzak, berriz, lat. cappellam formulari (cappam-en diminutiboa) zintzokiago jarraitzen dio.

(18) *Behira* (Axul.), *beira* AN., L. (vidrio), *beirin* BN., L., *beire* BN. (copa). Wartburg-ek (FEW 14,569) gure *beira*-ren iturritzat *vêtre*, *béire* okzitanoa. Guretzat bere iturri hurbilekoena *bèyre* gask.-biarnoarra da (Lespy 1,105, Palay 1,145). *M. Agud* (Elementos de cultura, 124 ond.) iritzi berdinekoa.

(19) *Seska* AN., B., BN., G., L. (carrizo). Hitza erroz zeltikoa, bainan gurean erromantze bidez sartua, seguruenik. Gure formularentzat kontutan har gask. *seska*. Gaztelanian ere *sisca/jisca* hitza.

c) *Latin klasikoko ē luzea*

I luzearen kasuan bezala, latineko ē luzea euskaran ē laburrarekin nahasten da. Honetan ere sardoaren arkaismo egoera berdina isladatzen zai-gu; italieraren tipologia duten erromantzeetan, ordea, latin klasikoko ī laburra eta e luzea elkartu egiten dira. Latin arruntean bere kualitatea e zen, eta irtenbide hori gaskoineran, gaztelanian, frantsesean (ei/oi irekiera diptongalaz) eta probentzal-okzitanieran. Euskarak, berriz latinaren kantitatea eta sardoaren irekiera mailak (e/e) kontutan ez dituelarik, konplikapenik gabeko bokalismo soila darabil.

Inguruko erromantzeetako mailebu askotan (adibidez, frantseseko *e* irekia eta itxia kasuan) bokalismoa gure soiltasunera makurtzen da. Dena dela, gureganatutako mailebuetan erraza da detektatzea bokalismo berankor edo erromaniko hori. Bereziki, kontutan edukitzea da silabaren egoera (askean ala nahasian) frantsesaren eta probentzaleraren kasuan.

Kasu berezi bezala -ETA atzizkian latineko ē luzeak nola jokutzen duen dakargu (atzizki hori, dakigunez, gure *saraskETA*, *lizarrDETA*, *zumarrETA* toponimikoetan present dago, eta toponimiko hoiek latineko *salicETA*, *fraxinETA*, *ulmETA* formulen hurbilak dira).

latinean	-ETUM/ETA (pluralea) (fraxinETA)
euskaran	-ETA (lizarrETA)
sardoan	-EDU (arburEDU)
gaztelanian	-EDO/EDA (salcEDO/salcEDA, fresnEDA)
katalaneran	-EDA (freixEDA )
gaskoineran	-ET (fagET)
italieran	-ETO (frassinETO)

Paralelismo honetatik, nolabait, frantsesa aldentzen da, horzkaria (t/d) izkututzen baizaio, *oi/oie* ondorio diptongala aintzinako frantsesean emanez, eta *aie* modernoan (frĕnAIE, chĕnAIE).

1) *Gaztelaniaren zehar*

Gaztelanian, gehienetan, latin klasikoko ī laburra eta e luzea nahastu egin ohi dira (honela plenum = *llo*, consilium = *consejo*). Fenomeno berdina errumanierazko *kosellu* kasuan latineko *consilium*-ari dagokionez. Hona, bada, gaztelaniazko mailebu batzuk, jatorrizko latin klasikoaren ē luzeaz:

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
telam retem mercedem	tela red merced	tela B., G. errede (Landucci 181) mesede B., G.

2) *Frantsesaren zehar*

Posizio askean latineko e luzeak frantsesean ei diptongala ematen du, eta zonalde batzutan *e* latinoari ere eusten dio, ala bestela *ai/oi* formuletan askatzen da (lat. *cretam* fr. *craie*, lat. *velum* fr. *veile*, lat. *stelam* fr. *étoile*). Frantsesa modernoan, berriz, *ē* luzea, maiz, *ua/ie* formulatan askatzen da (20).

<i>Latina</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Euskara</i>
Flebilem renem	fèble rein	feble L. errain AN.BN.L.R.S. (riñones)

3) *Gaskoineraren zehar*

Gaskoinerak mendebaleko erromantze gehienen ibilbidea darama latineko e luzearen ordain *e* emanaz (lat. *stelam* = *estélo*, *feminam* = *hemno*). S. Palay-k ongi dionez, gaskoineraren herrialde batzutan sudurkariaren azalpenak e luzea *i* bokalean ixtera bultza lezake, nahiz-eta hori sekundarioki eman (lat. *venam* = *bio*, *catenam* = *cadio*) (21).

Erromaniko orokorraren eremuan (erromantze berezi bati atxiki gabe) hitz-mailebuok aipa daitezke: *sibi* L. lat. *sepiam* (*i*-zko itxiera hori, agian, gaztelaniazko *xibia*-ren eraginez), *zenda* S. lat. *sem(i)tam* (errom. *senda*, atzetonikaren erorketa eta sudurkari ondorengo horzkariaren ozenduraz), *serga* (Lhande) lat. *sericam* (prob. *serga*), *menta* BN., L. lat. *ven(di)tam* (errom. *venta*), *segeretu* (Lhande) lat. *secretum* (bainan latin arruntean bada *segretum* ere).

d) *Latin klasikoko ë laburra*

Latin klasikoko ë laburra bere hartan eusten da euskarari, nahiz-eta erromantze bakoitzaren arabera irekierazko kualitate desberdinak jasan. Gaztelaniazko mailebuei dagokienez ë laburraren kasuan *ie* diptongapena nahiko nabaria da (*terra* = *tIErra*, *festa* = *fIEsta*, *servus* = *sIErvo*) (22).

(20) Cfr. B. Malberg. "Observations sur le système vocalique français". Acta linguistica 2, 1940-41 urtea.—W. von Wartburg. La fragmentación lingüística de la Romania. Madrid 1952.—M. Krepinsky. Inflexión de las vocales en español. Madrid 1923.

(21) S. Palay. Dict. du béarnais et du gascon modernes, op. c. 1,280.

(22) Diptongapen erromanikoaz ikus besteen artean hauek: H. Deferrari. The phonology of Italian, Spanish and French. Washington 1954.—R. Menéndez Pidal. Orígenes del español. Madrid 1950.—G. Salvador. "La diptongación de o/e latinas y las cartas de un semianalfabeto", RFE X, XLI (1957), 418-425.—F. Schurr. "La posición del catalán en el conjunto de la diptongación románica", Actas del VI Congr. Intern. de Ling. Rom. I (1955), 151-163.

Jakina denez, euskarak bere sistema fonetikoan ez du onartzen diptongapenik hemengo kasutan, sardoaren tipologia antzekoa jarraiturik. Dena dela, gaztelaniazko mailebu oso beranduko batzuk (eta, nolabait, gaurko egoera diglosikoaren urraduragatik) diptongodun formulak ere igaro zaizkigu, *sUErte*, *sIEsta*, *mUEble* eta gisakoak. Honelako kasutan, ordea, urradura larririk ez duen euskaldunak monoptongapenera joko du, hau da, *zorte*, *moble*, *postu* formulatar. Frantseseko diptongapen kasuan *PIErres* (fr. *PIErre*); gaskoineran, ordea, diptongorik gabekoa (*Sent Per*, *Lespy* 2,33) (eusk. Senpere) (23).

### 1) *Gaztelaniaren zehar*

Esan dugunez gaztelaniak latineko *ě* laburrean diptongapena du, bai silaba nahasian eta bai askean; italierak, berriz, silaba askean bakarrik (pedem = *piEde*, petram = *piEtra*), berdin errumanieran (petram = *piEtra*, melem = *miEre*).

Kasu bakan batzutan ezik, tradizionalki behintzat, gaztelaniazko mailebuek euskaratzean diptongapena galtzen dute (honela *PIEnso* = *pEntsu*, *conciErto* = *kontzErtu*); beraz, prestamu horiek sardoaren tipologiazko *e/e* = *e* formulara makurtzen dira.

Gaztelanian *ae* latinoa diptongapenera makurtzen da, *ciEgo* caecum, *ciElo* caelum kasutan bezala. *Ei* diptongoaren *-i-* rako murrizketan (lat. presam *prIsa* (bainan *prIEsa* gazt. zaharrean), *silla* (sEilla-ren ordez) euskarak bide berbera jarraitu du, eta bestain-beste *-illo* (-ielo-ren ordezko) kasuan (24).

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
sextam premere respectum	sIEsta apremio respecto	siesta AN.,B.,G. premia AN.G.L. (necesidad) errespetu AN.,B.,G.

### 2) *Frantsesaren zehar*

Frantsesean latin klasikoko *ě* laburrak jokaera desberdina silaba nahasian ala askean. Aintzinako frantsesean *ě* laburra *ié* taldean ireki zen, eta

(23) *Iorgu Jordan*-ek dio: "Para algunos representantes de la lingüística estructural (A. Martinet, A. Juilland, A. Handricourt y H. Deferrari) la diptongación fue una reacción románica general contra la tendencia a confundir los fonemas vocálicos; esta tendencia fue resultado de aumento del número de oposiciones basadas en el grado de abertura". *Manual de lingüística románica*, t. 1, 140.

(24) *Landucci*-ren gisako hiztegi batean ez dira, noski, falta oso gaztelaniatutako formula diptongodunak, *desierto*, *cuebea* eta gisakoak. Esan beharrik ez dago, gure hizkuntzaren joera fonetiko orokorretan formula horiek sekundarioak direla.

modernoan, berriz, *ie/ie* formuletan silaba askean (ez oredea trabatuan edo nahasian). Honela: *PIErre* Petrum (eusk. *PIErres*), *piEd* pedem, *biEn* bene). Silaba nahasian, esan dugunez, ez dago diptongapenik (*sept* septem, *fête* festam, etab.).

Konstante hauek, nolabait, besterik gabe isladatzen dira euskaratutako mailebuetan, nahiz-eta gure monoptongapen joera present egon gehienetan.

<i>Latina</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Euskara</i>
rendere versum centum	rendre verset cent (ans)	errendatu breset S. (metatesiaz) zentan L. (viejete)

### 3) Gaskoineraren zehar

Gaskoinerak ez du ezagutzen *ě* laburraren diptongapenik, baldin -eta ez badago hitz haseran behintzat (eta hori, bai silaba askean, eta bai nahasi edo trabatuan). Honela: *yeira* hederam, *yste* essera (25). Baita sabaikari baten hurbilpenak diptongapena sor dezake (*mey* medium, *tièch* texere), baina ch/lh taldeek bultza diezaioke monoptongapenera *mélhou* melior kasuan bezala; ereberean, *u/o* bokaleen presentziak diptongoa sor dezake (*mieu* meum, *nieu* nivem) (26).

Kasu aunitzetan, ala ere, monoptongapena eusten da, probentzaleraren eskualdean bezala (*jen* gentem, *tens* tempus, *febre* febrem). *Theiu* S. euskal hitzak (lat. taedium) gaskoin-biarnoeraren diptongapenera makurtzen dela bide da, sabaikariaren presentziagatik.

<i>Latina</i>	<i>Gaskoinera</i>	<i>Euskara</i>
patellam cistellam persicam mantellum pullicellam reversum subvestem pedi(cam) sensum	padère (Lespy 2,118) cistère/xistère pesque (Lespy 2,152) mantech puncelot (Palay 2,410) rebers subveste (Lespy 2,2294) pci (Lespy 2.139) sen (Lespy 2,270)	padera AN.BN.G.L. (sartèn) xistera L.S. (cestilla/chistera) peska S. (melocotón) mantetx BN.,S. (mantel) puntzela (Lhande) (doncella) errebes (Lhande) (reverso) (27) subesta S. (chaleco) peia S. (galga de carro) sen B.,R. (juicio)

(25) Ikus *G. Rohlf's*. Le gascon op. c. 73-74 or.

(26) *G. Rohlf's*, Ibidem, 73 or.

(27) *Herrebes* S., *errenbes* S., *aldrebes* G. (revés, desfigurado). Denak mailebu erromani-koak; lehenengo biak biarnoeratik (ikus Lespy 2,222), eta hirugarrena gazt. *al revés*-etik. Löpeltmann-en etimologia fr. *revêche*-tik onartezina da (EWBS 330).

#### 4) Aragoieraren zehar

Aragoierak *ia* diptongoa latineko *ě* laburraren kasuetan, baina hori eskualde batzutan bakarrik. Honela, *batIEla* batellam-etik; beste batzutan *ia* *a*-ra murrizten da *sarra* kasuan gisa, lat. serram-etik. Gaztelaniaren alderantziz, -ellum atzizkia ez da soiltzen -*illo*-ra (castellum *castillo*), diptongoa eusten da baino -*ielo* formulan (corbellam *corbIElla*). Euskaran *ia* ez dugu hemen aipaturiko diptongorik duen maileburik.

Ondoren, beste batzutan bezala, diptongapenik ez duen hitz erromani-koen zerrenda damaigu. Zerrenda hau extratu edo geruza desberdinetakoa da: lat. errom *superbiam* *superbio* S., lat. errom. serbum *serbu*, lat. errom tabernam *taberna* c., lat.errom. premere *premesitu* (Lhande) (obligar), lat. errom. nescium *nexu* S. (ecio) (langedozianoz, berriz, *nescioun*; baliteke bere kutsua edukitzea gureak).

#### e) Latin klasikoko *ā/ă* bokaleak

Gure mailebuen maila latinoaz aztertzean *a*-ren bi motak gurean bat bakarrera etortzen zirela ikusi genuen.

Baita gure inguruko erromantzeek (gaztelaniak, gaskoinerak, aragoierak) *a* bat bakarra desarrolatu dute. Salbuespen bakarra aintzinako frantsesa da, *e* ematen baitu silaba asketan, eta bestalde, *e/e* (irekia eta itxia) frantsesa modernoan (*père patrem*, *mère matrem*).

#### 1) Gaztelaniaren zehar

*Gaztelaniak a* eusten du aldaketarik gabe, gureganatutako mailebuetan aise konstata daitekenez. Hala ere, *yod* baten presentziak (bere izaera nahastailagatik) aldaketak sor ditzake, -ARIUS/ARIA kasuan lehen bokalea ixtean -ERA-rako formulan bezala (gure lexikoan -ERA nabaria da *lantzadERA* (Lhande), *mangERA* G., *deztera* B., G. (piedra aguzadERA), *ehiera* L., S. hitzetan). Hala eta guztiz, euskaran latineko -ARIUS/ARIA kultuak gaztelanian baino gehiago irauten du -ARI formulapean (*gelARI*, *hermentARI*, *jokalarI* cellARIUM, ferramentARIUM, jocculARIUM-etik). Eraberean bokale aldaketa (a-tik e-rakoa) CT/AX taldeetan (lat. facturam *hechura*, eusk. *itxu-*ra**, lactealem *lechal* eusk. *netxale* BN., Sal. (muleto de seis meses).



<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
rabiem putealem	rabia pozal	arrabia G. bozal AN., G. (bomba para sacar agua)
lactealem	lechal	netxale BN., Sal. (muleto de seis meses)
pectoraalem	petral	petral AN., BN., G., L.R.S. (ventrera)
solacium	solaz (28)	solas AN., G. (conversación)

### 2) *Frantsesaren zehar*

Frantsesak portaera bikoitza latin klasikoko *a/ã*-ri dagokionez. Silaba nahasian *a* eutsi ohi du, baina askean *e*-ra ixten da (*père* patrem, *sel* salem, *mer* marem). Frantsesa modernoan, berriz, batzutan *ai* diptongoan askatzen da (clarum *clAIr*, rationem *rAIson*). Bere isladapena euskaran garbia da *plaiN* S. hitzean lat. planum-etik, frantsesaren zehar(*plain*). Kultismo batzutan, alabainan, bokalismo latinoa gorde daiteke aldaketarik gabe, *avare* avarum kasuan bezala. Diptongapenaren beste isladapen bat, agian, gure *plantaïn* BN., S. (llantén) hitza da lat. plantaginem-etik, eta baita, ausaz, *borraïña* R. hitza (lat. borraginem) (baina mailebu hau, itxuraz, aragoieratik sartu zai-gu).

### 3) *Gaskoineraren zehar*

Gaskoinerak, normalean, *a* latinoa gordetzen du. Honela, *amic* amicum, *dalha* da(cu)lum, *laxá* laxare. Ala ere, *a* bokaleak sabaikari aurrean diptongapena jasaten du (ai/ei), eta gaskoin eskualdeen araura, batzutan ere, *e*-ra murriz daiteke. Adibidez, miraculum *mirailh* (euskarara *mirail* BN., S. biarnoeratik), companiam *coumpay* (euskarara *konpai* (Lhande) eta *komai* L.), (mp taldea *m*-ra murriztuaz), magidam *méyt*, tab(u)latum/taulatam *taulet* (euskarara *tauleta*-Lhande).

Bestalde, ohar zaitez gaskoin-biarnoerako mailebuetan diptongapena gure bustiduragatik ere eman daitekeela (hau da, gaskoineraren eraginatik aparte), *gasaila* S. casal (Lespy 1,158), *sarrail* BN., S. sarralh, *gardainatu* S. cardegná kasuetan bezala.

Erromaniko zaharrenean, baita, sar daitezke beranduko latin arruntaren mailebu-hitze bereziak. Beraz, ohar hori kontutan edukirik (ezen-eta hemengo hitz batzuk azentua dela-eta erorketa dute latinean bertan) hona kasu batzuk:

(28) Goñafarreraz *jolas*-era disimilatzen da, *jolas* (conversar) solas-etik baidator, eta bestainbeste *divertirse* esanahiaz.

lat.errom. nova(cu)lam *nabala* L. (navaja) eta *labana* G. (metatesiaz), di(gi)-talem *ditare* (dedal), lat.errom. serrare *zerratu* AN.,B.,BN.,G.,L.,R., lat.e-rrrom. mirare *miatu* BN.,G. (escudriñar).

#### f) *Latin klasikoko ð laburra*

Euskaran (lan honetako maila latinoan ikusi zenez) o laburrak eta luzeak (ð/ō) korrespondentzi bat-bera dute, eta hori sardoaren tipologian, nahiz-eta irekiera gradua (o/o) bi hizkuntzetan guztiz berdina ez izan.

Euskaratutako mailebu erromanikoetan ð laburrak monoptongapenari eusten dio (eta honetan gaztelania berriro aldendu egiten da). Beraz, oso berriki gureganatutako hitz bakan batzuek *ue* gaztelaniazkoa dute, baina formula hori gehienetan *o*-ra berrekar behar litzateke (honela *fUEro*/foru-ra, *esfUERTzo*/esfOrtzu-ra, etab.).

Frantsesak, bere aldetik, silaba askean eta nahasian jokaera bereziak azaltzen ditu (o/o/ue); jokaera horiek euskaratutako mailebuetan isladatzen dira, baina irekieraren graduan intentsitate apalagoa dutelarik.

#### 1) *Gaztelaniaren zehar*

Gaztelania arkaikoenean ð laburra uó formulan diptongatu zen, gerora *ué* bilakatu zelarik. Honela aintzinako dokumentuetan *fUOrt* fuerte ordez, *fUOro* fuero ordez; bainan, gerora *ué* formula ezartzen da (hau da, portum *pUErto*, *focum* *fUEgo*), *frantsesaren* alderantziz (probam *preuve*), silaba askean eta nahasian diptongatzen duelarik. *K. Baldinger*-ek dio: "Mientras que la costa occidental (port.) no conoce en absoluto la diptongación, y la oriental (cat.) sólo diptonga, tal vez, ante y, está documentada la diptongación en leónés, castellano y navarro-aragonés ya en época muy temprana. El castellano antiguo con su centro en Burgos, resolvió rápidamente las vacilaciones entre uo, ua, ue, adoptando la fórmula ue" (29).

Euskararen inguruko erromantzeen artean gaztelania eta aragoiera dira honetan gehien intziditzen dutenak. Gaztelanian, batzutan, diptongapena murriztu ohi da sekundarioki; honela, gure *erregu* AN., B., G. hitzak *ue* primitiboa *e*-ra soiltzen du (*rUEgo/errEgu*). Antzeko fenomenoa *leku* (lat. *locum*) hitzean *UE* formulan diptongatutako erromantze batetik (*LUEku* *LEku* errom. *LUEco*) (30).

(29) *K. Baldinger*. La formación de los dominios lingüísticos en la península ibérica, 25 or.

(30) Cfr. *Dámaso Alonso*. La fragmentación fonética peninsular, 33-42 or.—*F. Schürr*. "La fragmentación iberorrománica", *Rev. Dial. y Trad. Pop.* VII (1951).—*IDEM*. "La diptongaison romane", *Rev. Ling. Rom.* XX (1956), 107-248.—*R. Menéndez Pidal*. Orígenes del español, par. 22-28.

Albokari eta dardakariaren (L/R) ondoren *ué* diptongoa *e*-ra murriztu zen gaztelanian, eta gureganatutako mailebuek fenomeno bera isladatzen dute (lat. colobram *culUEbra* zaharra, bainan *culEbra* modernoa). Baita sudurkari batek sor dezake diptongapena, honela *respOnde* respUEnde ordez, *cOnde cUEnde ordez* (aintzina emana), alabainan, *ez fUEnte* lat. fontem, *pUEnte* lat. pontem kasutan. *Yod* delakoak, bestalde, gerora aztertuko ditugun fenomenoak ere sortzen ditu.

Hona beste koadro bat gaztelaniazko diptongapenaren ordez latineko ò laburra euskarak eusten duelarik:

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
fOntem	fUEnte	aitapOnteko G. (padrino)
pOs(i)tum	pUEsto	pOstu B., G.
fORum	fUEro	fOru (Top. Forua Bizk.)
sOl(i)dam	(con)sUElda	zOlda AN., B.
sOlum	sUElo	sOlo B. (campo de siembra)
*cOvam	cUEva	kOba B., G.
mOlam	mUEla	mOla L.
cicOniam	cigUEña	zigOin BN., L., S.
spOndam (REW 8170)	espUEnda	ezpOnda BN., G., R., S. (talud)
hOstem	hUEste	Oste BN., L., S. (gentio, tropel)
rOtam	rUEda	errOta AN.B.BN.G.L.S. (31)
pORrum	pUErro	pORru c.
clOcam	clUEca	klOka AN., kolOka G.

Leizarragarengan, gainera, *enkOntratu*, agian fr. rencOntre-ren eraginez; baita *propOs* (*propUEsta*), bainan *perpAUsa* biarnoeraren *perpAUsatik*, eta Axular-engan *espOrtzu* (*esfUERzo*).

*ErrEgu* (*rUEgo*-tik) eta *LEku* (errom. LUEco-tik) kasuen gisako fenomeno bera *tentELO* hitzean, ausaz, *tontUElo* terminotik. Baita murrizketa berdina *sakOla* BN., R. (lat. sacUOlam) hitzean biarnoerako *sakOle*-tik (Lespy 2,250).

Bestalde, gaztelaniak gurean zuzenki eginiko eragintzat interpretatu behar da beste hitz-multzo hau: *sUErte B., G.* (*gazt. sUErte*) *zOrte* zahararren ordez, *hUELga*, *espUElalore* (Lhande) *gazt. espUEla*, *fUErte B., G. bOr-*

(31) Gure beste formula *arroda* L. da (hots, oklusibaren ozenduraz biarn. arrede). Zerrenda honetan ez dugu gure monoptongapena gaztelaniar diptongapenari baino kontrajarren; hauetako batzuk, noski, latin jatorrizkoak dira (*erota*, *ponte*, etab.). Beste monoptongapen kasu batzuk *pOrtu/pUERto*, *dOlu/dUElo*, *konpOrta* BN./compUErta, *Oste*/(des)pUEs lat. (p)ost.

*titz* (lat. *fOrtis*) ordez, *kaxUEla G. haxOla S.* (tartera de hierro con tres pies) ordez, *kUEbea* (Landucci) *kOba B., G.* ordez.

## 2) Frantsesaren zehar

Frantsesak silaba nahasian (eta aintzinako moldetan) ez du aldaketarik jasaten, *o*-ren irekiera graduan ezik; frantses modernoan, berriz, aldaketa *o/o*-ra doa. Silaba askean (libre), ala ere, frantses zaharrak *uo* formulan diptongatzen zuen, eta gero *ue*-ra disimilatzen etorri zen (lat. rotam fr. zahar. *ruode*, modernoan *roue*, lat. novum fr. mod. *neuf*).

Aldaketa bokaliko hauen inferentzia frantsesetik gureganatutako hitzetan nahiko urria da, ezen-eta gurean monoipongapen joera oso bizia baita, eta lege honek beste erromaniko diptongo kasutarako ere balio du.

## 3) Gaskoineraren zehar

Normalean latineko *o* laburrak gaskoineran irauin egiten du (*ort.* lat. hortum), eta baita amaieran ere (*só* lat. soror, *cor* lat. cor). Hala ere, sudurkariak sor dezake diptongapena, *spoumo* lat. spondam, *boume* (ekialdeko Landetan) lat. vomere hitzetan gisa. Kurioski, diptongapen berbera, bestalde, sudurkariaren aurrekaldean (*núbi* lat. novum, *mout* lat. mollem, *perpaus* (Palay 2,341) lat. propos(itum) (eusk. *perpausa*). Eraberean, Rohlfs-ek (32) *o* laburraren triptongapen kasuok dakarzki: *noueyt noctem*, *houélho* lat. foliam, *ouelhs* lat. oculos.

V fonema aurrean *o* laburra *a*-ra aldatzen da, ala *au* bilakatzen, *cáben* lat. covinum kasuan bezala. Gaskoineratik gureganatutako kasutan (latineko *o* laburrari begiratu gabe hemen) ez da ematen diptongapen erromanikoa eusteko joerarik. Hona kasu batzuk: *fOUnds* (Lespy 1,314) *funts AN., BN., L., S.* (fundamento), *tOUng tuhuña S., goudOUNhe* (Lepsy 1,340) *guduña S., bOURme* (bourmero, Palay 1,175) *bormu* (Oih.), *sOUIha* (Palay 2,531) *suil BN., G., L.* (herrada), etab.

## 4) Aragoieraren zehar

Aragoierak, gaskoinerak bezala, sabaikarien aurrean diptongatu ohi du. Euskarari dagokionez -OTZE atzizkia aipagarria gertatzen da (beraz, gaskoineraz -OS) aragoieraz -UES formularen diptongatzen baitu, honako kasutan euskara-aragoieraren mugan hori isladatzen delarik: SangOTZE/SangUESA, NabaskOTZE/NavascUES.

## g) Latin klasikoko *o* luzea

Latin klasikoko *o* luzea aldaketarik gabe eusten da. Euskararen aldame-neko erromantzeetan frantsesak jokaera bereziak aurkezten ditu, *o* luzea *ü*

(32) *G. Rohlfs. Le gascon op. c. 76 or.*

laburrarekin lotuaz. Gaztelanian *o* luzeak irauten du, nahiz-eta gero *ũ* labur hori *o* bokalean ireki (pUteum *pOzo*) eta nahastu.

Mailebu berankor edo erromanikoetan fenomeno hauek aise isladatzen dira. Mailebu zaharrenetan, berriz, ez dago nahasketarik edo tartekadurarik latineko *ũ* laburra eta *ō* luzearen artean.

### 1) *Gaztelaniaren zehar*

Gaztelanian *ō* luzea eusten da, gehienetan behintzat (totum *todo*), baina *yod*-aren presentziak *u*-ra aldeko lerradurak sor ditzake: (ciconiam *cigŪEña* (*zigoina* Lhande-rengan), copertoria *cobertUEra* (gazt. zaharrean). Vocem *vOz* kasuan, ordea, mantendu egiten da (eusk. *boza* B., G.).

### 2) *Frantsesaren zehar*

Frantsesak, beti bezala, gurea baino egitura bokaliko konplexuagoa dago. Berezitasun horiek hauek dira: silaba nahasian eta frantzes modernoan *o* (*u*) ematen du; silaba askean, berriz, *ou* (*eu*) modalitatea, gero *ō* laburrera, *ō* luzera eta *ũ* laburrera zabaltzen dena, hau da, *o/oo* gertatuz. *U eu*-aren monoptongapen ondorioa da, eta *o* bokaleak silaba askean *ou/au* formularen diptongatzen du. Adibide batzuk: votum *voeu*, litigiosum *litigieux*, florem *fleur* (33). ➤

### 3) *Gaskoineraren zehar*

Latineko *ō* luzeak (*ũ* laburrarekin batean) *ou*-rako diptongapen joera azaltzen du (florem *flou*, codam *coúo*). Sabaikariaren aurrean triptongoa ere gerta daiteke (*ouy/oue*). Honela: geniculum *jouelh*. Bestalde, -ARIUM latin atzizkiak murrizketak eta diptongapenak jasan ohi ditu, *oi/oui/oué* tipokoak.

Euskaratutako mailebuek (-ARIUM/ORIUM kasutan), maiz, -ERA-ko formula dute (*baxera* (34)) biarn. *bachère*, *manjatera* biarn. *manjatère* lat. *manducatorium*, *portadera* biarn. *pourtadere* lat. *portatorium*, *arrasera* gask. *arrasere* lat. *rasorium*, etab. (35).

Gaskoineraren eremutik kanpo aragoierak ere baditu *ō* luzearen *ue* diptongapenak (favonium *favueño*, eta gure *zerrollo*-k, nonbait, arag. *cerruello*-ren tankera dauka lat. \**cerruclum*-etik).

(33) Cfr. *H. Lausberg*. Lingüística románica, op. c. 250 ond.

(34) *Baxera* AN., G., S. (vasija de tierra), *batxera* AN., L. (vajilla). Bere iturririk hurbilena biarnoerako *bachère*. Lhande-ren *vase* etimologia ez da taxuzkoa. Ikus *Castro Guisasaola* Enigma 285, *Gavel RIEV* 12,176, *Mitxelena* BAP 10,376.

(35) -TORIUM atzizkiak (gure ustez-TURU/DURU *hobendURU*, *zordURU*-ren jatorria duenak) erromantze batzutan *ou* formularen diptongatzen du (adibidez, probentzaleran, okzitaniaran, etab. *pentsadouro*, *parladour*, *trovadour*). Gure -TURU/DURU atzizkia, dudarik gabe, zintzoago mantentzen da latin formularekiko.

Gaskoineraren eremua itzulirik, aipatzekoa da euskaran ere sudurkari eta sabaikari batek diptongapenak sor ditzakela, *arrazoin* lat. rationem, *sasoin* lat. sationem, *pedoil* lat. peduculum (gaskoinerako *pedouilh*-aren bitartez) kasuetan bezala.

-OSUS atzizkiak gaskoineran bi errealizazio dauzka, bat zaharragoa (OS-arena) eta bestea berriagoa (-OUS-arena), eta hori euskaratutako mailebuetan isladatzen da -OS/US formulapean (*malhurus* biarn. malhurous (Lespy 1,42), *amurus* biarn. amourous (Lespy 1,31), *penos* gask. penous (Palay 2.334), *desiros* gask. desirous (Palay 1,389), *glorios* gask. glorios, *jelos* gask. jelous, etab.) O luzearen beste kasu bat gaskoineran *espous* lat. sponsum litzake (eusk. *espos* Lhande-rengan).

-ITIONEM atzizki abstratuak o luzea eusten du gaztelaniatzko eta frantseseko eratorpen batzutan (adibidez, *pozoin* potionem-etik, *sasoin* sationem-etik), baina *u* formulan ahul daiteke gure -IZUN atzizkian, Galia hegoaldeko erromantzeen gisara (ikus Wartburg-en FEW lanean -ISSOUN/IZUN formulak). Kutsu bera agian gure -ASUN formulan (lat. -ATIONEM) (36).

#### h) *Latin klasikoko ũ laburra*

Lehenengo zatian ikusi genuenez, euskarak sardoarekin batera, ũ laburrari eusten dio, baina Italiako tipologia duten erromantzeek *o* formulan irekitzen dute. Gaztelaniak, besteen artean, elkarketa horren adibide gardenak presentatzen ditu: buccam *bOca*, puteum *pOzo*, furcam *hOrca* (euskarak, berriz: puteum *pUtzu*, furcam *Urka* AN., B., G.).

Hala ere, esan beharrekoa da euskarak zahar itxura duten mailebuetan ũ laburra mantentzen duela, beraz; halako inkorporapen beranta edo erromani-koa duen hitz aunitz dugu, alboko erromantzeen bitartez hartua. Adibidez honako hauek: surdus *sor* (probableki *sord* biarnoeratik (Lespy 2,290), pulverem *bolbora*, saburram *zaborra*, cultert *golde*, etab. (37).

#### 1) *Gaztelaniaren zehar*

Gaztelaniak aldaketa hori *o* bokalean mamintzen du, honako hitzotan inferitzen denez: *mOco* lat. mukum, *coscOjo* lat. cusculium, *hinOjo* lat. fenu-

(36) Honela rationem-etik *arrazu* S. (Lhande), gask. *rassou*, punctionem *puntxun* (Lhande), biarn. *pounxou* (Lespy 2,181).

(37) *Golde* aintzinakotzat interpreta daiteke, nahiz-eta *o* irekia eduki (beraz bokalismoa hori latin arruntean bertan hasia zen). Bestalde, Landucci-k dakarren *crOcea* formula erromani-koa da, dudarik gabe, *gurutze/kurutze* (lat. crucem) formularekin konparatzen badugu. Berdin, Axular-en *pOntu* formula, *puntu-ari* dagokionez. Alabainan *truntxu* B. hitzak *u* latinoa gordetzen du, gaztelaniatzko troncho-k ez bezala. Fenomeno bera *trunko* AN. kasuan lat. truncum hitzari dagokionez. Eraberean *tUpiña* BN., L./*tOpiña* B. alternantziak, batak aintzinasuna adierazten duelarik eta besteak berankortasuna.

culum, *cOpa* lat. *cuppam*. Alabaina, kasu batzutan *yod* dela-eta inflexioa gerta daiteke, gerora ikusiko dugunez.

<i>Latina</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
lumbum muttium (38) subtus cucutum	(so)lomo mocho soto cogote	solomo G. (V.G. Diego Dicc.) (506) (lomo) motz c. (corto de talla) soto AN.,G. (vestibulo) (39) kokote AN.,G., (pescuezo)

*Muztio* hitzaren kasuan AN. (*mosto* de sidra o vino) gurean *u* latinoa eutsi egiten da (lat. *mustidum*), baina gurera gazt. *mustioren* bitartez etor zitekeen (41).

## 2) Frantsesaren zehar

Latineko ù laburraren eboluzioa frantsesean o luzearen parekide doa; horregatik, lehen inguruko erromantzeetaz esana hemen ere balio du. Frantsetik gureganatutako mailebuek aipatutako aldaketa isladatzen dute, alabainan, berezitasun guztitan bokalismoa hartara makurtu gabe, gurea oso soila delako.

<i>Latina</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Euskara</i>
summam tumbam	somme tombe	soma (Lhande) (suma) tonba BN., L., S. (tumba)

## 3) Gaskoineraren zehar

Gaskoinerak latineko ù laburraren *ou* (eta baita *ouy/ouey* triptongala) korrespondentzia darama. *Geniculum jouéllh*, *tructam trouéto*, *fundum*

(38) *Multium* hitzak bokalea irekiaz aparte (ù laburra-rena noski) asibilapena jasan du. Honela *motz* (FEW 6, 301) dugu frantses zaharrean, *mocho bai* MOCHAR *gaztelanian*, *mous* Aveyron-en des Agian, gure *amuts* (romo) hitzak *motz* honekin badu zerikusia. (Errom. *musa*, *moussou*, *mauss* eta aurrizkiaz *esmouchá*, *émousard*). *Amuts* formulan, agian, haserako *a* hori aurrizkiaren hondarra da, eta *k kamuts* BN., L. bariantean sekundarioa. Cfr. *Wartburg* FEW, 6,301, eta *J. Corominas* DELC 3,3938. Izan daiteke ere hitz erdiexpresiboa.

(39) *Soto*, *sotho* BN., L., R. biarn. zahar. *sot*, *soto* (cave). Goinafarreraz eta gipuzkeraz *vestibulo/portal* adierazten du. Beraz, jatorriz erromanikoa garbiri.

(41) Gure *ontza* AN., B., G. (lechuza) ere erromanismo bat dela dirudi lat. (avis) *uncam*-etik (*unciam* ere bai). Hitza *uncus*-etik dator (gancho, garfio), *ontzak* kako edo gantxo baten antzeko mokoia baitu (lat. *uncia ora*). Gainera, vencejo *uncicula* (pequeño gancho)-tik, gazt. zaharrean *oncejo* zelarik.

*founds* (gure *funts* AN., BN., L., S. hemendik dator). Beste batzutan eutsi egin ohi da, *ùme* humidum, *yunto* junctum, *butre* vulturem kasuetan bezala.

Hona gaskoin eragina euskararen:

<i>Latina</i>	<i>Gaskoinera</i>	<i>Euskara</i>
veruculum (REW 9260)	barroulh (Palay 1,122)	barroil L./barrol S. (42) (cerrojo)
brustiam (germanismoa)	brouste (Palay 1,194)	brosta (Azkue) (seta de zarza)
cusculium	couscoulh	koxkoil L.
(rew 1344-2424)	(Palay 1,223)	(cascabel) (43)
curculio (REW 2414)	gorgoll (44)	korkoil BN., R. (gorgojo)
succurrere	socorre	sokorri Bn., L. (socorrer)
surdum	sord (Lespy 2,285)	sor BN., L., R. (sordo)

Hauetaz aparte, badira beste erromanismo batzuk, bokalismoa aztertu-rik erraz detektatzen direnak. Beste batzuen artean honako hauek adibidez: *gOlde* c. (arado) lat. culter, *onddo* AN., B., G., L. (hongo) lat. fungum, *ondo* c. (planta de árbol) lat. fundum (errom. *fondo/hondo*), *zahorra* AN., B., BN., G. lat. saburram (45), *kopor* G. errom. *copola* lat. cupulam (46); *sopeatu* AN. (hollar) lat. *subpeditare*. Bestalde, ohar zaitetz gure *zohi/zogi* AN. (tepe) hitzak, agian, azpian subtus formularen o irekia daukala, *zohi* horrek konposakeran *zot* ematen baitu (*zotzal* B., *zotarro* B., *zotondoko* G., *zotalautsi* AN., *zothal* BN., L., S.). Antzeko zerbait esan daiteke *lohi* (lodo) hitzaz deribazioan BN., L., S. (47); *lot* (lotin B. tierra húmeda) ematen duena, latineko lutum-aren (REW 5189) antza bizia baitu *lot* erromanikoan (48). Alabaina, hitz

(42) *Barroil*, *marroil* AN., L. *berroillo* B., *morroillo* B., G., *verroja* (Landucci). Lat. veruculum-en (REW 9260) eratorkin erromanikoa. Fr. *verou*, prob. *verrolh*. Beheko aldagaie-tarako kontutan eduki gazt. zaharreko *berrojo*, eta iparralderako gask. biarnoerako *barroulthe/bourroulthe* (Lespy 1,87 eta 122). Ikus *Corominas* DCELC 4,967.

(43) Gaztelaniak, ohi duenez, *coscoja* formula noski. *Koskol* G. barianteak “mazorca desgranada” eta “castaña huera” B., G. adierazten du. Bi hizkuntzetan, bada, bokalismo erro-manikoa (hots *o* ù laburraren ordez).

(44) Ikus *Wartburg*, FEW 3,1463. Euskararen hurbileko beste formula batzuk: kat. *cor-coll*, *gorgoll*, *gorgollon* (Arouerg), *gurgullo* (Loire), *gorgolu* (Ardèche).

(45) Latineko *saburram*-ek REW 7487 liburuan eratorpen erromaniko hauek: it. *savorra*, *zaborra*, log. *saorna*, prob. *saorra*, kat. *sorra*, port. *saburra*, gazt. zahar, *zahorra*. Baliteke gure *zaborra*, bada, Aragoi ala Gaztelako formularen batetik etortzea (gast. zahar. *zahorra*).

(46) Cfr. *M. Agud*. Elementos de cultura material en el País Vasco, 248 or.

(47) *Subtus* horren erresultatuak *Meyer-Lübke*-ren REW 8404 lanean gure *zot* konposatuaren ondoan sugerigarriak dira: *sot* friul, *sotz* kat., *soto* gazt. zahar., *soto* prob. Eta *substulus*-ek, berriz, formula hauek: *sotol* prob., *sot* Lion-go mintzairan. Baita ikus *V. García Diego*, Dicc. 999.

(48) *Lotin* B. (tierra húmeda) kasuan, agian, *lutum* latinoaren eratorpen bat aurki dezake-gu. *Lutum* delakoak erromantzeetan formula hauek: prob. *lot*, kat. *llo*, fr. zahar. *lut*, *lutz*. *Lohi*



hauek oraindik sakontzekotan daude, eta horregatik ez dugu ezer finkaturik aitortu nahi. Fenomeno antzekoak *sotil* B., BN., errom. *sotil* (gazt. zahar. *sotil*) hitzean lat. subtilis-etik (49). Mitxelena-k *lohi* hitza akitanierako *Lohixsus*, *Lohittan*-arekin parekatzen du, nolabait, lehen partean (50).

### i) *Latin klasikoko ū luzea*

Latineko u luzeak eta laburrak euskaran u bakar baten tratamendua du, lehenengo zatiko mailebuetan isladaturik gelditu zen bezala. Puntu honetan euskara, berriro, sardoarekin bat dator (eta kurioski errumanierarekin ere bai); cruce *cruce* eusk. *gurutze*, murum *mur* eusk. *murru*. Sardoan puteum *puttu* eusk. *putzu* (baina *pOzo* gaztelanian), nucem *nughe*.

Frantsesak, bai silaba nahasian eta bai askean, u latinoaren nortasuna itxirik gordetzen du (u/ü). U-ren berezkotasun horretatik gehien aldentzen den erromantzetako bat *vegliota* mintzaira da, silaba nahasietan o eta asketan oi ematen baitu. Honela: *mullia mola*, *culu col*, *uvam joiva* (diptongapenez, bustiduragatik).

#### 1) *Gaztelaniaren zehar*

Latineko u luzea aldagabe mantentzen da gaztelanian, eta ez du oztoporik aurkitzen euskarara igarotzean. Gaztelanian: lat. lunam *luna*, fumum *fumo/humo*, nubilum *nublo* (gazt. zahar.). Gurera etorritako mailebuetan u latinoak: *lutxo* BN. gazt. luzio lat. lucium, *luto* B., G. gazt. *luto* lat. lutum, *erruda* B., G., R. gazt. *ruda* lat. rutam (51). *Aiñu* B. (sombra) eta *año* G. (tizón de plantas), gure ustetan, gaztelaniazko *añublo*-tik (lat. nubilum), jatorrizko u luzea mantendurik. Etzaigu txuzkoa iruditzen *aiñu* laño-tik ekar-tzea, zuzenki behintzat.

Bestalde, -URAM atzizki latinoak erromantzetara pasatzean ū luzea gorde ohi du (eusk. *lotura*, *mindura*, *jostura*, *itxura*, etab.). Adibide garbi bat: lat. junctURAM gazt. *juntURA*, eusk. *lotURA*.

---

(lodo) hitzak konposakeran *lot* formula hartzen du itxuraz. *Lotin*-en etimologian, bada, baliteke *lot* erroa eta -IN atzizkia ematea (berdIN, urdIN eta horietan ematen dena). Ikus *Wartburg FEW 5,477*, *Corominas DCELC 3,126*. Baina Mitxelenak akitanierako *Lohixsus*, *Lohitan* gogarazten digu. "De onomástica aquitana", *Prineos 10,436*.

(49) *Tobera* B. (tolva), R. (fuelle de fragua) *tubum* hitzaren formula batetik datorrela bide du, agian, *tubellam* diminutibaletik, bainan gurean ez-geminatua ematen duelarik 11 r gaskoin gisako influentziaz (cistellam *xistère*). *Tobera* hitzaren oztopo etimologiko eta semantikoetaz ikus *M. Agud*-en Elementos de cultura material en el País Vasco, 355 ond.

(50) Cfr. L. Mitxelena "De onomástica aquitana", *Prineos 10,436*.

(51) *Lerdo* B. (tonto) hitzean eraginak gaztelaniarena dirudi (lerdo), baina bietan jatorrizko u luzea aldatuta (hots, lat. lur(i)dum). Antzeko aldaketak irekieraz beste erromantze batzutan: *lort* fr. zahar., *lourd* fr. mod., *lort* prob. zahar., *lerdo* port. Cfr. *REW 5176*.

## 2) Gaskoinearen zehar

Aintzinako *ou* ozena (ū luzea latinean) *u*-ra igaro da gaskoineraren bariante gehienetan. Sekundarioki, sabaikariaren aurrean triptongapena sor daiteke *e* baten tartekaduraz (rugitum *arrouet*) (52). Hitz hori, ordea, erdi-expresiboa ere izan daiteke gure *orro*-aren AN., BN., G., L., S. antzera, eta agian, gureagatik inluitua ere bai.

Seguraski, jatorri erromanikoa duten hitzetan (hau da, latinoa baino beranduago-etan, *u* luzea gordetzen da *mentura* BN., L. errom ventura, *mutxi* BN., (mohoso) lat. mucceum, *zigur* B., G. lat. securum, *umi* BN., L., S. lat. humidum, hitzetan, agian, eragin erdikultistaz.

Hemen, bestalde, aipatzekoa da sudurkariaren aurrean ū luzea dipton-goan ireki daitekeela (adibidez, *fuin* L./*muin* BN./*muiñ* AN., G., L. (tuétano, meollo) lat. funem-etik). Euskaran sudurkari aurrean diptongapena nahiko sarritakoa da, *mailebu* erromaniko hauetan bezala: *arrazoi* (53) (razón) lat. rationem, *pozoin* (lat. potionem, errom. *ponzoña*), *lantzoi* (gazt. lanzón), *sasoi* (lat. sationem, errom. saisson/sazón).

Haserako diptongapen sekundarioen ahozkapenak euskaran, nolabait, antzeko fenomenoak fonetismo maila hauetan: *ietorri* etorri ordez, *iekusi* ikusi ordez, *iekarri* ekarri ordez.

## 2. Kontsonante batzuren eragina bokalismoan

Kontsonante batzuek (*yod* sabaikariak eta belare batzuek) aldaketak sor ditzake aurre eta atzebokaleetan. Fenomeno hauek mailetu erromaniko aunitzenak dira, erromantzeen fonetika bera kontutan hartutik. Honela *yod*-en eragin fonetiko nahastailea garrantzitsua bilakatzen da, eta hori, bereziki, gaztelaniatik gureganatutako lexikoan isladatzen da. Berdin esan daiteke gaskoineraz, nahiz-eta neurri apalagoan gertatu.

### a) Sabaikarien eragina inportaturiko hitzetan

Atal honetan, konkretuki, erromaniko itxura duten hitzetan sabaikari batzuek bokalismoan edukiriko desarroiloa aztertuko dugu. Gaztelaniar jato-

(52) Cfr. *G. Rohlfs*. Le gascon op. c., 79 or.

(53) *Arrazoi* B., G., *arrazoe* AN., *arrazoin* BN., L., *arrazu* S. (razón). Lat. rationem hitzaren eratorrin erromanikoak. -ONEM bukaerak gurean -OI, -OE -OIN formulak dauzka. *Unamuno*-k (ZRP 17,141), *Vinson*-ek (La Langue Basque 15) eta *Castro Guisasa*-k (enigma 141,242) latinetik ekartzen dute zuzenki, baina hori ez da egitazkoa. Guretzat *arrazoi* G. formula gazt. razón-etik dator; berdin *arrazoe* AN.; eta *arrazu* S., berriz, biarnerako *rasou/arrasou* iturritik (Lespy I, 49), eta *arrazoin*, seguraski, fr. *raison*-etik ala bere albokoetatik.

rrizko mailebuetan eragin hori nagusia izanen da, eta apalagoa, nolabait, gazkoineran eta frantsesean.

### 1) *Gaztelaniaren eragina*

*Yod* sabaikaria erdikontsonantetzat har daiteke, eta bere ondorioak alboko bokaletan nabaritzen dira. *Yod* horrek, batzutan, bokalekontsonanteen erorketa jasan zuen haseran (sartaginem sarta(y)na); euskaran ere erori izan ohi da *g* belarea (*maizter* magister, *zaina* saginam, *maiz* magis/mais). Baita azal daiteke talde kontsonantikoaren bokaleztapenagatik (*fayty* factum ordez/ch = *yt* tipokoa).

Gaztelanian *yod*-aren eraginez zazpi bokale azentudunetatik laura igarotzen da: *e* (a/e-tik), *o* (o-tik) eta *u* (o/u-tik).

Gaztelaniazko mailebuek aldaketa bokalikoak dituzte; halanola: *itxura* hechura-tik, *ustantza* (-ENCIA-tik, bainan -ANZA erromanikoaren bitartez: *holganza*, *mudanza*), *lantzadera* (lat. -ARIA-tik, bainan -ERA erromanikoaren zehar), *kontseilu* (-EILU erromanikoa -ILIUM latinotik), etab.

*Bezu* B. (costumbre) mailebuak latineko *ty* taldearen asibilapena du. Berdin -ITIA atzizki latinoaren kasuan erromantzean -EZA gertatzen delarik (horra hor gure *minatium* meatxu, *fortiare* bortxatu, *saetatum* setatxu). Gaztelanian aipaturiko prozedura garden justITIA *justEZA*, *firmITIA* *firmEZA*, *franquITIA* *franquEZA* hitzetan. Gure ustetan, probableki -TZA antzizki abstraktua (*ez-TZA kolektiboa*) *maisutZA*, *erregetZA* (-*realEZA* gazt.-gisako hitzetan ematen dena) erromanikoa da jatorriz. Asibilapenezko fenomeno berbera, bada, *ty* taldean -ENTZA kasuan -ANZA erromanikoaren zehar, gure -ANTZA atzizkian (euskaraz *ustANTZA*, *akhabANTZA*, *olgANTZA*, gazt. bonANZA, holgANZA, confiANZA, etab.).

Erromanikoaren eremuan, eraberean, asibilapena *kapitxale* BN., S. (morriolo del hogar) lat. capitialem, *baltzu* B. (balsa) lat. balteum, *ontza* AN., B., G. (lechuza) lat. unciam (avis unciam)-etik.

Ly taldean gaztelaniazko mailebu hauek: *kontzeju* B., G. (lat concilium gazt. concejo), *tailu* (Azkue)/*taiu* B. (manera, talle) (lat. taliare), eta *taju* (54) (gazt. tajo) belariztapen prozeduraz. Hemen bokale irekia e/a formularen inflexionatu da; *a* bokalea o/e baino gehiago oposatzen da.

Latineko *ny* eta *gn* latinoak ñ bustia damate (*señale* signalem, gazt. *señal*). Gy, dy, ty taldeen *yod* delakoak y ematen du (radium gazt. *rayo*, eusk. *arraio*, podialem gazt. *poyal* eusk. *poial* B. eta latineko modium-ek eusk. *moyu*). Latineko fodina (REW 3402a) kasuan euskaran dy taldea (*odi* Oih., S.), gaztelaniaz, ordez, inflexioa: *hoya*.

(54) *Taxu* AN. (cálculo), dudarik gabe, *tailu* G. (talle) eta *taju* G./*taiu* B. (traza, porte) aldaiaekin erlazionatzen da. Bere jatorria *taliare* latin-erromanikoan. Fonetikaz bizkaierako *taiu* gipuzkerako *taju* baino aintzinagokoa da, eztarketa edo guturalizatorik ez duelako.

Ct. x. taldeetan *yod* berak ch/x eta j belarea ere gaztelanian (textum *techo*, lectum *lecho*); gertakizun fonetikoa hau ere isladatzen da euskaratutako hitzetan: *itxura* gazt. hechura (lat. facturam), *probetxu* gazt. provecho (lat. profectum; *profeytu* S. barianteak Galia hegoaldeko erromantzeen planteamendua du, biarnoeraz, adibidez, profeytar (Lespy 2,197). Gaztelania modernoan x fonema belarizatu ohi da, eta gertaera fonetiko horren alternantzia nabarmena gurean ere bikoitz hauetan: *axola*/ajola, *kexa*/keja, *taxu*/taju, *muxika*/mujika (lat. persicam), *xara*/jara, etab. (Eta bere eragina *Ellexalde*/Elejalde, *Leissarreta*/Lejarreta, *Urrexola*/Urrejola, *gaiso*/gajo kasuetan).

C'l kasuan asibilapen garbia *trontzo* (lat. trunc(u)lum gazt. tronzo/trozo) hitzean; alabainan, *truntxu* bariantean eutsi egiten da latineko bokalis-moa.

*Yod*-ek bokaleetan edukitzen duen zerikusia aipagarria da -ERA/ERO atzizki erromanikoetan ere (lat. -ARIA/ARIUS eta -TORIUM/TORIA -manducatoriam/manjatera). -ERA atzizkia oparo ematen da euskaran, bereziki, tresna eta gailuen eremuan (adibidez, *lantzadERA* (Lhande), *eztERA* AN., B., BN., L., *ehiERA* L., S., *pozadERA* B., G. (aljibe), *bokadERA* (gast. mocadera), etab.). -ERA/ERO kasuan haserako *a*-ren inflexio garbia dago (ferrARIUM herrERO). Itxura gure ustez gaztelaniazko mailebua da, eta bertan *ct* aurreko *a* latinoaren inflexioa eman da (*e* gaztelaniaz, *hechura*). Inflexio berbera baita aragoieran, gaskoineran eta frantsesean. Honela, *manjatera* BN., S. (pesebre) lat. manducatorium-etik biarnoerako *manjaterè*-tik (Palay 2.196).

Ikusi genuenez, latin klasikoko *ë* laburra silaba tonikoetan diptongatu ohi zen, eta diptongapen horrek makurketa bat adierazten zuen urratu edo erosionatutako hitzetan (adibidez, fiesta *fiesta* ordez, ala siesta (gast. siesta) lat. *sextam*-etik.). Eraberean, gaztelaniaren ondorio nahastailatzat jo behar da *ei* taldea *i*-ra murriztea *ë* laburraren kasuan (*silla* siella arkaikoaren ordez, bainan guk *zela* (silla de caballo) lat. sellam-etik, eta *gastelu* lat. castellum-etik).

Kurioski, ry/ty taldeen aurrean *ē* luzeak *i*-ra inflexionatzen du gaztelaniar mailebu batzutan (halanola, *zirio* gazt. cirio lat. cereum, *xibi* gazt. xibia/-jibia lat. sepiam).

Latineko *ö* laburra gaztelanian lehenik *uó* formulan diptongatu zen eta gerora *ué*-ra etorri (*fuoro/fuero*). *Ue* formulek gurean suposatzen duten errosioz edo urraduraz mintzatuak gara.

*Yod* delakoak, bestalde, gaztelanian *ö* laburraren diptongapena galarazten du. Honela podialem gazt. *poyal* eusk. *poial*, foliam gazt. *haja*. Berdin ct/x-aren kasuan, pectoralem gazt. zahar. *petral* eusk. *petral* AN., G., L. (cincha ventrera) kasuan bezela.

U luze eta laburraren kasuan, berriz, gaztelanian *o*, jadanik ikusia denez (puteum *pOzo*, lutum *lOdo*), baina batzutan gorde daiteke kultismoz bullam *bula* (eusk. *bulda*) hitzean bezala (gast. arruntean, ordea, *bolla*).

## 2) Gaskoineraren eragina

Talde berezi batzuk direla-eta ikusiak ditugu bokale-aldaketa batzuk, halanola diptongapenak, *nuet noctem*, *luello lolium*, greu *gravis* kasutan. Diptongapen bera isladatuta euskarari lat. *solium* eusk. *suil* BN., L. (herrada) gask. *soulh*-etik (Palay 2,52), lat. *veruculum barroil* S. biarnoeraz *barroulh* (Lespy 1,87).

Aipatzekoa da ere (gaztelanian bezala) *a* latinoaren *e* formulazko inflexioa -ERE kasuan (honela eusk. *padera* gask. *padère* (Palay 2,295), *baxera* gask. *bachère* (Palay 1,106), *tiradera* gask. *tiradère* (Palay, 2,582) (eta gazt. zah. *tiradera*).

-ARIA-ren kasu berezian euskal -ERA/AIRA alternantzia *kondera/kondaira*, *galdera/galdaira*, *mintzera/mintzaira* hitzetan. Baliteke -AIRA hori -ARIA-ren molde metatizatua izatea -AIRU -ARIUM-ena den bezala (*mortairu*, *diharu* *moretarium*, *denarium*). Bainan ez da baztertzekoa ere ry aurretiko diptongapen baten hipotesia.

Bestalde, -TORIUM atzizki latinoak ondorio diptongalak dauzka gaskoineran, -OIRO/OUIR/OIR emanaz. Ty taldeak -ATIO/ATIONEM kasuan asibilapena dakar (potionem *posou/pwizu* (55), factionem *fatssou*, eta gainera, *o* luzearen itxiera *u* formulari. Gaztelanian talde berak asibilapena: -AZON (*armationem armAZON*, *ligationem ligAZON*).

## 3) Aragoieraren eragina

Aragoiera sabaikariaren presentziak o/e latinoak diptongaraz ditzake. Honela: *fuella* foliam. *güello* oc(u)lum, *pueyo* podium. Gure *teila/tella*-k c. (teja) aragoierazko mailebua dirudi (ikus *M. Alvar*. Dialecto Arag. 192 or.), eta berdin *mailu*-ak AN., BN., Sal. S. (arag. *mallo*) 1 bustiaren euspenagatik (lat. *malleum*), 11 latinoa euskaratzean, normalki, soildu egiten baita (*castellum gaztelu*, *vascellum maskelu*).

Dy, ny kasutan *yod* delakoak diptongapena suposatzen du, eta T'L taldean berdin (*viello* lat. *vet(u)lum*). Gure *peitu* BN. (lat. (de)fectum), *profeitu* S. (lat. profectum) aragoiera eta erromaniko orokorraren tipologiakoak dira (*deito* lat. *dictum*, *peito* pectum).

## 4) Frantsesaren eragina

Frantsesak ie/uo/ue gisako diptongapen biziak hitz hauen arabera: *vieul* *vet(u)-lum*, *feuille* foliam, *ueil* (oeil) oc(u)lum (56).

(55) Cfr. *Von Wartburg*. FEW 9,255.

(56) Cfr. *H. Lausberg*. Lingüística, II part.

-ARIUS atzizkia, konkretuki -ER/IER formulán askatzen da (-eta gaskoineran ere -ER moduloan). Hortik datozte gure *faltsulER*, *trufalER*, *mezuIER*, etab. Bere ordaina gaztelaniaz -ERO (gurean sartu delarik *gezurtERO*, *alondERO*, *zurрутERO* kasuetan); formula kultua frantsesez -ARIE (*vicarie*) da. -ARI euskal ordaina gurean normalagoa da (*cellarium gelARI*, *ferramentarium hermentARI*, *consiliarium kontseilARI*).

Frantseseko diptongapen kasuak, euskarán isladatuak, hauetxek: *xoin* S. fr. *choine*, *errein* (Lhande) (57) fr. *rein* (lat. *renem*). Frantsez modernoan e + i formulak *ua* (e) eman du eta o + i-k *ua* (e). Honela, *tectum teit* (*toit*), *directum dreit* (*droit*), *dor(mi)-torium dortoír*, etab.

Frantseseko c<sup>e/1</sup>, g<sup>e/1</sup> taldeak, lei/loi (legem), rei/roi (regem) gisakoek, ez dute ia inferentziarik euskarán. A askearen eragina ie/ié taldean bilakatuta *moiana* (Lhande) fr. *moyen* (lat. *medianam*) kasuan. Gaztelaniako mailebu, den *jera* B. hitzak (acogida) diptongapen-bide berdina (fr. *xeire*, *jira/jeira* gazt.) (58). Geroago, ie e-ra murriztu zen, infinitiboetan azaltzen denez (portare *porter*, cantare *chanter*, etab.).

#### b) Beste eragin kontsonantikoak bokalismoan

Fenomeno zenbaiten artean honako hauek aipa daitezke. Gaztelania n + 1 taldeak o eman du, (eta hori euskarara iritsitako mailebu dextentetan isladatzen da). Frantsesean hori nabarmenagoa da a + 1 taldeak *au* ematen delarik (albam *aube*, altarem *autel*, saltare *sauter*, altanum *autan*). Zuberoko *obeta* (serenada) hitzak aipaturiko murrizketa albam/*aube*-tik (59).

-ELLUM atzizkiak, berriz, aintzinako frantsesean -EL (*cappellum chaBEL*, *castellum chatEL*) duen bitartean, modernoan -EAU (*chapEAU*, *chatEAU*). Esan beharrik ez euskarak latinari hurbilago zaion formula gordetzen duela, hots, -EL (*txapEL* BN., L., R., S., *txapitela* AN., BN., R.).

Frantseseko mailebu batzuk, izkutuki, sudurkatzea dukete sudurkari aurretiko bokaletan, grafian, batzutan, a bilakatzen delarik. Honela *zantore* S. fr. *centaurée* (Bot.), eta *santan* (Lhande) fr. *cent ans* (anciano). Adierazia dugunez, sudurkatzeak gaskoineran eta frantsesean uki ditzake aurreko

(57) *Erraiñ* AN., L., S., *errein* L. (riñones). Gure *errein* L. eta lat. *renem* (riñón) artean, dudarik gabe, hurbiltasun nabaria. Koerlazio hori aipatua ikusten dugu *Garcia Diego* (Dic. 206) eta *Castro Guisasa*-rengan (Enigma 220). Mailebua, ordea, erromanikoa edo beranta da. Gaskoin-frantsesaren eremuan ondorio hauek: *rein* fr. *arrée*, *arrègne*, *rée* gask.

(58) Cfr. *Corominas* DCELC jira, 2, 1060. *Luis Michelena*. BAP 11, 297.

(59) *Oto* (gazt. zahar.) *alto* hitzetik beste murrizketa kasu bat. Hortik *otear* edo-eta "mirar desde lo alto". *Otan* L. (brújula) *altus/altanus*-en deribatua, gurera Frantzia hegoaldeko erromantzeren baten bidez etorria (biarnoeraz *autâ*, langed. *autan*, prob, eta fr. *autan*). Ikus *Wartburg* FEW 1, 76.

bokaleak beste hauetan bezala: *arrazú* biarn. *rassou* (61) (lat. rationem), *phuntzu* gask. pwesû (62) (lat. punctionem).

### 3. Diptongapena

Latineko diptongapenak erromantzeetan oihartzun desberdinak eduki ditu. Euskaran latineko *au* hori gorde egin zen, ikusi genuenez, aintzinako egitura zuten hitzetan (halanola: *lauza* lat. lausam, *gauza* lat. causam, *autuno* B. lat. autumnum, *laudatu* lat. laudare (hitz kultista). *Au* hori, ordea, erromantze bidez ere igaro zaigu zenbait kasutan (adibidez, *ausart* (okzitanieratik, lat. ausum), *auka* arag. *auca* lat. aucam).

Eskematikoki erromantze batzuen ondorio diptongalak hauek dira:

e	ie (tIErra (hIEr	terram heri)
o	ue (pUErto eu (fEUille	portum foliam)
	eta silaba nahasian:	
	oi/ui (noit (nuit	noctem noctem)
e	ei/oi (IEI IOI	legem legem)

#### a) *au* diptongoa

Erromantzeen eremuan gaskoinerak gordetzen du gehien *au* diptongoa, bai hitz kultutan eta bai arruntetan. Honela: *lauda* lat. laudare, *taure* lat. taurum. Beste batzutan diptongo bera euskarara transmititu du: *gaudimen* BN., L. (lat. cautionem), *ausart* AN., BN., G., L., S. lat. ausum (seguruago gaskoin-okzitanieratik) (63).

Gainera badira *au* sekundarioak kontsonante artekoaren erorketarik: *taula* gask. *taula* BN., L. (bainan latin arruntean, jadanik, murrizketa beraz *tabulam/taulam*), *tauleta* BN., L. (anaquel) gask. *taulet*, *pauma* gask. paum (FEM 8,83) lat. pavonem (REW 6313). Gaztelaniazko mailebuek, noski, ez dute horrelako diptongorik. Probentzalerak ere eusten du (*taur* taurum, *cauza* causam). Batzutan *o* soilaren diptongapena gerta daiteke (*perpausa* kasuan propos(itum) -etik gaskoineraren zehar (Palay 2,341, *perpaus*); *pau-*

(61) Cfr. *Wartburg* FEW 10,105.

(62) Cfr. *Wartburg* FEW 9,583.

(63) *Wartburg*-engan (FEW 1,184) honako ondorio hurbil hauek: *auzar(t)* prob. zahar., *ausart* biarn., *ausar* loch., *äusa* prob. mod. *üza* Vizc., *ausar* lim. Orain pentsatzen dugu, probablekiago, *ausart* biarnoeratik sartu zaigula.

*bre* (biarn. *paubre*) hitzean ere gorde egiten da latineko diptongoa (lat. *paupe-rem*).

Bestalde *au* latinoaren monoptongapena gure *hori* (amarillo) terminoan, *aureum*-aren deribatua delarik, seguraski. Hemendik *oriflama* (rojo y amarillo) hitza. *Aurea* izen propioak Errioxan *Santa Oria* formula, eta lehenago gure *Orendain* (Gipuzk. eta Naf.) antroponimikoa Aurentiani-tik, Caro Baroja eta gure iritzian. (Baina, Gaskoinan diptongapenik ez AURENSAN (65). Gure *okil* B., G. (pájaro carpintero) ere, esan genuenez, talde berdinekoa *aucellam/aucillam*-etik bere jatorri latinoan onartzen baldin bada.

Bestalde, atal honetan aipatzekoa da a + 1-ren *au* diptongala, batez ere, frantsesean (*sauter saltare, saltare, autel* altarem, *autre* alterum, *haut* altum).

#### 4. Beste ondorioak

Eraberean CT talde latinoak ui/ei diptongapenak eman ditzate erromantzeetan; honela *profeytar* gask. lat. profectum (eusk. *profeytu*), *fruit* fr. lat. fructum, *deitu* errom. lat. dictum (eusk. *deitu* B., G./*deithu* BN., S., Sal.), *zitu* AN., L. (fruto, cosecha) lat. sectum (65), *peitu* BN. (carencia) lat. (de)fectum.

Baita kontutan hartzekoak dira sabaikariek eta txistukari batzuek, bai mailabu latinoetan eta bai erromanikoetan, sorturiko diptongapen sekundarioak. Halanola: *elEiza* lat. ecclesiam, *lElñu* lat. lineam/lineum.

Gaztelaniatzko mailebuetan (eta arabiarretan ere gaztelaniaren zehar) euskal *oa* formula *ua*-ren ordain (algualcil *agoazil*, cuadro *koadro*, cuaderno *koaderno*, guardia *goardia*). *Oa*-ren irtenbidea gaskoineran ere (adibidez, *goastatu* (Lhande) biarn, *goastá, goaita, lekua* errom. legua). *Gorde* kasuan, ordea, murrizketa (guardar).

Baita normala da -ON atzizkiak ondorio diptogalak edukitzea, -OI gisa-koak (balón *balOI*, jubón *jipOI* G., botón *botOI*, sazón *sasOI*, facon *fazOI*n (Lhande), poison fr. *pozOI*n BN., L., savon fr. *xabOI*n).

Latin maile-buen maila berezian bokalearteko sudurkariaren erorketagatik diptongapen sekundario; honela *freu* frenum-etik, *faun* vanum-etik, eta geroago *ilbain* B. filum-vanum-etik (errom. *hilvanar, hilván*).

(64) Latineko *Font Aureus*-aren irtenbidea Leon-go toponimian *Fontoria* izan zen, eta Santander-ekoan *Ontoria* (*aureus* = oria). Beraz, "horiak" urre kolorea du. Gaztelaniatz orinegro (amarillo-negro). Ikus FEW 1,178.

(65) Beraz, *uzta* ebaketaren (mies) ideiak oso ondo, latineko *sectum* delakoak "cortado" adierazten duelarik. Mitxelena-rekin pentsatzen dugu, bada, gure *zitu* sectum-aren formula erromaniko bat dela (hau da, *ei=i*). Ikus FHV, 106 or.



## 5. Bokale doinugabeak

Orain bokale doinugabeen irtenbide bereziak aztertuko ditugu. Azentuaren iraupenak ondorioak eduki ohi ditu alboko bokaleen zonaldetan; beraz, silaba tonikoaren biziduragatik aurretoniken eta, batez ere, atzetoniken erortetak sortzen dira.

Azentugabeko bokaleen galera euskaran, jeneralean, erromantzeetan baino apalagoa da, hau da, leunagoa. Hitzaren unitate bokalikoak eustea da gure joera fonetikoa, baina gurean ere badira euskalki batzuk, zeinetan, azentua dela-eta, bokale galketak sortzen direnak, adibidez, saraitzueran (sallacenco), erronkarian eta goi-nafarreran (nahiz-eta azkeneko honetan gutiago). Adibidez, hauetan: *tenpra* lat. tempora-tik, *tepla* lat. cepullam-etik, *abra* lat. habere-tik. Fenomeno hau aztertua izan zen gorago.

Gaztelanian azentu-ezak azken bokaleak hirura (a/e/o) murriztu zituen, eta hitz-haserran eta barrenean, berriz, zazpitik bostera (a/e/i/o/u) (66).

Gehienetan erdiko silabak azkenekoak baino finkamen gutiago dauka, eta haserakoak, berriz, erdikoak baino biziago.

Beraz, elementu doinugabeek silaba tonikoari euspen biziago bat itsaste-ko eginkizuna dute; hori dela-eta desitxuratu eta izkutatu ere egin daitezke. Hiru posizioetan murrizketa zabalki ematen da erromantzeetan, eta, noski, gurera gaztelania, gaskoinera, frantsesa ala aragoieratik etorritako mailebuek fenomeno hori isladatzen dute aise. Irtenbide antzekoak ikusi genituen mailebu zahar edo latinoetan *ad-*, *ex-*, *in-* kasuko aurrizkien erorketan (*xukatu*) (ex)succare-tik (REW 3073), *sendo* (e)xemptum-etik, *txertatu* (in)sertare-tik (402b). Baina fenomeno bera hitz barnera ere hedatu zen aurretonika eta atzetonikaren erorketa latin arruntean bertan hasi zenean, halanola ma(cu)lam, reg(u)lam, sol(i)dam, tor(cu)lare kasutan. Horregatik gaitza da zehaz zertzea murrizketa erromaniko estadiokoa ala latinekkoa den jakitea.

Ikus dezagun, bada, orain bokale doinugabeen portaera hitzaren egoera edo posizio desberdinetan.

### a) Haserako bokaleak

Haserako bokaleak, normalki, azkenekoak eta erdikoak baino tinkoago eusten dira, beraz, esan dugunez, iraunkorragoak baitira. Sustrai erromani-

(66) R. Lapesa-k ongi dio: "En los romances occidentales el ritmo del lenguaje tiende a concentrar la fuerza espiratoria en la vocal acentuada, detrás de la cual no suelen tolerar más de una sílaba. En consecuencia, ha desaparecido o se ha reducido mucho la acentuación dactílica. En cambio, los romances orientales conservan gran número de esdrújulos". Historia de la lengua española, 61 or.

koa duten hitzotan nabaria da: *akatu* gazt. aca(bar), *asmatu* gazt. zahar. asmar (lat. ad(aesti)mare), *amoina* (Lhande) fr. aumône (grek. lat. e(le)mo(si)-nam).

Alabaina galdu egin da *limosna* B., C. gazt. limosna eta *botika* kasuan (errom. botica/botiga grek. lat. apothecam). Baita, euskaran aurrizkiak erraz eror daitezke.

### 1) Berezitasun batzuk

Ondoren haserako bokaleari dagozkion berezitasun fonetiko batzuk:

aa) Gehienetan haserako *a* labur/luzeak eutsi egin ohi dira (*azienda* hacienda, *asentzio* asensio (ajenjo), *alai* (alegre) gazt. *alhaja*, *sarro* arag. sarro (berdin gazt. zaharrean).

bb) Latineko *e* luze/laburrak (ē/ě) eta *i* laburra ia ez dira erortzen. Kasu batzuk: *txerkatu* BN., L., S. fr. *chercher* (lat. circare), *zimentu* errom. *cemento* (lat. caementum), *leial* gazt. *leal* (lat. le(g)alem). Euspen berdina haserako asimilapen bokalikoetan: *mirizina* errom. medicina, *sugur* BN. errom. segur (lat. securum).

cc) Latin klasikoko *i* luzea oztopo handirik gabe eusten da mailebu erromanikoetan: *ziutate* errom. ciudade (lat. civitatem), *erripera* BN., errom. ribera (lat. riparium).

dd) Haserako *o* labur/luzeak eta *ũ* laburra ere gehienetan eutsi egin ohi dira (sor BN., L., R. errom. *sord*, *sor* (lat. surdum), *soberna* BN. errom. *sober(a)na* (lat. superna).

ee) Latineko *u* luzea, ere, estuasun handirik gabe mantentzen da (*juzkatu* errom. juzgar (lat. iudicare), *lumera* G., L. (grasa de pescado) gazt. zahar. lumnera/lumera (lat. luminaria) (67).

ff) Aurrizki kasu hauetan, behintzat, gorde egin da: *enkante* (Lhande) (68) errom. encante (lat. in quantum), *aloger* B., G. (salario) errom. aloger (lat. adlocarium), *asmatu* (69) gazt. zahar. *asmar* (lat. ad-aestimare) (70).

(67) Cfr. *Luis Mitxelena*. BAP 9,558. R. *Menéndez Pidal*. Orígenes del español, 166 or.

(68) *Enkante* BN. (subasta, almoneda). Erromanismo honen jatorrian lat. "in quantum", adierazi dugunez. Gure formulak biarnoerako *encant*, *encan* (Lespy 1,256) hitzekin loturan.

(69) *Asmatu* AN., G., *asmau* B. (inventar, barruntar), *asmo* B., G. (invención, pretensión), *asmu* BN., B., G., L., S. (pensamiento, invención). Iturri erromanikoa (asmar) lat. *ad-aestimare/a(d)(e)s(t)mare*-tik. Iritzi horretakoak: *Schuchardt* Bask. und Rom. 53, *Unamuno* ZRPh 17, *García Diego* Dicc. 123, *Castro Guisasola* Enigma 69. Aipatzekoa gazt. zaharreko *asmar*, Berceo-ren idatzietan present dagoena.

(70) *Amorratu* AN., G., *amorrazio* B., G. (rabiari, rabia). *Mitxelena*-k lat. *abhorre* etimologia proposatzen du (BAP 10,377). Guk nahiago *abhorre* aditzaren eratorkin *erromani*-ko bat.

Alabaina, adierazia dugunez, normalena aurrizkia erortzea da, jadanik aipatutakoei erants hauek: *tharritatu* BN. gask. *tarrítá* (Lespy 2.306) lat. (in)teritare, *setiatu* BN., L., S. gask. *setiá* lat. (ad)sediare, *nūlatu* errom. fr. *annuller* (lat. (an)nullare, *suntsitu* BN., L., errom. arag. *sunsido* lat. (con)sumpsi. Eta aurrizkien eremutik kanpo lehen bokalearen erorketok: *txantilloi* B. gatz. escantillón, *txolota* BN., L., S. fr. *échalotte*. etab.

## 2) Disimilapen bokalikoak eta beste kasu batzuk

Lehen bokalean disimilapen bokalikoak konprobagarria gertatzen da erromanikoaren zehar gureganatutako hitzotan: *letxu* gatz. lechuga (lat. lactucam), hots, *a* bokaletik *e*-ra, *serora* biarn. seror (Palay 2,278) (lat. sororam), hau da, *o*-tik *e*-ra, *itxura* gatz. hechura, *a*-tik *i*-ra *e*-tik igaroz. Frantsesean, batez ere, sudurkari aurrean silaba nahasian *i* *e*-ra igaro daiteke, gure *eneatu/enoiatu* (71) fr. *ennuyer* (lat. *inodiare*) kasuan bezala.

Baita erorketa bokalikoak kontsonantea gehi dardarkari kasuan: *dretxa* S. (seguraski. gatz. derecha-tik). Bestalde, gogora latin arruntean *directu* ordezko *drectu* bat egon zela delako erorketaz.

## b) Bokale aurretonikoak eta tartekoak

Latineko barren bokale aurretonikoak euskara, gehienetan, mendebaleko erromantzeetara baino finkamen biziagoz igarotzen dira. Tankera zaharra duten hitzetan bokale horiek italieran, sardoan eta ekialdeko beste erromantzeetan eutsi ohi dira. Honela, *moderatu* lat. moderare, *pietate* (Leiz. kultismoa) pietatem, *maledikatu* maledicere, *benedikatu* BN., L., S. (72) benedicere.

Alabaina, alboko erromantzeetatik etorri zaizkigun hitzetan aurretonika eta tartekoaren erorketa nahiko normala da. Honela, *sunsunatu* fr. soupçonner, *tella* c. arag. *tella* (lat. te(gu)llam), *manjatera* gask. man(du)catoriam).

Aurretonika aunitz latin arruntean bertan erortzen hasten da, eta hori delarik gaitza da ongi zertzea erorketa latin arruntarena, ala lehen erromanikoarena ote den. Kasu horien artean sar daitezke hauek: *dithare* BN., L., S. lat. di(gi)talem (dedal), *dolare* AN., L. lat. dor(cu)larem, *soldata* Lat. sol(i)da-

(71) *Enoiatu* AN., *enehatu* BN. (aburrirse), *enaitu* (cansarse). Larrasquet-ek *enoiatu/eneatu* taldea frantzeseko *ennuyer*-ekin elkartzen du. Hurbilagoak zaizkigun biarn. *enuiá* eta prob. *enoiar* ez dira ahaztekoak. Horiek denak, noski, lat. *inodiare*-ren eratorkinak dira. Bestalde, gaztelaniazko *enojo/enojar* etimologia berdinetik dator. Ikus *Mitxelena* FHV 307, *Bouda* Eusko Jakintza 4,333.

(72) *Bedeinkatu* B., G., *benedikatu* BN., L., S. (Lhande) (bendecir). Latineko benedicere-tik, belare aintzinakoaren euspenaz. *Bedeinkatu* formulari *metatesia* ematen da. Ikus *Meyer-Lübke* RIEV 15,219, *Rohlf's* RIEV 24,332, *Mitxelena* FHV 360, etab.

tam, *dastatu* BN., L. (73) tax(i)tare (prob. *dastar*, biarn. *tastá* (Lespy 2.307), *enpheltatu* S. (74) lat. impell(i)tare (prob. *empeltar*), *umildade* lat. humil(i)tatem. *Pontzela* kasuan eraginak gask.-biarnoerarena dirudi (*puncele* FEW 9,525) lat. pull(i)cellam, eta *fasegatu* kasuan erromanikoarena *pacegar* (lat. paci(fi)care).

Aurretonikaren erorketaz gaztelaniatik eta erromanikoatik (orokorki hartuta) guregana etorriak ugari dira. Hona hemen batzuk: *ondratu* G. gazt. honrar lat. hon(o)rare, *aztor* BN., L. errom. *azor/aztor* lat. ac(ep)tor, *kutixia* G. gazt. zahar. *cobditia* lat. cu(pi)ditiam, *petral* AN., BN., G., L., R. (ventrera) gazt. *petral* lat. pect(o)ralem, *bataiatu* (75) gazt. zahar. *bataiar* lat. bap(id)iare, *amasea* AN., G. (artesa) gazt. amas(ad)era.

*Perlesi* G. kasuan azentuaren lerradura, itxuraz, parálisis-etik *paralís*-era (*gutierrez* gaurko azentuari begiratuta); horregatik, gurean eta gazt. zaharrean *perlesia*, lat. par(al)lirim.

Beste batzutan alternantzia hitz kultu eta arrunta artean aurretonikaren galketaz, honako hauen gisara: *seglar* (lat. sec(u)larem) orde, *labratu labo-ratu* L. lat. lab(o)rare orde, *tilet* L. gask. tilhet (Palay 2,579) lat. *tit(u)lum* orde. Euskara, noski, ez da permeagaitza alternantzia hauetara, aipaturiko adibide erromanikoen araura.

Delako joerak Leizarraga batean nahiko nabarmenak dira, adibidez, *zena*, *peskatore*, *exprimitu*, *abundant* eta horrelakoetan (gure *afaria*, *arrantzale*, *adierazi*, *ugari* baztertuaz).

Bestalde -ENTZIA eta -ANTZA, -ARIA eta -ERA, -IZIA eta -TZA kultu-arruntaren alternantziaren esanplu dira, jatorria latin-erromaniko aintzina-koaren ala erromantze berankorrarena delarik. Gaztelaniaz nabaria alternantzia hori justICIA/justEZA, pigrICIA/perEZA kasutan, eta euskaran alegANTZA/alegrANTZIA, tristEZA/tristEZIA formuletan.

(73) *Dastatu* BN., L. (probar), *txestatu* R., Sal. (gustar, probar). *Dastatu*-rentzat \*lat. taxitare-ren deribatu erromanikoak (*Schuchardt* Bask. und Rom. 305). *Meyer-Lübke*-k \*tastare proposatzen du (REW 8595). Guretzat formula hurbilekoena *tastá* gaskoia (*Palay* 2,562 eta *Lespy* 2,307). Gaztelania zaharrean, bestalde, *tastar* aintzinako bat. *Aztatu* (palpar) AN., G., L. formularen etimologia garbia gure *atz* (dedo) hitzean dago, bainan, agian, *dastatu* erromanikoaren nahasmen batez; beraz, *Haraneder*-ek "probar"-en semantika damaio.

(74) *Enpheltatu* S. (injertar), *enphéltat* (Larrasquet) (injertar). Hitz (erromanikoaren zehar) lat. \*impeltaretik. *Meyer-Lübke*-k hurbileko gisa *empeltar* prob., *empelt* kat. aipatzen ditu. Ez ahaz gazt. zahar. *empeltar*. Noski, gure formularako goiko erromantzeetan, hots, Galiako erromantzeetan, arakatu behar da (*empeltar*, *empelté*, etab.). Aragoieraz ere *empeltre*. Ikus FEW 5,583 ond. Gaskoineraz, logikoa denez, 1+t taldean diptongatu egiten da, hau da, *empeutá* ematen (*Lespy* 2,254).

(75) Ikus *García Diego* Dicc. 918.

c) *Barneko bokale atzetonikoak*

Barneko bokale atzetonikoak edo proparoxitonoak orain arteko ahulena dira. Latin arruntean erorjoera bizia, jadanik, vir(i)dem errom. *verde*, lur(i)dum errom. *lorde/lerdo*, cal(i)dum errom. *caldo*, dom(i)ne errom. *domne* (eusk. *done*), dom(i)na errom. *domna/dona* (eusk. *dona*. *Donamaria* top.).

Bi joeren bikoiztasuna, hau da, atzetonikaren iraupen galketa fenomenoa euskal hiztegiaren erraz konstata daiteke hitz-inkorporapenaren aroari begiraturik. Honela, *xingola* BN., L., S., Sal. *zingla* (biarn. *singla*) baino zaharragoa da, atzetonika (lat. *cingulam*) gordetzen duelako.

Dena dela, latinean joera bizia eman zen galketara C'L, T'L kasuetan, *veclum* vec(u)lum ordez, *masclum* masc(u)lum ordez, *coplam* cop(u)lam ordez. Kontutan edukirik latin-erromanikoaren jatorria zehazki zertzea, aunitzetan, oso zaila dela, hona atzetonika eroria duen hitz-zerrenda; goran aipaturiko arrazoinagatik hemengo hitz zenbat lehen emana izan da latin atalaren mailan:

*Domeka* B. lat. dom(ni)cam, *done* c. lat. dom(i)ne, *kunte* lat. com(i)tem (seguraski jadanik *dona* erromanikoa lat. dom(i)na, *postu* lat. pos(i)tum (hau ere bai, zihurrenik, erromanikoa), *errenta* lat. ren(di)tam (errom. renta), *probestu* lat. praepos(i)tum (seguraski erromanikoa, metatesi bokalikoz), *poblu* (Lhande) lat. pop(u)lum (erromanikoa, oklusiva ozenagatik), *burin* AN., G. (natilla) probableki lat. bu(ty)rum-etik erromantze bateren bidez (fr. *beurre*, prob. *buire*, gask. *burri* (Palay, 1.199) eta azentuaren aurrekaldeko lerraduraz *perlesi* kasuan bezala), *erregla* lat. reg(u)lam (erromanikoaren bidez), *nabala* lat. nova(cu)lam (erromanikoa), *onil* (76) funilum (erromanikoaren zehar, gazt. zahar. *fonil*, prob. *fonilh*), *pirla* AN., BN., G. (bolo) lat. pir(u)lam, *lama* B., G. (cierta pieza de hierro) lat. lam(i)nam (erromantze bidez, seguraski), *mullo* AN., BN., G. lat. mu(tu)lum (baita erromaniko bidez), *malla* BN., R., S. (mancha de la retina) lat. ma(cu)lam (erromaniko bidez, zihurrena arag. *malla*-tik), *sarro* BN., R. lat. sa(bu)rram (erromanikoaren zehar, gazt. zahar. -arag. sarro, prob. saorra), *ispillu* B., G. (espejo) lat. spe(cu)lum (erromaniko bidez, seguraski, arag. *espillo*).

Ondoren, itxuraz beranduagoko diren mailebuak emanen ditugu, bere berezitasun fonetikoak aztertuz gero.

a) *Frantsesetik: lebrauska* S. fr. *lièvre* + *uska* (diminutibala) lat. lep(o)rem, *sable* BN., L., S. fr. *sable* lat. sab(u)lam, *orladura* fr. orlure (lat. or(u)lam-en eratorria), *aspre* (Lhande) fr. zahar. *aspre* lat. asp(e)ram.

b) *Gaskoin-biarnoetatik: xarma* BN., L., S. gask. *charmá* (Palay 1,261) lat. carm(i)nem, *zingla* BN., L. gask. *singla* lat. cing(u)lam, *peril* BN., L., S.

(76) Beraz *onil* ez daiteke ekar zuzenki, behintzat, lat. *fundibulum*-etik, bere sinkopa batetik baino.

gask. *perilh* lat. peri(cu)lum. *tilet* L. gask. *tilhet* lat. tit(u)lum (probableki metatesiaz), *peska* S. gask. *pesque* lat. pers(i)cam, *taula* BN., L. gask. *taula* lat. tabulam (bainan latin arruntean ere *taulam*, REW 8514), *kobla* (Lhande) gask. *couble* (Palay 1,292) lat. cop(u)lam, *paubre* gask. *paubre* (Palay 2,319) lat. paup(e)rem.

Aipagarria da gaskoineran, batzutan, azentu proparoxitonoa paroxitonora lerratu dela; honela lat. manticam *mantégo*, aqulam *aguílo*.

c) *Gaztelaniatik*: *lerdo* B. gazt. *lerdo* lat. lur(i)dum, *apaindu* B., G. gazt. *apañar* (erdiko silabarako lerradura azentualaz, ostera, *apañatu* esango bai-kenuen *apaindu* ordez), *letra* gazt. letra lat. lit(e)ram, *salda* c. gazt. sal(a)da, *zerroillo* B. gazt. zahar. serrullo (G. Diego, Dicc. 876) lat. serra(cu)lum, *zirga* B., G. gazt. sirga (G. Diego, Dicc. 506) lat. ser(i)cam, *zingle* G. (77) gazt. zahar. single (G. Diego, Dicc. 6150) lat. sing(e)lum/sing(u)lum.

d) *Aragoieratik*: Ondorengo hitzok aragoiar tankera dute, nahiz-eta beti ez makurtu zuzenki iturri horretara: *tella* arag. *tella* lat. te(gu)lam, (Manuel Alvar, op. c. 175), *malla* BN., R., S. (mancha de retina) arag. *malla* (Pardo, 224) lat. ma(cu)lam, *dailu* BN., R., S. arag. *dallo* lat. da(cu)lum, *kadera* BN., L., S. (silla) arag. cadiera (Pardo, 71) lat. ca(the)dram.

Adierazi genuenez, saraitzuea eta erronkarieraren eremuan (eta nola-bait ere goinafarreran) azentu biziago baten egoerak atzetoniken erorketak sortu zituen batzutan (halanola: *nabla* R. *nabala* ordez lat. nova(cu)lam, *manre* lat. mantilem, *pastu* AN. pasatu ordez, errom. pasar, *kandra* lat. candelam, *abre* lat. habere, *aingru* lat. angelum, *abrats* (Leiz.) aberats ordez (lat. habere), *debru* lat. diabolum, *tipla* lat. cepullam, *trintete* AN. lat. trin(i)tatem, etab. Fenomeno antzekoa *eskla* (esquila) kasuan zubereran. Bainan kontutan eduki hauetako adibide aunitz mailebu latinoa dela (78).

#### d) *Azken bokaleak*

Euskarak azken atzetonika aunitz gorde du, bereziki, latin sustraizko hitzetan (*sakela* lat. saccellam, *kupela* lat. cuppellam, *gatzelu* lat. castellum). Euskaratze berankorra ala erromanikoa dutenak, ordea, ez dute eusten hainbesteko erregularitatez.

Gaztelaniazko mailebu batzutan azken bokalea izkutatu egin da, baina fenomeno hori, maizagoa da, noski, frantsesetik eta gaskoin/okzitanieratik heldutako hitzetan (adibidez, *plazent*, *present*, *honest*, *ausart*, etab.).

(77) *Zingle* G. (sencillo) gaztelania zaharreko *singelo*-rekin harremanetan lat. \*singellum-etik. Ikus *Corominas* DECLC 4,186. Bizkaierako *sengle*-rako ez ahaz *sengle* erromanikoa (lat. singulus). Cfr. *G. Diego* dic. Etim. 6146.

(78) *Abre* kasuan paroxitonotik lehen silabara lerradura eman dela dirudi (hots, hábere-ra, eta horrek atzetonikaren ahuldura ekarri du hab(e)re.

Erromantze gehienetan *a* da bokalerik iraunkorra. *Upel* (upela), *sakel* (sakela) gisako hitz batzutan azken bokalearen galketa eragin berankor edo erromaniko baten ezaugarri da, bainan hori euskal artikularen interpretapen oker batetik ere etor daiteke, gutienez, gipuzkera eta bizkaiera gisako euskalki mendebalekoetan (hizkerok maiz galtzen baidute azken bokale hori -ZIA (*justizi*), -ERIA (*maitakeri*), -EZIA (*tristezi*) gisako atzizkietan. Hona azalduko galketa duten mailebu batzuk (eta batzuk jatorri latinoaz, gainera): *makil* G. lat. *baccilla*, *sakel* AN., B., G. lat. *sacellam*, *urkil* BN., lat. *furcillum*, *kukur* AN., B (cresta) lat. *cucullam*, *kupel* AN., B. lat. *cuppellam*, *muskil* AN., B., G. lat. *musculum*. Hauetan, noski, *a* duten alternantziak (*sakela*, *muskila*, *urkila*, *upela*) latinarekiko zintzoagoak dira. *Kukur* (lat. *cucullam*) kasuan *ll* latinoaren *r* euskarazko ordaina ematen da, nolabait gaskoineraren tipologiaz (*cistellam xistera*, *patellam padera*).

Azken bokalearen galketa honetan, bestalde (lan honen lehen zatian aitortzen genuenez) zerikusia izan dute hitz konposakera eta eratorpenaren ohitura fonetikoek, ezen eta, maiz, lehen osagaiaren azken bokalea erortzen baita, hauen arabera: *burdina* (baino *burdingalda*), *anaia* (baino *anaitasun*), *katea* (bainan *katenbegi*), etab. Beste kasutan *a* itsasia besterik gabe jauzi da *koro*i koroa orde (lat. *coronam*), *ano* anoa orde (lat. *annonam*), *neskatil* neskatilla orde, *leiatil* leiatilla orde, etab.

Dena dela, *urkil*, *makil*, *sakel* eta gisakoak (*a* itsasiaren galketa emanda ere) nahiko aintzinakotzat jo behar dira, aurrebokaleen belarearen (ke/ki) iraupenagatik; fenomeno hori, bestalde, inperioko latin ostean dexente luzatu zen Euskal Herriko toponimiak eta antroponimiak azaltzen duenez.

*Marti B.*, *Laurenti* (Refr. Garibay), *Bikendi* gisako hitzak, nahiz-eta erromanistaren batek genitibotzat jo, gure ustetan hobe *nominatibotzat* jotzea azken bokalearen galketaz (hau da, *marti(us)*, *Laurenti(us)*). Galketa berdina ematen da, adibidez, -ARIUM atzizkiaren kasuan, eusk. -ARI (*gelari* lat. *celari*(um), *jokalari* lat. *joculari*(um)).

Honako hitz erromaniko hauetan (eta batzuk ukaezinezko jatorri latinoan dute) azken bokalearen galketa ematen da, eta batzutan silaba osoarena: *espi* B., G. (espina de peces) okz. *espi* lat. *spinam*, *hobi* c. errom. *hobi*, gask. *hòbi* (Palay 2,111) lat. *foveam*, *hodi* (caño) lat. *fodinam*, *umil* lat. *humilem*, *humi* lat. *humidum*, *mem* BN., L., Sal. lat. *mentem*, *sen* (juicio) lat. *sensum* (biarn. *sen*, Lespy 2,270), *hun* BN. (cerebro)/*muin* AN., G., L. lat. *funem*, *zin* BN., L., R., S. (juramento) (probableki lat. *signum*-etik), *sotil* B., BN., L., R. errom. *sotil* lat. *subtilis*, *soil* c. errom. *kat. soll*, gask. *sol*, lat. *solum*, *lupi* G. lat. *lupinam*, *gubi* B., BN., R. lat. *gubiam*, *ano* AN., B., G., L. (ración) lat. *annonam*, *izokin* AN., B., BN., L. errom. astur, *esguino* lat. *isocinam*. Guk zerrenda honetan (probablezko kategoriaz) gure *agur* c. (saludo) ere sartuko genuke, lat. *augur(ium)*-etik etorria, eta baita *mami* (AN., B., BN., G., L., R., S. (parte blanda, carne) lat. *mami*(llam)-etik, *mamullam*-eren bariante gisa.

Azken bokaleen atal honetan aipatzekoa da ere erromanikoko azken *o* bokalea euskarari *u* bilakatzeko joera bizia dagoela, eta makurrera hori gaur-gaurko mailebuetan ere ematen dela (adibidez, bankU, zepillU, etab.). Dударik gabe, fenomeno hau euskararen joera larrietan sartzen da, nolabait, latin-erromaniko jatorria ez duten hitzetan ere eman daitekena (halanola, *tabakU*, *semaforU*, *salmU* kasutan, azken biok grekotik). Beste inkorporapen goiztarretan (gaztelaniari dagokionez, *antiojU* = anteojo, *tajU* = tajo) joera berdina (80).

Alabaina erromanikoko azken *o* hori (gaztelaniazkoa, bereziki) hitz batzutan eusten da; halanola: *ikO* B./*fikO* L. lat. ficum, *ziztro* lat. cistrum (hombrer impotente), *lihO* BN. lat. linum, *bilO* AN., BN. (pelo) lat. pilum, *abendO* BN., L. lat. adventum, *solO* B. (heredad) lat. solum, *fagO* lat. fagum kasutan. Formulok, normalean, *u* alternantzia dutenak baino berankorragotzat jo behar dira (beraz, *u* alternantzia *fikU*, *abendU*, *zorU*, *liñU* kasutan ematen baita).

Arazo honetan kontutan eduki *u* hori *o* bokalean ireki zela latinean bertan, batzutan; *oskoan*, eta latin arruntean konkretuki, *ferrU* ordezko *ferrO* formulak aurkitzen ziren. Latin klasikoko deklinabideak latin arruntean, eta bereziki behe-latin erromanizantean, soiltasunera deribatu zuen azken bokalei dagokionez, adibidez, laugarren deklinabidea *bigarrenera* ekarriaz (akusati-bo/ablatiboetan, kasu baterako) (81).

Hona hemen gure inguruko erromantze batzuen inkorporapenak, zeinetan azken bokalearen erorpena eta euspina ematen dena, eta bereziki gaztelaniako mailebuetan.

1) *Gaztelaniatik*: Gaztelaniako mailebuak azken bokalearen iraupenera joko du, gaskoieran ala frantsesean ematen den baino neurri biziagoan. Hona adibide batzuk: *malo* gast. palo, *menta* gast. venta, *arraio* gast. rayo, *molde* gast. molde, *kolaio* B. gast. colario (82).

Jatorri erromanikoa duten atzizkien eremuan -IZUN (lat. -ITIONEM) eta -AJE (lat. -ATICUM) (ilAJE gast. *pelAJE*, *adAJE* gast. *cornAJE*) kasutan azken murrizketa edo erredukzioa erromantzean gertatu da euskarara etorri aurretik (ekarritako kasutan, zehazki, gaztelaniazko -AJE-tik, baina beste askotan *gaskoineratik*: -ADJE (lat. viaticum *biADJE*).

(80) *Ixtripu*, *istipu* L. (tropiezo). Itxuraz erromanikoa, eta, nolabait, *estropizio* erromani-koaz lotua lat. arrunteko *disturpiare* eta \**stropitium*-etik.

(81) *Iorgu Jordan*-ek dio: "Las declinaciones más ricas en sustantivos atrajeron a los sustantivos de las series menos abundantes. Los sustantivos de la cuarta terminados en -us (nominativo) y -um (acusativo) fueron absorbidos por la segunda declinación, cuya vocal temática o difícilmente se podía reconocer. Esta tendencia aparecía ya en el latín clásico y se acentuó en el tardío, lo que determinó, por último, la desaparición de la cuarta declinación: dat. sg. nuro por nurui, abl. ex visu por ex visu". Cfr. Manual de lingüística románica, t. 1,239 or.

(82) *Ardura* AN., B., G., L. (diligencia, cuidado). Gaztelania zaharrean *ardura*. Berceoren obran ere present. Ikus *Corominas* 1,253, *Mixelena* BAP 9,569.



2) *Gaskoinera eta okzitaniera orokorretik*: Gaskoineratik (eta zabalgiago okzitanieratik) etorritako mailebuak oso erraz detektatzen dira euskarari, bere azken LS, ST, RT, NT gisako amaierengatik (adibidez, *plazent, polit, galant, flakat, puntzet, ausart, arrunt, honest*, etab.). Arazo honetan gaztelaniar mailebuak hobe datoz gure fonetikarekin, izan ere, aipaturiko amaierak ez baitira oso gureak, talde igurzkarietan (tz/ts) ezik (*isats, zorrotz, motz, garratz* tipologiakoak).

Hona hemen gaskoin-okzitanierazko itxura duen mailebu-zerrenda bat (83): *honest* R., S. *obedient, ausart* (biarn. *ausart* FEW 1,184), *ardit* BN., G., L., S., *dukat* B., G., *present* (Lespy 1,133), *mens* (84) (Lespy 2,62, *menhs*), *arrunt* (Palay 2,329 *arrount*), *polit* (prob. zahar. *polit* FEW 9,128 lat. *pulitum*), *pelegri* (Palay 2,329), *bastart* (biarn. *bastard*, Lespy 1,88), *tilet* (Palay 2,579 *tilhèt*), *xarmant* (Palay 2,261 *charmàn*), *paillat* (Lespy 2,120 *palhat*), *pedoil* (Lespy 2,138 *pedouilh*), *peril* (Palay 2,339 *peril*), *kabil* (Lespy 1,138 *cabilhe*), *suil* (Palay 2,53 *souilh*), *funts* (Palay 2,25 *founs/founds*) (85) *pitotx* (Lespy 2,166 *pitoch*), *solt* S. (biarn. *solt*), *sor* BN., L., R. (Lespy 2,285 *sord*), *sen* B., R. (Lespy 2,270 lat. *sensum*), *arrasket* S. (biarn. *arrasclat*), *berrat* S. (Lespy 1,100 *berrat*) (86), *pikart* BN., L. *gask. picart*, etab. (87).

(83) Detxepare-ren idazlanean bakarrik honako hitzok gaskoin-okzitaniaz amaieraz: *apart, debotki, despit, lekot, pazient, onest, plazent, present*.

(84) *Aments* S. (a lo menos). Biarnoerako *au menhs*-etik (Lespy 2,62). Lhande eta Larrasquet ere bide berdinetik. Ikus lat. minus-eren eratorkin erromanikoak Wartburg-en hiztegi nagusian (FEW 6,129).

(85) *Funts* AN., L., S. (fuerza), AN., R. (fundamento), S. (fundo, terreno propio). Jatorriz erromanikoa, eta okzitanier-gaskoin eremuko mailebua. Ikus FEW 3,876, *Muxelena* FLV 6,203. Gure ustez, zehazkiago, biarnoeraren mailebua: *founs/foundz* (Lespy 1,314, Palay 2,25). Semantikoki "fundamento" eta "base" ideiak oso ongi lotzen dira lat. *fundus*-etik; "fuerza"-ren esanahia, berriz, albokoa da.

(86) *Botz* R., S., *poz* AN., B., *boz* AN., L. (alegría, gozo), *bozkario* AN., BN., L. (regocijo, gozo). *Schuchardt*-en (ZRPPh 11,499 ond.), *Castro Guisasa*-ren (Enigma 168) eta *Corominas*-en (DCELC 2,759) aburua jarraituaz *gaudium* latinoaren eratorkin erromaniko baten aldekoak gara. Gisa honetako formulak kontutan edukitzeak dira: *gotz* kat., *goz* fr. zahar., *gaouch* fr. zahar., *joygos* (gozoso) biarn. (Lespy 1,397). Semantikoki lotura ukazaina. Fonetikoki, kontutan izan *dy* taldea asibilatu egiten dela erromantze askotan, eta horien artean gazt. *gozo* lat. *gaudium*-etik. Ikus FEW 5,80 ond.

(87) Kasu hauetan eta besteetan *Lespy* izena zititzeak biarnoera suposatzen du (hots, *gaskoin* orokorraren bariante berezia). *Lespy* eta *Raymond*-en hiztegiaren izena: Dictionnaire béarnais ancien et moderne. t.1 eta 2. Genève 1970.—*Palay* zititzean, berriz, *gaskoinera* zabalaz ari gara, eta bere liburua: Dictionnaire du béarnais et du gascon moderne. Pau 1932.

Eta osagai bezala, hona Axular-engan aurkitzen den gaskoin-okzitanier tankerako zenbat mailebu: *ausart, barber, konbat, arronter, akhort, debot, balent, onhest, prest, present, ingrat, modest, obedient, kontrast, bastart, kredit, arront, reskat, kontrast, despit, parient, deshonest*. Eta, azkenik, Leizarraga-ren idazlanean aurkitzen direnak: *abondant, absent, appart, alocacer, ausart, kontrast, diligent, element, excellent, apparent, honest, imperfect, innocent, leopart, marchand, manifest, modest, moment, pailart, permanent* (fr. *paillard*, euskarak, ordea, beti azken horzkarria gogortu egiten du, hots, *t d ordez*), *placent, present, rudiment, verset*. Ikus G. *Aresti*. "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", FLV 13, 61-128 or.

-OSUS atzizki latinoak (probableki aurrelatinoak denak) -OS/OUS/US ematen du gaskoin-biarnotar mailebuetan: *desiros* (gask. *desirous*), *jelos* (Lhande) (gask. *jelous*), *perilos* BN., L. (gask. *perilhous*), *amurus* L. (gask. *amorous*), *malurus* (Lhande) (biarn. *malhurous*, Lespy 2,42), *penos* (gask. *penous*), etab.

Baita aipatzekoa -ARIUS atzizkiaren -ER gaskoin formula, gure hitzotan isladatua: *menüser* S. (Lespy 2,64, *menuser*), *trufaler* (Palay 2,626 *trufatik*), eta gisa honetako beste izenlagun hauek: *kondaler*, *mezuler*, *falsuler*, *koziner*, *arronter* (Axul), *dispenser* (Leiz.), *alocacer* (Leiz.), etab. (88).

Rohlf-ek dioenez, azken bokaleen galketa (lat. *pratum* gask. *prat*), maiz, a bokalea *e* formularen aultzea suposatzen du. Ariège-ko goi eskualdeetan amaierako *o* bokalea *ou*-ra igarotzen da sudurkariaren ondoren, *tataragnou* (araña) kasuan bezala. Batzutan bukaerako *e* hori euts daiteke *butre* (Lespy 1,134 lat, *vulturem*) hitzean bezala (89).

3) *Frantsesetik*: Frantsesetik etorri zaizkigun hitzetan ere, maiz, amaiera bereziak, nolabait, euskararen izaerari arrotz zaizkionak; esan dugunez, gaztelaniak, eta nolabait nafar-aragoierak ere antza fonetiko gehiegiago du gurearekin honetan. Hona frantses tankerazko amaiera batzuk: *zerbieta* BN., S., (fr. *serviette*), *posta* BN., L., S. (correos) (fr. *poste*), *sabant* (BN., L., S. (fr. *savant*), *godalet* S. *gobelet* (Lhande) (fr. *gobelet*), *bolanger* S. (carnicero) (fr. *boulangier*), *xibalet* S. (caballito) (fr. *chevalet*), *tranxet* (Lhande) (trozo) (fr. *tranchet*), *pikant* (Lhande) (fr. *piquant*), *pikaput* BN. (fr. *piquepout*), *tolet* BN., L. (fr. *tolet*), *zizpolet* L. (fr. *pistolet*), agian, *zizpa* hitzaz ere nahasia), *pikalaport* BN. (fr. *picalaport*), *kriket* BN., L., S. (fr. *coquet*, *croquet*) (90). Baita, frantses ezaugarria da amaierako *o* delakoa, *eau*-ren ordaina, aintzina-ko *-elle*-ren ordezkoa. Honela *lanbo* (Lhande) fr. *lambeau*-tik.

Azken *a* bokalea frantsesean *e* inflexionatzeak (*vaccam vache*, *capram chèvre*) euskaran *a*-zko berrezarpena dauka etxeko artikuluaeren eragipenagatik; adibidez, *filma* filme-tik, *greba* grève-etik. Beste batzutan gaskoin-

(88) *Bort* AN., B., BN., G., L., *bortt* BN., R. (bastardo). Hitz erromanikoa eta hedadura handikoa. Gazt. zaharrean *borde* (1464 urtean). Gurean horzkari gorra duelarik hobe aragoierako *bort*-etik ekartzea; *bourt* fr. zahar., *bort* prob. gaskoineran. Latinez *burdum*. Ikus REW 1405, *Corominas* Breve Dicc. 102.

(89) Kurioski gaskoin-okzitaniar kutsua duten izen propioak dauzkagu Nafarroako dokumentuetan; halanola: Garcia *Arnalt*, *Guillen* Marzel, *Willen Giralde*, Domingo *Richard Sabant*, Petre *Tibalt*, Petro *Uchet*, *Aymar Crozatz*, etab. Ikus R. *Ciérvide*. "El romance navarro antiguo", FLV 2,285.—Baita frantses-gaskoineraren eragin nabarmena gure zenbait deituraren azken bokalearen erorketan: *Oihenart*, *Intziart*, *Landart*, *Etxart*, *Recart*, *Etxebers*, etab. Arnaldo kasuan *Arnaut*.

(90) *Kanibet* AN., G. hitza erromanikoa dugu, bere aldagaiak *kanabita* AN., *gaminta* Sal. (*nb* taldea m-ra murriztuaz). Jatorri hurbilena, agian, *ganibét* biarnotarra. *Corominas*-ek *knip/knib* erro germanikoan sakontzen du, gerora *canif* frantsesera igaroz. (Ikus DCELC 1,648). Nahiz-eta aragoieraz ere *canivet* bat eman, formula horrek gask.-okzitanieraren mailebua dirudi.

frantsez tipologiazko bukaera kontsonanteduna gure artikulugatik anulatua gelditzen da, honako hauetan gertatu denez: *ausartA* AN., BN., G., L. gask. okzit. *ausart*, *arrabota* BN., L., S. fr. *rabot*, *artxeta* fr. *archet*.

Azkenik, aragoierak, nahiz-eta gaskoineraren joera sinkopatzaileak ez eduki, baditu, ala ere, erorketa bitxi batzuk, *fuen* fuente ordez, *chen* gente ordez, *blan blanco* ordezkoak, eta *t* amaierakoa ere bai *let* (leche) kasuan.

## 6. Hiatoak

Normala denez, azken kontsonanteen galketak erromantze batzutan hiatozko pilaketak sor ditzake. Hori gertatzen da, adibidez, *area* (lat. arenam), *moeta* (lat. monetam), *balea* (lat. ballenam), *anoa* (lat. annonam) kasuetan, bokalearteko sudurkaria erori delako.

Maila erromanikoan berdin fr. *viande* (lat. vi(v)enda-tik) hitz kasuan, eta gaztelaniazko *leal* (lat. let(g)alem), *real* (lat. re(g)alem, *reina* (lat. re(g)inam), *vaina* (lat. va(g)inam) formuletan (bokalearteko belarea erori baita); euskaran, aitzitik, gorde egin da: *erregina*, *magina*.

Hona hiato batzuk frantsesetik, nahiz-eta, noski, batzuk sekundarioak izan tarteko kontsonantearen erorketarik: *zieta* BN., L., S. fr. *assiette* (plato), *liutenant* fr. lieutenant (lugarteniente) lat. locustenentem, *enoiatu* BN. fr. ennuyer (fastidiar) lat. inodiare.

Gaztelaniak, bestalde, hiatoa hautsi egin ohi du, silaba bat-berean bilduaz (*piedad* kasuan adibidez), eta bestetan aurreko silabara bultzatuz, *beso* kasuan bezala (lat. *basium*-era (REW 796) *baisum*-etik igaroz). Euskaratutako mailebuetan hiatoa neutral daiteke bokale bat ahulduaz, eta diptongoa sortuaz. Honela, gazt. leer eusk. *leitu*, gazt. proveer eusk. *probeitu*. Bitxikiro, batzutan euskarak erdal diptongoa hautsi egiten du jatorrizko bokaleetan kontsonante bat tartekatuz, adibidez, *suBerte* G. suerte kasuan, *biBolina* G. biolin kasuan. Ala ere, zutik gaztelaniazko hiato hauek: *erreal* B., G. (moneda) gazt. *real*, *leial* c. gazt. *leal*, *arreo* G. gazt. *arreo*. Eta hiato bera euskal artikuluaeren pilaketarik: *sillea* (gazt. *silla*), *markea* (gazt. *marca*). -ON atzizki arruntak ere, hiato sor dezake, batez ere, goi-nafarreran; halanola: *limoe* limón-etik, *leoe* león-etik, *arrazoe* razón-etik, *miloe* (91) millón-etik. *Ollerea* (Larr. Supl.) (gazt. zahar. *oliera*) hitzean hiatoa, itxuraz, metatesiagatik eman da, soilik. Bainan *ua* taldeak *oa* du ordaina, maiz, euskaraz: guardia *goardia*, cuadro *koadro*, cuaderno *koardeno*, etab.

(91) *Jipoe* AN. (chaqueta), *jipoi* G., *jipon* AN., *jupoi* (Lhande). Hitzaren jatorria arabiarra, baina guregana erromantzeen zehar iritsia: *jupon* fr., *gibó* kat., *jipon* okz., *jubón* gazt. Iparraldeko formulak, seguraski, okzitaniarekin erlazonatuta daude, eta hegoaldekoak eragoiera eta gaztelaniarekin (*Corominas*-ek *jupón* eta *gibón* formulak dakarzki, DCELC/2,1071). Gipuzkeran, konkretuti *jipoi* hitzak "tunda, zurra" ere adierazten du, ohizko lerradura *exozentrikoaz*.

Aragoieran, berriz, hiatotik ihes egiteko joera larria, bokale itxiena erdi-bokalea bilakutzen delarik. Honela, *toBalla* toalla ordez, *ataBut* ataúd ordez (hortik, probableki, gure *ataButa* (R.) (92).

Gaskoinerak ere hiatoetatik aski ihes egiten du, bokale murrizketetara joaz (*hissá* lat. fictiare, *agusá* lat. acutiare, *sedas* (Lespy 2,264) lat. saetacium (*zetatxu* BN. euskarán), *sulh* lat. solium (*suil* BN., G., L. euskarán). Baita -ASSOUN/ASSOU atzizkia lat. -ATIONEM/ITIONEM-etik (*fassou* lat. factionem, *sassou* lat. sactionem).

Beste batzutan hiatoa metatesiaz askatzen da, *hyre* lat. feriam kasuan bezala. Gorago aipatzen genuenez, -ARIUM atzizkiaren hiato ondorioa -ER da (hortik gure trufalER, ostalER, mezulER). Baita, biarnoeran bezala, y erdibokaleak hiatoak anula ditzake: *maneyá* (eusk. *maneiatu* L.), *barrejá* (Lespy 1,86) (eusk. *barreiatu* BN., S.).

Alabaina hiatoa zutik dugu gaskoin mailebu hauetan: *goait* (Lhande) (atento,vigilante) (Palay 2,56 *goait*), *biasak* BN., L. (Lespy 1,105 *biasse*), *goasta* L. (Lespy 1,338 *goastá*). Gurean dauden beste hiato formulak dira: *legoa* (Detxep.), *lengoaje* (Detxep.), *goarnitu* (Detxep.), *goardatu* (Detxep.).

## 7. Disimilapen eta asimilapen erromanikoak. Metatesia

Ikusia dugu sustrai latinoan edo aintzinakoa duten hitzetan, euskaraz, nahiko maiz, asimilapen bokalikoa ematen zela, batez ere, *goranzkoa* (ascendente); honela, *zigulu* lat. sigilum, *gatulu* BN., L. lat. catilum, *inguru* c. lat. in gyrum, etab.

Maila erromanikoko hitzetan fenomeno berbera honako hauetan: *endelegatu* errom. *endilgar* (lat. intelligere), *gaitzuru* AN., BN., R., S. (celemin) errom. *cahiz-ero*, *urgullu* (Leiz.) errom. *orgullo*, *xedela* S. gask. *sedilla* (lat. sedi(cu)lam), *sarratu* B. errom. *cerrar*, *mithil* S. (muchacho) errom. *motil* (lat. mutilum), *ijito* AN., G. (gitano) gazt. zah. *egipciaco/egipto*, *txapitulu* errom. *chapidula/chapidela* (lat. capitellum), *kursulu* (Arriaga), *koxulu* B. (candil) *krisellu* ordez, *xiringa* errom. *seringa*, *albain* gazt. *hílván* (lat. filum vanum), *borroñ* R. arag. *borroña* (lat. borraginem), *milinga* BN. errom. *melin(droso)*, etab. *Inpirio* kasuan *beheranzko* asimilapena (errom. imperio).

Disimilapen bokalikoa ematen da, nolobait, *serora* AN., B., G. hitzean lat. sororam (bainan latin arruntean *seroram* formula ere bada; agian, bertatik erromantzetako formulak, biarn. *seror* (Lespy 2,278), *aitzeki* G. gazt. achaque (bainan B. *atxaki*). Disimilapena talde foniko antzetsuegiak alboratzeko eman ohi da.

(92) Cfr. *Manuel Alvar*. Dialecto aragonés, 156 or.-Euskarán b fonemak hiatorekin eginez ententzailea eduki dezake fonetismoaz aparte, aoa *aBua*, astua *astuBa*, mantua *mantuBa*. Esan dugunez, berdin *suBerte* (T. Etxahun) eta *biBolin* G. kasutan (jatorrizko *ue/io* taldeak hautsiaz). Berdin gertatu da *empleGatu* (emplear) hitzean, *ea* taldeari dagokionez.

Bestalde, bokale-metatesia honako berba hauetan: *erredola* errom. rodel, *malenconia* errom. melancolia (bainan *malenconia* gazt. zaharrear ere), *erraldoi* errom. *Roldán. Korrinko* (Landucci) kasuan (*gorringo*-aren aldagaia delarik) asimilapen kontsonantikoa *gonga* AN. errom, *conque/conga* kasuan bezala (lat. concham).

## 8. Dardarkariaren muturreko bokale protetikoak

Euskararen inguruko erromantzeek, sarritan, *a* protetikoa daramate. Horietako erromantze batzutan delako protetika euskaldunaren ohitura fonetikoari zor zaio. Gure mailebuen maila latinoaz aztertzean, fenomenoak latinean bertan, ere nolabait, ematen zela baieztatu genuen (*a/e* kasutan, eta *i*-rekin ere batzutan) (93). Nahiko nabaria da euskaldunak dardarkariak hasitako hitzak ahozkatzeko nolako higuina ala errefusa duen. Beraz, latineko testigutza garbia zen *arraia*, *errege*, *errota*, *erripa* eta gisakoetan.

Zelta substratuak ez du fenomenoak euskarazkoak bezain ongi azaltzen gaztelanian, gaskoineran eta aragoieran. Batzutan, ala-eta guztiz, *a* latineko *ad* aurrizkiaren hondar bat da (adibidez, *arrimar/ad* rimare, *arrigar/ad* radicare, *arrasar/ad* rasum kasutan gisa).

Inkorporapen erromanikoa duten hitzetan protesi bokalikoa nabarmena da: *arrisku* errom. riesco/riesgo, *erreteila* B., G. (retejo) errom. *retellar*, *erlijio* errom. religión, *erliki* errom. reliquia, etab.

Erromanikoaren zerrenda hertsiki batean sail hauek aurkezten ditugu:

### 1) *Gaztelania-aragoieratik*:

*Arazoi* gazt. razón, *arratoi* gazt. ratón (bainan euskarari handidurazko zentzuaz, -ON atzizkiari dagokionez, erromantze batzutan gertatu ohi denez), *errio* gazt. río (94) *arroka* gazt. roca (hau, seguraski, aurrerromatar geruzako hitza), *errespetu* gazt. respecto, *errege* gazt. ruego (jatorrizko diphongoaren erorketaz, bigarren bokalea soilik gordeaz -ue/e-, leku hitzaren kasuan bezala, errom, *lucco*), *errieta* gazt. reyerta, *errezo* gazt. rezo, *erreal*

(93) A protetikari buruz ikus bibliografia hau: *G. Millardet*, Etudes de dialectologie languedaise. Toulouse 1910.—*J. Cornu*. “L’a prothétique devant rr en espagnol et en catalan”. ROMANIA 9,75-79.—*W. Meyer-Lübke*. Grammaire des langues romanes, 324 or.—*A. Luchaire*. Etudes sur les idiomes pyrénéens de la région française, 208-209 or.—*H. Gavel*. Eléments de phonétique basque. RIEV 12,189 ond.—*V. Bertoldi*. “Fonema basco-guascone attestato da Plinio”. Archivium Romanicum 15(1932) 400-410.—*R. Menéndez Pidal*. Orígenes del español, par. 40.—*E. Bourciez*. “Le domaine gascon”, Rev. de Ling. Rom. 12(1936), 1-9.—*F. H. Jungemann*. La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones, 272 ond.

(94) *Arrapatu* AN., G., *arrapu* B., *harrapatu* BN., L., S. lat-rapere-tik erromanismo bidez. Behe aldeko euskalkientzat *a(i)rapar* gazt. aditza aintzat hartzekoa da, eta iparraldekoentzat *arrapà* biarn. (Lesby 1,48). Corominas-engan *arrapar* okz. zaharrear “arrancar” delakoaren esanahiaz. (Ikus *Corominas DCELC* 3,998, *Mitxelena BAP* 12,371).

gazt. real, *arrebandara* gazt. rebanada, *arroza* gazt. arroz (arabiar hitza), *erramu* gazt. ramo, *erromeru* gazt. romero, *erruda* gazt. ruda, *erropa* gazt. ropa, *arrasto* gazt. rastro, *arrazza* gazt. raza, *errenka* (95) gazt. renco, *errenkada* (96) gazt. zahar. *renglada* (hiler), *erretira* gazt. retirar, *erreparatu* (notar) gazt. reparar, *arroba* gazt. robo, *errenta* gazt. renta, *erru* gazt. yerro (97), *erredomea* gazt. redoma, *erremedio* gazt. remedio, etab (98).

Espainian protetika delakoa present zegoen aintzinako izen eta hitz berezi batzutan; honela *Arranimirus* Ranimirus ordez (976 urtean), *Arruesta* Ruesta ordez (1039 urtean), *Arremon* Remón ordez (1079 urtean), *arroturar* roturar ordez (1137 urtean).

Agian, aragoieratik gureganatutako hitzok ere protetika: *erripa* arag. ripa (lat. ripam), *arrasa* arag. rasa.

## 2) Gaskoin-biarnoeratik:

Gaskoinerak protesiarako joera bizia du *arriu* lat. rivum, *arraga* lat. fragam (haserako f-a erortzean dardarkaria ater gelditzen delako) kasuetan bezala. Baditu, bestalde, protesirik gabeko haserako dardarkariak.

Euskarari mailebatutako hitzen artean protesia dute hauek: *arrapostu* (Lhande) biarn. arripousta (Lespy 1,54), *arbuio* (99) gask. arrebóhi (Palay 1,68, lat. repudiare), *erretaula* gask. erretaule, *arrantatu* biarn. arroun, *arne-gatu* (Lhande) gask. arnegá, *arruket* gas. arrouquet, *arraseide* biarn. arreseire, *arroda* L. biarn. arrode (Lespy 1,56), *arrazu* S. biarn. arresoun (Lespy 1,49), *errebolta* biarn. rebolte, *errekuti* biarn. arrecouti, *errenbes* biarn. arrembés, *errebesea* gask. rebers (Palay 2,438), *erreita* biarn. reite, *errepausu* biarn. repaus, *erresillu* biarn. resilhou, *arrepika* biarn. arrepic (Lespy 1,53), *arrangura* biarn. rancura, *arras* AN., BN., L., R., S. biarn. *arras* (Lespy

(95) *Herren* (S. Pouvr.), *erren* B., G. (cojo). Gutierrez hegoaldeko formulentzat jatorria gazt. *renco/rengo*. Hortik Gaztelan *renquear* (hacer cojera). *García Diego*-k lat. \*renicus etimologiara jotzen du, erroz germaniarra uste duena (Dicc. 5600). Baita *Corominas*-ek (DCELC 3,1085). Gipuzkoako "errenka egin" aditza gazt. *renquear*-etik oso hurbil.

(96) *Errenkada* B., G. (fila), *herrenka* BN., *errenkatu* AN., B., G. Beheko euskalkien formulak, behintzat, hobe gazt. zaharreko *renglada*-rekin lotzea. *Renglón* ere familia berekoa da. Goiko aldagaiarentzat ez ahaz gaskoinerako *arre*, *reng*.

(97) *Erru* B. (culpa, yerro). *Pagu*, *pensu*, *kobru* eta gisakoak bezala, *errare* aditzaren *posberbala*. Baina hurbilagotik hartuta, seguraski, gazt. zaharreko *erro*-tik (*Corominas* DCELC 2,315), geroago, *yerro* gertatuko dena.

(98) *Errezel* B. (velo), *errezela* B. (cortina del dosel de la cama). *Corominas*-engan (DCELC 3,996) formula hurbil hauek penintsulan: *recel* (colcha) and., *rencel* (Burgos), *rancel* (Poema del Cid), etab.

(99) *Arbuio*/*arbiatu* BN., L., S. (desprecio, despreciar, desechar). Gurea lat. repudiare-ren ondorio erromaniko batetik. Konkretukiago, gask. biarnoerako *arrebouki* (Lespy 1,50), *arrebóhi* (Palay 1,68) hitzetik. Charency-k (RLPHC 24,156) gazt. *arrebujar*-ekin parekatzen zuen, bainan hori ezin daiteke onar.

1,48), *arrastel* biarn. *arrastél* (Lespy, 1,49), *arunt* biarn. *arount*, *arount*, *arruzta* biarn. *arrousta*, *erresol* BN. gask. *resolbe* (lat. *resolvere*), *arrakasta* (éxito) biarn. *requestá* (Lespy 2,233) (100).

Atal honetan aipatzekoak, bestalde, gaskoin-biarnoerara euskaratik saruriko hitzok (noski, dardarkariaurreko protetika dutenak): *arróco* biarn. eusk. *arroka* L. (rueca), *arrec* biarn. eusk. *erreka* (substratu zaharrekoa). Goian aitorzen genuenez, A. *Luchoire*-k ere uste du gaskoineran ematen den protesi-ugalpena euskararen eraginagatik dela. Bainan, bestalde, ARRA/AR-aurrizki-formula gaskoinaren aldamenen ematen da, hegoaldego ERRE-maizagoa delarik. Beraz, gaskoin ARRA-ren eragina dago *arraphiztu*, *arrae-gin* gisako formuletan (101).

### 3) Frantsesetik:

*Errein* L. fr. *rein*, *arrabota* fr. *rabot*, *arrekontru* fr. *recontre*, *irrizza* (arroz) fr. *riz*, *erreberia* fr. *rèverie*, *errekeitu* fr. *requérir*, *arresortu* (Duv.) fr. *resortir* (bainan, agian, seguruago *sortu* bertatik hau da, *arre* + *sortu*-tik) (102).

Baita mailebu erromanikoak dira protesi-az besteok: *arrambel* okzit. *ramel*, *errola* errom. *rolde* (nafarrez *rolde*).

A protesiari buruz diogu, probableki, *e* baino zaharragoa dela (nahiz-eta euskarari *e* ugariagoa izan), eta, batzutan dardarkariatzekoa *e* denean ere topa daiteke (adibidez, *arreka* hitzean *erreka* ordez).

Arau orokorra, ordea, da protesiaren bokalea atzedardarkariaren gisakoa dela, eta hori, nonbait, bokalearen erakarpen asimilatzaileagatik. Honela *e* protetikaz: *erregu*, *errez*; *a* protetikaz: *arrasto*, *arraio*, *arratoi*; *i* protetikaz: *irrio* (rio), *irrizza* (fr. *riz*). *Erredola* (103) kasuan (errom. *rodel*) metatesia dago. *O* atzedardarkariaren kasuan, normalki, *e* protetika ematen da: *err*-me-

(100) *Ardailla* S. (segunda cosecha), *erredial* S., *arradail* BN., L., S. (segunda hierba). *Corominas*-ek lat. *daculum*-aren eratorrin erromanikotzat, baina zuzenkiago lat. *retaliare*-tik aurretik *ar* (*re*) aurritzia duelarik. Gurean eragin zuzenena biarnoerako *arredalha* (Lespy 1,51) hitzarena. Hemen AR hori ER/ERRE aurrizki erromanikoaren aldagaia da. Ikus *Corominas* 2,105.

(101) Latineko RE- aurrizkiaren (euskarari ERRE-/*erreboluzio*, *errekurtso*, etab.) *a* bokalearen asimilapena *arramaitz* B., *arraseme* BN., *arraloba* S., gisako hitzetan, eta, nonbait, bokaleen elkar influxuagatik.

(102) *Erresuma* AN., L., S., Sal. (reino). Hitz honetan, agian, bi konposagai dauzkagu: bat *erret* (errega) eta bestea *somme* (*regimen* latinoaren formula sinkopatua); beraz, fr. zaharrean *reeme*, *rame*. Baina, *erresuma*, besterik gabe ere, izan zitekeen *erregimen/erreximen*-aren egokiera fonetiko bat, agian.

(103) *Erredola* L. (escudo). Mailebu erromaniko nabaria. Ikus *Corominas* DCELC 4,81 ond. Prob. *rodela*, gazt. *rodela*. Arma gisa baliteke urrunetik etorria izatea; dena dela, inguruan ditugu mailebuaren iturriak.

ro, erromes (104), erromatar, errosario. Alabaina *a* beste hauetan: arrosario, arrosa, arropa, arropa, arroda, arroka. Eta, azkenik, *e a* atzedardarkaria den kasu bitxi hauetan: erramu, errabia, errazoi (105).

Latineko RE-aurrizkiak normalki ERRE-formula du gurean (*erreboluzio*, *errepublik*, *errebolta*, *erremedio*, *erreforma*). Ekialdeko euskalkietan (BN., L., S.), alabaina, maiz ARRA-, atzeko *a*-ren asimilapenagatik, agian (*arramaiaz* (remayo, junio), *arrapostu* (respuesta). Aurrizki hau, bestalde, gure harrobiko erroei erants daiteke: *arraegin* BN., S. (rehacer), *arreseme* BN. (nieto), *arrerosi* BN., G., S. (redimir), *arraphiztu* (resucitar), *arraberritu* (renovar), *arrerabili* BN. (manosear), etab.

Dardarkaria likidarekin topatzen denean, normalki, dardarkari atzeko bokalea erori ohi da, *erliki* (reliquia), *erlijio* (religión), *erlazio* (relación), *erlinga* B. (relinga), *erloju* (reloj. lat. horologium) kasutan bezela. Baina erorketa bera beste kontsonante kasuetan ere: *arbuaitu* (gask. *arrebòhi*, Palay 1,60, lat. repudiare), *ernegatu* (106) (renegarse), eta maila latinoan *ermentari* G. (lat. ferramentarium), *ertore* G. (lat. rectorem), etab. (107).

## 8. Haserako s urkariaren aurreko protesia

Beste protesia bokaliko kasu bitxia latineko s likida edo urkarriarena da. Bokale protetika euskarak *e/i* dira (*espirtu/izpiritu*, *ezkutu/izkutu* mailebuen mailan).

Protesi hau, noski, ez da euskararen pribatiboa, latin arruntean nabarrena baitzen, nahiz-eta neurri apalagoan. Berdin gertatzen da gaztelania

---

(104) *Erromes* BN., B., G., L. (peregrino, romero), *errumes* BN., B., L. (pobre, mendigo). Etimologia *erromero*-ren norabidean doa, noski, baina formulak ez du esplikatzen gurearen azken s hori. Baliteke *erromero* delakoa *erremusina* hitzarekin, nolabait, nahastuta egotea, ezen-eta *errumes*-ek "mendigo" ere adierazten baitu BN., L. euskalkietan. *Corominas*-ek, bestalde, *romero* hitza (DCELC 4,56 ond.) lat. *ros marinus*-etik dakar, eta, sinkopatuta \*romaris-etik. Beraz, kat. eta gask. zaharrean *romer*. Agian, s hori pluraleko *romers* batetik ere ekar daiteke...

(105) *Arrabita*, *arrebita* BN., S. (violin, tamboril). Mailebu erromanikoa, nahiz-eta bere erroa arabiarra izan. Gogoratzekoak fr. zahar. *rebec* eta gask. *arrubec* besteen artean.

(106) *Erdoil* BN., L., S., R., *erddollo* S. (herrumbre), *herdo* BN., L., S. (añublo, roña), *erdoi* G. (roña). Probableki, lat. \*robi(cu)lum-etik erromanikoa bidez. Nahiz-eta gaitza izan erromantze zehatz bati lotzea, hona formula hurbileko batzuk: *arudilla* landeraz, *arroudille* (Teste), *redoille* fr. zahar., *roil*. prob., *arroudilho* gask. Baliteke gurean metatesi bokaliko ematea *arroudille/arroudilho* formulakiko. Bestalde, *ar* gaskoin protetika gure *er*-aren ordainaz: *arround/arrunt*, *arnegatu/ernegatu*, etab.

(107) Leizarraga-engan, noski, protesieza joera kultistatzat interpreta daiteke: *rude*, *racoín* (razón), *rançoin* (rescate), *respuesta*, *reportatu*, *repaus* (reposito), eta berdin aipaturiko hitz latino hauetan: *regina* (reina), *rege* (rey), *ruta* (ruda, Bot.), *rencore*. Detxepare-engan, berriz, besteok: *recebitu*, *redemitu*, *reputazione*.



gisako erromantzeetan (espada lat. *spatham*. estrella lat. *stellam*, esposo lat. *sponsum*).

Euskaran protesia inkorporapen berankorra edo erromanikoa duten hitzetan ere aurkitzen da, batzutan erromantze bertatik, eta bestetan gurera igarotzean (frantses kasuan bezala). Honela frantses mailebuetan: *estaia* fr. stay, *eskantil* (Lhande) fr. zahar. *schantill*, *eskora* (Lhande) fr. score. Gaskoineraren kasuan protesia mintzairan bertan ematen da: adibidez, *espos* (Lhande) gask. *espous*. Beste exenplu protesidunak latin-erromaniko mailan: *espi* B., G. lat. errom. *spi(nam)*, *ispillu* lat. errom *spe(cu)llum* (arag. *espillo*), *izpiko* R. lat. *spicum*, *izpiliku* B. (metatesiaz) lat.-errom. *spiculum*, *ispilinga* lat.-errom. *spinghulam* (metatesiaz) euskaran, etab.



**IZEN SINTAGMA MUGAGABEA  
TARTASen  
“ONTSA HILTZEKO BIDEA”-n**

*Donostia, 1982-XI-26*

*Jose Maria Larrarte*

Lantxo honetako gaitzat IZEN SINTAGMA MUGAGABEA aukeratu dut. ‘Izen sintagma’ diodanean, sintagma horren barnean izen sintagma eta atributo sintagmaren barnean sartzen diren adjektiboak ere, mugagabe diren heinean, aztergai izango ditugu.

*Corpus*-tzat, berriz, Tartas idazle zuberotarraren *Onsa hilceco bidia* aukeratu dut. *Corpus* hau zerbait mugatuz, bertako kapituluren batzuk har nitzakeen aztergai, baina azkenean liburu osoa arakatzea pentsatu dut.

Lantxo hau burutzeko ez zen, noski, beharrezko mugagabe itxura duten testuinguru guztiak jasotzea, baina, lan honetarako ez bada ere, agian beste lan batetarako baliagarri litezkeela pentsatuz, sailka jaso ditut. Lan honetan, hala ere, bildutako testuinguru guztiak ematea aspergarri eta luzagarri litzatekeenez, batzuk bakarrik ematen ditut.

*Onsa hilceco bidia* liburu honek bi edizio ditu: RIEVek argitara emana, bata, eta JAKINEk argitaratutako edizioa, bestea. Nik Antolin Eguzkitzak prestatu eta JAKINEk argitara zuena aukeratu dut neure lanerako. Edizio zaharragoa denez, RIEVek atera zuena aukera nezakeen, baina esku artean erabiltzeko erosoagoa eta grafia aldetik irakurterrezagoa delako, bigarren hau erabili dut.

\* \* \*

Testuinguruak ematen ditudanean, testu zati bakoitzaren ondoren zenbaki batzuk jartzen ditut, parentesi arteko zenbaki horien bidez testu hori aurkitzen deneko orrialdea adierazi nahirik.

Lan hau egitekoan jarrai natzaion metodologiaz zerbait esan beharrez, bi sail desberdinetan banatu ditudala esan beharko dizut, irakurle. Aurrena, sintagma horiek osatzen dituzten elementuei eta elementu horien banaketa edo diztribuzioari begira egin dut sintagmen sailkapena. Bigarren sailkepena,

berriz, lehenengo sailkapenean eraturako sail bakoitza kasuz kasu, perpaus barruan betetzen duten funtzioaren arauera banatuz.

Ihardunbide horri jarraiki natzaio lantxo honen barruan ere, sintagmen distribuzioari begira lehenik, eta distribuzio bakoitzeko etsenpluak kasuz kasu emanez ondoren.

Aztergai dugun sintagma, sintagma mugagabea dugu. Sintagma mugagabe hori, lehen esan dudanez, bi eratako sintagma izan daiteke: atributo sintagma edota izen sintagma. Eta atributo sintagma denean, sintagma hori izen sintagma batek osa dezake edota adjetiboak bakarrik. Aurretiazko ohar hau egin ondoren, goazen harira.

Emango ditugun testuinguruetakoko sintagmak zernolatakoko eta zein baldintzatakoko sintagma mugagabeak diren ikusi hutsez, egia esan, kontura bagaitezke ere.

Eta elemendurik gutxienez osaturiko sintagmetatik hasiko gara.

## 1. IZEN MULTZOA + $-\emptyset$ / ADJETIBOA (ATRIBUTOA) + $\emptyset$

### 1.1. KASU NOMINATIBOAN

#### 1.1.1. Sujetoa

Sujeto bezala ez zaigu izen sintagma mugagaberik agertzen Tartasengan. Izen sintagma hori, dakigunez, izen hutsez edota izena + adjetiboaz osaturik datorke. Beraz, honetan Patxi Goenagak dioena betetzen digu Tartasek, zera alegia: "... Zenbait kasutan izen sintagma inolako determinanterik gabe ager daitekeela, baina inoiz ez sujetoaren posizioan, alegia, P baten azpian dagoenean" (1).

#### 1.1.2. Atributoa

Adjetibo hutsa bere maila guztietan edota IM (izen multzoa), nahiz izen hutsez, nahiz izenez + adjetiboz osaturik ager daiteke atributo funtziotan loturazko aditz batekin.

1.1.2.1. *Adjetibo hutsa* nahiz "izan" aditzlaguntzaile iragangaitzaren, nahiz beste aditz iragangaitzen edo iragankorren atributo denean, adjetibo hori:

1.1.2.1.1. *Maila soil edo "positibo"* delakoan baldin badago, atributo hori forma mugagabean erabiltzen digu Tartasek.

---

(1) *Gramatika bideetan*, 49 orr., 4) paragrafoa.

– “Izan” aditzarekin, aski da (1)etik (6)rainoko adibideak ikustea:

(1) “Nahi nūke *bero izan* zintian... edo *hotz...*, baiña zeren *ephel baitzira*, ez *hotz ez bero*, ez *pagano ez khristino...*” (28).

(2) “...*eri bazira...*” (59).

(3) “... orhit zite *itsusi dela* zahar artian alfer egoitia...” (21).

(4) “... behar dü *zühür izan* eta *zühürtiaz amurus...*” (18).

(5) “... bidia *da xūxen, segür, hun*, aski aisa...” (12).

(6) “... *gaixto bada* bizitzea, *gaixto date* gure herioa, *hun bada* bizitzea, *hun date* herioa...” (12).

– Baita beste aditzekin ere:

(7) “...orhoit zite *itsusi dela* zahar artian *alfer egoitia...*” (21).

(8) “... behar diala ...*bizi ...aberats* bertütez...” (11).

(9) “..., zeren *indiñe estimatü* baitzüten...” (78).

(10) “... ezpaitzian mündia edireiten segür (79).

Horrelako ehun eta hogeiren bat (120) testuinguru jaso ahal izan ditut *Onsa hilceco bidia*-n. Era mugatuan, berriz, hogeiren bat (20) bakarrik azaltzen dira. Horien artean batzuk oso bitxiak, mugatuak eta mugagabeak elkarren ondoan ematen bait ditu Tartasek. Ikus honako adibide hau:

“..., halakoaren gastigüa eta pünizionia *handia* izanen da eta *grabe* (25). Hor, testuinguru horretan, “*handia*” mugatuan eman digu Tartasek, “*grabe*”, ostera, mugagabean. Eta beste hau:

“...herioak eztü izaterik, ezta beraz *hon*, baina da *gaixtoa, kruela eta horribla*” (129). Hemen “*hon*” mugagabean eta besteak mugatuan.

Hemen bide batez azpimarratu behar da “*hon*” beti mugagabean erabiltzen digula Tartasek, atributo funtzioa betez eta izen bati loturik ez datorrenean, hots, atributo sintagma adjetibo hutsak osatzen duenean.

Horrelakoak ba dira gehiago ere.

Beste batzutan mugatu horietako batzuk izenaren funtzioa ez, baina aditzaren funtzioa betetzen dute, hain zuzen ere, partizipio bezala erabiliak bait daude; eta orduan *-a, -ak* atzizki mugatzaileak eta *-(r)ik* edo *-ta* atzizkiak hartzen dituzten hitzek edo adizkiek funtzio berdina betetzen bait dute. Beraz, inoiz forma mugatua duten adizkiek eta mugagabea duten adjetiboek oso esanahi ezberdinak dituzte. Begira Tartasek erabiliriko honako adibide hauek: *hila da / hil da; betea da / bete da; damnatia da / damnatü da*, etabar. Kasu hauetan, forma ezberdinek esanahia ere ezberdina daramate berekin. “*Hila da*” = está muerto / “*hil da*” = ha muerto; “*betea da*” = está lleno / “*bete da*” = se ha llenado, etabar bait dira.

1.1.2.1.2. *Maila erkatzaile edo "konparatibo"* delakoarekin ere joera berdina du Tartasek, adjetibo horiek mugagabeen erabiltzekoa alegia. *On* adjetiboa bezalaxe, *hobe* adjetiboa beti mugagabeen ageri da, izen bat kalifikatuz ez doanean.

(11) "... halakoen *hobe* lizate hil litian..." (143).

(12) "... jüstoen *hobe* dela herioa..." (136).

(13) "... *hobe* da beraz jüstoen herioa..." (137).

-Ago atzizki bidez sorturiko konparatiboak ere mugagabeen erabiltzen ditu Tartasek atributo sintagma direnean.

(14) "... pagano girela, eta pagano beno sordeiz edo *gaixtoago* girela" (26).

(15) "...eta gure bekhatia *handiago* dela eta *krimenelago*..." (25).

(16) "... demonioak baiño *gaixtoago* dira..." (28).

Jaso ditudan beste zazpi testuinguruek ere erabilkera hori erakusten digute.

\* \* \*

1.1.2.1.3. *Goren maila*. Maila hau adierazten duten atributo sintagmetan gutxiago betetzen digu mugagabeen erabiltzeko joera hori. Oso bakarrak ditugu goren maila adieraziz mugagabeen datozkigun atributo sintagmak.

(17) "Orhit niz neure gaztetasunean ikhusirik Pariseko hirian, zein baita Franziaiko erresumaren hiri kapitala, gure erregeen egoite eta habitazione komuna eta ordinariora eta lür orotako *ederren* eta *handien*..." (36).

Era horretako hainbat testuingururen artean haxe bakarra dugu mugagabeen erabilitako goren mailako atributo sintagma.

Besteak mugatuan agertzen zaizkigu. Superlatiboak mugatuak erabiltzeko joera adierazten digu, beraz, Tartasek. Egia esan, zenbaitetan ageri zaigu *gehien* superlatibo formaz; baina behin bakarrik ere ez adjetibo gisa edo funtziotan, izen bezala baizik, erdarazko "soberano" "souverain" edo euskarazko "jaun" "jabe" "nagusi" edo antzekoen esanahia, balioa duela. Ikus honako testuinguruok, adibide gisa:

(18) "... eta arimaren jaun, nabusi eta *gehien* deabrü gaixtoa gelditzen da..." (77).

(19) "... hanbateki heriua baizen bertze gizon orooren *gehien* eta jaun..."

\* \* \*

1.1.2.2. *Izen multzoa*: A) Atributo denean *atribtoa* (izena edo izena + adjetiboa) bada, jokabidea aldatu egiten du Tartasek. Sintagma hauetan for-

ma mugatuak erabiltzen ditu gehienbat. Ba dirudi izenak duela mugatzaile indarra, Mitxelenak dioenez (1).

“Hon” eta “hobe” adjetiboak berak ere, bakarrik doazenean, beti mugagabeen erabiltzen baditu ere, *on* adjetiboak izenarekin batera sintagma bat osatzen duenean mugatuan agertzen zaigu. Ez dut aurkitu *hobe* adjetiboa izenarekin batera doaneko sintagmarik. Hona etsenplu bat edo beste:

(20) “Jenkoak egin dütian gauzak oro *hon* dira... eta bere obrak oro, eta oro *gauza honak* ziren eta *obra honak*... (129).

Hala ere bai izen soilezko, bai izen + adjetibozko sintagma batzuk mugagabeen erabiltzen ditu.

a) “Izan” laguntzaile iragangaitzarekin:

(21) “... hura bezala, *lür zela* eta *herrauts*...” (24).

(22) “... erran behar da *botere handi* diola hark...” (40).

(23) “... paganoak eztaki paillardiza *bekhatü* dela...” (25).

(24) “... zein izan baitzen Aletsandre handiaren *nabusi* eta gobernadore...” (17).

(25) “... aski aberats eta *jaun handi* izanen niz...” (47).

b) Beste iragangaitzekin:

(26) “... ordü hartan arima bat ...gertatzen Jenkoaren *alaba*...” (20).

(27) “... eta arimaren *jaun, nabusi* eta *gehien* deabrü gaixtoa... gelditzen da” (77).

d) Baita iragankorrekin ere:

(28) “... eginen zitü *errege* zelian, eginen zitü etziren beno *jeun handia*go...” (4).

(29) “... herioa izanen düzü zure *muthil* eta zu haren *jaun*...” (17).

Izen hutsezkoak hamar aurkitu ditut. Izen + adjetibozkoak bi bakarrik. Honela dio horietako batean: “... giren... *jende prerestü*...” (140 orr.). Beraz, Koldo Mitxelenak beharaxeago dioena ere betetzen da: “La determinación es una exigencia más apremiante, cuando se trata de sustantivo y adjetivo” (1).

*Osagarri zuzen edo objeto* bezala bi adibide aurkitu ditut. Bat zukazko forma alokutiboan dago.

(1) Miscelánea filológica vasca, FLV, 9, 1978 (213 orr.).

(1) Opus cit., 213 orr.

- (30) "... *arau* baitü eztela galdü..." (17).  
 (31) "eman dü *arrapostü* botzak..." (17).  
 (32) "..., herioak zuri eginen deizü *belzuri*, eta zük hari *begitarte*" (18).  
 (33) "...Jainkoak emaiten badrauzü *bizitze lüze*..." (6).  
 (34) "... egin badizozü... *begitarte on*..." (4).  
 (35) "...Jenko onak eman badizo *osagarri* eta *bizitze luze*..." (123).  
 (36) "..., eta halakoek behar düte *fin gaitz egin*..., behar baitüte *fin hun egin*..." (12).  
 (30) (31) (32) zenbakietakoan izenak mugagabeen datozkigu. Hurrengo laurek izena + adjetiboa mugagabeen dakarte.

*Forma lexikalizatuak* (izena + aditza), batez ere *egin, jakin, izan, ukan* eta beste zenbait aditzekin mugagabea erabiltzen du Tartasek. Forma lexikalizatu bezala erabiltzen ditugun formak ditugu. Ikus ondorengo testuinguruak:

- (37) "... *so egizü* zonbat laster eta ürhatz egin dian... egiak..." (99).  
 (38) "... *egiezu begitarte* eta so hon bat..." (6).  
 (39) "..., haren ugazaita *behar düzü* izan..." (4).  
 (40) "..., noren *beldür izanen* da?" (4).  
 (41) "..., hark *jakinen* dü *zure berri*..." (145).  
 (42) "*Gose denak* nahi dü mündü hontan ikhusi bere ogia..." (75).

## 1.2. KASU PARTITIBOAN

### 1.2.1. Baiezko perpausetan

Izen hutsezko sintagma:

- (43) "...eztüzü nahi sinhetsi badela *hiltzerik* eta *heriorik*..." (15).

Izena + adjetibozko sintagma:

- (44) "..., eta harekin *gerla handirik* denbora labürrez igaren baitzian" (142).  
 (45) "Geroz eta lehen izan da zure familian *personaje handirik*..." (5).  
 (46) "..., eta hantik esperanza baitüt idokiko dügüla *gauza ederrik*" (63).  
 (47) "*Akzione ederrik* eta *saindirik egin* dü hark ere..." (5).



### 1.2.2. Ezezko perpausetan

Ondorengo bi testuinguruotako sintagmetan ukapena, esanahi absolutoa adierazteko partitiboa darabil Tartasek.

(48) Ezta halaber *hiltze honik*, *ezpada bizitze honik...*” (12).

(49) “Gük ezkundian deüs hari *ematekorik*, eta etzian deüsetan ere *gure beharrik...*” (110).

### 1.2.3. Galderazko perpausetan

Gauza bera dugu ondorengo etsenpluan ere, partitiboa darabilela, alegia.

(50) “Zer da mündian hain *desarabik*, hain *deshonestik*, hain *estranjerik* eta *itsusirik...*” (18).

## 1.3. ERGATIBOAN

“Errege” hitza bakarrik darabil mugagabeen.

(51) “...*erregek* entzünik haren hiltziaren berri tristia...” (5).

## 1.4. GENITIBO EDUTEZKOAN

Kasu honetako adibideak oso gutxi dira. Lau testuinguru bakarrik aurkitu ditut eta lau sintagma ezberdin bakarrik. Bi kasutan izenordain personala ageri da kasu horretako atzizkia duelarik. Denetan *gure* artilurik gabe ageri zaigu:

(52) “...Hautia *gure* da...” (61).

(53) “Igarena ezta *gure*, jitekoa ezta *gure*, ezta *gure* presentian dena baizi...” (86).

(54) “...hanbateki arima hura *Jenkoaren* da...” (21) *Gure*, *Jenkoaren*, bukaera forman bakarrik begiratu genitiboan sartu ditut, baina funtzioz atributo ditugu. Guk *gurea*, *Jenkoarena* esan eta idaztiko genukeen tokian, Tartasek *gure Jenkoaren* idatzi du. Guk nominalizatu egiten ditugu *-a* artikulua erantsiz, Tartasek, ordea, ez die artikulurik erantsi, mugagabeen erabili ditu baizik.

Eta izen batekin beste behin:

(55) “... eta paje hark... lehen hitzak erraiten zütian erregeri *erregeren* manüz...” (14).

Hor *erregeren* sintagma ageri zaigu genitibo mugagabeen.

Batzutan genitibo edutezkoak duen *-en* atzizkia kasu destinatiboko gure *-entzat* bezala erabili dute zenbait aldiz sortaldeko euskaldietan; baina goiko adibide horietan ez dirudi horrelakorik ematen denik. Hor destinatiboaren edo norentzakoaren esanahia ez, baina genitiboarena dute.

Hala ere, beste zenbait testuingurutan *-en* genitibo edutezkoaren atzizki horrek kasu destinatiboaren *-entzat* atzizkiaren balioa dute. Hori adierazten digute honako adibideok:

(56) "... eta hanbateki herioa eder dela, hon eta maitagarri *gizonaren...*" (141).

(57) "... baina zenbat münduko bizia *jüstoaren* on baita..." (135).

(58) "... erran nahi dü apostoliak mündü hontan Jesüsen grazian bizi-tziaz ohore düt..., baina hilzia *ene* hobe da..." (135).

(59) "... *halakoen* hobe lizate hil litian..., zeren sendotüz geroz, gaixtoa-go dira..." (143).

## 1.5. DATIBOAN

Kasu honetako sintagma mugagabe bezala *erregeri* izen sintagma ageri zaigu.

(60) "... eta paje hark... lehen hitzak erraiten zütian *erregeri* erregeren manüz..." (14).

## 1.6. KASU INSTRUMENTALEAN

Erlazio hizkiz horniturik aditzlagun funzioa betez datozkigu izen sintagma mugagabe batzuk. Batzutan (53), (54) zenbakietakoek bezalakoez denbora adierazten digute (*denbora lüzez, ordü onez*).

(61) "..., Charles-Quint, Espaiñiako errege eta Alemaniako inperadorearen alde gerla *denbora lüzez* bere erregeari eta bere erresumari egin ziala..." (21).

(62) "Gazte zireño has zite *ordü onez* obra onen egiten..." (21). Bestetan berriz, era, modua adieraziz datozkigu.

(63) "*Nekez* onsa hiltzen ahal da gaixki bizi izan dena..." (12).

## 1.7. KASU INESIBOAN

Kasu inesiboan dauden sintagmak esangura zehaztugabea badute, mugagabeen erabiltzen ditu, nahiz izen hutsezko nahiz izenez + adjetiboazko sintagmak izan. Horrela agiri da honako adibideotan:

(64) “Gerlan diren soldadoak *danjer eta peril handitan* bizi dira oren oro...” (142).

(65) “Irakoizian, andere onaren *ohoretan* enzün ezazü meza eta barür egin...” (146).

(66) “..., eta zien arimak eta zien gorpitzak *sütan eta odoletan* ezarriko ditüt...” (52).

Testuingururen bati esangura zehatza eman nahi badio, izen sintagma mugatua erabiliko digu. Orduan forma mugatua duen sintagma horrek bere aurretik izenlagunen bat darama zehaztailetzat: *bere, ifernüko*.

(67) “...*bere lotik* iratzarririk akhazatüko ditü *bere eztaietarik, bere mahañetik* eta, bere gloriaren portalia zerratürik, igorriko *ifernüko süra eta penetara...*” (69).

Ba ditugu, hala ere, bi izen sintagma berezi (60) eta (61) testuingurueta daudenak: *haren lekhütan, gure lekhütan*. Sintagma hauek berez mugatu singularra eskatuko lukete; izan ere, sintagma batek posesivo bat edo *-en, -e* lotura izkiz duen izen laguntzat, izenordain personala edo erakuslea badu, mugatua bait da. Ez da errez horiek horrela zergatik erabili dituen jakitea.

(68) “..., eta süplizioa patitüko ziala *haren lekhütan...*” (107).

(69) “..., gük meritatü gündian pena eta tormenta gerak *gure lekhütan* bere personan igaren baitü...” (111).

Laburtuz esan beharko genuke izen sintagma bat izen multzoen bakarrik, nahiz *izen* hutsez, nahiz *izenez + adjetiboz* osaturiko sintagma, perpaus barruko bi puntutan bakarrik agertzen zaizkigula Tartasengan: AM-ren azpian izen sintagma NORI edo NOR bezala edo izenlagun gisa edota hemengo aditzlagun bezala AS-ren azpian, baina ez behin ere P-ren azpian sujeto gisa.

## 2. IZEN MULTZOA + ZENBATZAILE ZEHAZTUA

Izen multzoaren eskuinetara doan zenbatzaile zehaztu hori ‘*bat*’ zenbatzailea du. Beste zenbatzaile zehazturik ez darabil Tartas-ek izen multzoaren eskuinetara jarririk.

Era eta funzio guztietan erabilitako izen sintagma mugagabeak arkituko ditugu Tartasengan, *bat* zenbatzailez osaturiko sintagma denean.

2.1. P-REN AZPIAN DOAZEN SINTAGMAK. Kasu nominatiboan eta ergatiboan daudenak, *bat* zenbatzaile zehaztuaz bukatzen badira, mugagabean ageri zaizkigu, adibideetan ikusten denez. Kasu horietatik, hain ugarriak bait dira, ez dugu bat edo beste baizik jaso nahi izan.

(70) “..., eginen zitü errege zelian... eta emanen *koroa bat*” (4).

(71) “Solino erromeko *istoriono batek* dio bere librüan bertze ordüz... (11).

2.2. IS-REN AZPIAN IZENLAGUN FUNTZIOTAN DOAZENAK ere berdin jokutzen dute Tartasengan.

(72) “Neure adeskidia, igaren den üran egün batez nangoela *zühaintze baten* itzalbian... egin düť neure loan amets handi bat...” (6).

(73) “Bena egün batez *hiri baten* eskaladaz hartzeko, armadaren bürian, mürraillian gora igaiten zela... oihü eta heiagora handi bat egin zian...” (15).

2.3. AM-REN AZPIAN ISnori eta ISnor bezala kasu datiboan eta nominatiboan gauza bera pasatzen zaigu. Honelakoak ere mugagabeen datozkigu.

2.4. AS-REN AZPIAN aditzlagun funtziotan datozkigunek damaizkigute kasurik ugarienak.

(74).

(75) “..., zeren lan batetan eta obra batetan bi bertüte eta perfekzione... Jüntatü, josi eta tinkatü baititü, zoin baitira jüstizia handi bat *miserikordia handi batekila*...” (102).

(76) “Neure adeskidia, igaren üdan *egün batez* nangoela zühaintze baten itzalbian...” (6).

(77) “..., *denbora batez* inposible baita elgarrekila egon ditian...” (50).

(78) “Egün batez Ezekhias errege handi hura bere ohian zagoen hiltzeko pündian *eritarsün handi batez* kolpatia” (43).

(79) “...difikültate eta orapilo haur garbitü behar dügü *errapostü bakoitz batez*...” (78).

(80) “Jüjamendü harzatz, ..., etsenplua garratz bat eta izigarri bat irakürtzen dügü Pariseko *doktor handi batez*...” (78).

(81) “..., bere gorpitza *gorotzate batetan* gaiñian hedatürük zagoela...” (46).

(82) “..., epitaphio eta debisa eder haur jarri zen *karta batetan* bezala ezkribatürük molde hontan...” (103).

(83) “Laur Ebanjelista saindiak arkordü hon batetan dira” (54).

(84) “Propheta hark berak dio *bertze lekhü batetan*...” (40).

(85) “..., eta ene librito honek eta nik merexi dügüla *sühandi batetan* bizirik erra gitian...” (13).

(86) “Egün batez Franziako prinze bat,... heldü zen Italieta, Puzols deutatzen den hiri batetan (sic), eta joanik *eliza batetara...* (103).

(87) “Zoinbat doktor debotek diote zeinü horien joitia jin dela guri representatzeko hamabortz misterio prinzipalen, zein baitia partitüak *hirur bortzetara...*” (43).

(88) “Neure adiskidia, bildür nitz zuri eta niri gertha dakigün Pharon Erregeari bezala..., Moisek eta haren jendeek itsasoa gorria *bi partetara* erditürrik..., itsasoa iragan züten oiñak busti gabe...” (28).

(89) “Biziak abandonatzen gütü sortzian tentazione orori, danjer orori, peril orori, herioak haietarik orotarik, hilzian delibratzen, ez *denbora baten*, baina jagoitiko” (144).

Beraz paragrafo honetan ageri denez, *izen multzoa* + *bat* izen sintagma agertzen denean, forma mugagabea erabiltzen digu Tartasek. Joera hori gehiago nabarmentzen da lekutasunezko kasuetan, *batetan*, *batetara*, etabarrereko formak erabiltzen bait ditu.

(90) “..., bere gorpitza *gorotzate batetan* gaiñian hedatürrik zagoela...” (46).

(91) “..., epitaphio eta debisa eder haur jarri zen *karta batetan* bezala ezkribatürrik molde hontan...” (103).

2.5. Hala ere, batzutan —nik lau kasu hauek bakarrik jaso ahal izan ditut— mugatu singularra ere erabiltzen digu.

(92) “Ene adeskidia, salbatü nahi bazira, othoi, beha zakizat, ekarriko zitüt bide on batean eta bide hark gidatüko zitü xüxen...” (12).

(93) “S. Damaszeno Jaunak... dio saindü hark gizon bat egün batez... orori zela *leze, ozin, eta xilo handi batera*” (82).

(94) “... jarraiki zite eta segi ezazü ene lümaren herexa eta hatza, zoaza aitzina, *alde baterat ez bertzerat*, esker ez esküin makürthü gabe...” (11-12).

Kasu hauek, hala ere beste adibide guztiekin gonbaratzen baditugu, oso eskasak ditugu, ia salbuespentzat, arauz kanpokotzat hartzekoak Tartasengan.

### 3. ZENBAKI ZEHAZTUA + IZEN MULTZOA

Goikoan, *izen multzoa* + *zenbaki zehaztua* formari buruz esan duguna berresan genezake zenbait pundutan. Hala ere argibide batzuek aurreratu behar

ditugu. Lehenik, goiko forma eta oraingoa gonbaratzen baditugu, oraingoa izen sintagmako elementuen hurrena aldatzen zaigu transformazio bidez. Lehen 'bat' elementu zenbatzailea izen multzoaren ondoren genuen. Orain aurretik ditugu 'bat' hori ez beste zenbatzaile zehaztu guztiak.

Gainontzekoan, izen sintagmaren egitura berdina dugu formaren alde-tik. Hemen ere, izen sintagma eratzeko momentuan, izen multzoak zenbatzaile zehaztuetakoren bat bere aurrean badu, izen sintagma hori forma mugagabe-  
an agertzen zaigu *Onsa hilceco bidia*-n. Horretaz jabetzeko aski dugu jaso ditudan testuinguruok ikustea:

### 3.1. KASU NOMINATIBOAN sujeto edo objeto bezala:

- (95) "Erran den bezala, salbatzeko *bi gauza* behar da..." (65).  
 (96) "Gure bizia, gure denbora oro, *hirur gauzak* egiten düte, igarenak, pre-senzian denak eta litekoak..." (85).  
 (97) "Edirenen düzü *laur kapitülü* ene libürian..." (7).  
 (98) "...eta kolpu batez *bi bekhätü handi eta grabe* baitzütian kometi-tü... (39).

### 3.2. KASU PARTITIBOAN

Era honek bitxiagoa dirudi.

- (99) "...gure Jenkoak... guri manifestatü kanporat bere *hirur perfekzio-ne eta athributo handirik*..." (101).  
 (100) "...indazü espazio, denbora eta termaiñu neure bekhätiez peniten-zia egiteko, eta ber orenian... bere bi begietan behera nigarrez, *bi ithurri han-dirik* egiñ ziala..." (45).

### 3.3. AS-ren AZPIAN ADVERBIO FUNTZIOTAN, KASU INSTRUMENTAL ETA TASUNEZKOETAN.

- (101) "Hilziaz orhitzia..., eta klarki nahi düt frogatü *laur gisaz eta laur moldez*..." (13).  
 (102) "David erregiak gure Jenkoa *bi okasione handitan* partikularki ofensatü eta desohoratü ziala..." (38).

### 3.4. AS-ren AZPIAN IZENLAGUN FUNTZIOTAN:

- (103) "...othoitzez zagoen Jenkoari igorri zon grazia..., bere bi begietan behera nigarrez *bi ithürriren* egiteko" (41).  
 (104) "..., ikhusi dü haboro leze, ozin haren bi bazterretatik *laur süge handiren* büriak jalkitzen zirela..." (83).

(105) “Hargati erraiten düğü bizia *hirur maneratako* dela, korporala, spirüala eta eternala...” (115).

Baina salbuespen bat gogora behar dugu hemen. Aitatu berri ditugun etsenpluetatik kanpo gelditzen zaigu bere formaz honeko testuinguru berezi hau:

(106) “Birjinitatia eta xahütasuna *bi aldetik* konsideratzen da” (63).

Kasu bakarra eta berezia dugu, noski. Gramatika arauen kontra doala dirudi erabat. Mugagabea balitz, *bi aldetatik* emango luke; mugatu plurala balitz, berriz, *bi aldeetatik* izango litzateke bere forma jatorra. Idazlearen okerra edota inprentakoa izan daiteke. Zer esplikazio eman horretaz? Ez du beste esplikaziorik nire iduriko. Oker hori, bestalde, esplikagai dugu. Aurreko bokala berdina delarik, /e/ bokala hemen, hurrengoaren, bigarrenaren ezabaztea konturatzeke egin bait daiteke bai idazlearen aldetik bai inprentaren aldetik ere.

#### 4. GALDETZAILEA + IZEN MULTZOA

Izen sintagma barnean datorren izen multzoak har dezake bere aurretik osagai bezala adjetibo galdetzaileraren bat. Tartasengan aurkitu ditudanak hauek izan dira: *zonbat* (zenbat), *zer*, *zein*, gehiago ere badiren arren.

Elementu horietakoren batekin datorkigun izen sintagma ere mugagabearen ematen digu Tartasek. Berdin da P-ren azpian sujeto gisa, AM-ren azpian ISnor edo ISnori bezala; edota AS-ren azpian; aditzlagun gisa agertzen zaigunean ere. Hori ikusteko aski da ondorengo testuinguruak aztertzea.

(107) “..., eta hark herioari *zonbat ohore eta respektü* eman dian beha zite azken psalmo huni...” (42).

(108) “Zügati *zonbat ürhatz, zonbat jauzi eta laster egin* dian gura Jau-nak konsidera ezazü...” (99).

(109) “..., sogizü herioaz orhitzia *zenbat indar, bothere eta bertüte* dian...” (45).

(110) “Ohoratzen badüzü..., nork *zer pagü eta rekonpensü handiagorik* nahi dü mündian?/::” (8).

(111) “Balaki aita familiako batek, ohoiña gaüaz *zer orenez* jin ladin, iratzarririk egon laite...” (50).

(112) “...hartakotz ziek ere zaudezte presto..., zeren ezpaitakizie *zer orenetan* jinen den gizonaren semia...” (50).

(113) “..., eta bertzia, jakin faltaz *zein lekhütan*, bolüerra bide handian beha aidürü eta goaita zagoen...” (55).

(114) “...(Herioak) hark eztü, eta ez ükhenen, hargatik, neure adiskidia, zaude beha *zein aldetarik* jinen den...” (60).

Horrelako izan zintagma forma agertzen zaigunean ez dugu ez mugatu singularrik ez mugatu pluralik aurkituko. Izan ere galdetzaile edo galdekariaren bat erabiltzen dugunean semantikazko arazoa dugu eta sintaxiakoa ere bai, noski, semantikak edo esanahiak forma mugagabea eskatzen digunez, mugaketa egiteko erantzuna ematen duen izen sintagma egin diezagukeneren zai gelditzen bait gara. Berezkoa du beraz horrela osaturiko izen sintagma mugagabe agertzea. Eta bide horri artez darraikio Tartasek.

## 5. IZEN MULTZOA + ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEA

Zenbakiez kanpoko indeterminatu diren adjetibo guztiak sartzen ditugu *zenbatzaile zehaztugabe* deitzen dugun sail honetan. Tartasek erabiltzen dituenak honoko hauek ditugu: *oro, güti, batzü, aski, franko*, Gehien erabiltzen duena, duarik gabe, ‘oro’ dugu.

Hemen ere formaren aldetik begiraturaz izen sintagma mugagabeak edozein kasutan edo funtziotan ikus genitzake.

5.1. P-REN AZPIAN sujeto gisa, nahiz nominatiboan nahiz ergatiboan:

(115) “Eta gero hitz franzes haien pian, irakhurtzen dira *hitz eder batzü* latiñez eskritüran jarririk...” (37).

(116) “...*Frantzia orok* aihortzen dü zü jaun handi bat... zirela...” (4).

5.2. AM-REN AZPIAN:

5.2.1. Nahiz objeto bezala nahiz nominatiboan.

(117) “..., *hitz güti, labür eta on* erran nahi dü gure Jaunak...” (51).

5.2.2. Nahiz datiboan, ISnori bezala:

(118) “Bekhatoria eta bekhatoresa, zier mintzo niz, neure bürüari eta *mündü orori...*” (36).

5.2.3. Nahiz partitiboan, aditzlagun gisa adverbio funtziotan:

(119) “...zure mendian heldü zira... *urre, zilhar, hazienda eta honik aski* esküetan bazündiala eta gero... zure esküetan eztüzü deüs ere ediren lehen baino gehiago...” (92).

(120) “Bazian, bada, bazian Apostoliak *ohorerik aski*, esperanza eta konsolazione franko jesükhristo Jaunaren grazian izatiaz...” (136).



## 5.3. AS-REN AZPIAN:

(121) "...gizonak galtzen du. prozeza *despendio, damü, intrez ororekin...*" (77).

(122) "Phraon aldiz *bere jende ororekin* itsasoaren erdian itho..." (28).

(123) "Gure Jaun Apostolü eta adeskide handi honek hitz *gütiz* hanitz erran dü,..." (52).

(124) "Gure Jaunak lekhü huntan abertitzen gitü..., *oren oroz..., denbora oroz, aste oroz, urthe oroz, egün oroz...*" (51-52).

(125) "..., eta hark zuri... bere aitaren eta bere zerbütziak rendatüko drautzü *lekhü orotan...*" (4).

(126) "..., *zure bizi orotan* prepara zite,... *zure denbora orotan* eztüzü behar ikhasi lekzione bakoitz bat baizi..." (59).

(127) "... (Errege Dabid) ardüra mintzo da bere herioaz, herhautsaz, bere penitenziaz, *bere psalme orotan* kasi..." (40).

(128) "Gizona, dio Jobek, amaren sabeletik jalkiz geroz, arte labürrez, gaizak eta miseriak *alde orotarik* inguru inguru xahatzen dü..." (133).

(129) "Eta nola zeruko onak eta frütiak baitira *alde orotarik* on eta segür, hala hala lürrekoak dira *alde orotarik* falso..." (33).

(130) "Orhit niz... ikhususirik Pariseko hirian (zeiñ baita... *lür orotako ederren eta handien*, edo lehenbizikoa edo bigarrena) eliza handi bat..." (36).

## 5.4. IS-REN AZPIAN, kasu genitiboan izenlagun bezala datozenak:

(131) "Nahi düt sinhetsi, eta sinhesten düt eliza saindiak, baita Jesü-khristoren espos maitia, *egia ororen* jabe eta habe handia..." (36).

(132) "...Jüpiter baitzen *Jenko ororen* gehiena...; hanbateki herioa baitzen *bertze gizon ororen* gehien eta jaun,..." (15).

(133) "Orhit niz... ikhususirik Pariseko hirian... eliza handi bat, zeiñetan *hil estranjer ororen* gorpitzak ehorsten baitira komunzki..." (36).

## 5.2. ZENBAIT OHAR

Bi ohar erantsi nahi nizkioke hemen.

a) *aski*

Zenbatzaile honek aurretik duen izen multzoa bi eratara ageri zaigu Tartasengan: Inoiz atzizkia -Ø mailan duela: *pasaje eder aski* (74 orr.).

Beste batzutan partitiboan: *ohorerik aski* (111), ... *honik aski* (110).

Bien arteko diferentzia ikus ahal izateko Tartasek liburu honetan ematen dizkigun baino testuinguru gehiago beharko genituzke. Bitartean hor geldi-

tzen da airean arazo hori beste lantxoren batetako aztergai, hainbesteko ohererik merezi badu behintzat. Adibide hauetan ikusten denari begiraturaz, agian izen sintagmaren egitura: izena + adjetiboa + aski denean nor kasuan, nominatiboan, eta egitura: izena + aski denean izena partitiboan jarri digu. Hala ere adibide hauetatik bakarrik ezin daiteke erabateko ondorioz atera.

b) *oro*

Batzutan zenbatzaile honen aurretiko izen multzoa mugagabeen dator-kigu Tartasengan: *lekhü orotan, alde orotarik, egün oroz...*

Bestetan, berriz, izen multzoa mugaturik datorkigu: behar *dena oro*, zure *haurrak oro*, bere *honak oro, bortzehün astoak oro...*

Honek adierazi nahi digu, ene iritziz, edota *oro* mugagabeen erabili arren —eta hala agertzen zaigu beti— Tartasek *guzti* zenbatzailearen alderantziz, hala ere aurretiko izen multzoa bi eratara erabil daitekeela: mugagabeen edo mugatuan. Beraz hemen *oro* beti ere mugagabeen, baina aurretiko izen multzoaren forma mugagabea edo mugatuan. Horrek esan nahi duena, izen sintagma horren mugaketa edo ez-mugaketa sintaxiak ez baina semantika edo esanahiak egiten duela.

(134) “... egiezü begitarte eta so hon bat, edirenen düzü han zure arimak behar *diana oro ...*” (6).

(135) “Laurgarren meziak, Jauna, dio zure zazpi semiak eta hirur alabak..., zure *haurrak oro*, zure familia oro galdü da...” (45).

(136) “Larria, larriagatik, eta bere *honak oro* emanen ditu gizonak bere arimagatik, *lürreko honak oro* eztira lür baizi...” (125).

Eta honelako beste bost adibide jaso ditut. Hemen agian oposizio aurrean gaude. Bestalde “*guzti*”/“*oro*”-ren artean badago alderik. *Guzti* forma mugagabeen edo mugatuan erabil daiteke. *Oro*, berriz, beti mugagabeen erabiltzen du Tartasek.

## 6. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEA + IZEN MULTZOA

6.1. 5.ean esan dugun gauza bera gertatzen da hemen ere. 5.ekoarekin gonbaratzen badugu, diferentzia bakarra izen sintagmako elementuen hurrenkeran daukagu. Izan ere oraingo testuinguru hauetan zenbatzaile zehaztugabea izen multzoaren ondoren joan beharrean, izen multzoaren aurretik doakigu. Transformazio baten bitartez lortu dugu aldaketa hori.

Tartasengan agertzen zaizkigun zenbatzaile zehaztugabeak hauek ditugu: *aski, zombait, zerbait, hanitz, hainbertze, hanbat, bertze, deüs*.

Hauetakoren bat izen sintagmaren aurrean doanean izen sintagma hori mugagabeen ematen digu Tartasek. Begira lehen bezalaxe jaso ditugun etsenpluak:

1. *P-ren AZPIAN*. Sujeto gisa:

(137) "... spiritü saindiak edo *zoinbat aingürük* Jenkoaren partez ezpa-deza rebela eta berria eman, ezin diro..." (88).

(138) "Kondatzen düte Mithridates Ponte herriko errege handi bat, bel-dürrez..., *zonbat traidore jende gaixtok* pozoatürük hil lezaten, inbentatü zia-la... kontrapozoa admirable bat..." (33-34).

2. *AM-ren AZPIAN*. Objeto gisa:

(139) "'non est potestas super terram, qui ei valeat comparari': eztü nehork *aski botere* hari konparatzeko..." (142).

(140) "Neure adiskidia, üste düt... edirenen düzüla jiten den kapitülian *hainbertze okasione* herioaren maitatzeko..." (48).

(141) "... hantik hartazü nahi ziren *bezanbat frütü...*" (33).

3. *IS-ren AZPIAN*

(142) "Solinus Erromeko istoriono batek dio bere librüan bertze ordüz, *bertze gauza ederren* artian bi tenpla edo bi eliza zirela..." (11).

4. *AS-ren AZPIAN*

(143) "Joandone Jakhübek ere dio: 'In multis offendimus omnes'. Hanitz gizaz eta maneraz orok ofensatzen dügu" gure Jenkoa..." (143).

(144) "Erran dü Jesüs gure adeskidiak bere aita eternalari, gizonaren alde, *bertze ordüz* poetak erraiten zian bezala..." (112).

(145) "..., haien *aski ordüz* jin edo arribatü faltaz, egünaz gaü ilhüna eta beltza bilhatü züten..." (62).

(146) "... eta gure Jainkoaren *zonbait miraküüllü handiz* kanpoan gaizki bizitzen denak ..." (12).

(147) "Jokalaria bere ürhia, zilharra eta morsa oro galdü dianian eta jokatü edo kartetan edo datoetan edo *bertze zoinbat jokatian*, badü esperantza lehen jokoan jokatü zian dirua irabaziko diala..." (60).

## 6.2. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEA + ADJETIBOA + -G)IK

Adibide batzutan zenbatzaile zehaztugabeari darraion adjetiboa edo aditz adjetiboa partitiboan ageri da:

(148) "*Deüs honik* ene librian ediren badezazü, ohoria eta laudarioa, emazü Jinkoari, eta ez niri..." (8).

(149) "Bada Jesüs gure Jaunak maitatü gütianian..., gük ezkündian *deüs* hari *ematekorik*, eta etzian deüsetan ere gure beharrik..." (110).

Adibide hauetako inguruei begiratzen badiegu, berehala ikusiko dugu, lehenengoan, perpausa, baldintzan datorrela: -ediren *badezazü*; eta bigarrenean, berriz, ezezkoa dugula.

Badirudi, beraz, partitiboa erabiltzen denetan bezalaxe, ezezkoetan, galderazkoetan, baldintzazkoetan bezalaxe, alegia, erabiltzen duela zenbatzaile zehaztugabearen ondoren datorren adjetiboa ere.

### 6.3. ERABILERA: 1- *aski*

Lehen ikusi dugu, mugatzaile zehaztugabe hau izen multzoaren atzetik kokatua zetorkigularik. Oraingo testuinguruan eta beste hiru gehiagotan, berriz, aurretik azaltzen zaigu.

(150) "..., spiritu saindiak edo *zoinbat aingürük* Jankoaren partez ezpada rebela eta berria eman, ezin diro..." (88).

(151) "..., haien *aski ordüz* jin edo arribatü faltaz, egünaz gaü ilhüna eta beltza bilhatü züten..." (62).

Lehen esandakoez gainera hau ere gogora beharrekoa dugu.

### 2- *oro*

Bi kasutan behintzat izen sintagmaren aurrean agertzen zaigu:

(152) "*oso khexü eta nahasi* jalkiten.

(153) "zu, Jauna, baitzira *oro hon eta jeneros*."

Bietan *oro* elemendua sintagma atributoaren aurrean datorkigu. Bikoitza izan daiteke agian horren esplikazioa. Edota *oro* hori adberbio baten funtzioa betez datorkigula *erabat* edo *osoki* esango baligu bezala. Baliteke honetan Tartasek Frantsesaren eragina jasan izatea. Frantseseko 'tout' morfemaren antzabide du hemen, 'tout' hori adberbio gisa erabili delako antza, noski, 'tout' horrek adberbioaren funtzioa betetzen baitu batzutan, M. Grevisse-k bere *Le bon usage* liburuan dioenez:

"Tout est adverbe et invariable quand il signifie 'entièrement, tout à fait'. Il se place devant un adjectif ou une locution adjective, un participe, un adverbe ou une locution adverbiale, une préposition ou une locution prépositive, un gérondif" (1).

Eta adibide bezala testuinguru batzuk dakartza:

"se recontrant un jour *tout seule* et sans témois... La ville *tout entière*..."

Jaso ditugun sintagma atributo horien aurreko *oro* horrek frantsesezko 'tout'-en funtzioa betetzen ote du? Adberbio bezala eta sintagma atributo horietan dauden adjetiboen graduatzaile bezala jarri ote ditu Tartasek? Hain zuzen ere beste idazleengan behin baino gehiagotan ikusi ohi ditugun /*guztiz* + *adjetibo/* -/*dena* + *adjetibo/* sintagmen antzeko ote dugu?

(1) GREVISSE, M.: *Le bon usage*, p. 386 D) Adverbe.

Badaiteke ere agian *oro* horren aurrean kasu bakoitzean doakion izenordain pertsonalaren elipsis egotea, honela:

(ni) oro khexü eta nahasi...  
(zu) oro hon eta jeneros...

Eta orduan *oro* horiek aurrean duten izenordainaren aposizio izango lirateke. Beraz elipsisik gabe, osorik emanda honela agertuko lirateke:

(ni) oro khexü eta nahasi (nago, naiz)  
(zu) oro hon eta jeneros (zara, zaude).

## 7. IZENORDAINAK

Izenordainak trasformazio bidez sortzen zaizkigu. Izan ere, *izen multzoa + zenbatzaile zehaztugabea* edota *zenbatzaile zehaztugabea + izen multzoa*, orain arte ikusi ditugun izen sintagma horietakoren baten antzera eraturako formula bada, eta izen sintagma horietako baten ordeztu, izen multzoa ezabatu ondoren, adjetiboa bakarrik erabiltzen badugu, adjetibo hori izenordain bihurtu dugu.

Horrek esan nahi du, izen sintagmaren barruan zetozen zenbait elementu mugagabe direla medio izen sintagma horiek mugagabe agertu bazaizkigu, orain ordeztu bezala agertzen zaizkigun izenordainak ere halaxe ikusiko ditugu Tartasengan. Hori ikusteko laburki begira ditzagun izenordainen sailen bildurik datozkigun testuinguruak.

### 7.1. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEA

Bere funtzio edo kasu orotan forma mugagabea hartzen digute izenordainek:

(154) "...eta zeren hala hari (sic) direnak baitira *güti*, eta hala hari ez direnak *hanitz*, *güti* dira salbatiak, edo *hanitz* damnatiak..." (61).

(155) "Ordenatü zela gizon eta emazte orori, behin *orok* behar dütela hil..." (58).

(156) "*Ororen* azken xedia eta basterra da herioa, hantik harat *deüsen* ere ezkira beldür izanen..." (144).

(157) "Mehatxü hori bera egin dü gure salbatzaliak guri *orori*..." (25).

(158) "'Sciebat omnia quae ventura erant', ikhusten zian haren hilzia abandaillos eta prezios izanen zela gure *ororen*..." (140).

(159) "Deabrüak behin, mündüak eta haragiak gero *milatan*, arima gai-xoari eztü emaiten bakerik, ez gaüz ez egünaz..." (141).

(160) “Ene euskara eta lengajia eztaikit aprobata izanen denez, bai ala ez, badü *orotarik* zerbait...” (7).

(161) “Ene aita, ...*orotrat* ere haur nüzüla zure, seme obediente eta hü-mila, egizü nizat z plazer düzüna...” (128).

## 7.2. ZENBATZAILE ZEHAZTUA

Hauek ere:

a) batzutan mugagabeen agertzen zaizkigu, *izen multzoa + zenbatzaile zehaztua-ri* buruzko testuetan ikusi dugunez:

(162) “..., *bat edo biga edo hirur*,... baina baten ematen dü *ehün*, biden *mila*, hiruren *milione bat*,...” (135).

(163) “..., baina *baten* ematen dü *ehün*, *biden* *mila*, *hiruren* *milione bat*,...” (135).

(164) “..., jüstoa *zazpitan* egünian erorten dela faltatan eta kulpatan...” (143).

b) Beste batzuetan, berriz, mugatu singular edo pluralean.

Izen sintagmetan bezalaxe, hemen ere zenbatzaile zehaztuak batzutan determinatzaile mugatzailetzat artikulua har bait dezake.

(165) “*Bata* izanen da bide onean, eta *bertzea* bide gaixtoan...” (50).

(166) “Zü, Jauna, baitzira oro hon eta jeneros, izanen zira hementik harat ene seme haurzürtzaren aita eta ama *bietarik*...” (4).

## 7.3. IZENORDAIN GALDETZAILEAK

Aurrekoetan esan dugun gauza bera esan behar dugu hemen ere. Adibide hauek testuinguruetan ematen ditudan izenordainak berez galdekariak ditugu, baina hemen erlatibo zko funtziotan erabiliak daude.

(167) “...baina baten ematen dü *ehün*, biden *mila*, hiruren *miliona bat*, eztaikit *zeinbat*...” (135).

(168) “*Solinus* Erromeko istoriondo batek... dio bi tenpla edo eliza zirela, *zointarik* bata baitzen *Templum virtualis*...” (11).

(169) “*Nouissima* hitz hunek siñifikatzen dü... arima galdien penak eta süplizio eternalak, *zeintara* joanen baitira hillez geroz, herioak bekhatian atrapatzen eta sürprenitzen baditü...” (31).

## 8. ONDORIOA

Azterketa labur honen fruitu bezala zer ondorio atera genezake?

Lehenik, Tartasen *Onsa hilceco bidia* liburutik jasotako sintagma mugagabe horiek aztertu ondoren, bi multzo haundi egin genitzake:

NOR sintagmekin osatutakoa, lehenengoa, eta beste kasu gutzietako sintagmekin, bigarrena.

Eta bigarrenik, NOR sintagmetan atributo sintagmak azpimarratuko genituzke batipat, sintagma horietan agertu zaizkigun hiru sintagma egiturak gogoan izanik:

a) Adjetibo hutsezko atributoa, bai positibo mailan, konparatibo mailan, baita superlatibo mailan ere adibiderik ugariak dituzten sintagmetatik hasi eta gutxien dituztenetako hurrenkerari jarraiki.

b) Izen hutsezko denean, eta

d) Izen-adjetibozkoa denean.

Horietan agertzen zaigu batipat Tartasek NOR sintagmen erabilkeran duen berezitasuna, gaurko erabilkerarekin erkatzen badugu.

Haatik, azkenik, hemen esandakoak, hemen Tartasek erabilitakoak direla eta, ez du esan nahi beste idazlek erabili ez duenik. Alderantziz baizik, beste zenbait idazlek, eta euskalki ezberdinetakoek sintagma mugagabeak distribuzio beretan erabiltzen badituzte, arrazoi haundiagoa izango dugu fuma horiek eredutzat hartzeko.

Berezitasun hauek denak gaur eguneko gramatika arau emailerako erabilgai ez balitez ere, agian euskararen kondaira morfologia aldetik ikusteko edota dialektologia alorrean euskalkien arteko aldeak nabaritzeko baliagarri dirateke.

## BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R. M.: *Diccionario vasco-español-francés*. T. I-II Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.

GOENAGA, P.: *Gramatika bideetan*. Ed. Erein. Donostia, 1978.

GREVISSE, M.: *Le bon usage*. 8ème édition. Hatier. Paris, 1964.

LAFON, R.: *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. Elkar. Donostia, 1980.

MITXELENA, K.: "Miscelánea filológica vasca" (FLV, 29, 1979, pág. 208-228), Pamplona.

TARTAS, Juan: *Onsa hiltzeko bidia*. Ed. Jakin. Aranzazu, 1973.

TXILLARDEGI: *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas. San Sebastián, 1978.





## **DIALEKTOLOGI SAILA**



## EUSKALKIEN AGERIKO AURPEGIA

*Donaixti-Ibarre, 1982-IV-18*

*Koldo Mitxelena*

1. Penagarria eta are negargarria da, delako Euskal atlasa nahiz euskalkien azterketa erabat aipatzean, behin eta berriro, urteak joan eta urteak etorri, lehengo leku beretsutik abiatu beharrean aurkitzea. Egia da baduela arrazoirik aski, baita gehiegi ere, gure egoera narras honek. Ez dugu esateko moduan goi mailako iker-zentrurik izan Euskal Herrian; eskas baino eskasago ibili gara, horren arabera, Unibertsitate kontuan eta, okerrago dena, eskas gabiltza orain bertan ere. Izena duen guztia ba omen da, eta ez nuke geure arbasoen uste edo sineste hau uxatu nahi, edo, bestela esan, izenak berekin omen darama izana. Izan, noski, bada zerbait; ez, ordea, nahi eta ez izenak aditzera ematen duena edo eman nahi lukeena. *Izenok andi, izanok txipi* ere aspaldiko esaera dugu, honako beste hau bezalaxe: *Itzok eder, geiok ez.*

Gure hizkuntzaren egoera (ez izaera) bakartiak, ahaidetik ezak ere badu zerikusirik alor honetan nabari dugun atzerapenekin. Izan ere, ez zaie bixkiei soin-oinetakoak elkarrekin trukatzeko gaitz gertatzen. Gaitzago gertatuko zaie bixkiak ez diren haurrideei. Eta gu, hizkuntzari dagokionez, badirudi oraingoz ez garela inoren senide ez inolazko ahaide. Askazi kontuan esan daiteke ez dugula artean izter-lengusu ezagunik ere aurkitu. Eta lengusu arazoetan orobat da ez ezagutzea eta ez izatea.

Eta honako honetara dakar luzaz luzatu dudana parabola moduko berri-ketaldi honek: inguruko hizkuntzetan, erromanikoetan batez ere, aspaldi hasi eta burutu zituztelarik oraindik ere xehatzen eta zehatzen ari diren lanek ez digutela eguneko eguneraino egin behar ziguten onik egin, ez behar ziguten probetxurik ekarri. 'Bestelako' izateak baditu bere alde onak, eta hortaz dugun harrotasuna maiz aski agertzen dugu, baina ez dira guttiago ez hutsalago dituen alde txarrak. Nolanahi ere den, gogoan eduki behar genuke, ahai-de hurbilik ez badugu ere, badugula auzokorik, eta auzokoen kutsua, onerako zein gaitzerako, itsaskorra izan ohi da. Auzokoenak, haatik, ezin guregana ditzakegu, eta hor dago 'untzea', besterik gabe. Premiazkoak dira aldakuntzak, burutik oinetarainoko aldakuntzak, besterenez baliatuko baldin bagara. Eta ez dugu larregi aurreratu bide horretarik orain arte, behintzat.

2. Euskal hizkuntz-atlasa etorkizunaren lainopean kokatzen bagenuen ere, ez da orratik geldirik egon, bertan goxo planto eginik, euskal dialektologia. Ez dira urri, ez enas sail horretan, gero eta ugariago, eta aberatsago, agertu direnak. Ez naiz ni hemen hasiko gure artean egin eta argitara diren dialektologi lanen zerrenda egiten: halaz guztiz, bidenabar diot, komeni litzai-guke horrelako zerbait, ahalik eta osoena, esku artean izatea. Zerbait azal dezaket, nolnahi ere: zertaz egin den egin dena, eta zertaz ez. Hobe baitugu zertaz eskas gabiltzan ikustea, zertan gauden ondasunetan igeri jakitea baino.

Hitz-altxorra miratu, arakatu eta bildu dugu, besterik baino areago, edozein eskualdetan eta euskalkitan. Morfologi lanak ere usu agertzen dira eta morfologia aipatzea eta aditz-morfologia aipatzea berdintsu dira gure artean. Sintasiari buruzko saioak inoiz baino ugariago ditugu, guztiok dakigunez. Esan daiteke ia-ia orain dugula hasi berria arlo horren lantzea. Horrexegatik beragatik, bestelako mugak, usuarioarenak, ari dira markatzen sintasilariak, hizkuntz-eskualdeei dagoztenak, hauek ere gaingiroki bederen inoiz aipatzen diren arren, finkatu baino lehen.

Arinen landu duguna, oinarrizkoena da, behar bada, eta oinarrizkoena ez da hemen, ezin daiteke izan, hizkuntzaren muina (dena den hau), baizik eta hizkuntzarekiko edozein argitasun eta garbitasun eskaintzen digun hizketaren axalix axalena, axalaren axala. Entzun egiten baita hizketa, eta ahoskatu entzun baino lehen, ezer entzungo baldin bada. Eta abiapuntu horrek bortxatzen eta behartzen gaitu, axaleko nahiz sakoneko gertariak ezagutu nahian gabiltzanean. Eta hemen, abiapuntuan bertan, aurkitu izan dugu, txit oker ez banabil, lehenbiziko tupust eta behaztopa-harria.

Goragotik (Bonapartegandik, azken buruan) zetorkien tradizioaren ondorengo umil zirelarik puntu horretan, Azkuek, Bähr-ek eta beste zenbaitek bazuten ardura zitzaizkien hitzak eta formak (adizkiak, esate baterako) izkribuz jasotzeko modurik, nahiz eta gutti gora-beherakoak izan hauek. Eta modu horietaz edo horrelatsuko moduez baliatu ere zen gerra aurretikako Euskaltzaindia euskalkiak, *Erizkizundi Irukoitza*-ren bitartez batipat, aztertu nahi izan zituenean.

Euskararen eta euskal-hizkeren berri dakienak igerriko dio, noski, zenbait notazioren azpian datzan mamiari. Horrela, adibidez, bertakoa edo ingurukoa bada batez ere, erraz antzemango dio Bähr-ek jasotako *diddote* 'diote' dela eta idatzi ohi den *diote*-k baduela, bi bokalen artean, erdibideko hots bat, *hiatustilgend* edo esan ohi duten horietakoa. Xehetasunetan sartzen bagara, ordea, egingo luke bertakoa edo ingurukoak hots hori ez dela leherkaria, azken eztanda falta zaion [-j-] bat baizik.

Gauzak beste mutur batetik hartzen baditugu, berriz, harrimenak har gaitzake horrenbeste *tiot*, *tio*, eta abar ikustean, orain *dizkiot*, *dizkio* eta abar berrera bildu omen ditugunak. Ez baita adituegia izan behar honako galdera honen eitekorik gogora eta ahora etortzeko: nola esaten da hori ukatzean? *eztiot* ala *eztitiot*? Eta segur da bigarrenaren antzekorik maiz agertuko dela,

beti ez bada ere. Hori horrela izanik, beraz, ezin ipin dezakegu geure paradigma izenez dotoretu ditugun zerrendetan *tiot* soilik, egiaren erdia baizik agertzen ez duenez gero, eta egiaren erdirik eskasena gainera: *tiot* / *-titiot* osoago litzateke. Eta ez dut *ditiot* soil-soilik (axalean behin ere agertzen ez den *ditiot*) itxurakerien azpian datzan forma bakar eta bakoitz gisa ematen, gauzak beti horren garbi (itxuraz garbi) agertzen ez zaizkigulako. Har dezagun bestela Leizarragaren pluraleko adizkien jokabidea, hitanoan: *ditut zitiat* bihurturik aurkituko dugu, baina *eztitut*, kontsonanterik aldatu gabe, *eztitiat* tankeran agertuko zaigu. Eta *zitiat* / *-titiat*, nabari da, ez dira *tiot* / *-titiot* bezain batkorrak edo batu-errazak.

3. Azken urteotan, eta aitormen hau egiari zor zaio, zerbait eta zerbait baino gehiago ere bai opa zaio argitara diren lanetan: fonetika xehetasunak aipatu, ukitu eta are arakatu dira, azentuaren gora-beherak eta doinu-higidurak (hauek lehen aldiz, uste dudanez) oparo tratatuak izan dira. Aurre-ra jo dugu, baina ez dugu horrenbestez esan auziak eta istiluak saihestu ditugunik: gehitu eta areagotu egin ditugu aitzitik, hori baita ezinbesteko bidea. Axaleko eragozpenak eta debekuak garaitu ahala, barren-osinetan sartzen gara, ez bagara amiltzen. Eta sineskorkeria hutsa litzateke azpiko arazoak errazagoak izango direla sinestea gainekoak baino. Ez, egin behar dugulako egiten duguna ez da deus erraztea eta eskurakoitzea; barrentzea eta sakontzea da, nahiz eta hola erraz ziruditenak zaildu eta zuzen ziruditenak bihurtu.

Komeni izan dakiguke, berez ardura ez baligu ere, grafia kontuez, hitz bitan eta erabat, hemen mintzatzea. Maiz nahasten baitira gure artean, eta azken bolara honetan inoiz baino maizago apika, idazkerak izan ditzakeen bi eginkizun. Sarritan entzuten da, entzun ere, harako zenbaitek Ebanjelioetarik hartua balute bezalaxe errepikatu ohi duten esan hura: "Idazkera zuzen batean, hots bakoitzari (soinu bakoitzari, fonema bakoitzari) letra bana dago-kio". Esaera polita da eta badu gainera bere egia pixka eta puxka, ezin uka baitaiteke ez liokeela alde askotarik kalterik egingo ez idazleari ez irakurleari gisa horretako bat-banako egokierak. Badirudi, ordea, idazkeraren honelako egokitasun zehatza ez dela mundu honetako hizkuntzentzat, ez beti eta salbuespenik gabe bederen, sortua. Direlako salbuespenak non eta noiznahi, baita nolannahi ere gainera, aurki ditzakegu behintzat. Hona zenbait, eta zeinek bere zakua eskatuko luke sailkatzekotan: *jakin*, jakina denez, batzuek batera eta besteek bestera ebakitzen dugu euskaldunok; *begia* horrela idaztea kome-ni zaigula dirudi, baita bestela (nork bere gisara) esaten dugunei ere; frantsezko *poids*-ek badu inork sekula ahotan hartu ez duen *-d-* bat, baina ez du ematen *pois* idaztea bidezko erremedioa litzatekeenik; alemanezko *-ig* hitz-azkenean bitara har daiteke eta *Krutwig* bitara entzun daiteke Euskaltzain-dian bertan; gaztelaniaz *los tres reyes* ez ohi da letraz-letra irakurri, eta horrelaxe segi gaitezke gogaitzeraino eta gogaieragiteraino.

4. Zeregin eta lanbide berezietarako badira, haatik, bestelako idazkerak, egunoroko hizkuntza idatzi arruntean erabiltzen direnak ez bezalakoak esan

nahi dut. Eta hor daude, guztiok dakigunez, asmo berdintsuz baina egitura desberdintsuz taxutuak izan diren, eta izan ditezkeen, traskrizio sistimak (eta, azkeneko hau, diodan bidenabar bere gisara eta moldera transkriba dezake nahi duenak). Handik eta hemendik (batez ere hemendik) harturiko letraz hornituak izan ohi dira, letrak gainera maiz aski bereizgarritz apainduak agertzen direlarik. Badugu esku artean, edo irispidean bederen, horrelako multzo polita eta besterik erants diezaiokegu multzo horri, premia ate-joka agertuko balitzaigu. Ez dago hor buru-hauste ez kezka biderik, 'aukeraren maukera' ez baldin bada. Dotoreago esan, auzoko frankok *l'embaras du choix* deritzana.

Beste zerbaitek biztuko dizkigu kezka. Horrelako alfabeto bakoitzaren funtsean partiketa bat datza edo, hobeki esan, partiketa bakoitzak mugatzen du, besteak beste, erabili nahi diren letren kopurua. Eta hotsen nolabaiteko baliokidetasunak tanke ratzen du partiketa: letra edo ikur berezi adina baliokide klase beharko ditugu izan, bestela esan, eta baliokide klase adina letra edo ikur ezberdin.

Esana dago horrenbestez behar den adina hots edo soinu mota berezi beharko ditugula idaztean. Behar den adina behinik-behin eta ez nahi den adina, bai baitakigu alde z aurretik badirela ezin konta ahala (eta ez naiz izarren ezin konta ahalaz ari) hots eta soinu, gure belarri soilek ez ezik, baita gure belarriek oraingo tresneriaren laguntzaz ere inoiz bereziko dituzten baino gehiago.

Hala bada, eginahalaren ahaleginez ere ez badugu jasoko zerba it baizik, guzti osoaren orde z, zehazkiago mugatu beharrean aurkitzen gara delako 'zerba it' hori. Eta ez gaitezen engaina: ez da oraindik sortu belarrien lanbidea belarrien ordainetan beteko duen tramankuilurik. Orain, egia da, grabazioen bitartez badugu lehen itzuri zihoazkigunak altxatzeko eta gordetzeko modua, piperra piperpotoan bezala, baina lehengora gatoz azken finean, egunen nahiz urteen buruan: paperera jau ki beharko ditugu, letreiatu, tresnaren batean jasoak daudenak ere.

Badago halere aldea lehen eta oraingo lanbideen artean. Orduan presaka eta muturka egin behar zena, ezin iritxiz beti, eskua baino lasterrago baitze bilen mingaina, orain astiro eta patxara ederrean egin daiteke gehienbat, behin bakarrik esanak behin eta berriro entzun daitezkeenez gero. Hori kontakizun luze xamarretan nabari da, bestetan baino areago. Har itzazue, adibidez, Barandiaran eta honen laguntza ileek bildu zituztenak: irakurtzen has tea aski da ikusteko laburturik bildu zela luzarago, behin batera eta behin bestera maiz aski, kontatu zitzaiena. Bururik onenaren jabe izanik ere, ezin daiteke horrela kontakizunaren haria baizik hartu, eta hariarekin batean kontakizunaren giltza diren hitz nagusiak. Horrezaz gainera, zenba it esaldi labur jasoko dira gehienez ere, bertsoaren antzeko laguntzarik ez badute.

5. Biltzaile den galdatzailea eta berri-emaile den erantzulearen arteko elkar-hizketan, hau da (nola ez, bada?) arrazoi duena beti; ia beti, guttieneko

kontuan. Honek esaten duena beste argibiderik ez dugu honek esan uste duenari igertzeko, eta honek dioena da guk, entzule garenok, atzitu nahi genukeena, eta besterik ez. Honek bereizten duena berezi behar dugu, beraz, geure notetan, eta honek berdintzen duena berdindu.

Ez da, noski, entzulerik hizlariak aditzera ematen duena bete-betean atzemango duenik. Egin dezagun kontu horren antzeko zerbaitekin egin dezan entzun dituenen lehengaiak, edozein mailatako lehengaiak, hots bereizkuntzak aurrelari direla, ezagutu eta sailkatu beharko dituela. Guztia ezinean, bada, premiazko dena bederen besarkatu beharko du, eta premiazko da hizlariarentzat (jakinaren gainean nahiz ezjakinean) axolazko den oro. Ez da, berriz, premiazko izango, ez behinik-behin noraiezko, hizlariari axola ez zaiona.

Esan bezala, baliokide-klaseak ezagutu behar ditugu, aurrera baino lehen, eta ezagutu ahala argitara atera, eta ez da egiteko hori samurra izaten beti itxurak hemen ere, dakigunez, engainagarri izan ohi baitira larregitan.

Nolanahi ere den, gaurreguneko jakitearen edo jakin-ustearen arabera, badira hiru maila bederen, kideak kidekoekin horietako bakoitzean bil ditza-gun.

a) Aspaldidanik ezaguna den fonetika maila. Mundu guztiak zekien, baita beti fonetika bideetan zehar ibili ziren antzinako indiarrek ere, ez zirela elkarren pare bereizkuntza fonetiko guztiak, pisu eta garrantzi berdina ez zuten gero hizlari-entzuleentzat, erabat esan, hizketalagunentzat. Batzuek, izan ere, ez ziren, bereziak izanik, besterik (hots, zentzurik) bereizteko gai, beste batzuek, berriz, gauza zirelarik horretarako.

b) Hizkuntzalari frankok gogoan zeuzkaten baina esplizitoki aditzera ematen ez zituztenak hartu zuten azkenik zegokien lekua. Eta fonologia sortu zen, maizenik Trubeckoj-ren izenarekin lotua agertzen den fonologia, hainbeste aitzindari, aldameneko eta ondokoren artean nolabaiteko gailur gisa agertu zelakoan. Fonetikak baino gehiago eskatzen dio behar bada adimenduari, baina, aitzitik, askozaz guttiago belarriari. Edozein gizaki, izan ere, gauza da, nahiz gorreriaz joa egon edo total xamarra izan, bere ohiko hizkeran diren bereizkuntza bereizgarriak ezagutzeko eta bere aldetik egiteko. Nabaritzeko eta berregiteko diot, ez nabaritzen edo berregiten duenaren kontu garbiak besteri azaltzeko.

c) Zenbait hizkuntzalarik, gramatika sortzaileari alde batetik edo beste-tik atxikiak ageri direnetakok, aipatu berri dudan bigarren maila fonologiko honen autonomia (burujabetza eta berjabetasuna ere irakurtzen dira hauen eta horien izkribuetan) ukatu egin zuten erabat, hasiera hartan (Postalek eta) behintzat. Hauek, aldiz, beste maila, fonetikoarekin zuzen-zuzenean eta bitartekorik gabe lotua, nahi-eta-ezkotzat daukate: 'azpian', hor nonbait, 'dautzan' itxurapenen multzoa.

6. Iritzi hau berau ez da, funtsean, hain berri eta iraultzaile zein dirudi, Bizkaiko esaera zaharren moldez mintzatu nahi badugu. Lehenagokoak

dira esate baterako bide beretik, bestelako hizkera usatuaz, ibili ziren. Baudouin de Courtenay, Bloomfield, Trubeckoj bera eta zorioneko morfo(fo)nologia. Dena den, ez dugu hemendik abiatu behar oraingo eginkizunetan. Hirugarrena izango genuke maila hori, izatekotan ere.

Lehen esan dut traba eta oztopo gehiago eta larriago aurkituko dugula, lehenbiziko urratsetan, fonetikari lotzen bagatzaizkio fonologi mailan mugitu nahi bagenu baino. Baina fonologiak hizkuntza ia burutik burura ezagutzea eskatzen du, aldez aurretikako baldintza moduan: hizkuntza ez ezik, baita ere, fonologiatik hasirik, euskalkia eta are bailara eta auzo hizkera.

Jakinegi da eta zabalduegi dago arras bere gisakoa dela gure belarriaren bahea: Fariseuen antzera, eltxoa iragazi eta kamelua iresten duten horietakoa. Irristada galantak maiz kontatzen dira, *ALF*-tik hasita, maiz aski idatzi eta argitara gabe dagoen hizkuntz-atlasen inguruko folkloean. Bereizkuntza honetaz edo hartaz ez zen honako edo harako langile trebe hau edo hura ohartu eta ez zituzten beraz beren notetan jaso: ezagunak eta ohiturazkoak ez izaki, alegia. Neroni gertaturikakoetarik bat aipatuko dut hemen, beste makina baten arteko bat. Lasai baino lasaiago idatzi nuen behin, bitan eta agian gehiagotan, Erronkariarrek, gure gisara, ez zituztela bereizten *r* biguna eta gogorra hitz azkenean, geldiune batean aurretik hobe, agertzen zirenean: ebaki, berdin ebakitzen zituztela, adibidez /ur/ elementua eta /ur/ fruitu lehorra.

Geroxeago, ordea, Izaban, arrats batean, Jacques Allières aurrean zegoelarik, han galdetu genuen 'sueru' nola esaten zen, baita berehalakoan erantzuna jaso ere: *gaxur*, zorionez artikulurik gabea eta *-R*-ik ez zuena, beste zerbait baizik. Jakina, nik artean entzun uste nuenak bazuen bere arrazoia, arrazoi makurra halere: ni naiz, eta nere ingurukoak dira, *zenbat ur?* eta *zenbat hur?* berdin ebakitzen ditugunak, ez izabar haiek. Berdintsu gertatu zitzaidan *sukalde* entzun nuenean, esan zidaten (eta harian, ez genuen artean zintarik, itsatsia zegoen) *sukalte*-ren ordeaz.

Ahaide hurbilekiko tratua ez da beti, ezta agian maizenik ere, lagungarri izaten, hurbiltasunaren kariatz, kaltegarri baizik. Konfiantza gehiegia sortzen baitigu, beti ernai eduki behar genukeen mesfidantza lokar araziz.

7. Bereizkuntza fonetiko soilak hartu behar ditugu, bada, lehenbiziko oinarri eta solairutzat kemen berriz hasi behar dugun ikerketan. Bahe fonetikoan barrena, bestela esan, iragazi behar ditugu galderen ondoren eta galderen bitartean entzuten ditugunak. Bistako kontua da, haatik, baheen 'sarea' era eta neurri askotakoa izan daitekeela.

Mugak non leudekeen, ordea, beste kontua da. Guk ere honera alda ditzakegu Agirre Asteasukoaren hitzak emakumeen "goiak ez estaltzeaz" ari delarik; "estalkiak izan ditezela ez lasaiak sarea bezala, baizik tapituak". Esan beharrik ez zenbat ere tapituago bahea hobe eta probetxugarriago litzaikeela eta, horren arabera, ahalik eta baherik tapituenak nahi genituzke gai-



nean dugun lanerako. Halaz guztiz, ez dira bat, ez alderatzeko ere, nahi izatea, premiazko izatea eta, azken hitza bere duena, *ahal izatea*. Ahalaren neurri zuzen neurtu beharko ditugu, beraz, nahiak eta premiak.

Ikur bilduma, nolazpaiteko alfabetoa, hautatua dugu eta esku artean darabilgu. Baina, esate baterako, zenbat “e”, trakeski esanik, bereziko ditugu: zenbat “y”; zenbat “b”? Etzaigu mugarik gabe begiluze izatea komeni. Adinon izatea komeni zaigu, eta adinon omen zen inoiz gehiegizko eta guttiegizkoen erdi alderunzko joera, Aristotelek ontzat hartu zukeen. Damurik, aholku hori eta ahuntzaren gauerdiko eztula elkarren paretsuko dira.

Belarri oneko jendea, noski, beste edozein jenderen artean bezain ugari aurki daiteke euskaldunongan. Inoiz musikarako genuen joerak irauten duen heinean, gainera, ez da harrokeria izango belarri trebatu gehiago badugula esatea ere inguruko auzoetan baino. Non daude, orduan, euskaldunok euskaldun bezala ditugun alde txarrak?

Hona zenbait, eta ez nabil eskasiak ahitzeko asmoetan:

a) Ez dugu lan mota honetarako jende prestaturik fonetika gaietan. Bat edo beste aurkituko da, haatik, eta altxa dezala besoa: biziro poztuko nintzateke jasorik ikusiko dugun basoan arbolak usu, elkarren hurren, eta ez bakan-kan agertuko balira.

b) Euskara aski eskasa eta gabea da fonema kontuan. Hori, diodan berehala, ez da inondik ere hizkuntzarentzat kaltegarri; bai, ordea, kaltegarri baino kaltegarriago inkestagintzan ibiliko diren euskaldunentzat. Urritasun hori, nik uste, bokalen sailean nabarmenago da bestetan baino. Hor, sail horretan, urritasuna, euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere agertzen baita. Are gehiago, jakina da alor horretan Frantziako hegoaldea askoz ere behartsuago dela iparraldea baino.

c) Orain ez duguna (neure iritzi ezkorretan zuzen banabil), lor dezakegu, bertako eta kanpoko indarren podorioz, eta luzaro gabe lortu, lortu ere. Gogoia eta dirua dira premiazko, batipat.

d) Euskal inkestagileen prestakuntza etxean egin daiteke, nahiz atzerrian. Erbestera zenbait lagun bidaltzeko modua aurkituko litzateke, han treba daitezten. Beste bidea, erosoagoa apika, kanpotarrak erbestetik ekartzea genuke, gureak hemen presta daitezten. Bide batez nahiz bestez, eta bata ez da bestearen etsai, argi eta garbi gelditu behar du nor den bere gogoz sail horretan sartzen dena. Gai hauek, izan ere, ez dira 1925ean bezain ikusgarri eta liluragarriak: gazteagoak (eta berriagoak) izaki. Ez litzateke, beraz, egoki honetarako bildu den dirua bestetan gastatzea.

e) Gisa horretako asmoen zain egon ez gaitzen (gogorik badugu, ez genuke luzaroan egon beharrik, baina, tira...), sor ditzakegu geure artean, han, hemen eta bestetan, mintegi moduko bilerak, guk gerok, erbesteko laguntzarik gabe, berehala ekin diezaigun lanari. Euskal informatzaileekin

lan egin dezakegu, esate baterako, baina elkarrekin eta taldean. Beste hizkuntzetakoak, pertsonak falta balira ere, bagenituzke zintak eta diskak gehiegizko gasturik gabe: hizkuntza ezagunetakoak eta *ezezagunetakoak*. Azkeneko hauei eskerrak ikusiko baikenuke noraino dakigun belarri hutsaz baliatzen, zentzuaren eta gramatikaren bitartekotasunik gabe.

Ea, lerrenak egin behar baditugu ere, erregela batera edo bateratsura umiltzeko prest bihurtzen ote garen, azken batean, bide berdintsutik gabiltzan lanbide horretan parte hartuko dugun guztiak. Ez dakigula behintzat berriz gerta inoiz Euskaltzaindiari, 'Erizkizundi Irukoitza' zela medio, gertatu zitzaiona. Nor bere gisara eta batutarik gabe soinua jotzen ari zirela sortu zuten anarkia (anarkia eskuindarra, baina anarkia halere) daukat gogoan.

8. Hirugarren mailako malkar negargarriak, eta are bigarrengoak ere, ahaz ditzagun oraingoz. Gaia abondo bilduko dugu lanari ekiten badiogu, eta luzaro gabe bildu, gainera. Zehaztasuna ugaritasuna bezain erraz balitz eskuratzen! Gero, biltzekoak ongi bildurik daudenean, izango dugu beta, eta gogoia ez da faltako, analisi sakonetan astiro eta benaz murgiltzeko, dela Pragarren bidetik, dela Chomsky-Hallerenetik, dela beste zein nahitarik. Behar bada (zergatik ez, geure fisikoak aldamenean ditugularik?), geure-geurea den bidea, besteri deus askorik zor ez diona, asmatuko dugu ez arian bezala.

Diakronia gogoan dutenek ere, horrelakorik gelditzen bada gurean, beste alde eta aldi baterako gorde beharko dituzte beren kezkek. Zelatan baita ukagu beti hizkuntz kondaira. Lehen ez zen gehiegi izkututzen, baina orain ere, badirudi, zeharka bederen, ez dabilela urruti haren itzala. Lehen aldia orainaren azpian baitatza beti, berrien osinetako itxurapenak bezalaxe.

Presa dugula inori esatea alfer lana litzateke. Esan egingo dut, halaz guztiz, presa hori bi eratakoa dugulako guttienez. Euskalkien galerak izateko arrazoia ken diezaioke Atlas honi; kentzen ez badio ere, urritu behintzat bai. Bada, ordea, beste akuilatu behar gintuzkeen lehia ere. 1918an generaman martxak irauin balu, norbaitek eta zerbaitek moztu izan ez balu, bagenuen honez gero (Eusko-Ikaskuntzari, Euskaltzaindiari, Urkixori, Azkueri eta nahi duzuenari eskerrak) horren antzeko zerbaitek, eta irudipen hau, irudipena izanik, ez da behar bada funtsik eta errorik gabea. Oraingoz, ateraldia dugu eta ez da goi aldeetan hodei beltzegirik agertzen. Ez gaitezen, bada, trumoiaren begira egon. Badakizue ze ordu den: *later than you think*, ingelesez ari diren erlojuek diotenez.

## GIZA GORPUTZARI BURUZKO INKESTA

*Donostia, 1982-XI-13*

*Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria*  
*Dialektologi batzordeko idazkaria*

Dialektologi batzordeak bilera egin zuen Gipuzkoako, Ekautu, Aldundi edo Diputazioan, 1982-XI-13an.

Partaide izan ziren batzordeko hauek: A. Irigoien, J. A. Letamendia, B. Muniategi, G. Aurrekoetxea, M. Salinas, M. J. Azurmendi, R. M. Pagola, P. Ondarra, A. Etxaide, X. Videgain, J. San Martin eta J. M. Etxebarria. Ezin etorria adierazi zuen K. Rotaetxek eta E. Knörr aurreko egunean etorri zan, bilera eguna gaizki ulertu zuelako.

Bilera hau egin diran saioak aztertzeke izan zan.

Lehenengo grabaketak nola egin diran eta sortu diran oztupoak aztertu ziran. Horretarako bakoitzak banan banan azaldu zituen bere akats eta alderdi onak.

A. Irigoien: Grabaketa Aulestin. Magnetofono falta izan du.

Itaunketa birekin bat egin zuen, batean seksu hitz batzuk falta ziralako. Ez du traskribaketarik egin magnetofono ezagatik. Alfabeto fonetiko asko banatu ditugu eta zalantzan egon zan ez zekielako zein aukeratu. Baina argi gelditu da API egokituta euskerarentzat erabiliko dugula. Besteak jakingarri bezela banatuak izan dira.

X. Altzibar: *Itaunketari buruz*: Sinonimoak bereiztu behar dira.

Aditzentzat galderak falta dira.

Seksuari dagozkion hitz batzuk falta dira eta lekukoek ere nabaritu zuten hori.

Galderak zehaztu beharko dira. Biltzaileak ondo ezagutu behar ditu galderak.

Polisemia kontuan hartu. Lesiko mailak, eufemismo eta tabuak kontuan hartu.

II. Lekukoak. Zaharrenak aukeratu hala buru argitsuagoa dutenak? Berak eta Xarlexek aukeratu dituztenak ondo bete izan dituzte baldintza

biak. Omenaldi bat egin behar zaie hizkuntzaren maisu hauei. Lekuko egokiak 50 urtetik gorakoak. Herri berean jaio eta bizi diranak. Hitzak argi ebagitzen dituztenak. Denpora aukeratu behar da galderak egiteko. Base-rritarrentzat uda denpora txarra da. Horregatik eguna edo egunak bilketa-rako ondo aprobetxatu behar dira.

Erregalotxo bat edo zerbait eman behar zaie ematen diguten denporagatik eta laguntzagatik.

III. Testo libreak edo Etnotestoak. Komenigarria da grabatzea ahozko literatura eta folklorea.

IV. Inkestagileak: Bi hobeto. Batek magnetofonia zaindu eta besteak galderak egin.

J. A. Letamendia: Grabaketak eta transkribaketak bukatu gabe zituen baina orain bukatuta daude.

B. Muniategi: Unanuan eta Intzan egin du lana A. Etxaideren laguntzarekin.

G. Aurrekoetxea: Itaunketa honetan galderen testuinguru batzuk aldatu behar dira, erantzunak ondo lortzeko. Adibidez *dos cuerpas* baino hobeto *cuatro cuerpas* galdetzea. Batak bi gorputz ematen duelako.

Galdera batzuk aldatu: se ha sentado, sentado, esate baterako.

M. Salinas: Galderen testuinguru batzuk aldatu.

M. J. Azurmendi: Ahosapaikoak, txistudunak eta azentoa nola jarri.

R. M. Pagola: Galdera batzuk argiago jarri erderaz, izenaren ondoan perifrasi batzuk ipiniz ondoan: nervios, entrañas hutsean ez dira egokiak.

Arlo semantiko batzuk zehaztu: muslo, pierna, pestaña, ceja, tabar.

Polimorfismoak kontuan hartu. Lehenengo forma mugagabea, gero mugatua. *Talón* hitza falta da.

Lekukoak: zaharregiak ez dira egokienak. Seksu hitzak gizezkoarenak galdetzeak hobeto da.

Tresnak: zinten kopiak garbitzeko sistemak badaude abotsa bakarrik entzuteko inguruko hotsak kenduz. Irakurri COMPANYSen lan bat.

F. Ondarra: Erantzunak prestatzen lagundu lekukoei. Galdera batzuetan kontuz: erdal aditzari ez zaio aditzarekin erantzuten: toser, dormir, tabar.

Traskribaketa: Belarri batzuk ez dituzte entzuten gauza batzuk, eta beste batzuk bai. Orduan ondoen entzuten dutenek, besteen lanaren errepetosio bat egin beharko dute.

A. Etxaide: Arlo semantikoak ondo bereiztu behar dira: pierna, pantorrila lekuko batzuk ez dituzte bereizten. Hitz batzuk kendu.

X. Videgain: Azentoa edo ondoko luzapena bereiztu.

Ia/ua diptongoa da hala ez? Azentoa non kasu horietan? Sudurrekoak eta dardardunak nola bereiztu? B, d, g: leherdunak hala igurtzidunak/frika-ziodunak ote dira?

Behin behineko traskribaketa egin du berak, bere iritziz. Traskribaketa ikastaro bat beharko da.

J. M. Etxebarria: Zornotzan gizonezko batekin eta emakume batekin egin du. Orion emakume batekin.

Konforme dago esan diran gauza guztiekin, bai galderei buruz eta bai lekukoei buruz.

J. San Martin: Eibarkoa egin du J. M. Etxebarriaren laguntzarekin.

R. Garcia: Markinan egin zuen eta zinta eta traskribaketa Bilboko Euskaltzaindiaren ofizinan utzi zituen.

K. Rotaetxe: Bakion egin du grabaketa.

\* \* \*

Bigarren gaia: Zer egin grabaketa hauekin? Iritzi asko eman ondoren erabaki bat hartu dugu. Grabatu diran zinta guztien artean euskalki bakoitzeko herri batzuk aukeratu. Herri bakoitzeko zinta bakoitzetik eta lekuko bakar-raren grabaketatik, aurrengo 26 hitz sartu beste zinta bakar batean. Horrela euskalki guztietako muestrak zinta batean ditugu. Horrekin batera, zati horien traskribaketak fotokopiaz atera eta bai zintaren kopia bat eta bai traskribaketen zatitxo hori, batzordekoen artean banatu.

Aukeratu ziran herriak hauek izan ziran:

Bizkaieratik: Dima, Lekeitio, Eibar;

Gipuzkeratik: Orio, Lezo, Unanua;

Goi Naparreratik: Hondarribia, Goizueta, Arantza, Ituren;

Behe Naparreratik Arruta baina gero Altzibarrek esan zidan ez sartzeko.

Lapurteratik: Urdazubi;

Xibereratik: Eskuila.

J. San Martinek lagungarri izan zitekeelakoan otorrino baten tesisa ekarri zigun. Geroago tesis hori aztertzeke gelditu ginan ikusteko ea zerbait bilatzen genuen. Eta J. M. Etxebarriak hau pentsatu zuen: Traskribaketa hauek batzordekook egin beharko ditugu gehien baten eta horretarako gure tresna belarria da. Orduan Aierbe otorrino jaunak gure belarriak neurtu behar litzuke jakiteko zeintzuk diran zorrotzenak. Hori jakin ondoren bako-

tzak bere transkribaketa egingo luke eta gero tresnarik zorrotzena dutenak (belarririk zorrotzenak dituztenak), horiek besteen lanak orraztuko lituzkete. Iritzi bat da eta ikusko da.

Hamabi herrietako muestra horiek zinta batean sartzeko lanaren arduradun J. M. Etxebarria gelditu zan. Joan etorri asko egin ondoren, bilatu nuen tekniko bat grabaketa hori egiteko. Donostiako Herri Irratira joan nintzan baina han ezin zuten eta ez zidaten beste inoren izenik eman. Azkenean tekniko bat bilatu nuen eta eginda dago grabaketa hori.

Lan hau aurrera eramateko plangintza bat batzordearen hurrengo bileran aukeztuko dugu eta Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak onartzen baldin badute, pare bat urte barru grabaketa guztiak eginda egongo liratekela, uste dut.

## CUESTIONARIO LEXICO

### TEMA: El cuerpo humano y la enfermedad

Elaborado por Charles Videgain y Ana M.<sup>a</sup> Echaide para encuestas provisionales en el verano de 1982.

CUESTIONES GENERALES		D I
1.	Cuerpo .....	
2.	Hueso .....	
3.	Carne .....	
4.	Miembros .....	
5.	Alto .....	
6.	Bajo .....	
7.	Gordo .....	
8.	Flaco .....	

EL OJO, LA VISTA		D I
9.	Ojo .....	
10.	Niña del ojo .....	
11.	Lágrima .....	
12.	Pestañas .....	
13.	Cejas .....	
14.	Ciego .....	
15.	Bizco .....	
16.	Tuerto .....	
17.	Mirar .....	
18.	Ver .....	

LA BOCA		D I
19.	Boca .....	
20.	Labio .....	
21.	Lengua .....	
22.	Paladar .....	
23.	Encia .....	
24.	Dientes, dentadura .....	
25.	Muela .....	
26.	Morder .....	
27.	Tragar .....	
28.	Garganta .....	
29.	Saliva .....	
30.	Estornudar .....	
31.	Toser .....	
32.	Hablar .....	
33.	Hablar en voz baja, cu- chichear .....	
34.	Callar .....	
35.	Mudo .....	
36.	Tartamudo .....	
37.	Aliento .....	
38.	Hipo .....	

D = Definido.  
I = Indefinido.

LA CABEZA (salvo boca y ojo)		D I
39.	Cabeza .....	
40.	Pelo .....	
41.	Rubio .....	
42.	Pelirrojo .....	
43.	Moreno .....	
44.	Rizado .....	
45.	Calvo .....	
46.	Barba .....	
47.	Frente .....	
48.	Sesos .....	
49.	Cara .....	
50.	Guapo .....	
51.	Feo .....	
52.	Mejillas .....	
53.	Nariz .....	
54.	Buen olor, mal olor .....	
55.	Moco .....	
56.	Oreja .....	
57.	Oído .....	
58.	Oír .....	
59.	Escuchar .....	
60.	Sordo .....	
61.	Barbilla .....	
62.	Mandíbula .....	

CUELLO Y TRONCO		D I
63.	Cuello .....	
64.	Cogote, nuca .....	
65.	Nuez .....	
66.	Hombro .....	
67.	Espalda .....	
68.	Chepa, cheposo .....	
69.	Espinazo .....	
70.	Pecho (tórax) .....	
71.	Pecho (seno, golko) .....	
72.	Teta .....	
73.	Costilla .....	
74.	Pulmón .....	
75.	Respirar .....	
76.	Corazón .....	
77.	Sangre .....	
78.	Venas .....	
79.	Estómago .....	
80.	Náuseas .....	
81.	Hígado .....	
82.	Hiel .....	
83.	Cintura .....	
84.	Ventre .....	
85.	Ombligo .....	
86.	Intestinos .....	
87.	Entrañas .....	
88.	Riñón .....	
89.	Vejiga .....	
90.	Orina .....	
91.	Cadera .....	
92.	Regazo (seno, enfaldo de la saya) .....	
93.	Costado .....	
94.	Culo .....	
95.	Año .....	
96.	Echar pedos .....	
97.	Sudor .....	
98.	Nervio .....	
*	Pene, pitilín	
*	Vulva	

D = Definido.  
I = Indefinido.



LA PIEL		D I
99.	Piel .....	
100.	Cuero .....	
101.	Vello .....	
102.	Herida .....	
103.	Pus .....	
104.	Verruga .....	
105.	Ampolla .....	
106.	Grano .....	
107.	Cardenal .....	
108.	Picor .....	
109.	Cosquillas .....	
110.	Rascarse .....	

EXTREMIDADES		D I
111.	Brazo .....	
112.	Sobaco .....	
113.	Codo .....	
114.	Muñeca .....	
115.	Mano .....	
116.	Mano derecha .....	
117.	Mano izquierda .....	
118.	Zurdo .....	
119.	Bofetada .....	
120.	Puño .....	
121.	Puñetazo .....	
122.	Puñado .....	
123.	Palma de la mano .....	
124.	Dedo .....	
125.	Pulgar .....	
126.	Indice .....	
127.	Corazón .....	
128.	Anular .....	
129.	Meñique .....	
130.	Dedo del pie .....	
131.	Uña .....	
132.	Articulación .....	
133.	Acariciar .....	
134.	Sabañón .....	
135.	Muslo .....	
136.	Pierna .....	
137.	Rodilla .....	
138.	Pantorrilla .....	
139.	Tobillo .....	
140.	Pie .....	
141.	Planta del pie .....	
142.	Cojo .....	
143.	Patada .....	
144.	Andar .....	
145.	Caer .....	
146.	De pie .....	
147.	Sentado .....	
148.	Tumbado .....	
149.	Agacharse .....	
150.	Resbalsarse .....	

D = Definido.  
I = Indefinido.

ENFERMEDADES		D I
151.	Enfermo .....	
152.	Buena salud .....	
153.	Curarse .....	
154.	Empeorar .....	
155.	Dolor .....	
156.	Cansancio .....	
157.	Fiebre .....	
158.	Tuberculosis .....	
159.	Torticolis .....	
160.	Catarro .....	
161.	Paralítico .....	
162.	Ictericia .....	
163.	Tosferina .....	
164.	Sarampión .....	
D = Definido. I = Indefinido.		

## EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1982

### LEHEN FASEA (Maiatza-Ekaina)

Hiru urtez behin Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa antolatu behar du Euskaltzaindiak eta azkenengoa 1979.eko Abenduan hasi eta 1980.eko Errege egunean amaitu zenez gero, 1982.eko azken egunetan bukatzeko antolatzea dagokio. Helburu horrekin bildu zen Euskaltzaindiaren Bertsolari Batzordea bertsolari batzuekin Azpeitiako "Pastorkua" etxean 1981.eko Urriaren hamarrean antolaketa ren lehen pausuak emateko. Toki berean egin ziren beste bi bilerak 1982.eko Otsailaren 16an eta 27an eta Euskaltzaindiaren Batzordeak, bertsolariekin bat etorrita, eskuhartuko zuten bertsolariek bi taldeetan banatuko zirela erabaki zuen, hots:

"A" taldea: Orain arteko Txapelketetan azkenerarte iritsi izan direnek, 1980.eko Txapelketa Nagusian eskuhartu dutenek eta 1968.eko sariketan kantatu zuten guztiek osatuko dute talde hau.

"B" taldea: Lehen aipatutako maila horretaraino heldu ez diren bertsolari guztiek eta orain izena emango dutenek osatuko dute talde hau.

"A" talde horretan sartuko direnen izenak finkatuak zeuden eta jarritako mugak ikusiaz, hauek ziren talde hau osatuko zuten 17 bertsolariek: Amuriza, Arregi, Azpillaga, Enbeita Jon, Esponda, Etxeberria Patxi, Garmendia Txomin, Gorrotxategi, Iraola, Larrañaga, Lazkano Imanol, Lizaso Koxme, Lopategi Jon, Mugartegi, Narbaiza, Xanpun eta Zeberio I. "B" talderako izenak emateko epea Apirilarte zabalik uztea erabaki zen.

1982.eko Martxoaren 2an bildu zen berriz Bertsolari Batzordea eta Txapelketa eratzeko bi taldeen eskuetan uztea erabaki zuen, hots,

*Antolakizun Batzordea:* Juan San Martin, buru, Jose Mari Iriondo, idazkari, eta Jose Antonio Arana, Jose Mari Aranalde, Anton Aranburu, Rufino Iraola eta Juan Jose Zearreta batzarkide.

*Epaia-mahaikoak:* Jose Maria Aranalde, Anton Aranburu, Jesus M.<sup>a</sup> Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Mitxel Itzaina, Emile Larre, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi eta Antonio Zabala. Doinuen saria emateko, Jose Antonio Arana Martija izango zen arduraduna.

Euskaltzaindiak, Donostian egin zuen hileroko bileran, Martxoaren 23an, onartu zuen Bertsolari Batzordearen proposamena eta arratsaldean jendeaurreko bileran egin zuen Txapelketaren aurkezpena.

Izendapenak onartuak izan ondoren, bildu ziren Antolakizun Batzordekoek Deban, Apirilaren 21an, eta Euskaltzaindiak jarritako Araudia aztertu eta onartuaz gainera, hainbat puntu zehatz eta mehatz aztertu eta markatu zituzten antolaketa aldetik.

Berriz bildu zen Antolakizun Batzordea Bertsolariekin Azpeitiako "Kiruri" etxean. Zozketa egin ondoren taldeak hala geratu ziren:

*Hernanin, Maiatzaren 8an:* Begiristain, Zorroza, San Migel Angel, Laka, Anzinako, Arrosagarai, Loiola, Telleria.

*Markinan, Maiatzaren 9an:* Zeberio II, Jaka, Mendizabal, Sardui Deunoro, Urretabizkaia, Aurre, Olalde, Enbeita Abel.

*Tolosan, Maiatzaren 15an:* Argiñarena, J. F. Ziolar, Mañukorta, Ziarda, Altuna, Urrusti, Enbeita Moises, Otaño.

*Lesakan, Maiatzaren 22an:* Peñagarikano, Lasa, Agirre, Mihura, Urrutikoetxea, Santurtzi, Lertxundi J. M., Urain, Murua.

*Hendaian, Maiatzaren 29an:* Altzo, Lizaso Sebastian, San Migel Isidro, Etxebarria Jose Ramon, Alkat, Sardui Jesus Mari, Areitio, Tapia.

*Aramaion, Maiatzaren 30an:* Zelaia, Bilbao, Mendiburu, Odriozola, Uruga, Argiñarena J. M., Aittola, Otamendi, Kaxeta, Lertxundi M.

Hurrengo egunetan Antolakizun Batzordeak hainbat pausu eman behar zituen toki guztietan gauzak gertu uzteko.

Beraien aldetik Epai-mahaikoek Maiatzaren 4an bildu ziren Txapelketarako egitaraua eta gaiak jartzeko. Aipatutako lehen sei saioetarako hau izan zen erabakitako egitaraua:

1. Agurra.
2. Kartzela, binaka, Zortziko nagusian launa bertso.
3. Lau oinak, Zortziko txikian eta puntuak, bina bertso.
4. Ofizioak, binaka, Zortziko txikian, hiruna bertso.
5. Kartzela, bakarka, neurri eta doinu librean.
6. Azken agurra.

Aramaioko saioa bukatu ondoren, Epai-mahaikoek, bakoitzak emandako puntuak kontutan hartuz, hurrengo saioetara 24 bertsolari pasatzea erabaki zuten eta bertan zozketa eginaz, hala osatu ziren taldeak:

*Zornotzan, Ekainaren 6an:* Mañukorta, Olalde, Mendizabal, Abel Enbeita, Telleria, Peñagarikano, J. M. Lertxundi, Aurre, Aittola, Agirre, Mendiburu, Otaño.

*Azkoitian, Ekainaren 12an:* Jose R. Etxebarria, Deunoro Sardui, Murua, Sebastian Lizaso, Alkat, Areitio, Lasa, Ziarda, Zeberio II, Altuna, Otamendi, Begiristain.

Bi saio hauetarako egitaraua hala izatea erabaki zuten Epai-mahaikoek:

1. Agurra.

2. Kartzela, binaka, Zortziko nagusian, hiruna bertso.
3. Puntuak.
4. Ofizioak: binaka, Hamarreko txikian, hiruna bertso.
5. Kartzela: bakarka, neurri eta doinu librean.
6. Azken agurra.

Azkoitiako saioa amaitu zenean, bertsolariek puntutan jarraitu zuten Epai-mahaikoek epaiketa burutu arte. Azkenean erabaki zutena hau izan zen, hots, udazkeneko saioetara. "A" taldekoekin sei bertsolari bakarrik pasatzea: Altuna, Sebastian Lizaso, Mendizabal, Otaño, Peñagarikano eta Telleria. Eta honekin bukatu zen Euskal Herriko Txapelketaren lehen fasea.

### **BIGARREN FASEA (Azaroa-Abendua)**

Bigarren fase hau antolatzeko asmoetan, Irailaren 14an bildu zen Batzordea Donostiako Diputazioan, hainbat oinarrizko puntuak finkatuz. Bigarren fase honetan parte hartuko zuten bertsolariekin hitz egitea komeniko zela ikusiz, Irailaren 25an bildu zen Batzordea hamasei bertsolarikin Loiolako Kiruri jatetxean. Lehenagoko Txapelketan txapeldun eta txapeldun-orde geratu ziren Amuriza eta Enbeitak erabaki zuten aurtongo finalean ez ezik aurreko saioetan, hots, Idiazabal eta Durangon hasita parte hartzea. Beraz Errenterian eta Gernikan egiteko ziren saioetan parte hartuko zutenen taldeak osatzeko zozketa bat egin zen bilera horretan eta "A" taldekoei Zornotzan eta Azkoitian hautatutako seirak gehituz, talde bitako banaketa hau egin zen:

*Errenterian, Azaroaren 14an*, 10 bertsolari: Arregi Azpillaga, Gorrotxategi, Iraola, Lizaso Sebastian, Otaño, Peñagarikano, Telleria, Xanpun eta Zeberio I.

*Gernikan, Azaroaren 21an*, 11 bertsolari: Altuna, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Lizaso Koxme, Lopategi, Mendizabal, Mugartegi, Narbaiza.

Talde bi hauetatik 14 bertsolari hautatuko dira, Amuriza eta Enbeitak gehituz, 16ko talde bat semifinaletara pasatzeko. Egun bereko arratsaldean Batzordeak jarraitu zuen bere bilera hurrengo saioetarako tokiak eta egitarauak finkatuz. Errenterian eta Gernikan egingo ziren saioetarako egitaraua halako hau izatea erabaki zen. Hona hemen agiriak dioena:

Goizean: 1. Agurra.

2. Ofizioak: binaka launa bertso Zortziko nagusian.
3. 2 puntu: bakarka, Zortziko txikian.
4. Kartzela: binaka launa bertso, Hamarreko txikian.
5. Azken agurra.

Arratsaldean:

1. Agurra.
2. Ofizioak: binaka launa bertso Zortziko txikian.
3. Kartzela: bakarka, lau oinak (denentzat berdinak), 2 bertso.
4. Kartzela: bakarka, hiruna bertso, neurri librean.
4. Azken agurra.

Gernikako saioa bukatu ondoren Epai-mahaikoek hautatuko dituzte semifinale-tara pasatuko diren hamalau bertsolariak. Zortzi bertsolarik osatuko dute talde bakoitza, jendaurrean zozketa egin ondoren. Eta *Ordizian*, *Azaroaren 27an* eta *Durangon Abenduaren 5an*, goiz eta arratsaldeko saioetan, hautatuko dira Donostiako finalera pasatuko diren zortzirik. Semifinaletan, goizean, goizean Ordizian kantatuko dutenak arratsaldean Durangon agertuko dira, eta alderantziz. Semifinaletako egitaraua halako hau izatea erabaki da:

Goizean: 1. Agurra.

2. Ofizioak: binaka launa bertso Zortziko nagusian.
3. 2 puntu: bakarka, Zortziko txikian.
4. Ofizioak: binaka, hiruna bertso, Hamarreko txikian.
5. Kartzela: bakarka hiruna bertso neurri librean.
6. Azken agurra.

Arratsaldean:

1. Agurra.
2. Ofizioak: binaka launa bertso Zortziko txikian.
3. 2 puntu: bakarka, Zortziko nagusian.
4. Puntutik puntura: binaka hiruna bertso Zortziko txikian.
5. Kartzela: banaka hiruna bertso Hamarreko nagusian.
6. Azken agurra.

Urriaren 2an bildu zen berriz Batzordea Loiolako Herri Irratian proposatutako tokitian antolakizunak egiteko eta Urriaren 6an Lankide Aurrezkiko Juan Jose Berasategi jauna ikustera joan ziren Batzordekoek propaganda, aurrekontu eta mentsa arazoak aztertu eta erabakitzeko.

Urriaren 27an berriz bildu zen Batzordea Donostiako Diputazioan tokiak eta egutegia behin betiko finkatzeko. Errenterian eta Ordizian saioak antolatzerik posible ez zelako, hala geratu zen azkenean toki eta egutegiaren arazoa:

Azaroaren 14an - Oiartzungo Madalensoro Frontoia.

Azaroaren 21an - Gernikan Santanape Frontoian.

Azaroaren 27an - Idiazabalen Igarondo Frontoian (Semifinala)

Abenduaren 5an - Durangon Ezkurdi Frontoian (Semifinala)

Abenduaren 19an - Donostian Karmelo Balda Frontoian (Finala).

Epai-mahaiko eta ordainketen arazoak ere estudiatu ziren bilera honetan. Eta Azaroaren 3an, gutun baten bitartez bertsolari guztiei eman zitzairen erabakitakoaren berri.

Azaroaren 3an bildu zen berriz Batzordea Loiolako Herri Irratian Oiartzungo gaiak prestatzeko eta hala egin zuen.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren Laguntzaz antolatu ziren Donostian, Kutxa honen aretoan, Bertsolaritzari buruzko hitzaldiak, egunak, hitzalarriak eta gaiak honako hauek zirelarik:

Azaroak 4: Antonio Zabala: Bertsolaritza eta kondaira.

Azaroak 5: Juan M. Lekuona: Bapateko bertsogintza.

Azaroak 8: Jose M. Satrustegi: Bertsolarien memoriaz.

Azaroak 9: Jose A. Arana: Bertso doinuak Bertsolaritzaren historian zehar.

Azaroak 11: Abel Muniategi: Bertsolari eskolak lehen eta orain.

Azaroak 12: Jose M. Aranalde: Bertsolari txapelketak.

Azaroaren 10an Donostiako Diputazioan bildu zen Batzordea Gernikako gaiak prestatzeko.

*Azaroaren 14an, Oiartzungo Madalensoro Frontoian* ospatu zen goiz eta arratsaldez bertsolari saioa. Nahiz eta Errenteriako Lankide Aurrezkikoek hainbat kartel zabaldu, Oiartzunen ez zen ikusten bat ere herrikoek ez zutelako horretarako ardurarik izan. Frontoiko berogailuak ere ez zituzten biztu eta hotz zegoen giroa egun hartako goizean. Hamar bertsolari azaldu ziren: Arregi, Azpillaga, Gorrotxategi, Iraola, Sebastian Lizaso, Otaño, Peñagarikano, Telleria, Xanpun eta Zeberio I.

Azaroaren 17an berriz bildu zen Batzordea Loiolako Herri Irratian Idiazabalgo gaiak prestatzeko.



*Zutunik, ezkerretatik eskumatara:* Abel Muniategi, Alfonso Irigoien, Jon Azpillaga, Txomin Garmendia, Jon Enbeita, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Angel M.<sup>a</sup> Peñagarikano, Imanol Lazkano eta Jose M.<sup>a</sup> Iriondo.

*Makurturik, ezkerretatik eskumatara:* Juan San Martin, Mixel Itzaina, Jose M.<sup>a</sup> Aranalde, Antton Aranburu, Juan Jose Zearreta, Jesus M.<sup>a</sup> Etxezarreta eta Rufino Iraola.

*Azaroaren 21ean, Gernikako Santanpe Frontoian* ospatu zen bigarren saioa, goiz eta arratsalde. Kartelak hemen ugari ikusten ziren eta berogailuari esker giro oso ona zegoen Frontoian. Beste hamaika bertsolariek azaldu ziren: Altuna, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Koxme Lizaso, Lopategi, Mendizabal, Mugartegi eta Narbaitza.

Saioa bukatu ondoren, semifinaletara pasatuko ziren 14 bertsolarien izenak eman zituzten Epai-mahaikoek eta bertan jendaurrean zozketa eginaz, talde bitan hala banatuta geratu ziren, Amuriza eta Enbeita gehitu ondoren:

*A taldea:* Altuna, Amuriza, Azpillaga, Gorrotxategi, Lopategi, Peñagarikano, Telleria eta Zeberio I.

*B taldea:* Enbeita, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Sebastian Lizaso, Mendizabal, Otaño eta Xanpun.

Azaroaren 23an bildu zen Batzordea Loiolako Herri Irratian Durangoko gaiak prestatzeko.

*Azaroaren 28an, Idiazabalgo Igarondo Frontoian* ospatu zen goiz eta arratsaldeko saioetan lehen semifinala. Goizekoan "A taldea" azaldu zen eta arratsaldekoan "B taldea". Saioa bukatuta bertsolariek onartu zuten Batzordearen proposamena, hots, Abenduaren 19an, Donostian finala ospatzea nahiz eta egun berean Real Sociedad - Athletic de Bilbao futbol partidua jokatu.

Abenduaren 1.an, Donostiako Diputazioan bildu zen Batzordea Finaleko gaiak prestatzeko eta beste zenbait gai erabakitzeke.

*Abenduaren 5an, Durangoko Ezkurdi Frontoian* ospatu zen goiz eta arratsalde bigarren semifinala, goizean "B taldeak" parte hartuz eta arratsaldean "A taldeak". Orain arteko girorik onena izan zen Durangon entzuleen artean. Saioa bukatu ondoren Epai-mahaikoek finalera pasatzeko zortzi bertsolari hauek hautatu zituzten:

Azpillaga, Amuriza, Enbeita, Garmendia, Lazkano, Sebastian Lizaso, Lopategi eta Peñagarikano.

Abenduaren 15 eta 17an Loiolako Herri Irratian bildu zen Batzordea Finaleko hainbat gai eta xehetasun prestatzeko. Idiazabal eta Durangoko saioetan hitz desegoki batzu bota zituztelako bertsolariek Antonio Zabalak ukatu egin zuen saio hauetako bertsoekin liburuak argitaratzea. Beraz Batzordeak erabaki zuen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren laguntzarekin, Azaroako hitzaldiekin batera Euskaltzaindiak argitaratzea.

*Abenduaren 19an, Donostiako Karmelo Balda Frontoian* ospatu zen, goiz eta arratsaldeko saioetan, Idiazabalen eta Durangon hautatutako zortzi bertsolarien artean, 1982.eko Txapelketaren finala. Egun honetako egitaraua, Gai Batzorde bereziak prestatutakoa hau zen:

#### **Goizean:**

1. Agurra.
2. Ofizioak: binaka, launa bertso Zortziko nagusian.
3. Lau oinak: banaka, bi bertso Zortziko txikian.
4. Ofizioak: binaka, hiruna bertso Hamarreko txikian.
5. 2 puntu: bakarka, Zortziko txikian.



6. Kartzela: bakarka, hiruna bertso neurri eta doinu librean.
7. Sebastian Lizasoren agur bakarra.

#### Arratsaldean:

1. Agurra.
2. Ofizioak: binaka, hiruna bertso Zortziko txikian.
3. Ofizioak: binaka, hiruna bertso Hamarreko nagusian.
4. Kartzela:
  - a) azkena emanda, 2 bertso Hamarreko txikian
  - b) hiru bertso sei edo gehiagoko puntutako bertsoetan.

Lan hau amaitu ondoren, Epai-mahaikoek erabakia hartzera joan ziren artean, Txapelketan parte hartu zuten 66 bertsolariei Euskaltzaindiaren dominak eman zizkieten Juan San Martin, Juan Jose Zearreta eta Jose Maria Satrustegi jaunek.

Epai-mahaikoen erabakia zera izan zen: Amuriza eta Lopategiren artean ezpaztea egin behar zela, bici lan hau egitera behartuz:

1. Launa bertso Zortziko txikian.
2. 2 puntu.
3. Hiruna bertso neurri eta doinu librean.
4. Batak besteari bertso bat bederatzi puntukoa.



*Ezkerretatik eskumatara:* Jon Azpillaga, Txomin Garmendia, Jon Enbeita, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Angel M.<sup>a</sup> Peñagarikano eta Imanol Lazkano.

Lan hau bukatu zutenean, berriz bildu ziren Epai-mahaikoek azken erabaki hau hartuz: 1982.eko Txapelketaren irabazle, *Xabier Amuriza*, eta bigarren *Jon Lopategi*. Lehen fasean doinu gehien erabili zuenen saria Jose Maria Altunak irabazi zuen eta bigarren faseko doinu saria Xabier Amurizak.

Sari ematea Jean Haritschelhar, Jose Maria Satrustegi, Endrike Knörr, Juan Jose Zearreta eta Jose Maria Aristegi (Donostiako Udaleko) jaunek egin zuten. Eta azken agur bana kantatuz amaitu zen arratsaldeko jaialdia eta aurtongo Txapelketa.

*Antolakizun Batzordea*

## TXEKOSLOBAKIAKO ITZULIAREN BERRI ETA ONDOREAK

*Donostia, 1982-X-29*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Duela hilabete bat, Irailaren 19tik 29ra, urteko oporrak baliatuz Pragan izan naiz. Horrela, Norbert Tauer eta Karel Keller adiskideak pertsonalki ezagutzeko amets zaharra beterik ikusi dut. Haundia izan da neure eta beraien poza. Hau zen bidaiaren helburu nagusia.

Denbora berean, txekotarren eta euskaldunon artean izanak diren kultur harreman batzuen zehaztasunak jasotzeko gogoia ere banuen, eta hona hemen dakartzidan berriak.

Pragara iritsi eta biharamun arratsaldean bertan, Irailaren 21ean, besarkatu nuen lehen aldiz euskaltzain ohorezko den Norbert Tauer jauna. Bere lau rogei ta lau urteekin burua argi du eta euskaldunonganako atxikimendua beti bezain gartsu. Indarra du galdu eta nekez dabil. Aulki baten sostenguaz eta bere emazte Franziskaren laguntza estimagarriari esker ematen ditu pittinka bere urratsak bizitegian gela batetik bestera aldatzeko. Gure elkarrizketako puntu nagusiak magnetofoneo jaso nizkion.

Elkarrizketaz beste alde, Tauer jaunak, guretzat interesgarri den beste gauza asko erakutsi zidan. Lehenbiziko egunean, liburuak aipatu zizkidan. Bizitegi baten-tzat zama haundiegia dela eta makurren baten beldur zen. Liburutegi osoa Euskaltzaindiari eskaintzen dio. Gehienak Azkue Bibliotekan izango ditugu, noski. Hala eta guztiz ere badira gerra ondoko ale asko guk ez ditugunak eta, batez ere, Vinson zena- ren liburutegiko zenbait gauza Parisko marxant batengandik lortuak. Esate baterako "*Origen de la lengua bascongada*" (1760). Esan zidanez, osorik gordetako ale bakarra Madrilgo Biblioteca Nacional-ean dago. Beste hiru ba omen dira —hau barne dela— orriak falta dituztenak. Bereak badu bereiztasun bat: Vinson-ek bere eskuz idatziak dituela eskas zituen hamabi orrialdeak. Horrela, bigarren ale osoa bera da.

Bai eta ere ikusi nituen: Astarloa, *Apología de la Lengua bascongada* (1803). Fleuri Ubillos, *Christau Doctrin berri-ekarlea* (1785) Haraneder, *Gudu Izpirituala* (1750). Chourio, *Jesu Christoren Imitazionea* eta beste idazle zahar batzurenak.

Legezko zailtasunak ikusten dizkiot Sobiet Batasunaren mendeko herrialdeetatik biblioteka bat ekartzeari. Ezinezkoa dela esan gabe, eragozpenak ekar ditzakeela diot. Horrexegatik prest nengoen ni hamarren bat liburu guretzat interesgarrienetakoak neurekin ekartzeko. Hasiera izango zen, baina gure adiskideak ez zion nere proposamenari aurrerabiderik eman. Nora edo hara eramatekotan liburutegi osoa zati- ketarik gabe aldatzeko gogoia agertu zidan. Ulergarri da, beste alde, erantzun hau.

*Aldizkariak.* Liburuez landa moeta askotako aldizkariak ere badira euskaltzain ohorezko honen etxean. Anaia Berriotxoa zenaren gutunetan ageri danez. *Nora* izeneko aldizkaritxoa bidaltzen zion Pragara, neuk ere *Luzaide* helduarazten nion bezala. Zabalkunde ttipiko orriak eta eskuratzeko zailak. Bigarren arratsalde batez aldizkariak bildumak aztertu nituen. Denak ekartzeko baimena izan arren aukera bat egin behar, eta guretzat arrotzenak jaso nituen eta ekarri.

*Prehled* aldizkari katolikoak 1935.ean Euskal Herriari buruz argitaratutako alea aipatuko nuke lehenik. Bertan Azkuek "Ilargia" izeneko olerki luze bat argitaratu zuen txekeraz. Tauer jaunaren idazlan bat ere badakar, baina nik azpimarratuko nukeen berri bitxiena Iparragirrereren "Gernikako Arbola" hango hizkuntzan, eta txekoarren "Himno Nacional" delakoa, Azkuek euskarara itzulirik ematen dituela esatea, izango litzateke.

Euskaltzaindia ere aipu da R. J. Slabý irakasleak izenpetutako idazlan batean. Gaztelerazale eta euskararen maitale honek, Azkuerekin harremanak izan zituen eta hilarriko izkribuak dioenez, *Euskaltzaindiko urgazle* zen, erdal Akademiakoa bezalaxe. Calderonen bertsu batzu ere han dira.

Nere ustez izen hau ez da ezaguna Euskaltzaindiko zenduen bilduman eta beharko genuke hutsunea bete. Hau da nere proposamena.

O. P. E. (*Oficina Prensa Euzkadi*) Parisen argitaratzen zen aldizkariak, bazuen bere oihartzuna Pragan. Bi urtez atera zuten txekeraz (1947-1948) eta bilduma hori neurekin ekarri dut. Tauer jaunak esan zidan ale bat falta dela. Ez zekien zer gertatu zen, baina bere eskuetara ez omen zen inoiz iritsi.

Juan Manuel Epalza zen Eusko Gobernuaren ordezkaria, urte horietan, Pragan, eta beraren ardurapean ateratzen zuten aldizkaria.

Algeriako euskaldunek 1958an banatzen zituzten orrietarik ale batzu ere bildu ditut; hala nola, han hemenka berak idatzitako euskal lanak. Donostiako *Argia*, aldizkarian, 1928.eko Urriaren 28an argitaratutako idazlan batean honela ezarria du egileak: "Nire euskerazko lehenengo artikulua".

Nevadako "Newsletter" argitalpenaren bilduma ia osorik aurkitu nuen —lehenbiziko alea du falta— eta hori ere ekarri egin dut. Nik uste ez dela zaila izango harpidetza lortzea, Azkue Bibliotekan jarraipena izan dezan.

Hemeretzigarren mendearen azken aldera Alemanian argitaratutako *Euskara* aldizkaria ere bazuela, irakurria dut nonbait. Nik ez nuen aurkitu. Horrek ez du esan nahi egongo ez denik; O. P. E. ere bagenekien han zegoela, eta azken egunean aurkitu nuen beste orri, mapa eta aldizkari meta haundi baten azpian.

\* \* \*

*Gutunak.* Dakizuenez, eskutitzen bilduma oso ugaria dauka Tauer adiskideak. Bakoitzaren paperrak azal berezian eta oso ongi sailkatuak. Ez nion galdegin zenbat euskaldunekin izan dituen harremanak. Banan-bananak karpeta guziak ikusiz, hildakoen gutunak berezi eta 38 batenak ekarri ditut.

Hauetan badira gutun bakarra edo Eguberritako zorion txartelak besterik ez dituztenak. Esate baterako: A. Arrue; G. Eppherre; Ibinagabeitia; Aita Iraizoz; R. Lafon; N. Ormaetxea 'Orixe'; Telesforo Monzon; Julio Urkixo; Doroteo Ziaurritz; Satarka, etab.

Gehiago dute, Bingen Amezaga, Bozas Urrutia; Dassanz; Nemesio Etxaniz; Isidoro Fagoaga; I. Lopez Mendizabal; Etienne Salaberry eta beste batzuk. Interesgarrienak nere ustez, anaia Berriotxo, Aresti, Artetxe, Berriatua, Zaitegi, Jon Mirande eta Anton Hilchman jaunak direla esango nuke. Esan bezala, neurekin ekarri ditut eta Norbert Tauer euskaltzain ohorezkoaren izenarekin osotzen joan gaitzkeen emaitza baten hasiera da.

Besterik da nola eskuratu ikusten joatea. Plangintzaren bat beharko genuke.

Muga igarotzeari zion beldurra. Inolako oztoporik izan ez genezan, berak izenpetutako agiri bat egin genuen zer nolako idazkiak ziren txekeraz adierazten zuena. Iadanik hildako jaunak eskuizkribu pertsonalak zirela, alegia, Tauer euskaltzain ohorezkoak Euskaltzaindiko bibliotekari eskainiak. Aduan ez zidaten ezer esan eta ez nik ere arrazoirik eman.

\* \* \*

*Biblioteka.* Lau milioi titulu baditu Pragako Bibliotekak. Zortzi aurkibide moeta kondatu nituen:

- 1) Txekeraz idatzi duten autoreena.
- 2) Atzerriko idazleena.
- 3) Gaien sailkapena dakarrena.
- 4) Apal eta liburuen zenbaki zerrenda.
- 5) Liburu berriena.
- 6) Eskuarteko gaiena (hiztegi, ikas-liburu eta abar).
- 7) Eskuizkribuena, eta
- 8) Aldizkariaren fitxategia.

Nafar idazle baten liburu bitxia aurki daiteke: Martin de Andosilla edo Arles, Iruñeko kalonjearen *De superstitionibus* oso ezaguna. Argitaraldi asko izan zituen, baina Pragakoa, 1510-ean lehen aldiz Lionen ateratako ale ezagun bakarretakoa da.

\* \* \*

*Museoak.* Artederren erakustoki asko eta onak ditu Bohemiako hiriburuak. "Narodny Galerie" izeneko pinakoteka nazionalen euskaldun baten gorputz erdiko erretratoa dago, Goyak egina. Miguel de Lardizabal, dio azpian. Denbora luzean inork ez zekien nor zen jaun hura eta Espoz y Mina deitu zioten. Geroago, eskuetan duen esaera bati esker jakin zen Lardizabal sendikoa zela (1).

---

(1) "Durante muchos años la identidad del retratado fue un enigma hasta que Vicenc Kramar lo identificara, basándose en una tradición oral que fue transmitida por el último propietario particular del cuadro, como mariscal Espoz y Mina... Fue Soria quien reconoció en él, basándose en la mencionada divisa (*Fluctibus Rei publicae expulsus, pr. Goya, 1815*) que se repite en un grabado conservado en la Biblioteca Nacional de Madrid y que representa a Miguel de Lardizabal, ministro de Indias bajo el gobierno de Fernando VII. (Pavel Stepanek "El Miguel de Lardizabal, de Goya.")

J. San Martinek eman dizkit Pavel Stepanek jaunaren berriak. "Problemas en torno a un retrato" da hispanista honek egindako lanaren bigarren izenburua. Aipatzen dituen zenbait zehaztasun gure Jagon sailburuak emanak dituela aitortzen du.

Migel Lardizabal kargu haunditako jauna zen (2). Erbestean egonik Fernando VII garrenak berekin ekarri zuen Indietako ministeritzaren arduradun. Madrilen bere izarra itzaltzean Euskal Herrira itzuli eta Bergarako Seminarioaren zuzendari egin zuten.

Azkenaldi honetan, beste eztabaida bat sortu da, Migel ez baino bere anaia Manuel ote den esaten duena (3).

Nola nahi ere, Goyaren margorik hoberenetako bat dela, diote Pragan. Nondik nora heldu den Pragara? Mende honen hasieran, Madrilen zegoen. 1908.enean heldu zen Vienara, eta 1937an, joan zen Pragako Museo Nacionalera (4).

Tauer jaunak ere bi Zubiaurre baditu bere etxeko jangelan. Arteder eta grabaketaren teknika mailan tradizio oso aberatseko herria da. Irakasle eta jaun ikasiek "Ex Libris" ikusgarriak dituzte beren liburuentzat. *Rosales* espainiar margolariak tintaz egindako apunte edo zirriborroa eman zidan oroigarritzat euskaltzain ohorezkoak.

\* \* \*

*Elizak.* Ehun dorredun hiria omen da Praga. Gazteluko tontoretik begirada bat ematean, ehun baino gehiago bazirela azpimarratu zidan Karel Keller adiskideak.

---

(2) Fausto Arocenak honela dio: "Por la rigidez del sistema que se ha establecido, no se abre asiento de Miguel de Lardizabal y Uribe, que, entre, otros cargos, ocupó el muy honroso de Director del Real Seminario de Vergara, ya que aun perteneciendo al linaje guipuzcoano de Lardizabal, nació en Méjico". *Diccionario biográfico vasco*, vol. I. Guipúzcoa. Añamendi 32, pág. 128.

El citado Stepanek proporciona más datos del personaje: "Miguel de Lardizabal y Uribe nació de una familia vasca el 24 de Abril de 1744, en San Felipe de Tlaxala (México). Vivió en España a partir de 1761. Primero desempeñó el cargo de oficial de la secretaría de Estado en el Ministerio de Asuntos Exteriores; en principio fue adversario de Godoy, bajo cuyo gobierno se exilió y colaboró con José Bonaparte, pero más tarde pasó al lado del expulsado Fernando VII. Estuvo en posición del más enconado absolutismo y por eso la Asamblea constitucional de las Cortes de Cádiz le condenó en su ausencia a la pena capital. Después de regresar Fernando VII, Lardizabal desempeñó el cargo de ministro para las Indias; fue ennoblecido y se le concedió la divisa inscrita en el cuadro. Desempeñó su cargo tan sólo un breve tiempo, del 16 de Mayo de 1814 a setiembre de 1815, debido a los desacuerdos con los ministros Abad y Queipo, quienes le reprochaban haber favorecido a los hispano-americanos. Perdió el favor del rey y se vio obligado a exiliarse a Vizcaya (sic), donde pasó a director del seminario de Vergara. Allí, poco más tarde, probablemente en 1825, murió" (Aipatutako lanetik hartua).

(3) Vicente Talón Ortiz. "*Vasconia a los cuatro vientos*" (Bilbao, 1975). Honela dio: "Ahora, y gracias a la colaboración de don Francisco Javier Martínez Pardo, un descendiente de los marqueses, de Villarias que entroncaron con los Lardizábal a través de doña María Francisca de Lardizábal y Montoya, he sabido que el personaje que se muestra en la "Narodni Galerie" no es el citado Miguel, sino su hermano Manuel de Lardizábal". Y añade: "...la familia Martínez Pardo posee un retrato de don Manuel de Lardizábal en el que quedan bastante claras las diferencias fisonómicas existentes entre ambos hermanos" (pág. 201).

(4) Txekoslovakiaiko idazleak honela jarraitzen du: "Por otra parte, es relativamente conocida la suerte de este cuadro: como propietario se le menciona en el año 1900 a Enrique O'Shea, de Madrid; luego en 1908 la Galería Miethke de Viena, la cual ese año organizó una pequeña exposición de obras de Goya, y, finalmente, en 1932 lo adquirió para su colección privada Arthur Mayer de Karlovy Vary / Karlsbad, de donde pasó en 1937 a la colección de la que hoy es Galería Nacional de Praga. Hasta el momento no se ha mencionado en este contexto la observación de Osorio y Bernard, del año 1883-1884, de que en el Ministerio de la Marina se halla un retrato del Señor Lardizábal" (Cf. GOYA (Madrid, 1883-84) pág. 311.)

Algunos autores mencionan como propietario, anterior a O'Shea, asimismo a Manuel Victor de Lecca.

Margoaren balioari buruz hau dio, jaun honek: "Si por una parte divergian opiniones respecto a la identidad del retratado, existe una rara concordancia respecto a las cualidades pictóricas de la obra; el cuadro se cuenta entre los más importantes retratos de Goya" (Pavel Stepanek).

Horrek esan nahi du eliza asko dagoela Pragan eta ederrak, batez ere gotiko, berbizkunde eta barroko tankeran. Eliza hauetako bat, ez haundia, Pragako Jesus Haurra-  
ren irudi oso ezaguna dagoen, Garaipeneko Andra Mari eliza da. Otoitz luze bat hiz-  
kuntza askotara itzulia aurkitzen da Jesus Haurra daukaten alboko aldare baten  
aurrean. Euskarazko itzulpenak honela dio: “*GOIZALDI dantzari-taldeak eskeiñia,  
Pragako aurkezpenaren oroigarritz. 1964-ko garagarrillaren 24an*”.

Beste paperrek ez duten bereizgarri bat ikusi genuen euskarazkoan: Euskal  
Herriaren eta euskararen aldeko eskaria, honako bertso hauetan:

*Otoi, gure Jesus Aurtxo maitagarria,  
Begiratzazu, beti, Euskalerrria,  
Bait'ere euskaldunen izkuntza maitia,  
Gure euskara zarra, gozo ta ezitia (5).*

Ikusi ez ditudan gauzen artean, Nafarroatik eramandako Antxetaren irudiak  
aipa nitzake. Behin baino gehiagotan hemen agertu den Pavel Stepanek jaunak gure  
San Martini idatzitako gutun batean, honako berri hau ematen dio:

“También me gustaria publicar los dos relieves que son derivados de la Ultima  
Cena y el Descendimiento, del retablo de Caseda, de Juan de Ancheta” (1978-VI-14).

Euskal Herria txikia izanik, geuk uste baino oihartzun gehiago izan du munduan  
zehar. Zuloagari buruz jaun honek berak honako berri hau ematen du:

“...tengo que decirte que tuvo una sala independiente en la exposición de la Kra-  
soumná jednota —traducido al español significaría algo así como Unión de Bellas  
Artes—, a comienzo del siglo” (1978-X-26).

\* \* \*

*Euskaltzaleak.* Baina Euskal Herriko muga estuetan itxirik bizi izan bagara ere  
denbora luzean, Euskalarien Jardunaldiek begiak ireki dizkigute azkenaldi honetan,

(5) Bertsoa Tauer jaunaren lana da. Donostiako dantzariak Pragan ziren egunetan *Aranzazu* aldiz-  
kariak argitaratutako beste idazlan baten ondar lerroak dira. “Aurtxo Jesus Praga-koari” izeneko bertsoe-  
tan, bosgarren eta seigarren ahapaldia elkarrekin lotuak dira:

*Adiskide asko ditu Euskalerrria  
Euskaldun jator eta zintzoen artian.  
Ta nik emen AREN IRUDITXO-azpian  
Eskatzen diot apaltasun txit aundian:  
“Otoi, gure AURTZO JESUS maitagarria,  
Regiratu zazu beti Euskalerrria,  
Bait'ere euskaldunen izkuntza maitia,  
Gure euskera zaar, gozo ta ezitia.”*

(Aranzazu, 1964 uztaila abuztua, 37.or.)

Jesus Haurra-  
ren imajina hori español batek eramana dela esaten du bertsoen aurkezleak. Noiz ote?  
Tauer jaunak bigarren ahapaldian hau dio:

*Ogei-eta amar urteko gerratean,  
Praga zori-gaiztoan arkitzen zanean,  
Jaiera au sortu semeen biotzean  
Ta laister edatu zan mundu zabalean.*

*Euskal otoitzaren izenburua laburra da: “Praga”ko Jesus Aurtxoari Otoitza”. Erdarazkoak honela  
dio: “Oración eficaz / Al Divino Niño Jesús / revelada por la Santísima al Venerable P. Cirilo de la  
Madre de Dios, Carmelita Descalzo de Praga”.*

eta munduan zehar euskaltzale jatorrak baditugula ikasten hasi gara. Iragan denboretan Txekoslovakian izandako euskaltzale batzu aipa nahi ditut:

*Slabý, Rudolf J.* Euskaltzaindiaren lehen denboretako urgazle orain arte guretzat izkutua. Azkue zenarekin harreman estuak izan zituen eta bere zenbait lan aldizkari batean jaso ahal izan ditut. Besterik ez ote? Nun zila?

*Skaslytka.* 1947an euskal kulturari buruz ikastaro bat antolatu zuen Pragan. Ez ziren euskara irakasteko klaseak, euskal gaien zabalkunderako hitzaldiak baizik. Lan eskergarria benetan.

*Pospisil, François.* Morabiako Etnografi-museoan zuzendari ohia. Eusko Ikaskuntzako Baionan antolatutako kongreso batean parte hartu zuen. Tauer eta biak etortzekoak ziren. Baten baimena bakarrik lortu zuten agintariengandik, eta bera etorri. Hitzaldi bat eman zuen. Holandan egin zen Antropologiako kongreso batera dantzen gaia eraman zuen. Lan honen berri, bai, badugu eta itsakin antzera horren berri ematea merezi du. 1927.eko berriak dira (6).

*Keller, Karel.* Hizkuntzalaria. Doktoradutza arabiar eta gaztelaniari buruz egin du. Hizkuntza bi hauen irakasle da eta euskara ikasten ari. Tauerren jarraitzaile izan nahi lukeela aitortu zidan.

Izan daitekeen gizonik prestuena eta atsegina da. Bere azterketan arabiar kronika eta paper zaharrek Euskal Herriari buruz zerbait esaten dutela ikustean arduraz

---

(6) IIIe CONGRES VAN HET "Institut International d'Anthropologie-Paris", Te Amsterdam 20-29. september 1927. Office National Hollandais. Communication de M. le prof. Dr. François POSPISIL, directeur de la section ethnographique du Musée régional de Moravie (Moravské Zemské Museum), Brno, Moravie, Rep.

"A la périphérie de l'Europe, dans les montagnes inaccessibles des Pyrénées, le peuple Basque, qui a si bien gardé ses anciennes coutumes et droits, nous a conservé un grand nombre de danses guerrières et d'évolutions parentes de danse, étudiées déjà en 1826 par Juan Ignacio de Iztueta. Chaque région géographique ajoute des variantes nouvelles, avec un divers accompagnement de musique, dont les codas finales sont très typiques et multiformes. La Makil Dantza ressemble beaucoup à la Stick Dance anglaise. L'accompagnement est exécuté par les mêmes instruments en Angleterre que chez les Basques: une fistule dans la main gauche et un tambour frappé par la main droite. Il n'y a pas de doute que ces danses cohèrent. Cependant les Espata Dantzas ont un caractère singulier et une place unique parmi les danses européennes. Mais il leur manquent beaucoup de figures des danses de l'Europe occidentale et de l'Europe Centrale, par exemple: la ronde, le passage sous les bras, le saut par dessus les bras etc. mais elles présentent comme les autres le caractère de danses de groupe et de rôle prépondérant du capitaine (soulèvement de son corps par les danseurs et sa danse de solo). Par les figures d'assaut l'Espata Dantza cohère avec la danse yougoslave de "Moreska", danse très intéressante et très énigmatique. C'est le salut rendu par le drapeau qui précède de toutes les danses basques; toutes, elles renferment des changements de front et des groupements à quatre. Il y a des sauts avec un tour entier et des torsions de la partie inférieure de la jambe droite. Le son de clochettes et d'objets cliquetant attachés au-dessous des genoux de danseurs accentuent le rythme de la danse tant chez les Basques que chez les Anglais.

La Brokel Dantza, dansée avec l'épée et le bouclier est une vraie découverte. Dans les formes basques, nous voyons la pyrrhique connue par les descriptions douteuses des écrivains antiques, et une danse semblable à la danse sacrée des prêtres Saliens à Roma. L'art antique nous en a conservé quelques figures (v. Emmanuel, Weege). Le sens du mot Brokel, à Malorca: Broquer (danse encore inaccessible pour nous), est inconnu. La Makil Dantza est dansée dans quelques régions avec des bâtons courts, dans les autres régions avec des bâtons longs, parfois avec deux bâtons. La danse de bâton, exercée à Alcaria (España Central) nous est restée pour le moment inaccessible.

(Por la comparación des danses guerrières chez les peuples slaves, chez les Anglais, et chez les Basques (avec le peu de danses antiques que nous connaissons), nous parvenons à l'idée d'une danse guerrière de temps très antique. Cependant ce n'est pas à l'origine des danses guerrières que nous sommes parvenus", etc.



jasotzeko eskatu nion, eta lantxoren bat edo beste bidaltzeko. Komeni zaigu lankide berriak euskal alorrean ugaritzen joatea.

Eta ez dut besterik. Ez naiz politikan sartuko, ez dut erlijio gairik aipatuko, nahiz katedralea bete jendekin kardenalaren mezan egon Wenzeslao zaindari haundiaren elizkizuna ospatzen zen egunean.

Kultur mailan goian dago Praga hiria. *Dukla* futbol txapeldunaren zelaian egon ginen, *Plastika Nitra* eslobakiako taldearen aurka jokatu zuten partiduan. Hogeita hamar mila jarlekuetatik mila pare bat bakarrik bete ziren. Biharamunean *Smetanovo* teatroan Puccini-ren *Boheme* ikusteko ez zegoen aulki bat ere hutsik. Eta hiru teatro nagusitan ematen dira aste guziz opera emanaldiak.

Bitartean, urte guziz berrogeita hamar mila pertsonak hartzen dute atzerriko bidea, eta berrogei bat jendeak botatzen du Gottwald zubitik bere burua. Denbora berrietako urkamendia.

Baina hau ez da nik gaur adierazi nahi nuen euskararen arazoa.



## EUSKARA MERKATALGOAN INDARTZEKO ASMOZ

Donostia, 1982-XI-26

Xabier Kintana

Jaun-andre euskaltzainok:

Joan den hileko batzarrean ahoz adierazi nuenez, eta orduan egin zitzaidan oharri segituz, gaurko batzarrera eskribuz proposamen bat dakart, merkatalgo-munduari dagokiona.

Gauza jakina denez, Euskaltzaindia euskara zaindu eta bultzatzeko asmoz sortu zen eta beronen bitzta osoan zehar gure hizkuntzak gizartean dituen oztopo-eragozpenei laguntasuna ematen saiatu da.

Literatur arloan, elaberri, ipuin, saio, teatro eta bertsolari lehiaketak antolatu izan ditu, horiei bultz egiteko, beste erakunderik ez zegoenean behintzat.

Irakaskuntzari doakionez, berriz, irakasle-diplomak ere banatu ditu Euskaltzaindiak, azkenean, ardura hori Euskal Herriko Gobernuak bere gain hartu arte.

Haurrei euskal izenak jartzeko jendeak zituen istiluak garbitzeko ere, bere egunean *Pertsona-izendegia* argitaratu zuen gure Akademiak, hain harrera ona izan duena. Haren ondotik, eta bestelako premiei erantzuteko, *Merkatalgo* eta *Banka-hiztegiak* eta *Herri eta Herritarren izenak* plazaratu zituen.

Uka ezinezkoa da, noski, ekintza guztiok beren ondorio probetxugarriak izan dituztela eta horiei esker euskararen presentzia, inoiz ez bezala, gizarteko hainbat arlotan goraka ari dela.

Zenbait arrazoiengatik literatur autoreen emaitzak nahi genukeen adinakoak ez badira ere, ba dirudi aspaldian hainbat erakunde ofizialek eta pribatuk bere laguntasan oparoak eskaintzen dituztela eta hor, beraz, Euskaltzaindiak aski duela bere aholkularitza soilaz.

Pertsona-izenen arrakasta aipatu besterik ez dut egingo, euskal izenen aspaldianiko gorakada aski nabaria baita berbera bere buruz mintzatzeko. Gauza bera esan daiteke Herri izenez ere.

Banka-munduan, gainera, Aurrezki-Kutxei dagokienean behinik behin, toki askotan inprimakinak, taloiak, kartelak, abisuak eta publizitatea jadanik, erdaraz batera, euskaraz ere ematen dira eta horretaz, Euskaltzaindiak arlo honetako lexikoa moldatzeko eta batzeko izan zuen partaidetza mesedegarritzat jo dezake.

*Merkatalgo izendegiak* berak ere bere fruituak ekarri ditu. Hor han hemenka, urte askotako elebakartasun ofizialak ezarrirako ohitura kengaitzei kontra eginik, hasi dira zenbaitzu denden izen arruntak euskaraz ere ematen.

Baina hala eta guztiz ere, lehen aipaturiko erdal inertzia hori dela eta, nolabaiteko zabarkeria, nolabaiteko nagikeria nabari da oraindik zenbait pertsona eta erakunderen aldetik eta hori, gainera, larriagoa izaten da, produktu horietako batzu kontserba-potoak eta esnekiak bereziki —gaztelaniaz batera, maiz frantsesez, ingelesez eta alemanez adierazten direla kontutan hartuz gero.

Egia da, bestalde, publizitate-arduradun euskaltzale —edo eta begiargi— batzuren eraginez produktu eta saltoki batzu euskaraz iragartzen direla eta jendeak, oro har, haintzat hartzen dituela gainera. Hala ere, etxe eta merkatori horiei, berek beren aitzindarizagatik merezi luketen onspen publikoa, ordea, ez zaie ia inoiz egiten eta horregatik euskaraz eta euskararen alde kanpaina bat egin ondoren, askotan zera gertatzen da, ez direla ausartzen edo animatzen hurrengoan gauza bera egitera, behar bezalakao oihartzunik ez ote duten sortu beldurrez.

Hauetz gainera, egiten diren kanpaina eta kartel askotan, maiz ortografi edo sintaxi oker nabariak idazten dira, zabarkeriaz edo eginak. Zer esan, bestalde, erdaraz pentsaturiko testuak euskarara, inolako egokitzapenik gabe itzultzen diren modu traketse eta harrigarriez!

Egoera honen aurrean, Euskaltzaindiak, ene ustez, eta erakunde egokiagorik horretaz arduratzen ez den artean, zerbait egin lezake, euskara merkatal munduan era itxuroso eta normalaz indartzen diharduten etxe eta pertsoneri bere onspen-agiria eskainiz.

Onspen hori ohorezko diploma bat besterik ez litzateke izango, Euskaltzaindiari oso kostu txikia lekarkiokeena, eta, bestetik, jendaurreko harremanak lantzeaz batera, hartzaileari halako ezagutze publiko eta poza emango lioke.

Horretarako, Akademian urtean behin batzordetxo bat bildu eta prentsa, irrati, telebista, iragarki, kartel eta erakundeetan Euskaltzaindiaren arauak eta gure hizkuntzaren sena kontutan harturik, aski nabarmen eta zabalki euskara erabili duten zenbait erakunde (urtean 10 edo 20, kasu) proposa lezake, diploma banaz hornitzeko.

Beste modu bat zera litzateke, baldintzak eta helburuak jarritz, dei publikoa egitea, diploma hori eskuratu nahi luketen guztiek, beren merituak agiriz ziurtatuz, burua aurkez lezaten.

Idea honi ondo eritiziz gero eta hasteko, ene ustez, aurtun bertan egin liteke lehenbiziko diploma-ematea.

Argi gera bedi ez dudala pentsatzen, ez eta hurrik eman ere, Euskaltzaindiaren egitekoa, berez, holako sariak eskaintzea denik. Gauzak ongi joanez gero, gainera, euskarazko izenak eta errotulazioa hemendik urte batzutara erabat normalduz badoaz, ez du arrazoirik izango orduan oraingo proposamenak eta, besterik gabe, une batetik aurrera bertan behera bazterrean utz liteke. Kontua ordea, beste hau da, orain arteko inertzia hautsi eta gure hizkuntza oso ahul dagoen arlo honetan aurrera bultzatzea. Horra doa, edo joan nahi luke behintzat, esan dizuedana.

## EUSKAL BILTZARREA FRESNON (Kalifornian)

*Patxi Altuna*

Lehengo udan, 1982ko Abuztuaren 23tik 26ra, ospatu zen Ipar Amerikako Lehen Euskal Biltzarre Nazioartekoa Fresnon (Kalifornian).

Mundu guztiko zenbait Unibertsitatetako hogeitamar edo irakaslek, euskaldunek eta ez euskaldunek, eduki zuten esku eta irakurri txostenak, Estatu Batuetako ikastetxeetakoak zirelarik noski gehienak: Arizona, Nevada, Pennsylvania, Kalifornia, New York eta abarretakoak.

Gai askotarikoen gainean izan ziren txostenak: euskal idazleen literaturaren (Maguna-Goikoetxea, Mendizabal), ekonomiaren (Bakaikoa), politikaren (J. A. Garmendia) eta linguistikaren (Altuna, Urreztieta, L. Oñederra, Txillardegi, Allières, Bretschneider, M. Ugalde) gainean.

Giza-mailako harremanak ere ez ziren bazterrean gelditu zenbait ongiertorri, bazkal-afari eta "picnic" direlakoetan; aipamen berezia zor zaie Fresno Basque Club-eko landa (ala basa?) afariari eta Yosemite deritzan Nazio Parke ospatsura egin txangoari.

Biltzarre honekin Ipar Amerikako Euskal Lagunarteak aurreproiektu aldia garaitu zuela esan daiteke eta Gloria Castresana (Kalifornia), Juan Kruz Mendizabal (Indiana) eta Emilia Doyagaren (New York) gidaritzapean abiada eman zaio zenbait asmo berriri. Horrez gain, 1983an barna Ameriketako biltzarre batzuetan esku hartuko dute zenbait euskal pentsalarik, euskal munduko liburu garrantzitsu batzuen ingelesezko argitaraldiak prestatuko dira: hala nola Mitxelenaren batena euskal hizkuntzaz, M. Ugaldereen beste batena gure historiaz, Txillardegiren eleberri batena, bai eta hamar ipuin eta kontakizunen bildumatxoarena.

Erakundearen egoitza nagusia hau da: *Society of Basque Studies in America - 407 Sutton Hall - I.U.P. - Indiana, PA 15705.*

Harpidedun izateko urteoroko diru-ordaina 10 dolar da.



## JUAN PABLO II AITA SANTUAREKIN

*Aramaio, 1982-XII-18*

*J. M. Satrustegi*

Azaroaren hiruan Juan Pablo II Aita Santuak Españaiko Unibersitate, Erret Akademia, Ikertzaile eta Pentsalariei egindako deiari erantzunez, Madrilen izan zen Euskaltzaindia. Complutense Unibersitateko areto nagusian egin zen bilera, eta sarre-  
ra mugatua zenez, Euskaltzainburugoko lau lagunok joan ginen, Hegoaldeko lau herrialdeen izenean: L. Villasante, Euskaltzainburua; J. M. Satrustegi, idazkari eta Nafarroako ordezkaria; E. Knörr, diruzain eta Arabako ordezkaria eta J. San Martin, Jagon sailburu eta Gipuzkoako eragilea.

Sondikako aireportuan arratsaldeko zortzi t'erdietan hegazkina harturik, bezpe-  
ratik joan ginen Madrilerara, eta han gaua eginik goizeko zortzietan hurbildu behar  
genuen Unibersitateko ate aurrera. Ordurako, bazter guzitatik etorritako ikaslez  
betetzen hasia zen etxe aurrea eta, itxuraz, batzuk han bertan lo egin izan behar zuten.

Batzargela nagusia bete-beterik zegoen hamar t'erdietan Aita Santua sartzean.  
Harrera ona izan zuen. Batzartu guziek zutik eta txalo luzeekin eman zioten ongieto-  
rria.

Kantariek "Veni Creator Spiritus" abestu ondorean, Urbano Valero Agundez  
Comillasko erretorea aurkezlarri, hasi ziren hitzaldiak. Francisco Bustelo Garcia del  
Real, bilduak ginen Unibersitateko erretore ospetsuak EGIN zion lehen agurra.

Federico Mayor Zaragoza, Hezkuntza eta Unibersitateetako Ministeritzaren  
buru zenak hartu zuen gero hitza, txosten luze eta esamodu borobilekin gertakizuna-  
ren garrantzia azpimarratuz. Unibersitatearen izenean domina emanik eta ohorezko  
izendapena agiri baten bidez eskaini ondorean, elkarte bakoitzak bere opariak aur-  
keztu zizkion Aita Santuari. Euskaltzaindiak liburu batzu utzi zizkion, L. Villasantek,  
latinez egindako eskaintzarekin.

Juan Pabloren hitzaldia zen bileraren ardatza eta isilune osoz entzun zitzaion.  
Behin baino gehiagotan txaloka hartu ziren bere esanak. Españaik historian zehar  
eman dituen gizon ospetsuak aipatu zituen lehenik; elizari eman dizkion santu eta  
Lagundi ospetsuen aitak gogoratu zituen gero; Avilako Teresa eta Gurutzeko Juan,  
bereziki errepikatuz. Irakaskuntza eta ikerketa askatasun osoarekin egin behar direla  
esan zuen, benetan gizartearentzat mesedegarri izatekotan. Egia izan behar duela  
jakintsuen helburu nagusia eta, bide horretatik, jakintza eta sinesmena elkartzera dei-  
tuak direla.

Batzargela nagusiko egitaraua amaitu zenean, Unibersitateko ate aurrean bildu ziren ikasleei mintzatu zitzairen berriz. Complutense-ko irteeratik helikopteroak zeuden zelairako bidea oinez egin zuen ondoratu zitzaion jendetzaren erditik.

Erdal Akademiako zenbait lagun agurtu genuen, hala nola irakasle ezagun asko. Gure ustez, Euskaltzaindiak han egon behar zuen ez gomita ofizialki hartu zuelakotz bakarrik, elkargo mailan dagokion nortasunagatik baizik.



## 1983. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

*Aramaio, 1982-XII-18*

*Jose Luis Lizundia*

Urtero bezala, datorren urteko batzar egutegiaren proposamena prestatu dut. Besteetan legez, Fr. Luis Villasante eta Santi Onaindiaren *Euskal literaturaren* liburuetan oinarritu naiz, eta, baita Jon Bilbaoren bibliografian ere, zenbait kasutan.

Hiru euskal idazleren edo euskalariren mendeurrenak ditugu heldu den urtean; Blas Alegria, nafarra; Joannes Elizalde "Zerbitzari", lapurtarra eta Joan Bautista Ibagutxi, bizkaitarrarena. Bestalde, Lizardiren heriotzako 50. urtea ospatu nahi dute Tolosan. Eta azkenik, Markinako Euskal Festeen 100 urte ere, heldu den Irailean, betekoa dira.

Ospakizun hauek gomutan izanik, beste zenbait ekintza ere kontutan ditugu, hala nola, egin beharrezko barneko jardunaldi edo antzeko, aurrenik, lehendik konprometituta ditugun Maileguzko hitzei buruzkoa. Beraz, kronologikoki, hala nola, ikusten dudan datorren urterako ekintza berezien egutegia:

Maileguzko hitzei buruzko Jardunaldiak dira esan bezala, lehendabizi ditugunak, berehala gainera. Urtarrilaren, 7 eta 8an, egingo ditugu, Uztaritzeko Landagoien. P. Lafitterren omenaldiko liburuaren aurkezpenarekin batera pentsatuta zegoen, baina hau, geroagorako utzi beharko da.

\* \* \*

Otsaileko batzarra, Sakana eskualdeko idazle bati, hain zuzen, Lakuntzan 1883.eko Otsailaren 4ean jaio zen Blas Alegriari, eskainiko diogu. Antzerki, folklore eta iker lanak egin zituen besteak beste, euskalari honek. Beraz, Otsailaren azken larunbatean, 26an, egingo dugu idazle honen omenezko batzarra eta bertako ospakizunak prestatzeko batzordeñoa, gaur bertan, izendatu beharko da.

\* \* \*

Martxoaren 6an, igandez, gu partaide izanda, Lizardiren omenezko aste bat antolatzen hasiak dira Tolosako Lizardi Kultur Elkartekoak. Lakuntzakoaren hurbiltasunagatik eta mendeurren erdia besterik ez delako, ezin dugu hileroko batzarrik Tolosara eraman, baina bai gure ordezkaritza bat hara bidali eta nahi duten euskaltzainei gomita igorri.

\* \* \*

J. Haritschelhar buruordearekin hitz egin ondoren, jakin dut Joannes Elizalde "Zerbitzari" zein egunetan jaio zen, bibliografietan ez baita agertzen; 1883.eko Abuztuaren 29an sortu omen zen, Azkainen. Euskaltzain osoa izana, **Euskera** 1931-

XII-27 orr. ikus daiteke beraren sarrera hitzaldia. Joannes Elizalde "Zerbitzari"ta "Bilharria" izenak erabili zituen bere lan ugarietan, *Eskualduna, Eskualdun ona* eta *Gure Herria* aldizkarietan. Zenbait libururen egile ere bada, pilota gai, Eliz liburu, hegazti, landare eta antzerki eta beste zenbait gairi eskainiak. Gure buruordearen eritziz, Lafitteren omenezko liburu aurkezpenarekin batera egin daiteke mendeurren hau, Bazko astean, ospakizuna Azkainen eta biharamunean, aurkezpena Uztaritzeko Udaletxean. Liburua ziurtatu beharko dugu ordurako. Forua eta Loiolakoen segida, III. Barne Jardunaldiak ere han antola daitezkelarik.

\* \* \*

1883.eko Irailaren 16, 17 eta 18an egin ziren handikiro Markinan, *Euskal Parlanzu edo Piastak*. Hori dela eta, mendeurrena jadanik prestatzen hasiak direnekin hitz egin dugu eta aste oso bateko ekintzak prestatzekotan dira, azken egun bat guretzat ere erreserbatuz. Bestalde, Lea-Artibai eskualdeko "Escuela Profesional" a guri uzteko prest daude, jardunaldiren batzu antolatu nahi izanez gero. Kontutan izanik garai ona dela, gaia oraindik finkatzeko utzirik (azentuaz, dialektologiaz, konposaketaz,...), jardunaldi batzu han antolatzea interesgarri litzateke. Bide batez, Iraileko batzarra, Bizkaiko euskalki literarioaren habia den hiri horri eskainiaz eta Mogeldarra, Fray Bartolome eta abar omenduz.

\* \* \*

Azaroko batzarrean, Arratia merinaldeko Ubidea herriskan, 1883.eko Azaroaren 23an jaio zen Joan Bautista Ibagutxiri aipamen bat egin diezaiokegu. Hain zuzen, Akademia honen sorreratik euskaltzain urgazle izan zen eta azkenik ohorezko. Euskaltzale apal honek merezi du oroimen koxkor bat.

Beraz, proposamena kontutan izanik, egutegi hau erabakitzen da 1983. urterako:

Urtarrilaren 7 eta 8an,	Maileguzko hitzei buruzko Jardunaldiak, Uztaritzen;
Urtarrilaren 28an,	hileroko batzar arrunta, Donostian;
Otsailaren 18an,	Blas Alegriaren mendeurrena ospatuz, Lakuntzan;
Martxoaren 25ean,	hileroko batzar arrunta, Donostian;
Apirilaren 8, 9 eta 10ean,	Azkainen, "Zerbitzari"ren mendeurrenaren ospakizuna eta Uztaritzen, Lafitteren omenezko liburuaren aurkezpena, eta Euskaltzaindiaren III. Barne Jardunaldiak.
Maiatzaren 27an,	hileroko batzar arrunta, Donostian;
Ekainaren 24ean,	hileroko batzar arrunta, Iruñean;
Uztailaren 29an,	hileroko batzar arrunta, Donostian;
Irailaren, 16, 17, 18an,	Euskal Festen mendeurrena, hileroko batzar arrunta eta erabakitzen diren Jardunaldiak, seguru asko Dialektologiaz, Markina-Xemeinen;
Urriaren 21ean,	hileroko batzar arrunta, Donostian;
Azaroaren 25ean,	hileroko batzar arrunta, Ibagutxi oroituz, Bilbon;
Abenduaren 30ean,	hileroko batzar arrunta, Donostian.

## LAPEYRE-REN “KREDO EDO SINHESTEN DUT”EN AURKEZPENEAN

*Donostia, 1982-X-29*

*Fr. L. Villasante*

Jaun-Andreak:

Lau urte bada Euskaltzaindiak liburu bilduma berri bati hasiera ematea erabaki zuela. Sorta edo bilduma berri honi izen hau jarri zitzaion: “Euskara eta euskal literaturaren Lekukoak”, edo, laburtuz, “Lekukoak” beste gabe. Gure Lekukoen liburu bilduma, alegia.

Zer nahi ote zuen Euskaltzaindiak bilduma hori sortzearekin? Esan beharrik ez dago: Euskararen Lekuko edo testigu horiek gaurko ikasle, irakasle, idazle, euskalari, gramatikolari, hiztegi-gile eta abarren eskuetan jartzea. Edozeinek daki gure idazle, batez ere zaharren, obrak, gehienetan, edizio berri eta gaurkotuen faltaz, ez direla aurki errazak izaten. Eta hortik euskararentzat eta euskal azterketentzat uste den baino galera handiagoak segitzen dira.

Izan ere, euskara sustraitik ezagutu eta menderatzeko, hor dugu, besteak beste, iturririk jatorrena. Baina nola iturritik edan, iturri hori gure esku-menean ez baldin badago?

Orain lau urte sortu zen, bada, “Lekukoak” bilduma. Ordutik hona agertu diren liburuak bost dira. Gaur, hain zuzen, ospatzen dugu bosgarrenaren plazaratzea.

Lehenbizikoa Lizarraga Elkanokoari eskeinia dago, eta Apezetxea jaunak prestatu zuen. Bigarrena, Detxepareri; hirugarrena, Etxeberri Ziburukoari; laugarrena, Mendibururi. Hiru hauek Patxi Altuna neka-ezinak prestatu ditu. Eta orain azaltzen da bosgarrena, Lapeyleri eskainia eta neronek prestatua.

Agian esango duzue guttiegi dela lau urteren buruan bost bakarrik agertzea. Baina kontutan eduki behar da liburu hauek ez dutela, gehienetan behintzat, beren burua ordaintzen, eta orduan, kostuak ordaintzen laguntzeko, Mezenas baten zain egon beharra izaten dela. Adibidez, gaur agertzen den liburu hau bada bi urte prestatu zela, eta esperoan egon behar izan du;

azkenean, Bizkaiko Bankuaren laguntzari esker ateratzen da. Eskerrak ematen dizkiot berari bihotz-bihotzez.

Gero edizio horien prestatzaile edo arduradunak ere aurkitu behar izaten dira, eta hori ere ez da beti erraz, ezen, alde batetik, trebetasuna eta gaitasuna behar da, eta, bestetik, prestaera horrek lan asko eta denbora asko galdegina ohi du.

Nolanahi ere, bost kalean dira jadanik, eta beste hiruzpalau bidetan: Belapeyre, Egiategi, Gazteluzar, Lavieuxville, Mogel...

Poliki-poliki, nik uste, bilduma hau koskortuz eta tarrotuz doan ber, eta bestek egiten dutena ahantzi gabe —Auspoa, Kuliska, Hordago, Jakin, Ikas, Lur, Kriseilu, Gero, Etor, etab.— tresna aski ugariak eta baliotsuak izango ditugu, eta horiek laguntasun ederra emango digute euskara sakonki eta bere osotasunean ezagutu ahal izateko.

Gaur bir-argitaratzen dugun liburua orain 91 urte agertu zen Baionan. Beronen egilea, apaiz lapurtar bat: Estebe Lapeyre. Zergatik hau eta ez beste bat, presiki, galdetzen badidazue, aitor beharra dut arrazoi pertsonalak ere badirela tartean. Egia esan, zor bat banuen autore honekin. Orain dela berrogei urte, Arantzazun teologia ikasten hasi nintzenean, liburu hau etorri zitzaidan eskura, ez dakit orain nola edo zer bidez; hori ez dut gogoan. Eta zinez, maitemindu nintzen berarekin. Hemengo euskal liburuetan ikusten ez nituen bezalako dohain batzuk ikusi uste nuen hor. Aitor beharra dut irakurberria nuela Ibar-en *Genio y Lengua* eta han Lapurdiko literaturaren fabore esaten dena, eta agian horrek bere eragina egingo zuen balantza alde horretara makurtzeko. Bestela, purismoak zabaldutako giro hartan eta orduko aurreiritziekin nekez zen honelako liburuak ezertan edukitzea.

Dena dela eta orduonean liburu honekin topo egin nuen. Enetzat aurkikunde berri bat izan zen. Bazen han zerbait hemengoetan nabari ez zena. Jario gozo bat, naturaltasun eta autoreagandik irakurleagana komunikabide sotil eta egiatzko bat.

Beharbada, gehien erasan ninduen honako hau izan zen. Sarrerako hitzekin esango dut: “Liburu hau irakurtzen duzunean —eta ez da hori beronen alde egin daitekeen goresmenik ttipiena— badirudi, hizkuntzaz ahazturik, gogoaz zuzenean mamira dihoakizula. Eta ez ote da hau hizkuntzaren lehen betekizuna: tresna izatea, alegia, mintzagaiaren zerbitzutan bere burua itzaltzea?”.

Prosa molde aseptiko bat, kolorerik eta zaporerik ez duena —edaten dugun urak ez duen bezalaxe—, prosa standard hori, hain premiazko dugun hori, nola eratzen den erakusten digu, bada, Lapeyrek.

\* \* \*

Euskal literaturan joan mendeko azken urteetan eta gure honen hastapean aro berri bat zabaltzen da: horretan ez da dudarik. Alde askotatik begi-

ratuz, ordea, aro zahar eta berriaren artean etena gertatzen da, haustura. Orain bada, Lapeyre aro zaharreko autorea dugu oraino. Aro zaharreko azken muga kokatua, nahi baduzue, baina aro zaharrekoa dugu.

Mende berriak gauza on asko ekarri dituela bat ere ukatu gabe, hau ere esan behar da, haatik: dena ez zela irabazi hutsa izan, galerak ere egon zirela, eta ez ttipiak. Etendura gertatu zen lehengo tradizioarekin, zenbait gauzatan behintzat. Idazle zahar haiek prosa eratzeko erabiltzen zituzten juntagailu eta baliakizun asko eta asko arinegi txartzat jo ziren, eta horren ondorioz hizkuntza neurri batean ezindua eta elbarri gelditu zen, behar zituen tresnez gabetua.

Gure autoreak, bada, euskal tradizioko katean eratzun bat dugu, eta ez nolazpaitekoa. Tradizio hartan egiten zen bezalako prosa standard horren eredu utzi digu.

Ortografiari bagagozkio, Lapeyrenen liburuak, are bere lehen edizioan, badu berri aire bat, eta ez, noski, Hegoaldeko haizeak zurrupatu zituelako, ez. Iparraldean bertan euskal ortografiaren berriztapena hasia zen hemen baino lehen, eta Lapeyrek bide berri horiek onartuak zituen. Berak darabilen ortografia oso hurbil da Euskaltzaindikotik, baina ez puntu denetan; "x" letra, esate baterako, berak ez du erabiltzen. Guk bigarren edizioan oraingo ortografian ematen dugu liburua. Halaz guztiz, "h" letraren kasuan ez dugu ezer aldatu; Lapeyrenen usarioa errespetatu dugu. Bustidurak, berriz, Lapeyrenen ortografian ez dira gehienetan azaltzen; inoiz edo behin, ordea, bai.

"Lekukoak" bildumarako egin dugun edizio honi Sarrera bat jarri diogu, ez oso luzea, baina bai aski den bezainbestekoa, geure ustez. Bertan berriak ematen dira egileari buruz, eta haren idaztanka eta mintzaira zenbait puntutan aztertzen da, nahiz eta gaingiroki. Baita edizio berriaren erabili diren erzipide eta arauen kontu ere ematen da. Maria Pilar Lasartek eraskin bat jarri dio Sarrerari, Lapeyrenen erakusleak zein diren agertzera emanez. Sarrera hauek, jakina, ez dute autoreak eta haren mintzaira alde guztiz aztertzen edo agortzen. Laguntza bat izan nahi dute, soilki, gero azterketa sakonagorik egin nahi duenarentzat.

Hiztegia ere jarri diogu liburuari. Bertan jasotzen dira egileak erabiltzen dituen hitzak, ahal dela guztiak, ez bakarrik ezezagunak edo guti ezagunak.

Liburuaren muina, berriz, erlijiozkoa da: Kredoaren azalpena. Katekesi saileko liburua da, beraz, baina ez hurren katekesia, presiski; pertsona helduentzat egina izan da. Jakin behar da garai hartan halako mokoka batean zebiltzala Frantziar Estatua eta Eliza. Mokoka horren oihartzun eta ondorioak Euskal Herriarino ere helduak ziren. Gure autoreak uste du fedea begiratzeko beronen ezagupena barnatzea bezalakorik ez dagoela, eta asmo horrekin lanari lotu zen. Hiru liburu egin nahi zituen, baina, heriotzeak galzaririk, bat baizik ez zigun eman.

Heriotze latza izan zuen Lapeyre jaunak. Afal ondoan, beti bezala, bere estudio eta iskribu lanetan gelditu zen. Argi egiteko petrolioeko kriseilua

omen zuen aldamenean. Ez dakigu zuzen zer gertatu zen. Seguru aski, oharkabez, petrolio ontzia lurrera erori, beronen kristala puskatu, sua zabaldu eta sagarrek heldu zioten. Hilik aurkitu zuten gajoa.

Hau da Euskaltzaindiak gaur aurkeztu nahi izan duen autorea eta liburua. Eskerrak eman nahi dizkiegu lana prestatzen lagundu diguten guztiei, eta, aparteko modu batean, Bizkaiko Bankuari, liburua agertzeko diru laguntza eman baitigu.

Señoras, señores:

Celebramos con este acto la aparición del volumen que ostenta el n.º 5 de la colección “Euskara eta euskal literaturaren Lekukoak”, es decir, “Los testigos del euskara y de la literatura euskérica”. Esta colección fue creada por la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia en 1978, o sea, ahora hace cuatro años.

Por qué y para qué la creó no es difícil de adivinar. Es un hecho doloroso, pero cierto, que para el estudio profundizado del vasco tropezamos con un serio obstáculo: la falta o penuria de fuentes y de instrumentos adecuados que estén al alcance del estudioso. La literatura vasca, aun dentro de su volumen modesto, cuenta ciertamente con autores y obras cuyo conocimiento y trato asiduo representa una indudable ayuda; más aún, dicho conocimiento constituye la condición ineludible para cimentar los estudios vascos sobre sus auténticos y genuinos fundamentos. Pero, por lo general, tales obras son de difícil consulta y adquisición, por falta de ediciones actualizadas, puestas al día, acompañadas de las necesarias notas, introducciones, vocabularios, etc.

No es que hasta la fecha no se haya hecho absolutamente nada para remediar esta falta. Por aquí y por allá ha habido iniciativas plausibles, empeñando ya desde Azkue y Urquijo. Tales iniciativas existen también actualmente, y la Academia, por supuesto, las alienta y quiere que prosigan adelante. Pero viendo que la necesidad sigue siendo perentoria y urgente, decidió crear esta colección. En ella irán apareciendo autores de cualquier variedad o dialecto, con tal que bajo algún aspecto reúnan un mínimo de condiciones o valores como para que merezcan figurar en la colección, ya se trate de obras que en su día fueron publicadas o ya se trate de inéditos. En todo caso habrán de ser ediciones puestas al día con las debidas introducciones, vocabularios y demás adminículos que parezcan necesarios u oportunos.

No hay duda que esta iniciativa está llamada a prestar un gran servicio, máxime hoy que en el país se siente y ha calado hondo la preocupación por salvaguardar y capacitar el propio idioma. Es claro que para esta capacita-

ción del idioma una de las condiciones es el conocimiento de nuestras propias fuentes, el contacto y trato asiduo de nuestros viejos autores, asaz desdeñados muchas veces, pero poco o nada conocidos. Dicho trato asiduo es uno de los grandes medios para llegar a la entraña del euskara. Para el dominio de la lengua, para llegar a la constitución de su auténtico Diccionario y Gramática, para la investigación del euskara en profundidad, nos es de todo punto necesario ahondar en nuestros autores, viejos y modernos. Si queremos establecer sobre cimientos sólidos los cánones del "bon usage", del buen uso del idioma, es forzoso basarse en los autores del euskara.

El sacar adelante esta colección exigirá, sin duda, tiempo, dado el ritmo relativamente lento con que se hacen estos trabajos, que son desinteresados y gratuitos, que no cubren los gastos, que exigen constancia, dedicación y preparación en el que toma a su cargo la responsabilidad de la edición. Además suele haber que buscar algún Mecenaz que patrocine cada edición. Así, por ejemplo, el libro cuya presentación hacemos hoy ha podido ver la luz pública gracias a la generosa ayuda del Banco de Vizcaya.

Pese a todas las dificultades, esperamos que con el tiempo se llegue a formar una biblioteca o colección que, o mucho nos equivocamos, o está llamada a prestar un notable servicio a la causa de la lengua vasca y a influir decisivamente en los estudios vascos.

Los cuatro volúmenes aparecidos hasta la fecha son: el 1.º de Joaquín Lizarraga, cura que fue de Elcano, en la cuenca de Pamplona, en la segunda mitad del siglo XVIII y primera del XIX; esta edición fue preparada por el Sr. Apecechea. El 2.º volumen está consagrado al protopoeta vasco Dechepeare. El 3.º al poeta labortano del siglo XVII Joannes Etxeberri de Ciboure. En el 4.º han visto la luz pública inéditos de Mendiburu. Estos tres últimos volúmenes se deben al tesón infatigable del P. Patxi Altuna.

En preparación o en camino hay diversos volúmenes: del suletino Belayre, del también suletino y recién descubierto Josef Eguiateguy, del labortano Gasteluzar, del catecismo también labortano, llamado de Lavieuxville, del catecismo vizcaino, hasta la fecha inédito, de Juan Antonio de Moguel, de Diego Goitia, etc.

\* \* \*

Y paso sin más a ocuparme del libro y del autor que motiva este acto: *Kredo edo Sinhesten dut esplikatua*, de Etienne Lapeyre. Obra que en su edición original tiene 438 páginas y apareció en Bayona en 1891, o sea, ahora hace 91 años.

¿Por qué escogí este autor para traerlo a la colección *Lekukoak*? No voy a negar que en esta elección jugaron su papel motivos personales, y un tanto subjetivos, que creo merecerán vuestra venia y disculpa.

Cuando en 1942-1943 iniciaba yo el estudio del primer curso de Teología en Aránzazu cayó en mis manos este libro. No recuerdo bien cómo ni por

qué circunstancias. Yo entonces no sabía absolutamente nada acerca de este autor ni de juicios que se hubieran emitido sobre su libro. La verdad es que la lectura de aquel libro constituyó para mí un descubrimiento y una gran sorpresa. Hallé en él unas dotes y unos valores que no estaba acostumbrado a ver en los libros vascos que por aquí se estilaban.

El principal valor, a mi entender, era que sabía conducir al lector a interesarse inmediatamente por el contenido y a sumergirse en él, sin pararse en la lengua, y esto a pesar de que estaba escrito en un dialecto muy distinto del mío nativo. Lapeyre tenía la primera condición requerida en un autor: saber llevar al lector a interesarse directa e inmediatamente por el tema, olvidándose de todo lo que es un mero intermediario, ya sea la lengua, ya sea el propio autor. ¿Y no es ésta acaso la primera y fundamental misión de la lengua, o sea, servir de vehículo? Como las gafas, que sirven para que por ellas veamos las cosas sin ser ellas mismas vistas.

Era, en fin, un libro claro, sólido, que habla al lector, a su inteligencia y corazón, que emplea una lengua cotidiana, nada amanerada, muy en contraste con la lengua afectada, rebuscada y de moldes rígidos que se estilaba entre nosotros.

En realidad, el libro de Lapeyre se halla cronológicamente situado en un momento límite, por así decir. Es de los últimos testigos de la época que podríamos llamar antigua en nuestra literatura. Cualquiera que conozca un poco la historia de esta literatura sabe perfectamente que a fines del siglo XIX y principios del XX se produce en ella una especie de ruptura con la tradición.

Digámoslo paladinamente: se produce un cambio brusco y drástico. Un purismo exacerbado se apodera de las mentes. Se desvaloriza lo anterior, so pretexto de que está contaminado, se pretende escribir según patrones de una lengua que se juzga químicamente pura, por muy alejada que esté de la real.

No quiero con esto negar las aportaciones positivas del nuevo movimiento, impulsado sobre todo por Arana y Azkue, que, aunque adversarios entre sí, defendían puntos de vista, que, al menos hoy, al cabo de los años, se nos antojan bastante parecidos. Que el nuevo movimiento aportó una fuerza considerable para la vitalización de la lengua es innegable; sobre todo aportó una conciencia del valor de la propia lengua, de la necesidad de su dignificación, etc., y es claro que sin esto poco se puede hacer por ella.

Lo que quiero decir —y no quería que se me interprete mal— es que no todo fue ganar en aquella reacción, exagerada, como suelen ser todas las reacciones.

Por citar un ejemplo, aquellos viejos autores nos dejaron la prosa hecha con todos los útiles necesarios para la subordinación, coordinación, etc. El descalificar y echar por la ventana todo este patrimonio heredado y conceptuarlo desprovisto de valor, equivalía a dejar la lengua en un cierto estado de



desvalimiento y penuria de recursos de expresión, incluso para lo hablado, y mucho más aún para lo escrito y para ese tipo de prosa standard, de que tanta necesidad tenemos. Poco a poco hemos tenido que ir redescubriendo de nuevo nuestra propia tradición y tratando de empalmar con ella.

Ahora bien, Lapeyre es un anillo de esta tradición. Nuestro autor es un prosista. Nos ofrece un modelo de prosa standard, de esa prosa de la que tan necesitados estamos. Está lleno de construcciones sintácticas que han sido descalificadas por los gramáticos puristas, pero, sin querer justificarle en todo, yo creo que es necesario revisar muchos de estos juicios.

Hay un punto en que Lapeyre se nos presenta como bastante moderno: es en la ortografía, y lo digo, naturalmente, refiriéndome a la edición de 1891. Con frecuencia se olvida o desconoce que la renovación ortográfica se adelantó en el país vasco-francés. Lapeyre es un ejemplo claro de ello, y no el único. Lo cual no quiere decir que coincida en todo con las ortografía académica actual. Así, por ejemplo, no se sirve de la "x" sino de la "ch", que en nuestro autor tiene el mismo valor que la "ch" francesa. En su ortografía Lapeyre prescinde también de los sonidos palatales, aunque no siempre.

En nuestra edición hemos adoptado la ortografía académica vigente, que en gran medida es la que usaba ya Lapeyre. En el punto concreto de la "H" hemos respetado escrupulosamente al autor, conservando todas y solas las que él usó.

\* \* \*

Al frente de la nueva edición figura una Introducción, no muy larga, pero sí suficientemente amplia, con datos sobre el autor y la obra y particularidades sobre el dialecto y el lenguaje empleado, advertencias sobre el criterio que se ha seguido al actualizar la edición, lecturas dudosas, bibliografía, etc. La señorita M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte ha completado la introducción con un apéndice sobre los demostrativos que aparecen en nuestro autor. Estas introducciones no pretenden ser un estudio exhaustivo. Su finalidad es más bien propedéutica, o sea, introducir, iniciar al que quiera hacer ulteriores y más profundas investigaciones.

Al final del libro se ha puesto también un vocabulario, que trata de recoger el léxico empleado por el autor. Naturalmente, se busca que este vocabulario sea espejo fiel del léxico real que utiliza Lapeyre; por eso no podíamos limitarnos a registrar tan sólo las palabras que puedan ser menos conocidas, raras, puras, etc., sino todas las que el autor emplea. Pero como la recogida no ha sido demasiado sistemática, puede ser que se nos hayan escapado algunas. Por otra parte, no parece que el autor tuviera en esta materia de palabras manía, tabú o complejo alguno: él se servía con naturalidad de las palabras usuales en el medio euskaldun para el que escribía, sin ulteriores averiguaciones ni pretensiones etimologistas, que es como en fin de cuentas procede todo escritor.

*El contenido.*—La obra que publicamos es una exposición del Credo, un tanto extensa, con comentarios, reflexiones, pruebas, aplicaciones morales, etc. Algo así como una catequesis familiar, pues el autor confiesa que el libro está escrito para ser leído en el seno de las familias. Parece que Lapeyre pensaba en una trilogía, o sea, tenía el propósito de componer otros dos volúmenes: uno sobre los Sacramentos y otro sobre los Mandamientos, pero su inesperada y prematura muerte le impidió realizar el plan. En el libro que publicamos hasta por dos veces expresa su propósito de publicar otro libro sobre los Sacramentos.

Pero no se crea que la exposición de Lapeyre es algo así como una catequesis infantil. No. Ni es infantil, ni alcanza tampoco un nivel científico, técnico o teológico. Es una catequesis, diríamos, para adultos creyentes, que tiene en cuenta las dificultades y problemas entre los que éstos se debaten. El autor tiene en todo momento presente el público real para el que ha compuesto su libro, los vascos de su tiempo, creyentes, sí, pero que empezaban a estar turbados en su fe debido a los vientos que soplaban.

Como es sabido, durante la 3.<sup>a</sup> República hubo en Francia enfrentamiento entre la Iglesia y el Estado, que llevaría a la ruptura de relaciones, a la laicización de la enseñanza, expulsión de las Ordenes Religiosas, etc. En el libro se habla repetidas veces de los malos periódicos —*gazeta tzarrak*— que hacen burla de la religión y comienzan a tener adeptos aun en el País Vasco. Lapeyre estima que en estas circunstancias la ignorancia religiosa es el mayor mal, así como el poseer un conocimiento profundizado de la propia fe es el mejor antídoto. Y con este fin se ha propuesto escribir, o sea, con el designio de fortalecer por dentro la fe de su pueblo, que empieza a verse acosada.

*El autor.*—Sobre el autor no es que tengamos demasiados datos. Nace en 1840 en Ascain (Lapurdi). Hace la carrera sacerdotal ordinaria en Larresore y Bayona. Se ordena en 1863. Primeramente fue coadjutor en Ustaritz, luego profesor de Filosofía en el colegio San Luis Gonzaga de Bayona. Conviene subrayar este dato, pues efectivamente Lapeyre en su libro manifiesta una cierta afición o tendencia a las disquisiciones filosóficas. Después es nombrado párroco de Bidart, pueblo de la costa labortana. Finalmente, recibe el cargo de capellán del Asilo de Ancianos de Camp de Prat en Bayona con el título de canónigo honorario y es nombrado además director de las conferencias eclesíásticas de toda la diócesis. De aquí cabe deducir que en el Obispado pasaba por ser un sacerdote relevante por sus dotes culturales.

Su muerte fue trágica. El 23 de marzo de 1893, después de cenar, se puso, como de costumbre, a escribir y estudiar; tal vez a preparar su sermón para la fiesta del 25 de marzo, que parece tenía encargado. Por toda iluminación se servía de un candil o lámpara de petróleo. No sabemos a ciencia cierta lo que le pasó, pero parece que por algún descuido, quizá al querer coger del estante de su librería algún libro, se le cayó el candil, se rompió el cristal y se esparció el petróleo ardiendo, que le alcanzó.

La criada, que había ido a dormir, se despertó hacia las once y media por causa del humo. Al abrir la puerta y ver los corredores llenos de humo empezó a gritar pidiendo socorro. Acudieron algunos hombres y se encontraron con el espectáculo macabro. Lapeyre yacía muerto en el suelo con graves quemaduras.

El semanario vasco *Eskualduna* comentaba pocos días después el suceso en estos términos: "Esta muerte lamentable es un duelo cruel para la diócesis, a la que el Sr. Lapeyre honraba con su saber y con su gran inteligencia, y para el hospicio donde se había granjeado el cariño de los niños y de los ancianos; para el partido conservador del País Vasco, del que este sacerdote eminente era uno de los defensores más enérgicos y más acendrados".

El boletín diocesano decía a su vez: "El Sr. Lapeyre hablaba y escribía el vasco con una rara perfección. Había emprendido una Exposición de la doctrina cristiana, de la que sólo ha aparecido el primer volumen".

Lapeyre murió dos años después de haber publicado su libro, y sin haber cumplido los 53 de edad.

Señores, ésta es la obra y éste el autor que hoy tenemos el gusto de presentar al público. Damos las gracias a cuantos nos han ayudado en la preparación de la edición y al Banco de Vizcaya, que, con su ayuda, la ha hecho posible.



# **HILBERRIAK**



## AITA PLAZIDO MUXIKA (1906-1982)

Lehengo Abuztuaren 27an hil zitzaigun, Loiolan, 76 urte zituelarik, Aita Plazido Muxika. (Hala izenpetu zuen behin Loiolan jesuita gazte zelarik egin zuen latinezko olerkia: F(rater) Placidus de Muxika S. J.). Hil zen egun berean betetzen ziren 47 urte Holandako herrixka batean, Valkenburg deritzanean, apaiz egin zela. Hil aurreko azken egunetan eskuartean eta hiltzeko unean bular gainean eduki zuen Santa Krutz apaizari 84 urte zituelarik Lagundian lehen zinitzak egin zituen egunean eman zioten gurutze bera. Oso maiteak zituen hala Santa Krutz apaiza nola haren gurutzea.

Urrietako Oria auzoan sortu zen Aita Muxika 1906an, eta gurasoak, Alzara bizitzera aldatu, 1917an. Bi urte geroago, hamairu zituelarik, Andoaingo apezgaien etxean hasi zen gramatika eta gainerakoak ikasten. Hiru urteren buruan, ordea, Loiolan gogojardunak egin eta jesuita izatea erabaki zuen. 1922.eko Uztailaren 24ean sartu zen jesuita, Loiolan.



Aita Plazido Muxika  
(1906-1982)

Han zeuden orduko eta han ezagutu zituen lehen aldiz gero euskal alorreko lanetan kide izango zituen Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxeta beste gehiagoren artean: aurrena hamazortzi hilabete lehenago eta beste biak urtebete lehenago Loiolara joanak. Nobizio-kide izan ziren laurak, beraz. Aita Muxika oraindik nobizio eta beste hirurak zinitzak egin ondoren, Humanitateak ikasten hasiberriak zirelarik, Nafarroako Xabierren atera zen Lagunditik Orixe 1923.eko Irailaren 29an. Bai ote zekiten artean Orixe, hobeki esan, anai Ormaetxea, nor zenik ere?

Haiek baino urte batzuk lehenago Lagundian sartutako jesuita euskalzaleek bai bazuten orduko Orixeren aditzea. 1920.eko udazkenean, izan ere, Orixe Oñara teologia ikastera iritsi berria zelarik, sortu zen lehen aldiz hango teologia ikasleentzat Euskal Akademia, Aita Matias Ibinagabeitia, Andimaren osaba, Erretore zelarik, eta Orixe izan zen, hain zuzen, Akademia haren lehen zuzendaria. Loiolan Aita Muxika eta beste hiru gazteak oso gordin eta heze zeuden artean, ordea, euskal zaletasunean, Ibinagabeitia bakarra salbuesten dugularik, eta Loiolako Junioradoan ere beste Euskal Akademia, Oñakoaren gisara, 1922an sortu zen arren, artean gure lau gazte haiek nobizio ziren eta jakin ere ez zuten egin, agian. Bai, ordea, aurki Akademia haren lehen fruituak nabaritzen hasi: 1923.eko Urriaren 30an entzun ahal izan bait zuten, bazkaltzen ari zirela, jantokiko pulpitotik lehen aldiz leku hartan euskal predikua, beraien junior-kide zen anai Patxi Korta azpeitiarrak egina.

Fruitu hoberik ere, predikuak baino literatur kutsu handiagokorik, hasi zen asko luzatu gabe Akademia hartan heltzen. Urte bereko Abenduaren 8an, Ama Birjina Sortzez Garbiari junior gazteek eskaini zioten jaialdi literarioan, Ibinagabeitiak bere lehen olerkia irakurri zuen euskaraz, "Lore ederrenak" zeritzana, eta Lauaxetak ere bai beste bat, euskaraz ala gazteleraz ala latinez ez dakigu, baina ia ziur euskaraz ez, "Ave Maris Stella" titulua zuena. Bai eta ondoko artean Maiatzaren azken eguneko ospakizunean ere entzun zuten beste olerki bat euskaraz, "Arantzazuko Amari" izenburua zuena, anai Zubiagak (bizi da oraindik) beste lauren ikaskideak euskaraz egina, eta beste gehiagoren artean Zaitegik "A la victoria de Loyola" zeritzana gazteleraz ondua.

\* \* \*

Ez naiz puntu honetan luzatuko, ez bait da hau lekua ez aldia gure gazte haiek Loiolan egin zuten euskaraz mintzatzeko; bai, ordea, goraki baieztatuko gauza asko, oso asko, dagoela lanaz, bizi zuten euskal giroaz eta ikasi eta landu zuten oraindik garai eta giro harraz kontatzeko. Esantxoak esan ditut jakin dezazuen non eta nola edoski zuten Aita Muxikak eta beste lagunek euskal zaletasuna, non eta nola gaitu ziren gero bizitzan zehar ondu zituzten euskal lanak burutan ateratzeko. Jesuita gazteen hezkuntza etxeetan inoiz arnastu eta bizitu den euskal girorik joriena eta goriena aita Muxikaren eta beste hiruren urte haiek eta gerra arterainoko gainerako jesuita gazteen hamalau urteak izan ziren. Lagundiko euskal Urre-aroa izenda genezake hura. Han Loiolan bizi ziren orduan gazte haien euskal gogoen piztaile suhartsu, eta batzuk irakasle ere, ziren Aita Estefania, Aita Apalategi, Aita Olabide, Aita Zugazaga, Aita Areitio, Aita Goikoetxea Juan Jose, euskal kultur munduan nor gehixeago nor gutxixeago lan eginak. Han bizi ere gure lau gazteen kide ziren eta haiek bezelaxe Euskal Akademiara asteoro joan eta hitz lauz nahiz landuz euskara menderatzen elkarren lehian aritzen ziren lagunok, zuentzat beste lau horien izenak bezain ezagunak ez diren arren: Korta bi anaiak, Argarate, Zubiaga, Gaztelumendi, Sarobe, Arrieta, Martikorena, Arregi, Kortazar, Larrañaga, Aginagalde, Goenaga, Sagastume, Dorransoro, Elustondo, Zabaleta, Odriozola, Zaldúa... Eta ohar zaitezte ia aipatu guztiok bi edo gehienez hiru kurtsotako lagunak eta kideak baizik ez zirela, ondoko beste hamabi urtetakoak isilik uzten ditudalarik. Horietako batzuen euskal lanak ezagutzen dituzue: Iñaki Goenagak euskaratu zuen *Wilhelm Tell* (Gillermo Tell), esate baterako, bat bakarra aipatzearren.

\* \* \*

Giro horretan eman zituen Aita Muxikak, Loiolan, Nobiziadu ondoko bi urte Retorika ikasten. Gero, Oñan egin zituen beste hirurak, ez ziren izan okerragoak eus-



kal giroari gagozkiola. Loiolan oraindik euskal zaletasunean epeltxo eta euskararen menderatasunean gordintxo zirenak ere, Oñara iritsi zireneko bere buruak euskaraz jantziago eta aldameneko lagun erdaldunekiko eta agintari edo nagusi ez hain euskararen aldekoekiko lotsa eta beldurra galduago bait zuten, agi danean. Loiolako urteetan latinez eta gazteleraz, batez ere, eta Oñakoetan euskaraz ere maizago egin zituzten olerkietatik ale bakar batzuk gorde zaizkigu beharrik; beste asko galdu eta Akademietan irakurri zituztenen titulu soilak gelditu.

1929an Filosofia bukatu eta Kolonbiako Pasto-ra bidali zuten Aita Muxika agintariek "maisualdia" zeritzan hiru urtetako txanda burutzera. Berekin zeraman Alfonso XIIIgarrenak Santa Krutz apaizari opari gisa eman zion turuta. Garai hartakoa da berak hainbeste bider kontatu ohi zuen pasadizu hura: 3000 metro gorako mendietan zehar zihoalarik, arkaitz baten ondoan *Argia* albistariaren zati bat topatu zuen, Santa Krutz apaizak utzia edo, han ibiltzen omen bait zen zaldiz, eta hantxe hartu gure Aita Muxikak inoiz Euskalerrira itzultzean hiztegi handi bat prestatzeko erabaki sendoa.

\* \* \*

Kolonbiatik itzuli eta Teolojia bi lehen urteak Belgikako Marneffen ikasi zituen, orduko Espainiatik jaurtiak bait ziren jesuitak; beste biak, aldiz, Holandako Valkenburg-en, hirugarrena amaitzean, han bertan apaiz eginik 1935ean. Han eza-gutu zuen eta bi urtez ikaskide izan anai Svenson islandarra, *Nonni und Manni* eleberraren egilea, eta honek eskatu omen zion Loiolako Inazio eta Xabierko Frantziskoren hizkuntzara itzul zezan, beste berrogeitamar baino hizkuntza gehiagotara egin zegoen bezalaxe, bere eleberria.

1936an, Espainiako gerratea hasi eta berehala, Belgikako Tronchiennes-a igorri zuten agintariek "Hirugarren Probantza" deritzagun urtea betetzera, gero Lagundiko Aita Generala izango zen Aita Janssens-en gidaritzapean.

Hamabost urtetako ikaskuntzak amaituak eta hogeitamaika urte beteak zituelarik, Xabierren mutikoen irakasle izatera joateko agindu zioten agintariek. Ez dut zer kontu zehazkiro Aita Muxika ondoko urteetan zein etxetan bizi zen eta etxe bakoitzean zein eginbide izan zituen. Aski da laburkiro esatea, Xabiertik 1941ean ateratzen eta Loiolan, Deustuan, Oñan, berriz Loiolan, Beruelan eta azkenik, berriro, Loiolan bizi zela hil den arterainoko azken emerretzi urteetan. Eta bizileku guzti horietan bere gain zeuzkan eginbideei nagokiela, diodan latin eta griego hizkuntzen irakasle izan zela lehen urteetan eta gero arakatu zituen ia etxe guztietan liburuzaina, artxibaria, fitxen eragile eta are egilea, gerratean galdu eta ondatu egin bait ziren etxe askotako liburutegien fitxak; eta batikpat euskal liburuaren egile, itzultzaile eta etengabeko langile. Hiztegiarekin batez ere, dakizuen bezala, Kolonbian bere buruari eman zion hitza osatuz.

\* \* \*

Natorren, bada, ondu zituen euskal lanen aipamenera, Xabierren, 1940an, prestatu eta zazpi argitaralditan saldu zituen 50.000 aletako latinezko hiztegia; 1941ean, Loiolan, Aita Rufo Mendizabal, Menendez Pidalen ikasle bizkorra, filologo klasikoa, ontzen ari zen griegozko hiztegiaren hartu zuen partea, eta Oñan, Aita Suarez teologoaren obra guztien argitaraldian ere laguntzaile izan zela alde batera uzten ditudala. Hantxe bertan, Oñan alegia, 1944an beste etxekolagunek bazkalondoko lokuluxka eta arratseko afaria egiten zuten orduetan, hasi zitzaigun Aita Muxika euskal hiztegi-

rako gaiak biltzen eta fitxak egiten. 195 lean eman zuen argitara lehen aldiz *Noni eta Mani* eleberria; geroago, beste argitaraldi gehiago ere izan zuen eta guztitara 6.000 ale saldu. Beruelan, 1958an, beste eginbide guztiak, gazteei eskola batzuk ematea izan ezik, utzerazi zizkieten agintariek, euskal hiztegiari ekin zekion beste egitekorik gabe. 1963an, Loiolan finkatu zen betiko eta, 1965ean eman zuen azkenik argitara bere gaztelera-euskarazko hiztegi mardula. Hiru argitaraldi izan zituen urte gutxitan eta guztitara 17.000 ale saldu. Urte haietakoak dira *Gipuzkoako aditz laguntzailea* eta *Euskal izkiak* ere, hamaikana mila aletakoak. 1969an alemanetik itzulitako beste eleberri bat, *Mendiko argia*, eman zuen argitara.

\* \* \*

Hiztegiak izan zuen arrakasta ikusirik eta hura bera atzekoz aurrera, hots euskara-gaztelarara iraulirik, ematen ez bazuen motz geldituko zela oharturik, ahale-ginean hasi zen bere baitan zituen milaka fitxak alderantziz ipintzen. Nekegabeko langile, aste eta jaiegun inoiz oporrik hartu gabe, egunoro ordu pilo lanean ari ohi zen xinaurri maratza zen Aita Muxika. Haren gelako atean ez zen izenik ere ageri, kanpotik Loiolaratzen ziren jesuita arrotzek barnean nor bizi zen jakin ez zezaten eta denbora pasako berriketara han sartzeko tentaldian eror ez zitezen. Izenaren ordezkartoe bat zeukan atean ezarria, "Ocupado-Lanpetua" zioena. Loiolako azken heme-retzi urteetan eraman zuen egunoroko bizitzaren ordu partiketak erakusten digunez, hamaika ordu sartzen zituen egunoro hiztegi lanean. Hala ahal izan zuen hamabost urteren buruan bigarren hiztegia, euskara-gaztelarazkoa, burutu eta argitara eman. Eta lan guzti hori berak bakarrik, inoren inolako laguntzarik gabe egin zuen. Lehen alea hartu zuenean antzineko beste zahar batek bezala "Nunc dimittis" errezatu zuela uste dut.

\* \* \*

Aurtengo Uztailaren 24ean, Lagundian sartu zeneko urre eztaiak ospatzen zituela eta, horregatik eta hiztegi argitara berriagatik zorionak emanez idatzi zion lagun bati erantzutean egin zizkion hitzez amaituko dut. Honela ziotsan Aita Muxikak:

"Bakarrik eta laguntza gabe honen hiztegi harrigarria egin ahal izan dudalako txunditurik zegoen bati erantzun nion, siniste osoz eta iraupenez lan egin dudala: halako hiztegia burutan atera nezakeelako sinistez eta neurrigabeko iraupenez. Baina hauxe erantsi nion: nik halako hiztegia menderatu ahal izan baldin badut, hiztegiak bere adetik ni ere menderatu nau".

Bego goian hainbeste lanen atsedean hartzen Aita Muxika.

*Patxi Altuna S. J.*

## EUSKERA, XXVII (1982)-2

### ZUZENKIZUNAK - FE DE ERRATAS

Orr. - Pág.	Dio - Dice	Esan behar du - Debe decir
• 466	Segur aski <i>P. Abarca</i> -z ari delarik.	Ez da <i>P. Abarca</i> -z ari, euskal etimologiez egiten ari zen lanaz baizik. Gainera, gutunaren data (30-III-1982) okerdago, 24-V-1802 da.
• 467	<i>P. Abarca</i> -ko elkarizketez ari da, ia segur	
• 479	“Maitetzen badituguz...”	Bertso hori ez da, zihur aski, Bizenterena, honen neba Juan Joserena baizik. J. A. Uriarteren <i>Poesia Bascongada</i> bilduman dator, 123.orri. <i>Cristiñau baten lanac</i> (J. J. M.) izenburupean (Arantzazuko artxiboa).
• 517	Departamento de Estudios.	Departamento de Estudios Hispánicos.
• 518	Paṭrik Urkizu	Patri Urkizu.
• 530-531		La primera observación que aparece en la columna de las formas NOR en la página 530 y la que vemos en la página 531 en el mismo lugar, deberían figurar en la casilla de los morfemas NORK, siendo que se trata de formas irregulares NOR-NORK.
• 531		Junto a las formas ZATZAKI-, ZATZAKIZKI- aparecen sendos asteriscos, pero falta la observación sobre la

**Orr. - Pág. Dio - Dice**

**Esan behar du - Debe decir**  
 existencia de variantes ZA-  
 KIZKI-, ZAKIZKI...TE.  
 En las casillas correspondien-  
 tes a los morfemas NOR-  
 NORI, NOR-NORK, NOR-  
 NORI-NORK debería figu-  
 rar: 5a-zu; 5b-zue.  
 En la casilla 5a de las formas  
 NOR-NORK sobre la A-.

• 725      1923

1922.

## AURKIBIDEA

### A. SEBASTIAN MENDIBURUREN II. MENDEURRENA

<i>Iñaki Irigoien</i> : SEBASTIAN MENDIBURUREN II. MENDEURRENA ....	7
<i>Fr. Luis Villasante</i> : AITA MENDIBURUREN II. MENDEURRENA .....	9
<i>Manuel Lekuona</i> : SEBASTIAN MENDIBURUREN LENENGO LIBURUA IRAKURTZEN .....	11
<i>K. Mitxelena</i> : MENDIBURU ETA LARRAMENDI .....	19
<i>Patxi Altuna</i> : MENDIBURUREN IDAZLAN ARGITARAGABEAK .....	25

### PEDRO IGNAZIO BARRUTIAREN II. MENDEURRENA

<i>Jexus Zabala</i> : ARAMAIOKO ALKATE JAUNAREN SARRERA HITZAK .....	33
<i>Fr. Luis Villasante</i> : PEDRO IGNAZIO BARRUTIA ETA BASAGOITIA-REN 3. MENDEURRENA .....	35
<i>Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal</i> : PEDRO IGNAZIO BARRUTIA ARAMAIOKO ANTZERKILARIA .....	37
<i>Endrike Knörr</i> : P. I. BARRUTIAREN III. MENDEURRENA .....	47
<i>Emilio Gevara</i> : ARABA ETA EUSKARA .....	49

### EUSKAL FESTEN MENDEURRENA

<i>Fr. L. Villasante</i> : EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA SORTZEAN .....	53
<i>Jose Antonio Arana Martija</i> : BILBOKO EUSKAL JAIEN MENDEURRENA .....	55
<i>Alfonso Irigoien</i> : BILBO EUSKAL ARLOAN ERAGILE .....	59

### GAI LABURRAK

<i>Károly Morvay</i> : OBSERVACIONES SOBRE LA FLEXION NOMINAL VASCA .....	65
— Observaciones sobre los casos no locativos .....	67
— Observaciones sobre los casos locativos .....	69
— Casos no locativos .....	71

– Casos locativos .....	71
– Casos no locativos .....	73
– Casos locativos .....	73
– Paradigmas declinacionales .....	75
La declinación de los nombres propios .....	75
La declinación de los nombres comunes .....	76
<i>Fr. Luis Villasante: “TORIBIO ALZAGA ETA FELIPE ARRESE BELTIA SARIAK” BANATZEAN</i> .....	81
I. Euskaltzaindia zer den eta nola sortu zen .....	81
II. Geroagoko aldakuntzak .....	84
III. Euskaltzaindiaren lanak .....	85
IV. Batzordeak .....	88
V. Asmoak .....	89
VI. Purismoa .....	90
VII. Euskara batua eta euskalkiak .....	91

### EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BIZKAIKO ADITZAREN ERABILERAZ OHARRAK .....	97
<i>Koldo Miñelena: HITZ MAILEBATUEZ</i> .....	103

### Zenbait herri-izenei buruzko diktamenak

OTXANDIO .....	109
GORDOXOLA .....	111
<i>Alfonso Irigoyen: ERDARAZ EGUN GORDEJUELA DERITZAN UDALAREN IZEN FORMA ZAHARRAZ</i> .....	113
SOBRE LA ANTIGUA FORMA DE LO QUE HOY EN CASTELLANO SE LLAMA <i>GORDEJUELA</i> .....	117
HIRUERRIETA .....	121
ARRASATE-MONDRAGOE .....	123
BILBO .....	125
<i>Alfonso Irigoyen: ERDARAZ SAN JULIAN DE MUSQUES DERITZAN UDALEKO AZKEN ELEMENTUAREN FORMA ZAHARRAZ</i> .....	131
<i>Alfonso Irigoyen: SOBRE EL ULTIMO ELEMENTO DEL NOMBRE DEL MUNICIPIO QUE EN CASTELLANO SE LLAMA SAN JULIAN DE MUSQUES</i> .....	133
VITORIA-GASTEIZ .....	135
EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA “Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra” .....	137
DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA sobre “Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra” .....	139

## EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

### BATZAR TXOSTENAK

#### Literatur Saila

<i>Bittor Kapanaga</i> : TESTU ZAHAR BATEN BITXITASUNAK .....	159
---	-----

#### Gramatika Saila

<i>Luis Mari Mujika</i> : EUSKARARA IRITSITAKO HITZ ERROMANI-KOEN BOKALISMOA .....	171
– A) Aurretikoak .....	171
1. Bokalismo klasikora erreferentziak .....	177
2. Kontsonante batzuren eragina bokalismoan .....	196
3. Diptongapena .....	201
4. Beste ondoriak .....	202
5. Bokale doinugabeak .....	203
6. Hiatoak .....	213
7. Disimilapen eta asimilapen erromandikoak. Metatesia .....	214
8. Dardarkariaren muturreko bokale protetikoa .....	215
9. Haserako s urkariaren aurreko protesia .....	218
<i>Jose Maria Larrarte</i> : IZEN SINTAGMA MUGAGABEA TARTASen “ONTSA HILTZEKO BIDEA”-n .....	221
1. Izen multzoa + $-\emptyset$ / adjetiboa (atributoa) + $\emptyset$ .....	222
1.1. Kasu nominatiboan .....	226
1.2. Kasu partitiboan .....	226
1.3. Ergatiboan .....	227
1.4. Genitibo edutezkoan .....	227
1.5. Datiboan .....	228
1.6. Kasu instrumentalean .....	228
1.7. Kasu inesiboan .....	228
2. Izen multzoa + zenbatzaile zehaztua .....	229
3. Zenbaki zehaztua + izen multzoa .....	231
4. Galdetzailea + izen multzoa .....	233
5. Izen multzoa + zenbatzaile zehaztugabea .....	234
6. Zenbatzaile zehaztugabea + izen multzoa .....	236
7. Izenordainak .....	239

#### Dialektologi Saila

<i>Koldo Mitxelena</i> : EUSKALKIEN AGERIKO AURPEGIA .....	245
<i>Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria</i> : GIZA GORPUTZARI BURUZKO INKESTA .....	253

CUESTIONARIO LEXICO .....	257
– Tema: El cuerpo humano y la enfermedad .....	257
El ojo, la vista .....	257
La boca .....	257
La cabeza (salvo boca y ojo) .....	258
Cuello y tronco .....	258
La piel .....	259
Extremidades .....	259
Enfermedades .....	260
EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1982 .....	261
– Lehen fasea (Maiatza-Ekaina) .....	261
– Bigarren fasea (Azaroa-Abendua) .....	263
<i>Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi</i> : TXEKOSLOBAKIAKO ITZULIAREN BERRI ETA ONDOREAK .....	269
<i>Xabier Kintana</i> : EUSKARA MERKATALGOAN INDARZEKO ASMOZ ..	277
<i>Patxi Altuna</i> : EUSKAL BILTZARREA FRESNON (Kalifornian) .....	279
<i>J. M. Satrustegi</i> : JUAN PABLO II AITA SANTUAREKIN .....	281
<i>Jose Luis Lizundia</i> : 1983. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BA- TZAR EGUTEGIA .....	283
<i>Fr. L. Villasante</i> : LAPEYRE-REN “KREDO EDO SINHESTEN DUT”EN AURKEZPENEAN .....	285

#### HILBERRIAK

AITA PLAZIDO MUXIKA (1906-1982) .....	297
EUSKERA, XXVII (1982)-2. Zuzenkizunak-Fe de erratas .....	301









